


AITA ONAINDIA




DONIBANE GURUTZ, OLERKARI

Oi maite-sugar bizi,
Zauritzen nozu eder,
Arima erdi-erdi;
orain etzara muker!

Oi erre-aldi mea!
Oi zauri atsegiña!
Esku-gain leun emea!
Ikutu guri fiña!



AITA ONAINDIA



**DONIBANE GURUTZ,
OLERKARI**

LARREA, 1990

ESEKER ONEZ

Neure euskaldun guraso zintzoai,
ikasle nintzala jainkozko ta kultur-
bide zear ni zuzentzen alegindu
ziranai; leen eta orain, itzez, arna-
saz eta diruz laguntza emon daus-
ten guztiai, esker onaren beroz.

Bear diran baimenakaz

Depósito legal: BI - 2.271 - 90

I.S.B.N.: 84-404-7.796-1

Graf. IGARRI, S.C.L. - Rafaela Ibarra, 1 - 48014 Bilbao

BIZITZ-IZPIAK

*Jai*o: Fontiveros'en dator mundura, Avila'ko probintzian; bere gurasoak: Gontzalo Yepes eta Katalina Alvarez.

1548: Arevalo'ra doa bizi izaten.

1551: Medina del Campo'ra aldatzen da.

1559-63: Medina'ko jesuitetan ikasten dau.

1563: Karmeldar abitua jazten dau Medina del Campo'n, Juan San Matias izenarekin.

1564-68: Profesa egin ondoren, Salamanka'n ikasten dau Unibersitatean eta Ander deunaren ikastetxean.

1567: Eleiz-gizon egiten da, Medina'n esanik bere lelengo Meza.

1567: Iraillean, Teresa Deunagaz lenengo alkar aurkitzea; karmeldar prailleen artean be barrizatzea egin bear da.

1568-11-28: Duruelo'n asten da barrizatzea.

1568-71: Asi-barrien Maisu Duruelo'n, Manzera'n eta Pastrana'n.

1569: Pastrana'ko konbentuan laztasun geiegi; ara doa Juan Yepes gauzak pizkat arintzera.

1570: Duruela'tik Manzerra'ra aldaketa.

1571: Jorraillean, Alkala'ko Ikastetxeko Zuzendari izentatzen dabe.

1572-77: Avila'n, Ordezkarri ta Enkarnaziñoko lekaimen autorle.

1577: Toledo'ko espetxera daroe; antxe dago 1578'ko abuztuaren 15'rarte.

1578: Urrillean, Calvario (Jaen)'ko Nagusi.

- 1579: Baeza 'ko Ikastetxeko Zuzendari.
- 1581: Epaila, Alkala'ko Batzarrean Irugarren Aolkulari izentatzen dabe, eta Granada'ko Probintzial eta Nagusi.
- 1583: Maiatza, barriri aukeratzen dabe Granada'ko Nagusi.
- 1585: Maiatz. Lisboa'n Bigarren Aolkulari aukeratzen dabe, eta urrillean, Andaluzia'ko Probintzialaren Ordezkari.
- 1586: Cordoba'n, Machuela'n (Jaen) eta Caravaca 'n (Murcia) lekai-deen komentuak jarten ditu.
- 1587: Valladolid'eko Batzarrean irugarrenez aukeratzen dabe Granada'ko Nagusi.
- 1588: Begilla. Madrid'en ospaturiko Lenengo Batzar Orokorrean, Lenengo Aolkulari Orokor, Segovia'ko Nagusi ta Kontsultako Irugarren Aolkulari izentatzen dabe.
- 1591: Bagilla. Madrid'en ospatzen dan Batzar Orokorrera doa, eta ezetariko kargu barik izten dabe.
- 1591 -12-14: Ubeda'n (Jaen) ilten da, 49 urtegaz.
- 1593: Maiatza. Ubeda'tik Segovia'ra aldatzen aren gorpua.
- 1618: Aren idaz-lanak lenengoz argitaratzen dira Alkala'n.
- 1675-1-25: Klemente X'garrenak donetzat emoten.
- 1726-12-27: Benedikto XIII'garrenak Santu koroiz jantzi.
- 1926-8-24: Pio XI'garrenak Irakasle Mistiku iragarria.
- 1952: Olerkarien Zaindari izendatua.

ITZ BI

Ez dogu geure berbea uste larregiz emon bear; jar lenen oiña pixu neurtuan, eta mara-mara doakizu gero bere jomugara. Eta nik itz oneitan auxe adierazo nai neuke; gizaseme aundi ta idazle erraldoi baten aurrean gagozala. Donibane Gurutz, karmeldar barriztatzaille, mistiku bipil, idazle paregabe... Emen itz bi idazle legez.

Lareun urte aurten Ubeda'n il zala. Urte oneitan, bere idatziak diralata batez be, ospe zabal-zabalekoa egiña da. Eta euskal errian be ez gitxi. Karmeldar praille ta moja, arek Teresa Deunagaz batera, XVI'garren gizaldian barriztu Ordenakoak ez gara gitxi euskal lurraldeko erri ta urietan.

Inguruko izkuntzak, aren lareun urteak eundikiro ospatzen asiak dira. Zergaitik ez euskaldunok be? Askotxo ez ete gara, aren odolez ezta be, aren irakatsi bereziz eskolatuak? Goazen, beraz jaiak ospatzara. Eta zer oberik eskiñi guk ari ta geure erriari arek mundu goi-zaleari, beinola ta gaur, eskiñitako dotriña bikaiña ezik?

Emen dozu, ba, irakurle, nire emoia, aren idatzien laburpena. Juan Gurutzekok, besteak beste, lau liburu nagusi ondu zituan: "karmel Mendirako lgoera", "Gau illuna", "Maite-lcanta" eta "Maite-sugar bizia". Laurok asmo bakarra dabe, au da, arimea griñaz utsitu ta Jainkoz bete; orixe ezta besterik.

Bide latza dala atsegiñak itxi ta "ezagaz" lotu? Arek ez diñosku ori. Karmel gaiñera doa arimea; bideko atsegiñak eta zoztorrak izten, bear bada, gogor eta latz jatzu, baiña gaiñean dozu ondoren poz-atsegiñaren betea. Zentzunezko ta espirituzko gau illuna igaro bear... Baiña ondoren dozuz maite-kanta ta sugar bizia, maitasun-sutan murgiltzea.

Garbiketa lenengo, gero gozotasuna. Maitasuna da Jainkoa; maitasun billa dabil gizasemea. Juan Gurutzekoaren irakatsia, maitasun biok zelan alkartu. Jakite aintzagarri, leen eta orain, beti gaurko.

Berotasuna dakarre aren irakatsiak, jan-gurea. Giza-aalmenai itz dagitse, adimenari, naimenari ta gogamenari. Onein sakona ta indarra idazle gitxik azaldu izan ditu ain maisuki. arimea garbitzeko bere leza-barrenera jatsi bear, ortxe iruditzez bai dogu arimearen egonleku ixilla, gordea; kanporago be, berak indar-azo ta kementzen daiun arren, ortxe dauka bere egoitza.

Donibane gurutz orra doa zuzen-zuzen. Ta ortik giza biotza aunditu daroa, ulermena berotu ta jainko-maitasunera eragiñik zorabiatu. ezin esana da aren idatzietan datorren jakituria; filosofu gotor lez agertzen jaku noznai, trebe ta begizorroztz. Aurrean daroa beti bere elburua, espirituzko bizia, au da, arimea Jainkoaz alkartu bizitz onetan egin al dan neurrian.

Orrek darabil aren luma asieratik azkeneraiño. Ortarako aren arrazoi-keta sakonak, errimeak, irakurleak naitaez onartu bearrekoak. Egi-egiazko logika da aren irakatsia, edozeiñek ikusi ta egiztu dagikeana.

Mistikazko teologi arloan ondo be ondo eskolatua, eta orren goi bai dago, zientzi ori, uste da, ez dala giza-indarrez lortua, zerutik ixuria baiño. Beronen barru-ezalean -"ezerezak" eta "danak", au eta, ori ta a ukatu ta ori ta bestea etorriko, ezta dotriña latza. Gauzak zelan ikusi ta artzen diran... Ortxe dago, izan be, aren entzute ta ospearean oiñarria. Olako zerbaiten, billa dabil mundua.

Maitasuna kantatzen dau Donibanek, ereserki ederrez. Espirituzko edertasuna da kantagai bere idatzi guztietan, dala olerkai dala prosa; maitasun-bidez dabil, maitasunak ixiotua, ukatzea bera be, maitasunez egiña; gau illu neko min garrasiak be maitasnez emonak. Maitasun bikotxa, Jainkoarena ta urko lagunarena; esanak, gauzak, egiñak, maitasunak bultzatu ta osotuak.

Irudi ta metafora bizi-ederrez apaintzen ditu bere irakatsiak; irudi oneik, geienak, izaditik jasoak ditu, eta Liburu Santuetatik. Olerkari firia, edozein bazterretan ekusan Jainkoak ereindako ederra.

Eleizako Irakasle da, mistika arloan batez be, beste iñor baiño ohea. Pio XI'garren Aita Santuak, 1926-8-24'an, titulu orregaz jantzi eban; baiña askoz lenago, bizi zala, Ama Teresak, goralpen bereziak egin zituan aren birtute, jakituri ta zuurtasunari buruz.

Eta Juan Pablo II'garrenak, ikasle zala gure Santuari buruz bere irakasle tesisa egin ebanak, sarri aitatu izan dau bera, eta azkenez, Segovia'n, 1982-11-4'an, onela: "Donibane Gurutz, teologu ta jainkotia" Jesusen Teresa deunak esan ebanez, ezeukien lagutzaille ta arima zuzen-

dari jakintsu... Juan Gurutzekoaren liburuetan agertzen dana da giza-eroapena (sufrimentua) adieraztko trebetasun argia, arimea fedearen illunpe argitsuak eta garbitzailleak, jon danean... Gaurko gizonéemabizitz zentzunak arategatuta, ardura bako be bai batzutan Eleizeak diñotsonari buruz, siriist-gogor bear bada, Jainkoaren bikaintasunak gogoratzean, billaketa artez batera dei dagisku Donibane Gurutzek. Kristo bera dan Aitaren Itz eta Emoira, agerpenaren iturrira bertara bai garoaz".

Gaur, duda barik, esan daikegu Irakasle mistiku au, jakitez ta ederrez, mundu osoaren jaube egin jakula.

OARRA:

Lanok antolatzeke, bibliografi lez, liburu oneik erabilli ditut esku artean:

1) Aita Krisogono'ren "Vida y Obras de San Juan de la Cruz", Madrid, 1945; aundia ta txikia.

2) "Obras Completas de San Juan de la Cruz", Editorial de Espiritualidad, Madrid, 1988.

3),Dibujoak: "Jeronimo de San Jose (1587-1655) del Venerable Padre Fray Juan de la Cruz".

Larrea (Bizkaia), 1990-XII-14.

AITA ONAINDIA



BIZITZEA

I

Sukalde apala

Erriak lur eta oitura esan daroagu ba-dauala zer ikusirik gizaseme baten geroan. Sorterriak betiko izten dausku zerbait, berezia, bizitza zear geugaz daroaguna.

Gaztelan jaio zan Donibane Gurutz, Avila'ko probintzian, Fontiveros deritxon erritxoan, 1542'an. Lurralde agor eguzkitsu kontuz landu ezkeru, garia, txillarra, garbantzua ta ortuari naiko dakarrena. Baiña sendi txiroak dira berton, landatik eta etxe barruko bearretik bizi diranak.

Gontzalo Yepes eta Katalina Alvarez, biak jatorriz Toledo aldekoak, dituzu Jon Gurutzekoaren gurasoak. Euntegi baten lan egiñik bizi dira, naikoa estu. Iru anai dira gurasoekin, Frantzisko, Luis eta Juan -Donibane Gurutz gero karmeldar Ordenan-. Ez dira aberats girokoak, beartsu ta lanari ekin bearrez bizi diranak baiño. Etxean dana da pobre, jateko, tresna, aulki ta oe.

Juan jaio ta laster, aita gaixo txar batek beste munduratu eban, Alarguna ta iru seme, ikuspegi larria Yepes'tarrentzat. Ez daukee ezer aurreraturik, beraz gorriak ikusiz lanari ekin bear, ez egoan beste biderik. Kirrinka tristez txoria egazka. Zer, baiña, negar. egiñez? Bakarrik Katalina iru semeakaz, irurak gazte, Frantziskok amairu bat urte, Juan'ek ostera zenbat ete? Ez-urtea gaiñera inguru mari.

Alargunak, bizkorra da-ta, andik alde egitea erabagi dau, zori obearen billa. Toledon bizi dira ez txarto be bere senar zanaren aldekoak, eta Torrijos'era doa, an bait da bizi, aberats zurrian,

ospitaleko nagusia ta Galvez medikua sendikuak. Biotan jo dau atea. Emen osagilleak txeratsu artzen ditu Katalina ta onen iru semeak. Alargun errukiorraren poztasun betea! Emen dagoz luzaro. Gaiñera osabak gertauko dau seme nagusia, Frantzisko, eskolaz eta abar, eta azkenez, beroni itxiko eutsozan bere ondasunak. Pozarren biurtzen dira Katalina ta bere seme biak Fontiveros'era. Urretxindorrak alai abesten eban bide-ertzeko astigar adarretan.

Frantzisko, baiña, ez dabil bere gogora. Juan Yepes bere osabeak ondo artzen dau, ez alan be onen emazteak eta barru-mindua bizi da mutikoa, ez dau eskolara bialtzen, gosakillik dauko, biotz-gozotasunik bage, bere ama ta anaiak ditu une oro gogoratzen. Katalina, semearen albista barik, kezka dago ta goiz baten Galvez'egana doa semearen zerbait jakin gurarik. Zizpuru artean semeak jazoten jakona adierazten dautso amari. Eta medikuak gura ezta be, amak ezin semea olan ikusi ta beragaz arturik Fontiveros'era daroa. Etxeko sukaldean beste bat da mutikoa; eskolara doa ta eskolara dabil, baiña amak semeagan ikasteko griña geiegi ikusten ez dauan ezkerro, bere eundegian lan eragiñik, eun-lanean trebetzeko alegiñak dagiz. Eta, ain zuzen be, auxe izango da Frantzisko'ren bizitza guztiko ogibidea. Onena nai biak, beste aldetik, Luis ta Juan noski, eskolara doaz utsik egiteke.

Garai atan, jazoa gertatu zan. Ez eutson orduan ikusi ebenak be, jaramonik egin, baiña geroago Juan'ek berak, Guru tzeke Donibane zala, iragarriko dau miragarri lez. Basa ta lupetzez kuin-kuin beteriko osiñean jausi zan Juan bere lagunakaz olgetan ziarduela. Fon tiveros'ko mutikoakaz ain zuzen be. Inguruko ziilzotzak uretara bota ta atzera artu zan euren jolasa; olako baten zotz bat gorantz etortean gorputzak geiago egin eutson Katalina'ren semeari ta osiñeko ondar zikiñera doa bat-batean; gora dator, baiña ostera be urpera, eskuekaz osin barrena ikutu arte.

Ango txilio ta laguntza deiak! Olan ebiltzala lagunak, orra Juan irribarrez iñoala: "Andra eder bat etorri jat; bere eskua luzatu daust neurea eskatuz; nik barriz emon nai ez, arena ez zikintzearren". Lur-langille bat eldu zan orduan, eta eskuan eroian arku tzez atera eban uretatik. Juanek berak, an Andaluzia'n il baño lentxoago kontatu eban jazokun au, ango potzu loi baten aurrean aurkitzen zala.

Urteak ba-doaz, baiña sendi apal onen esturak geiagotuz. Katalina, olan, ez daki goseak ala zek eroan dautson ondotik; saminta-

sunaren koskada barria. Arevalo uri naiko aberatsa dozula be, azken urteotan urritu ta meetuz doana.

Errekondoko lora zuria dirudi uri onek, baketsu ta eder etzuna, Gaztelako goi-zapaldan, andiki itxurazko jauregi ta etxez gaiñezka, erreka biren erdian, eleiz-torre artean gaztelu printzel ezin-obeabari dala. Amaseigarren gizaldiko dirdira naiko gitxitua dan arren, salerosketa leku urduri dogu oraindik be. Medina del Campo'rako bide naitanaiezkoa gaiñera, eta emengo ferietara jente asko dator egotik eta sarkaldetik. Emen ekingo dautse lanari Katalina Alvarez ek eta beronen seme gazte Frantziskok. Luis illa zan.

Urteak laster txirristatzen. Arevalo'ra ziranean, ogei bat urteko zan Frantzisko. Gazte bizkor, alai ta beargin. Adiskideak ditu bere adiñekoak, jaietan eder jakoz erromeri lekuak; kantetan daki eta dantzari da; lagunak egin ditu, baita nesken artean be; iñoiz berandu etxeratu da gabaz.

Gai oroz, ibilliz zerbait egiten. Ezkongaiia dauko Frantziskok, Ana Izquierdo, Arevalo'tik iru bat legua iparralderantz aurkitzen dan Muriel'eko gaztea; onekin ezkontzen jaku. Katalinak ba dauko nok lagundu etxeko ta kanpoko lanetan; andra gazte maratza, Duruelo'n be geroago an izango da lagungarri. Oraingoz euntzen ikasten dautzu etxekoak legez, lan-sari ederra eskuratuaz. Neguko gau gogorretan negualdiko len-otzak jota kalean aurkitutako ez-eukiren bat Frantziskok etxera daroenean, Anak pozarren emon oi dautso bear dauana. Eder jakoz errukizko egintzak.

Famili beartsua izanik be, biotz samurreko giro onetan doa azi ta eziaz Juan Yepes mutikoa. Bederatzi urtera doa ta iru daroaz Arevalo'n, arlote samar alan be. Lanik ezak eta bizi-eziñak albagiñak erakusten. Toki obeago baten billa dabil Katalina Alvarez. 1551'garren urtea da, itxura danez.

II

Medina del Campo'n ikasle

Katalina alarguna ta seme biak ona aldatu ziranean, aberatsa ta ospe aundikoa zan Medina (Valladolid); 30.000 arima lez eukazan. Aurreko urteetan, komuneruak eritxen alderdiak, Karlos V erregea

kanpotik zala, iskanbilla biztu eben arren, zutik, mardul jarraitzen eban.

Katalina, etxe billa, uritik ipar-aldera egokitu zan, Santiago kalean; berton daukie eleizea ta eundegiko lanari ekingo dautse emen be; buruko seda-zapi edo tokagintzan esku onekoakjakuzan.

Juan txikiak bere aldetik ikasten jarraituko, eskolari berea emenez. An zan, izan be, oraiñetan sortua, ume ez-euki ta umezurtzai erakusteko Dotriñategi bat. Kristau Ikasbidez gaiñera, lenengo letrak be erakusten jakezan gaztetxoai, baita bidenabar geroko bizibiderako beargintzaren bat bere, bertan ezpazan, ortarako or-emen egozan ikas-tokietara bialduaz. Goi samarrekoak ziran orduan uri guztietan aurkitzen ziran eskolak. Eleiz-gizona zan geienetan zuzendari. Ementxe daukagu Juan Yepes ikasten.

Mutikoak ikasi ez bakarrik, ba ebazan beste zeregin batzuk be. Ur-samar eukien Madalena komentuko sakristian eta eleizan pozik lagundu oi eban; negu ta uda ango lanetan emoten dauskuz; lekaiame amak, meza emoilleak naiz beste edozeiñek agindu-ala betea zan arin, zeatz eta alai.

Ementxe trebetu zan, beste zer askoren artean, alako ta onako esku-lanetan, arte-antzean, margo ta pinturan batez be, dibujo, joskille, arotz eta antzeko gaietan, gerora erakutsi euskun trebetasunetik atera geinkenez. Baiña, esan daigun arte oneitan ardura leiatsua ipiñi arren, ez eban esateko atzerik izan. Juan jitez egiazko artista zan arren, beste bide batetik eroan nai euskun Jainkoak. Eder-zale arrigarri agertuko jakun barne-bizitzari buruzko gai ta erakutsietan.

Laster konturatu ziran irakasle ta maisuak be, Juan etzala alegintzen gauza berezi askorik barrentzen. Eleizako gauzetan zan bizkorra ta zerbitzuari emona. Sarri bialtzen dabe ikasten dabiltzan umezurtz eta txiroentzat limosna billa. Dala Dotriñan eta dala mojetan maite dabe langille ta zentzundun agertzen dalako. Entzute aundiko egin da eta Sorkunde ospitalekoak eurenera eroan nai dabe, eta ba daroe; beraz, Dotriña ikastetxetik Sorkunde ospitalera aldatzen da. Orduan emen pabreai lagundu ta zorne-gaitzez kutsututakoak osatu egiten zan, kalean batzen zan limosna ta diru-laguntzaz.

Iru arlotan lan dagi Yepes'ek ospitalean: gaixoak zaindu, limos-nea batu eta ikasi. Iruretan diardu zoli ta ardura aundietan. Lenengo biak saiets itxi barik, gaixotetxetik legua bira lez daukan ikastexera doa. Ospitaleko nagusi dan Alonso Alvarez jaunak Juan gaztea denporaz biurtu nai leuke Ospitaleko kapellau ta aukera guztiak damotsaz ikasteko, jesuitak eregi barri daben eskolara joanez. Astia izanik ara doa goiz eta arratsalde, eta ikastea atsegin jakolako, gabaz, beste lanik ez daukanean, liburuai emona dabil, loari be pizkat beintzat kendurik.

Ikastetxe onetan gaiñera ikas-lera biziago sentitzen, eta onek berez-berez ikasteari eragin-azten; bazan oraindik beste zerbait be ikasteari loturik bizi izateko, irakasle ta ikasleen arteko leia. Maisuak ba-dakie ikas-garra biztu azten, bai agiriko ekiñez eta bai aurreneko gaiak jarriaz. Berrogei bat ikasle dira ta irakasleetan an da Migel Andia eta Gaspar Astete; Nebrija'ren gramatika ta erreto-rika artzen dira iru ordu goizetan eta beste iru ordu arratsaldean. Iz-kuntzen artean, bere anai Frantziskok geroago dirauskunez, grie-go, latin eta gatzelera ikasten ziran. Ikasle ona genduan Juan gaztea.

Eta ama ta anaia? Santiago kalean bizi dira irurak. Baita semearen muskillak be, zazpi seme ta alaba bat. Euntzatic bizi dira. Baiña Kataliñaren sendi-lanari gogoz ekin arren, ez dau zrabazten danak ondo janaritzeko beste ogi. Alan be, suak urrekoari sua ezarten. Danak diardue lanean eta errukizko egintzetan. Juan'ek orraz gairi gilgilika sentitzen dau goi-erremi gozoa; aizeak eragin dautson orri dardara.

III

Karmeldar

Sutan jarri itxura danez zerutar lerak. Ez gero Juan bakarrik, ikasle areitako beste batzuk be eleiz-deiak darabiltz. Zerk galdatu ete ditu? Bertako bizitz-moldeak ete? Ikasleak alkarri joa ala irakasleen ondorioa? Dana dala, Juan gazteak karmeldar izan nai dau.

Goi-deia bai ezkutu sakon! Goizean lora-gairi agertzen jakun intza lez edo. Jainkoak beretzat norbait jo ba dau, ixil-ixillik zuzendu daroa bere naiara; baita gizasemeak muker arpegi egiñik be, azkenerako, zurbil-unean beera eratsi oi dau; Berak nai dauan lurrera ekarri eta Berak erakusten dautson biderik daroa leunkiro.

Yepes ogei bat urteko zan jesuiten ikastetxean eskolak amaitu ebazanean. Alonso Alvarez nausiak artean eleiz-gizon sagaratzea gura eban, gaztea ain ikastun, langille, apal eta era oneko ikusiaz: ospitaleko kapellau ikusi nai eban. Egia benetan Jainkoaren eta gizasemeen asmoak ez dirala bardiñak. Ikasle talde aretatik batzuk frantziskotar joan ziran, beste batzuk karmeldar. Juan'ek, goiz baten, ixil-ixillik, ekatxari eskuz ager eginda, Santa Anan, karmeldarrak eregi-barri eben komentuko atean oles dagi, Karmengo abitua eskatuz. Lau urteko ikasiak egiñak eukazan; ogeitabat urteko zan.

Guk ostera be itaun: Yepes'ek izan dau deirik ezker-eskuma. Fraile monastegi asko dagoz Medina'n: beneditarrak, augustindarrak, dominikuak, frantziskotarrak eta abar, eta zergaitik karmeldar, an ez bait dabe oraindik ez izenik ez entzuterik? Ezkutuak bai Jainkoaren bideak. Maitatu ta ondo begizatua izan da Juan gaztea, baiña Jainkoak karmeldar nai eban, eta ordena ortan egingo jakintsu ta santu.

Ez dator bakarrik, lezeak lezeari dei egiten dautso-ta. An-or lekaide abitua artzen dabe iruk domingotarretan, batek frantziskotarretan eta iruk karmeldarretan. Karmeldar irurotatik bat Juan Yepes da. Zergaitik karmeldar? Ain maite eban Andra Mariari eskiñitakoa zalako? Ba leiteken. Emengo prailleak bizitza latza eroielako? Aren bizi-moldeak eta idatziak ori adierazten dabe, geienbat. Leenengo urteetan, dakigunez, karmeldar abiatu itxi ta kartuxoena jantzi nai izan eban.

Karmeldar egin zan eguna ta urtea, jakin ez noiz jausi ziran. Eta zer bizimodu ekarren sar-barri ziran gazteak? Garrantzizkoa litzakigun arren, ez dakigu zeatz-meatz beiñik-bein. Latza? Dakiguna da, Santa Anako prailleak entzute ona ebela eta olan autor egin ebela, Matia Deunaren -auxe zan Juanen deitura barriri buruzko txostenetan datorrena, orduan ezagutu ta gero prozesuetan lekuko egin ebenak esandakotik atera geinkenez.

Barriztatze giroa zan nun-nai; ordurarteko bizimolde nasai samarrari arpegi emon bear jakon, lege, zeremoni ta oikunetan alegiñez zentzun latzagora joaz. Eleiza osoak eskatzen ebana zan, lekaide-lekaimetan bereziki. 1567'an, Aita Juan Bautista Rubeo italiarrak Espairia'ko karmeldar kametuak ikertu arte ba-zan naste

ta iskanbilla orretan, andaluzitarren eta gaztelatarren artean batez be. Lege latzak eta bigunak; Juan etzan nagi ibilliko bere nabizia-duan zutik egozanak beteten. Zeatza zalarik be, etzan zorrotz-zale, gero Duruela'ko jokabidetik dakigunez.

Rubeo zan Karmengo Ordenako Aita nagusia, 1564 'ko maiatzaren 21 'an autatua; or inguruan izan zan beraz Juan Yepes'en ofofesa be. Aita Anjel Salazar da Gaztelako probintziala, profesan esku artu nairik Erroma'tik etorritakoa. Eleizako altara aurrean, Alonso Ruiz etxeko Aita nagusiaren belaunetan, onela irakurten dau: "Nik, anai Juan'ek, zin dagitset Jainkoari ta gure Aita Nagusi Juan Bautista Rubeo'ri, menpekotasuna, txirotasuna ta garbitasuna zaintzea...". Zin egite au firmatu eben Matias Deunaren Juanek, Aita Anjel Salazarek eta Alonso Ruizek.

Karmeldar barriak, diñoenez, kopla batzuk ondu zituan zere-
moni ontaz. Esana besterik ezta askoren irizpea.

I V

Salamanka'n ikasten

Medina del Campo'tik ez etorren karmeldar gaztea ikasketa urri-apurrekin. Gramatikan eta latiñean batez be ondo ikasia zan Juan Yepes, ao batez irioen ori. Ez eukan ba eragozpenik Salamanka'n jarraitzeko geratzen jakozan urteetan, eta arako aukeratua izan zan.

Salamanka garai aretan, eta geroago, jakintz-ardatza zan eta araxe zuzendu oi zituen zer-edo-zer jakituriz izan nai eben guztiak. Ikasgu nagusietan naiz banazean ikasten zan bertan; edozein ordenatan profesa egiñik be, ikasten aurrera jarraitu al izateko, naikoa ondo jakin bear ziran gramatika eta onetazko beste gaiak. Onek adierazten dausku, Juan 'ek, Salamanka'ko karmeldar "Studium" eritxonean sartzeko, latindar eta gramatikal bikain zala. Au ez dozu arrigarri, Jesus'en Lagundiko ikastetxetik etorren eta.

Ander Deunaren komen tuan bizi dira ta andik doaz Unibersitatera; 1565'an, Erregen egunean emon dabez izenak ara dozanak; ezta lenengoz, aurretik be ezagun dabez an kapa zuriak. Ez dira

asko, sei teologo ta lau ertilari (artista). Onein artean, irugarrena, Matias deunaren Juan dogu izena emon dabenen artean.

Ikasgu au, ain zuzen be, orduantxe aurkitzen zan bere maillarik gorenengoan, bai ikaslez eta bai irakaslez. Maisuetatik emen dozuz irakasle aita Luis de Len, Manzio, Vitoria eta Meltxor Kano adibidez, Juan Gebara ta besteak, Teolojia ta Morala erakusten.

Arte-kurtsoak azaltzen dabez: Enrike Hernandez'ek Filosofia, Frantzisko Navarro'k etika, Hernando Agilera'k izar-iztia (astrolojia), Frantzisko Sanchez'ek gramatika, Martin Peralta'k sumulak eta Juan Ubredo'k musikea. Ikasle asko dira, zazpi bat milla. Karmeldarrak be ez dira gitxi: 1565'ko ikastaroan sei teologo ta lau artista joiazan karmeldarren kolejiotik. Danak kulturatzeko gogo biziz.

Ikasleak aukera ba dabe kultura zabalez orniduteko. Kultur bikotza artzen dabe, bata Unibertsitateko "Alma mater" deritxonean eta bakotzak bere Ordenako ikastetxe berezikoak. Asko dira Ikasgu nagusiko klaseak. Kontatu zituan norbaitek: zazpi teolojian, bost filosofian, zazpi osakintzan, bat astronomian, bat musikan, bi ebreo ta kaldaitar izkuntzetan, lau griegoan, amazazpi gramatika ta erretorikan. Lekaide ikasleak lotu samar egozan: ezin eben euren ikastetxeko klaserikitxi, Unibertsitatean aukeraturiko klasetara bakarrik joan. Ikas-gogo beroa nabari zan, beraz.

Erakusleen azalpenak geienik latinez egin oi ziran. Kadira-jaube zan maisuak zorrotz jagon eroien lege au, ordukoak aurretikoak baiño be zorrotzago. Leon'go Aita Luis'ek be, gaztelera teologi-gaiak azaltzeko oso egokia zala aldarrikatuta be, latina erabilli oi eban bere erakuts-aldietan. Liburuak bardin, musikea ta txikientzako gramatika izan ezik, enparauak latinezkoak ziran. Zeintzuk liburu ziran? Artistentzat Aristotelek egiñak, teolojian Sententzian Maisua eta abar, agindua zorrotzegia etzan arren. Vitoria'k, dakigunez eta Aita Luis Leon'ek, beste batzuk erabilli oi ebezan. Labur, erti-gaietan naiz teolojian, aske samar jokutzen eben. Agustin deunaren eta beste eleiz-irakasle batzuen dotriñeari garrantzi zabalada damotse. Baita arabitarrenari be.

Jakintza-gaiak sakon barrendu zituan Yepes ikasleak, beronen idatzietan agiri danez; bardin teolojia ta fede-gaiak be, birtuteak, kristau-bizitza, mistika... unibertsitatean naiz karmeldarretan; adi

ta erne daukagu bati maisuaren azalpenak gogoz artzeko; munduari ta bertoko edozein gauzari yagokon balioa ezarteko beti gertu, orrela agertzen jaku gero bizitzan eta lanetan. Gaztetan jarritako oiñarriak balio izugarria dabe bizitzan zear, idazle batek atan be, laster erakutsi oi dau zelako ikaslea izan zan gazte denporan.

Gaur lez, azterketak egiten ziran orduan be. 1567'an, Unibertsitatean irugarren urtea amaitu ebanean, Juanek, teoloji urteak asi aurretik, azterketa naiko zorrotza jasan bear dau. Urte areitan Erroma'n ospatutako karmeldar Batzar nagusiaren erabagia da. Uts urtendako ikasleak ezingo dau aurrera jo, ezin sail batetik beera be jauzi egin: sail batetik bestera igarotea akademi egintzaz burutzen, ikasleen maisuaren aurrean. Juan'ek, Filosofi urteak amaikeran, feolojian asi baiño len, jasan eban zalako azterketa.

Lau urte erre zituan teoloji ikasten, Salamanka'n bertan. Ez eban egundo be azken-lekua artu nai, eta Jainkoari buruzko gaiak ikasi, sakondu ta ausnartu al izateko, gabeko orduetan be, ez gitxitan, kruselu baten argi motelera, ikas-gaietan murgildu oi zan zatitxo baten. Iñoizka gau aldian otoitzari be ekiten eutson, iñoizkoren baten, diñoenez, jazoera mistikuren bat eukiteraiño ekin be. Itz gitxitan esateko, ikasle bikaiña.

Beste aldetik, bizibide naiko latza daroa: gela txiroa, oe zakarra, besoak eta istartekak zizta-burdiñez lotuak, zurdatz eta zigor-gailluak oe-buruan dingilizka, astean bitan gorputsa zigorkatzeko liza-gogazko jo-gaillua.

Ikasketak, Filosofi ta Teoloji ikasketak amaitu zituanean, Medina del Campo'ko komentura biurtu zan Juan ikaslea.

V

Karmeldar Ordenea

Jostorratzari aria lez egoki dator emen karmeldar Ordenearen asi-edesti apur bat. Karmel Menditik jatorku izena, an Haifa gainean kokatzen dan lur zatitik, Bibliak ainbat bider aipaturiko mendi-katertik; ogeita mar bat kilometro luze dana, Mediterraneo itxasotik, haifa uritik, ertzetik, gaur Israel'go industri-uri nagusine-

tik lur barrurantz doana. Nazareterik berrogei bat kilometrora, eta Jerusalem 'dik 120'ra. Toki eder-ederra.

Esangura asko ditu Liburu Santuetan izen onek, "maasti" ta abar. Baiña Karmel Mendiak batez be Elias igarlea dakarsku gogora, Erregeen liburuan irakurten daguna. Elias Karmeloko kobazuloetan bizi da, eta bertatik urten oi da, bakartade aretatik, bere itz gartsuz israeldarrak azturik itxi daben Jabe'ren ospe ta aintza aldeztutea. Tontor aretan egiten da opari-eskintze bat. Elias eta Baal'en igarleen artean, Jainko bat besterik ez dala lurrean eta ari bakarrik zor jakozala ospe, aintza ta gurtza, argi ta garbi geratu dedin.

Aren jarraileak be antxe bizi izango dira. Antxe izango dira Eliseo ta besteak, goietara eroana danean, Eliseo'ri bere espiritua itxirik, ondoio legez onekorrela eskatu eutsolako. Ortik, ba, Karmelok gogoerazten eban beti, urteak zear, igarle ta profeten egoitza ta eskolea. Gaur be judutarrak eta arabitarrek olan deitzen dautse kobazulo bati.

Ba-dau entzutea lur Santuakber-eskuratzen an inguruetan egin-dako gerreak. Karmel Mendiko padar eta bakar-zaleen bizitza bereziaz lilluraturik, gurutzedun gudari asko, Kristori jarraitu naita, Lur Santuak eskuratu ebezanean, bertan geratu ziran bizi izaten. Europa'tik ara joan ziran gazteen artean batzuketan emon eben bizia ta beste batzuk be antxe nai izan eben bizi Jaunaren zerbitzuan jardunaz. Asko armak itxi ta Haifa gaiñeko bakartadera jo eben.

Bakar-zale areik lenengotan sakabanaturik bizi izan ziran; baiña gero, arabitarren bildurrez eta arima arlorako baketsuago bizi izatearren, alkartu ta bizimodu atonduagoa egiten asi jakuzan. Euren lenengo nagusia Aimerik Malafaifa izan zan eta ondoren Brokardo eritxon beste gizaseme zintzo ta jainko-zale bat.

Eremuan bizi ziranok ba ete eukien legerik euren bizibidea zuzentzeko? Bai eta ez. Ba-zituen batzuk antxiñakoak lagata, liburuak, legeak eta arauak. Baiña gauza oraingoñagoko batuk euki gurarik, 1.209 rantza, bizitz-araudi bat eskatu eutsoen Alberto, Jerusalemgo Patriarka zanari, eta onek emon eutsen Araudi bat, batez be Haifa'tik laster, Karmel bizkarrean, Elias'en iturri ondoan

bizi ziran eremukoai. Eten barik otoitzari, penitentziari, birtute ta lanari emondakoak zenduzan oneik.

Legegillearen asmoz onetan alegindu bear dira geien bat Jesukristo'ren zerbitzuan bizi goi-birtutez izkilloturik, Jainko-itza entzunik, jan-edanean urri, alkarri lagundu, zentzatu ta maitatuz, nagusiaren menpeko, Eukaristirako ta Liturgi-orduak esateko elkarturik. Lanak gizona askatzen bait dau tentaldietatik, lanari lotuta biziko dira bitartean. Griñarik ugari sortzen alperkeriak. Olaintxe eratu da, amabigarren gizaldiaz, karmeldarren egiazko bizimoldea.

Gerra, sabun eta zalantzan ebiltzan, garai atan, Palestina ta inguruetan eta gorabera onein txipristiñak araiño be etziran gitxitan eltzen. Bakarzaleen bakea, beraz, etena izan oi zan askotan, eta eremutar areik euren leku ederra itxi ta, gerra ta izu-ikaretatik urrin, atondu nai izan eben euren karmeldar bizitza. Ortarako, Europa'rantza jo bear naitaez. Eta 1.239'antza sartaldeko toki askotan, Txipre, Italia, Frantzia, Inghlaterra ta abar aurkitzen dira. Era orretan zabalduz ta ugarituz joan jakuzan, naikoa arin, bazter guztietan.

Berezko danez izan ebezan Ienengotan oztopoak eta eragozpenak Europa'n lur artu ta einez kokatzeko. Baiña apurka apurka gaintituz joan ziran eragozpenok Karmengo Amaren babesari ta Aita Santuen laguntzari esker. Orrela epe laburrean asko be asko ugaritu ziran, etenbako garatzean joanaz, eta Ordenea erne ta gizaldi bat baiño lenago 12.000'ek osa tzen eben karmeldar familiak.

Familia onek ekarren bizitza jainkozkoa zala-ta, Santu asko emon eutsozan Eleizeari; Karmel Mendian bertan, esaterako, Bertoldo ta Brokardo, Simon Stock edo-ta Pedro Tomas; Ander Korsino, florenziarra, Trapani'ko Alberto deuna ta besteak. Gizaseme argiak izan ziran baita be Niño Alvarez Pereira ta Bautista Spagnoli, Juan Soreth besteakaz.

Juan Soreth auxe da gaiñera karmeldar andrazkoen lenengo komentuak jaso ebazana; orduko serorak berak batu zituan monastegietan, eta 1.452'rako ezagutuak eta legepetuak izan ziran. 1.515'rako, Teresa Deuna jaio zanerako, lekaimeen olako amaika monastegi egozan Espairia'n. Oneitariko bat zan Avila'ko Enkarna-

ziño komentua, Santa Teresa bateatua izan zan egunean, au da, 1.515'ko apirillaren 4'an, inauguratua izan zana.

Teresak bere bizitzan eta idaztietan beti ekarren begien aurrean nundik gentozan, Karmel Tontorreko enbor zaarra. Ez eban andik ezerren ezer moztu nai, esne ta mun barriz andik etorrena indarbarritu baiño. Aren kezka ta ardura etzan besterik, an bizi izan ebenaren jatortasuna zeatzenik bizi izatea baiño; bakartadean, otoitz bizitza ta Andra Mariaganako jaiera eutortu.

Suaz josita lez bere liburuetan daukagu aren agindua: "jarri beti zeuen begiak jatorri artu genduan areingan".

VI

Barriztatu bearra

Karmeldar Ordeneak, ikusi dogunez, Karmel Menditik ekarren asiera. Bizkor edatu zan, baita, sarkaldean zear be; or-emen ainbat monastegi karmeldar jaso ziran Europa'n, baiña aldien indarrez edo, leenengo bizitza, Karmel Mendikoak egin oi ebena, zorrotza egiaz, motelduz joian. Trento'ko Batzar ostean, alan be, Eleizeak barrizatzea opa eban, Eleiz barruan eta lekaide-lekaimeen monastegietan baitik bat. Oneik bai ziran munduari, oituretan eta sendibizitzan, sua piztuko eutsoenak.

Karmeldar Ordenea, ziztakada barriren baten premiña barik, orretan asi zan. Mojak aurrenik, eta gero prailleak. Avila'n geunkan Santa Teresa, Jaunak ortarako aukeratuta eukana; arresiz kanpo, Sorkalderuntz dagoan komentuan bizi zan, pozik jakiña, alan be ez jakon gogoko ango bizimadua, asko ziran eta bizitza nasai samarra eroien. Eta Avila'n bertan, uriko baztertxo baten, milla eragozpen ausi ondoren, San Jose komentua jaso eban; eta lekaimeen arteko bizitza barriztatu nairik olako komentu geiagogaz, 1.567'an Medina del Campo'ra eldu zan asmo bardña egiztatu naiean; bigarren lekaimetxe barriztatua jaso nai eben emen.

Izango zituan Teresak arlo txarrak, korapilloak eta buruko miriak. Ainbat ditu San Josep monastegiekin. Zur, jakitun eta kementsu jokatu bear izan eban etxe beartsua onik aterateko; eleizgizon eta erriko nagusien aldetik, naigabe ta oker-etorte askoren artean. Berarekin dau, baiña, Jainkoa eta aurrera dagi bere su lei se-

tatian. Ain zuzen be, oraintsu eldu da Erroma'tik karmeldarren buru dan Juan Bautista Rubeo. Gaztela ikuskatzera dator lenengo karmeldar burua; batzarra batzen dau lenengo Karmen'go komen-tuan; San Jose'ra doa ondoren, eta Teresa amak, naiz-ta lenengo atzerakor eta kezkatu, bere asmo ta burubideen barri emoten dau-tso. Eder ta gogoko dau nagusiak Teresaren burubidea ta aurrera joteko diñotso barriztate lanean, Gaztela aldean batez be alako etxe barriztatu asko eregiteko baimena be emoten dautsola. Maite-sua ta uste ona sortu dira, bizi-bizi, Teresaren eta karmeldar nagusiaren artean.

Teresak ez eutson zer askorik agertu lenengotan, baiña laster idatzi eutson gero Erroma'ra zer nai eban argiro azalduaz. Bere alde eukan nagusia; prailletatik be pillotxo itz emonda eukan. Aita Antonio, esaterako, beragaz egoan: gertu eukala karmeldar ortotz izateko. Ia irurogei urte dauko; gartsu alan be birtutez eta Jainko-bizitzez, iñoiz kartuxo izan gurata be ibilli bait zan.

Gazte batzuk nai ditu bere asmoa egi biurtzeko; urtetsuaren alboan, gazte gartsu ta asmotsua gura. Salamankan ikasitako bat, Pedro Orozko, oraintxe meza barria emon dabenagana urreratu da itaunka, ezetz erantzuten dautso arek, baiña ezagun dau onek or-tarako egoki be egoki litzaken gazte bat, bere adiskide dana, oraintsu ikasteak amaitutakoa, bera lez meza barria kantatzera Medina'ra etorria. San Matia'ren Juan dozu. Biotza nasaitzen jako Teresari; aregaz berba egin nai dau.

Ez dakigu zein egunez alkartu ziran Karmengo Ordenea berriz-tatuko eben nortzu bikain biok. Arima bi, ziur asko, amesez gainez-ka. Eztau goimailla aundirik oraiñarte ikasten jardundako gazteak, alan be ikusiaz bakarrik begiko egin jako Teresa'ri. Barreguraz lez diño: "Ba-daukadaz praille bat eta praille-erdi". Aita Antonio zan praille osoa, gorputzez eta arimaz, Juan Yepes oster a praille erdi. Egingo da, ogetabost urte daukaz oindiño. Begitarte biribil sama-rra, azalez gorritzka, begi biziak, begitu sakon atsegiña. Goibez ñimiño bada be, birtutez erraldoi; jakituri aundikoa, laster kontura-tuko dira.

Lenengo momentuak dira onenak gauzai eurrera eragiteko. Berba geiegiak sarri mokor koskorrak ekarten asmo ederrenen ingurura eta orduan sortzen dira dudak, eztabaidak, kezkak. Tere-sak ba-ekian ori, eta orixegaitik bear bada, bizkor ebillenbere xedea

gauzaten. Argi berba egian nai ebana adierazoz: monjen artean egiten asi zana lekaideen artean be egiten asi. Eleizeak nai ebana zan, Trento'n zuzen agertu zan eleiz-agintarien guraria. Aro barri bati asiera emon bear jakon. Ori zan Teresak gogotsu aurrera eroan gura ebana.

Etzan azpimarratu oraindik barriztatze orren elburua, baiña karmeldar. Ordenan lendik etorrenaren aurkako zerbait zutoin barri gairi ipiñi bear zan. Teresak garbi dirau tso Juan Yepes'eri bizimodu latzagoan murgiltzeko prest dagoan. Jainko bizitza giartsua ixio, Karmel Mendian legez sua basamortuan edo bakartadean; otoitza, buru-ukapena, ixiltasuna... Kartuxar erlejiñora igaro nai dabennai, Teresak diñotse: "Guzti ori daukazue Andra Mariaren ordenan". Juan 'ek baietz diño. Eta Teresak bizkor bere monjai: "Lagun zakidaze, aiztak, Jainkoari eskerrak emoten; ba-daukat praillen artean barriztatzea zegaz asi".

Teresa, sua dariola, Avila'ra, Madrid'era, Toledo'ra doa. Etxe billa dabil. Labur: karmeldar Ortozen lenengo komentuari oiñariak jarteko bear danaren billa.

VII

Duruelo eta Maneera

Juan Yepes, Salamanka'ri azken agurra esan ondoren, Medina'ra zuzendu zan, emen Teresa amagaz aurkiturik, ain zuzen Avila'tik zear etorrena ta bidean zaldun biotz zabal bategaz egona; Rafael Maxia zan zalduna, bidean urreratu jakona; etxetxo bat eukan onek eta Teresari eskiñi eutson, karmeldar Ortozentzat komentu izateko egoki letorkena. Duruelo eritxon.

Teresa ama andik igaro da inguruketa polita egiñaz, eta berba-zirika ebilkionari erantzun duiña emon gurarik. Deabrua ta gizarte asmo onak nastau ta azpikoz ganera jarten esku oneko diralako, ixillean eta alik eta bizkorren burutu bear zan gauzea. Berba dagi beingoan Aita Antonio Heredia ta Juan San Matias'ekin, onexek izango dira-ta lenengo karmeldar ortozak. 1568'ko bagillaren age-tamarra da. Ara doaz alderrai dabiltzanak, Maxiajaunaren egurats-etxera: txikia da, ataria, ganbara bikoiztua, sukaldea... Gauza aundirik ez; ez da toki egokia be, baiña an iraungo al dabe zati baten,



aio ta laster Andra Mariari eskiñia.



Potrura jausi da. Maria ta Jose'ren laguntzaz andik urteten.



ite-

Et Tik,

Asti-uneetan gaixoak ikusten ditu.



Gurutzea eroaten Andra Mariak laguntzen dautso.



Lenengo mezea esaten dau.



Santa Teresa, Aita Juan eskalaten, Ordenea barriztatzeko.

beste zerbait aukeratu arte. Lagun ekarrezan lekaime biak ots: "Adorea bear da gero, emen bizi izateko", Praille biak pozik oster.

Bear ziran baimen paperak etozan bitartean, Teresak aita Juan eskolatzen dau, zelako bizimodua eroan bear eben eta abar erakutsiz, Aita Antonio etxe barrian bearrezko ziran gauza beiñenen billa zalarik. Teresak Juan eskolatzean, onela itz dagitse monjai: "Juan da Jainkoak, bere eleizan daukan garbi ta santuenetariko bat; onixeri ixuri dautsoz goi-jakiturizko aberastasunik aindienak".

Aldi berean, Ordena barriztatuak eroango dauan abitua berak ebagiko dautso. Egun baten onela ibillelarik, iztokiko saloian, Teresa ta monjak barrutik eta Juan kanpotik, gertaera arrigarri au jazoten da: lendik ekarren abitua erantzi eta karmeldar ortozak aurrerantzean ekarriko daben estu latzagoa jazten dau. Saio bat besterik ezta, baiña eder jako Teresa amari lengoa erantzi ta barria jartea.

Gertaketak egiten danak ziarduen an zoli be zoli; eleiz apainketan batzuk, sukaldea, jantokia, gelak, korua, otoitz-aretoa atonduten besteak, danak lanean eta iñor bere ez nagi; etxe barriari asiera emon bear jako. Aita Antoniok bost arezko orduari (erloju) dakaz, Juan be Duruelo'n dabil gurutz askogaz eta eleiz-tresnak gertetan. Teresak karta bat emon dautse Avila'n bizi dan Frantzisko Salzedo jaunarentzat.

Onela edo diñotsa kartan: "Gure jauna! Zugana bialtzen dot aita au; gaztea da, baiña -uste dot- aundia Jainkoaren begietan. Danak, egia da, falta egingo dausku emen; gure asmorako egokia dala deritxat, Jaunak berak aukeratu dauskuna, praille danak goratzen dabe, penitentzi zalea, naiz-ta ordenan denpora gitxi eroan oraindik. Batzutan ni asarre izan naz berarekin, baiña ez dot iñoiz aregan utsik ikusi. Gogotsu dago; bakarra dan legez bear dau Jaunak emoten dautson adorea, benetan artu ta aurrera eroan dagian gauzea. Berak aitzen emongo dautzu zelan gabiltzan emen... Ondo ba deritxazu, mesedez, zeuk esan zer egin bear dauan. Adimen bizkorra dau ta otoitz-zale dozu. Pozik nauka Jaunak aukera daustan birtute aundiko gazte onegaz".

Toki bakar ixilla dozu Duruelo. Sartaldetik mendixkak daukaz eta sortaldera Gredos mendi-katea; artadiak eta txapar motzak

orlegi, ibar estu artean, kardulatzetaz eta txori-larrez jantzitakoan. Mexia jaunak izten dautsen etxea dotore samarra landa egalean; polito apaindu ta edertu dabe. Gauzak olan, Juan'ek ari ta oni iragarten dautse, Aita Alonso Gonzalez'i, Teresa amari, aita Antonio Herediari, bere anai Frantzisko'ri, onek lagunduko bait dautso zer askotan.

Deituak eldu dira Karmeldar Ordena barrizatuari asiera emetoko. Azaroaren 27 da. Or dira Aita Probintziala ta sei karmeldar. Inauguraziño eguna. Biaramonean, 1568'ko azaroaren 28'an ba-da zaratarik inguruan, angoak alkarri diñotse: "ainbeste gurutze, ainbeste buru-azur!". Amar-amarretan Aita probintziala eta onegaz Aita Antonio, Juan eta Jose diakonua egozan altaran. Gaztelako Aita Nagusiaren aurrean, irurok, Eujenio IV'garrenak onetsitako Araudiari uko egiñik, Inizenzio IV'garrenak, a^sindu bakoa, onartzen ebela. Irurak karmeldar ortoz biurtzen jakuz, izenak eta aldaturik, aurrerantzean Aita Juan'i, Gurutzeko Juan deituko jako beti.

Andik iru ilabetera karmeldar ortozen bizi-moldea ondo taiutua geratzen zala ikusirik, Teresa amak onela idatzi eban: "Goiz baten eldu nintzan ona; Jesusen Aita Antonio garbiketan aurkitu neban eleiz-ate aurrean, arpegi alai beti lez. esan neutson: "Zer da au, ene Aita? Nun zure dedua?". Ak erantzun: "Madarikatzen dot ori izan neban eguna". Sartu nintzan eleizan eta zurturik ni, Jaunak an ipiñi eban espiritua ikusiz. Ez ni bakarrk gero Medina'tik ara neugaz etorri ziran sal-erosle biak be, negar eta negar egien. Ainbat gurutze, ainbat buru-azur!

Bisita ontan ainbat abisu ta oar itxi ebazan Teresak, eroan bear eben bizimoduari buruzkoak. Andik laster aratu zan Aita Alonso probintzialak baxotxa bere karguan ipiñi eban: Aita Antonio, nagusi; eta onen ordezeko Juan Gurutzekoa. Laster nobizio bi datoz. Eta emen asten Juan Gurutzeko karmeldar ortozen maisu izaten.

Pozik egozan inguruko erriak Duruelo'ko prailleakaz. Izlari ziran, apostolu, ta aldiaren batez joiazan errietara Jaunaren itza aldarrikatzen. 1570'an, aita Antonio, andik ur samar dagoan Manzerara eroan eben izlari, Duruelo'tik legua bira egoan Alba'ko Dukearen senide baten etxera; begiko egin jakon Aita izlaria, eta bertako jaietan be sermoia berak egin bear izan eban.

Jaun arek emen eskiñi eutson toki egokia. Eta Duruelo baiño ohea zala-ta, laster burutu ziran gertaketak eta urte aretan bertan,

bagillaren 11'an, egin zan aldaketa. Karmeldar oiñutsak ementxe egingo dabez lenengo agintza osoak. Karmeldar pilloa, Juan abitu latzean bere saréberriakaz, Aita probintzialari laguntzen dautsoe Duruelo'tik Maneera'ra. Erriko sarreran jente ugari dago, karmeldarraí ondo etorria emon gurarik. Luis jaunaren jauregi aurretik doa prozeziñoa, ur eta bekoz-beko dagoan komentu barrira.

VIII

Alkala'n, karmeldar ortozen ikastetxean

Udabarri epelez orriak lez geituaz joian karmeldar familia. Txikia zan Duruelo, txikia Maneera; karmeldar abitua eskatzen ebenak etziran gitxi, artutakoak profesá egín bear. Aita Antonio, Manzera'ko nagusia, Madrid'era joana zan, Gurutzeko Juan nagusi geldituaz, eta onen eskuetan dagie profesá ango gazteak.

Pastrana'tik dabil Teresa ama, an Eboli printzesaren aginduz komentu bat jaso nairik Teresakaskolatua, ara aldatua da Gurutzeko Juan be. Gertu dago guztia, ta 1569'ko bagillaren 11'an abitua artuko dau Aita Anbrosiok Eboli'tarren eleizan. Aita Antonio probintziala an dalarik, bertan emoten jako asiera karmeldar ortozen barriztatee-lanari. Ango ta emengo entzutearen entzutez, Pastrana'ra doaz naikoa gazte ikasle penitentzi-zale, Alkala'ko ikasguakoak geienak. Amabi lekaide dira laster.

Donibane Gurutz au burutu ta Pastrana'n illabete bat egonik, Maneera'ra biurtzen da, arunzkoan eta onunzkoan Pedro anaiak lagunduta. Alkala'ko Ikastetxeko nagusi izendatu dabe bertatik, Madrid'idén legeztu dautse agiria, Aita Antoniok ekarri dautsona, eta Pedro anaia lagun, ara doa 1571'ko apirillean. Anaia ba-doa barriro Maneera'ra, Juan osterá ezta errez itzuliko lurralde idor areitara. Salamanka datorkio gogora, an ikasle ta emen irakasle ta maisu, biotan kultur giro. Asko komentuan eta Unibertsitatean ikasten diarduenak. Lerrotan doaz kapa zuriekin komentutik ikasgura, buru-maur ta ixillik, ortozik, abitu pobre ta latzean; asko geratzen jakez begira, konkor samar. Ikasbide barnekoia nunbait bizitza latzean jokatu nai dabenentzat. Juan Gurutzeko bai eredu eder! Eta lezak lezari ots. Bardin ikaskideen artean be: ainbat daukazuz Pastrana'ra so.

Gauza barri bat asterakoan dana da lera, ardura ta zer guztiak betegin burutu naia. Orrelaxe Alkala 'n eta Pastrana'n be; norgeia-goka lez jokutzen eben gazteak, ikasten eta etxeko legeak zeatz beteten. Emen eta an maisu ona eben, gauzak bide artezez eroateko; Pastrana, baiña, urrintxu egiten maitasugandik. Eta Pastrana'ko aztetxea bein nasturik, bertako maisu ta gazteak zelan jokatu ezin igarriz. Aita Anjel gazteen maisua, len bertan nobizio izana, Alkala'tik ara joana, zar ta gazte gorenengo maillan azkar be azkar ikusi nairik, gartsu dabil jo ta ke. Daroien bizitza uts begitantzen jako. Karmel Mendiko eremutarren egintzak ezin leikezan bardiñean jarri an egiten ebezanakaz. Geiagio bear zan.

Danak ez datoz bat jokabide orrekin, eta dei egiten dautsoe Juan Gurutzekoari. Baita Teresari be. Biak diño neurria bear dala beti ta nun-nai. Teresak, aita Bariez'i kontsejua eskatuz, Ordenea barriztatzeak zer esan nai dauan azaltzen dau tso: ez da iñor ito bear, gozogoeroan baiño. Ez ditu onartzen Aita Bañez jesuiteak ezitzaile gaztearen geiegikeriak. Domekarrak onela idazten eutson Teresari: "Aita au asmo onez betea dala uste dot, eta eske datorren ezketiño, auxe diñotsak: Kristok be emoten dautso argi ori, ta osotasunaren argia danak au diño: "Ikasi egizue Neugandik biotzez otzan eta apal izaten". Apaltasun au eskuratzeko baliotsu dira kanpoko buru-ukapen eta ariketak, baiña zuur jokatu bear da eta au idatzi ebanaren egian oiñarrituta... Prailleak ez dauko kanpora zetan jo buru-ukapen billa. Bete bei profesan agindua, eta santu izango da". Kabi naspildu a baketurik, Gurutzeko Juan an egon zan zati baten, Aita maisuaren barru-su bizia pizkat moteldu ta neurriratu arte, gero Alkala 'ko bere Ikastetxe zeregiñetara biuriturik. Pastrana'n ez dira barriro irabiotuko; bakartadeko berotasuna, errazoizko penitentziak, lazturak, oitura onak, Juan Gurutzekoak jarriak noski, gizaldietan zutik jarraitzen. Gaur be an daukagu bakartadea, etxez ta tokiz arrigarri, lenengo karmeldar oiñutsen mintegi oroiz betea.

I X Autorle Avila'n

Juan ez egoan ez artega, ez gerekatx Alkala'n, baiña Avila'rako eskabidea dau. Aita Pedro Fernandez apostolotar ordezkariaren aginduz ara joan bear. Enkarnaziño komentuko ama nagusi egin

dabe Teresa Eta monjen autorle gisa bere ondoan euki nai dau Juan Gurutzekoa. Beraz, Alkala'ri ta ango ikasleai agur egiñaz, ara doa. Eun eta ogetamar monja dagoz bertan, arresiz bestekaldetik datzan monastegi onetan; 1567'an, Aita Rubeo andik igaro zanean, monja geiago ez artzeko agindu eutsen, askotxo zirala-ta.

Beraz arima zuzentzaille bat bear eben an. Teresa zan bertako buru ta nor aukeratuko ete? Juan Gurutzekoa, jakiña. Eta jagi ziran bat ez etozanak. Onaren maillara eltzen ez diranak, alakoaren neurria atzemon ezin dabenak, bekatxak erreta dabilkiguz laster andiak esan eta egiten onen edo aren kontra: bekaiztiak ezin dau onartu gaillentzen danaren onik. Gizaseme kaskarren zori gordiñal!

Orixe jazo jakon bete-betean Aita Juani. Teresa ta Juan andiegiak gertatu ziran orduko giza-sementzat. Aurkako oneik batzuk ziran antxiñako Jegekoak, barrizatzerik gura ez ebenak, eta beste batzuk ondamuz erreak. Enkarnaziño komentuan be danak ez dabe Juan Gurutzeko ontzat artzen; sarri oi danez, lenengotan ez dira danak be beragaz autortzen, baiña gero, aren zuurtasuna, jakituria ta pazientzia ikusiz, ezta iñor geratzen aren itu rritik darion ur freskotik edan bage. Jazoten jatzuz onako izkirimiriak: "Oirietakoduna ala oiriutsa?" -itaun dagie. Eta Juan'ek, beatz-puntak abituz gorde-rik: "Ba-ditut oiñetakoak, alaba", eta autortzen da. Olan, laster uxatu ziran kezka-laiñoak.

Egunik egun geiago dozuz, gazteetatik asita, beragaz autortza dagien lekaimeak. Goratua da autorlea, ta onek alegiñak dagiz lekaime areik gorputz eta arima osatzen. Ba-doa bakotxa ezagutuaz eta bakotxari bear dauan osabidea emonaz. Autorlearen ospea, barriz, gero ta edatuago komentuan eta errian. Ona izan nai dau danakaz; zorrotza dala diño; geienak zoragarria dala. Jainkozko sutan bizi dala.

Teresa, kamentu atako buru, pozik dago autorlearen lanaz. Aurreko urteetan ainbat gauzatan sartua, zuzendari asko eukazan beretzat eta bere mojentzat, orain Aita Juan naikoa jako. Geroago au Andaluziara joan zanean, Teresak esan ei eban: "Ara joan zanetik ez dot idoro, Gaztela guztian, obarik".

Egia esateko, Juan'ek be ez dau aurkitzen beste pertsona bat, ain aberats danik, birtute goitarrez eta experientzi mistikuz Teresaren sestrara eltzen danik. Juan'ek goiz baten, Jaunartzerakoan, Teresari osti aundiak atsegin jakozala jakiñik, txiki bat emon eutsan, eta Jau-

nak Teresari: "Ez naigabetu
zugandik".

ez nau ni iñok kenduko

Beste bein iztokian (lokutorio) zan; Juan kanpotik eta Teresa barrutik gertaera ortaz ziarduela, biai gogoko laken gaia miiriez darabille. Gurutzeko Juan'ek, teologo errime lez misterio aundia Teresari adierazten diardu ta beingoan, ixildu ta zutik jarten da, kemen eutsi-eziñez, eraginda; ia a biotzak eraginda izan dan itanduten dautso, eta Juan'ek lau-lau: "Baietz uste dot".

An urrean dauko Juan'ek bere etxetxo zuria. Astean bi bider doa mojen komentura. Arreta aundia jarten dau alik eta zeatzen bere egitekoa beteten; beti gertu ta prest daukie lekaimenak bear dabezan zer guztietarako. Juan'ek ba-daki esaneko izaten, eta mojen autorle da batez be. Jainko-zale arein arimak bear zituan goitar bidez zuzendu.

Asieran ez baiña gero denpora geratzen jakpn arren, etzan aizea astintzen ibilli oi zana. Autorle egon zan garai osoan, birritan aitatzen dausku istoriak bein bere ama ikusten joan zan, bere ama, oraindik Medina'n bizi zana, Katalina Alvarez, karmelfar komentuari dautsola bizi dana ain zuzen. Beste bein Teresak berak eroan eban Segovia'ko lekaimen fundaziñora; eurokaz doaz, gaiñera, alkarte barria osotuko daben monjak ez-ezik, Julian Avila ta Alba de Tormes'ko zaldun bat, Gaitan eritxona.

Danai ez jake atsegin monja komentu barria. Ango urritasuna ta eza! Legor ta eremu dana. Ulertu eziña, egiaz, goi-espiriturik ezarentzat. Baiña an daukazu gaur be zutik eta gomutaz beterik Segovia'ko karmeldar mojen etxe pobrea!

X

Eztabaidak gordin

Bere lanean ari da Juan, arimen soloan uzta ta frutu ugari batuz; ez da bere maisutzea sabel-legor, ekarkor ta jori baiño. Azpi-jale ta bekatxak erreak, beti lez, ixillean dagie lan zitala; sator gisa ondatu nai dabe aren bizia. Bera bai, Juan Gurutz, biran mataza trinkoa eio jakona, bera izango da ez izan dudarik, lenengo oparigai. Ez arritu, ori bai dozu gizona.

Antxiñako karmeldarrak, lenengotan Ordenea barri itxuraz jantzi bear zala-ta, Teresa amari einbestean lagundu eutsoenak, aren aurka dabiltz orain. Eta errurik geien aren aizten zuzendaritza egiten dauanari be oratzen dautsoe. Orixe ei da dana sustatu ta azpikoz gora jarten dauana. Ba-dago egon asarre errazoirik, esan dogunez, iñoren ona ikusi eziña. Santo Domingoren Ordenako ordezkariak karmeldar zarren ixillean pausuren batzuk emon dabez karmeldar oiñutsen alde, karmeldar barriztuak aurrera egien, Duruelo, Manzera, Pastraña, Alkala'ko Ikastetxea, Altamira (Kuenka), La Roda, Almodovar del Campo, Andaluzia... an-or jaso dabez ortozen komentuak. Au ezin ba irunsi etsaiak.

Andik eta emendik eldutako izparrak zirala-ta, Aita Fernandez eta Aita Vargas'en zurtasun urriagaitik, karmeldar zarrak erabagi zorrotzak artzera beartuak ziran, barriztaillen burubideak moztu ta galazoteko, Espaiña ta Portugal'eko bost aita nagusiak alkartu ta batzar bat ospatzen da Aita Santu Gregorio **orduko idatzita** egozan Erroma'tik izentatzeko ordexkari izango ziranak karmeldar ordenekoak izan eitezala eskatuz; or dator Jeronimo Tostado. Or Ormaneto be, eleiz ordezkaria ortan sarturikoa. Aita Grazian' ek, euron artean, barriztatzailleen izentaketak egiten ditu.

Erroma'tik itzuli diranak Gregorio XIII'n aren idazkia irakurri ta karmeldar batzarra otsegiten dabe, eta aurretik egindako izentatzek ezereztuz urrengo erabagiok artu ebezan; karmeldar adar biai ikertzaille bat bialdu, itxi egiezala baimen barik ortozak jasotako komentuak, Andaluziko guztiak batez be; osorik debekatu etxe barririk eregitea, ez prailleak ez monjak; Teresa ama itxituan ipiñi komentu baten, beronek ondoen eritxonean; lekaime bat be etzan aldatua izango etxe batetikbestera. Zeatz-zeatz beteko zan guzti au.

Kartak ara ta ona bialdu ziranagaitik, batzuk bai baiña beste batzuk etziran eldu sasoiz; eta etzan auts gitxi jagi-azo au zala bide. 1576'rantza, batzarrak eskatuta, Espairia'ra dator aita Jeronimo Tostado, emengo komentuak bizitatzeko asmoz. Madrid'en, Felipe II erregearengana ta Aita Santuaren mandatariarengana doa beingoan; eztau giro onik aurkitu, eta Portugal'enerako bidean jarri da. Teresak bertatik Sevilla'ko ama nagusiari: "Tostado'gandik jagon gaizala Jainkoak".

Barriztatuak be euren batzarra egin dabe Avila'n Morleja deritxon errian; eraso onen aurrean neurriak artu nai dabez. Batzar

onetan erabagi ziran gaiñera barru-bizitzan erdi-koloka eukezan zer asko be. Otoitz, koruko errezu, jantzi, solasaldi, jateko, urko-laguntzaako artu-emon, irakurte, predikatze eta beste antzeko gauza asko.

Ekaitz baltz arri-jasatsua Gurutzeko Juanen kontrakoa zan batez be. Bere arazoetatik baztertu nairik, Komentuz aldatu, ara ta ona eroan eta olakoak egin ebezan, baiña alperrik. Karmengo prailleak Almodovar'en billera egin ebela jakin zanean, biziagotu egin zan asarrea, Aita Tostado'ren ustez, erronka bat zan batzarra. Orduantxe il zan oiñutsen ongille zan Ormaneto be. Eusle barik ekusen, ba, Teresa ama eta etenik Aita Grazian'en agintaritzza. Sega jauna, eleiz-ordezkari barria etzan aren aldekoa. Oraintxe bai bertuko eutsoela bizkarra Ordena barriari.

Oraintxe, baita, Donibane Gurutzakoaren azkena, azken larria. Gitxien uste danean baituko dabe. Beronen adiskide Aita Jerman giltzapean ipiñi dau Toledo'ko nagusi dan Aita Maldonado'k; Juan be aren mende jarteko agindu zorrotza emon dau ikerleak. Toledo'n dago au eta ara eraon bear dabe Juan; ez gero zuzenean, ez ikusi egin nairik, ara-onarik naiko botarik baiño, bide bakarti ta ezkutuetatik zear nunbait. Negua da, aro gogorra. Avila' tik arakoan, Guadarrama mendi-katea igaro bear, bisuts eta edur-osiñezko eguraldiz.

Garratza bene-benetan au Teresa'rentzat eta bost urtean autortu dabezan Enkarnaziño komentuko lekaimeentzat, ezagutzen bait dabez aren birtuteak, aren jakituria ta santutasuna. Eta aren mirariak!

XI Giltzapean

Ostotsak laster, joko zikin onekin konturatu ziranen artean. Teresak eta Enkarnaziñoko lekaimeak ez daukie pena txikia; eta erregeari idazten dautsoe egin dautsen oker aundiaren barri emonaz. Atxiloak, barriz, juan'ek, eleiz-ordezkariak jakitun jarririk, arte egin dana; bere ustez ez dau ezertan utsik egin. Alan eta guzti arren, Teresak eta ez dakie andik illa betera be, nundik nora dan. Giomar Ulloa bera be, Teresaren lagun-laguna, naigabetan bizi da Avila'n, Gurutzeko Juanen kezka.

Toledo'n, karmeldar komentua, orma sendo ederre egiña, Zokodover deitu enparantzatik bertan; urriñago jauregiak, gazteluak eta katedralak, goi-zale ta begirale. Or daukagu karmeldar komentua 1578'an, Gaztela'ko etxerik bikaiñena. Larogetabat praille bizi dira bertantxe.

Emen daukazu Juan Gurutzeko; gabaz ekarri dabe; begiak itxita ekarri dabe, jakin ez dagian ez nundik etorri dan, ez nun aurkitzen dan. Ara elduaz bat, Aita Jeronimo Tostado ikerle nagusiak baitu ta ara eroateko agindu dauanaren aurrean dago. Olakoetan jazo oi danez, mundu guztiak ikusi ta agurtu nai dau, au edo bestea itanduz. Juan ixillik, nekatuta bait dago, Avila'tik araiño oiñez ibilli ondoren. Daroan abitu medarra erantzi-azo ta zabal-luzez soiñekotzen dabe.

Ez dakigu zelan zuritu eban bere burua aita Tostado'ren aurrean; baiña izango zituan bere egibideak, ez gitxi, eta pisu aundiak atan be. Eskura eziña agertzen jatzu, berean dago bear diran erraioiak jarriaz, agindu jakona besterik ez dau egin. Ekin eta ekin setati diardu Tostado'k, baiña ezin ezertan be atzemon, ezta autorle zalarik Enkarnaziño ondoko egoitzean bizi zalakoan be; baimenarekin egin eban orixe be.

Urteetan gurutz-oiñazea opa ebanak, or dauko gurutze latz-latza. Ez, ez da ortik urrindu gurarik ibilliko. Kristo nai eban, Gurutzean josia; egiaz diño berak: "Kristo billos nai dabenak, ez bei gura izan urre-bitxirik". errudun jo dabe auzitegian; kartzelara, beraz, ordudanik erabagitu eukena. Eta aita Tostado'ren eskuetan egon bearko dau ainbat denporan. Lenengo komentura daroe, gero, iila bete bat an igaro ondoren, aita Jerman igestu dala jakin ebenean, beste batera aldatzen dabe, berarentzat atondu tako txiki, illun, obi itxurako batera. Toki otz, estu, illunera. Ementxe emongo ditu bere garbiketa egunak.

Ementxe barrentzen da Juan ezkapulario ta txano barik, ezigaitz eta biurri dalako, bere egiten dakiana, neguko egunik otzenean. Orduen liburua daroa bakar-bakarrik errezuak egiteko, otzaren ziztak jasangarri izan daitezcan, Teresak beiñola esan ebanez. Bederatzi illa bete emongo ditu emen, ez euki gorrigorrian, giro kirats eta goiko leiatillatik datorkion argiaren laguntzaz. Teresa bitartean ez dago geldi; erregeri idazten dautso, eta Aita Grazian'i naigabez beterik: "Ez dakit zer zorik darabilen, iñor ez da-ta santu onekin

gogoratzen". egiñalak eginda be, gaitz da ezer lortzea. Olan sei illabete.

Eta zer dagi bere aldetik giltzapetuak? Onetan jagolea aldatzen dautsoe, lena baiño errukiago da. Konfiantza geiago erakusten dautso, jan tzi garbiak ekarri dautsoz, eta Jaunari esker, leun eta samurrago agertzen jakon ezkeru, papera ta tinte eskatzen ausartzen da gauza batzuk idazteko. Ba-dakartsoz espetxe-zain gazteak eta idazten asten da goitik datorkion argi moteletan. Lirak eta erromantxeak idazten ditu, aurretik ixiltasun bakarrean buruz eiota eukananak.

Uste danez, itxitu aldi onetan ida tzi ei ebazan lan oneik: "Maitekanta", zati bat beiñik-bein; "Super flumina Babylonis" deritxona; "La fonte que mana" poema txikia, eta ziurrik asko "gau illuna". Guztiok giltzapetuaren barne-egoera azaltzen dauskue beintzat. Erromantzeak, ez, baiña beste guztiak kartzelako egoera oar-erazten dabe, oiñaze-irudiak, zinkuriñak, alamentu ta espak. "Maitekanta" onela asten dau:

Nun gorde zara,

Maite, ni zizpuruz itxirik?

XII

Lakiotik igesi

Ekatzak ba-ditu ater-uneak, baiña ez dator bertatik ezialdia. Muker dituzu gizasemeak, baita erlejiñodunen artean be. Guztiok uste dogu geuk daukagula egia. Oiñutsak be momentu baten antxiñakoen mende jarri dabez sekulako eleiz-paperak, agiriak eta aginduak aterarik. Juan'ek ete daki ezer? Ba'leiteke ezetz, ixillik maite dabenak eta Ordena barriztatua zelako urgaiñez dabillen dakienak izparkari zintzo ditunarren.

Egoera errukarri arenari! Iñok ez dautso jaramonik egiten. Larutuz eta gaixotuz doa toki kirats aretan. Bildur da, kezkatan dago, urduri ta artega. Zer-edo-zertara jo bear; naspil dakar barrua eta andik iges egin nai dau. Ez daki nun dagoan, biran zelako inguruak

daukazan, gabaz eta begiak itsu, ekarri eben ara. Igesari emon nai dautso. Iges egin, itxaropen bakarra. Ortarako laguntza eske orduak daroaz Jainkoaren aurrean. Zer bide artuko? Orma aundiak daukaz komentuak, leioak Tajo gaiñera emoten dabe, baiña prai-leak bazkal-ondokoa dagien bitartean orman beera jatsiko da.

Aita Maldonado, komentuko nagusia etorri jako ikusten. Juan'ek, urrengo eguna, abuztuko Andra Maria eguna dala-ta, meza emoten itxi dagiola eskatu dautso; aita nagusiari ez deritxo egoki ta ezetz zorrotza. Ez dago, ba, beste biderik: igerasi emon.

Zoli dabil giltzapetua. Tiretan ebagi ditu mantak eta punta biurtuak lot-azo. Aparia ekarri dautsojagoleak, baiña ura aztu jako; uretan joan dan bitartean ixilka urten da Juan, eta dakusanez leioak zabalik dagoz Tajo'rantza eta oneitariko bateren burdin-orpora manta korapillotua lotu, abitua kendu, Aitaren egin, beste manta punteari berak oratu ta ba'doa orman beera naiko polito. Jo dau lurra, Tajo ertzean, Ez dago iñungo testigurik, goian itargia ezik. Ibaiz bestekaldean San Zerbantez Gaztelua; egal-ertzez aitz-mokor-rak eta oinpean olibu-abarrak dizdizka.

Libre dago. Aren poza! Ur jausi jakon abitua jantzi ta ezkarretarra artzen dau. ara-ona dabil aitzetz aitz, urteiera billa. Bapo! Jagoleak iñoiz esan dautso moja batzuen etxea dagoala antxe, urrean; beraz, ez ete da aurkitzen arein barruko aldean? Izuak joa dago, alan be; eguna ba-doa argituz eta goian bere igesaz konturatzekoan, zer? Billa asiko jakoz, eta aurkituz gero?

Orma gaiñetik kalera salto egiñez Zokodover plazan daukagu, aiñ-aiñetan, norantz artu ez dakiala. Ortuarikaz emakume goiztar batzuk; onei itaun. "Nun daukadaz emen karmeldar mojak?" Areik esanari jarraiki, laster daukazu majen monastegiko atean kaskas. San Joseko atea itxirik dago, baiña atea kaskatzean barrutik emakume abotsak dirautso sarrerako atean deitzeko. Jesusen Leonor aiztea da atezain, eta barrutik ots: "Nor dogu?", eta kanpotik Juan'ek: "Juan Gurutzeko naz, alaba, bart kartzelatik iges eginda; esaiozu ama nagusiari". Atezaiñak nagusiari albiste pozgarria. Ara doa, bizkor, nagusia. Babesa eskatzen dautso Juan'ek, arriskuan dago-ta. Barruan moja bat dago gaixorik, eta axe autortzan entzuteko baimendu leikela, uste dau. Giltz-dunak deitu ta barrura da.

Pena dago, bizartsu, abitu orren marraiztuz, kapa ta txotiño barik, loi-loi. Oztotzan dago zutik; nekez berba egiten dau; amai-

tzera doanaren itxuraz daukagu. Laster etorri leikez bere billa, ez beie ezer esan. Laster, ain zuzen, agertu ziran aren billa Karmengo prailleak, "Emen ezta bear da praillerik?" galdezka. Giltzak eskatu ta bazter guztiak arakatu ebezan zeatz be zeatz, baiña ez eben aurkitu; ez, erriko txinelak ekarrita be, ez eben aren errastorik izan.

Gozotasun erpiña! Juan'ek mojai kartzelako goraberak iragarri eutsezan, estuasunak, bildurrak, penak... Asko sufridu eban, egunak, lanik-eza, arimako gau illuna. Kristo ekarren beti aurrean, aren oiñaze ta eroapen eundia. Dotore jantzi dabe monjak, jaten be guraiña emonik. Amaitu dira eleizako mezak eta ondoren barruko ate txiki batetik eleiz-barnera doa Juan. Emen emongo denporea, otoiitzak egin, Irakurri, mezea emon eta abar.

Arratsaldean kartzelan ateratako bertsoak irakurriko dautsez monjai, bat, zur bizia, lurra eskuz, kopia ateraten ari dalarik. Berba dagitse baita Kristori buruzko gai mistikuetaz. Monjak geroago diño: "Zerua zan ari entzutea".

Gero, Juan gabaz an eukitea ez dala egoki ta, Pedro Gontzalez Mendoza deitzen dabe eta onek Alkazar'tik ur dagoan Santa Krutz ospitalera daroa. Iruzur geratu dira giltzape eukenak; igeslaria nundik nora ebillen ez dakiela.

XIII

Andaluzia'raniza

Euri- jasa ostean bare-aldia, esan oi da. Ezin esana egiaz ortozen komentuetan Juan atxilotuaren igesa jakin zanean. Mendozanean egoan au atsedeen artzen, apurka apurka. Ez dago etxe barruan, bildurrak jorik. Sarri doa kanpora, gaur lekameak ikustera, biar Tajo gaiñeko txirrita tokira; gero, ez gitxitan, illuntzean, ibai ertzetik dabil, edo-ta kale estuetan zear.

Mezu batek, alan be, eten daroa atsedeen-aldi gozoa. aita nagusiaren karte da; dei dagitso Almodavar del Campo'n (Ciudad Real), Mantxa'ko biotz-biotzean ospatuko dan batzarrera. Eta Juan, oindiño guztiz osatzeko dagoan arren, bidean jarten da ara, mantxeguen lurraldera joateko. Pedro kanonigo jaunaren zalpurdian doa, aren morroi ta zerbitzari leialak lagunduta. Aita Juan'ek or izten dau Toledo, beretzat gomutatiz betea, eta Alkantara zubia okertzean,

agur diñotso samur uri zarrari; or eleiz-torreak eguzkitan dizdiz, or Alkazar eta beeratxoago bere espetxea ñirñirka; or geratzen dira txirristatu zan ormak, erdi irriparez; or goiko leioak, erdi zabalik.

Eguzkitan eguraldi biguna. Lur ausiak, mendi txikiak; Malagon, Ciudad real, solo ta landa jori-aberatsez eder, maastiak eta olibo saillak ezker-eskuma. Zeru urdiña buru-gaiñ, begiak urriñeko gandan topo dagie. eztitan doa Juan, inguruko ederrez zentzunak, irudimena ta arimea aserik. Trakatan, trakatan doa zalpurdian, eta noizik-bein bira egilean, maats-aienen guritanak lilluratuta, Jainkoaren edertasunaz itz-egiten dautse Juan'ek, burdi barruan doazanai.

Gurutzeko Juan Almodovar'era eldu zanean batzarkideak pozaz gaiñezka artu eben. Ba-ekien zelan joian; egun batzuk lenago Teresa amaren Idazki bat eldu zan ara. Onela iñoan bertan: "Atsekabe ez gitxi emon daust Aita Juan'ek eroan bear izan dauan azken-naigabeak, eta ez dakit zelan itxi dautsoen, ikusiak ikusita gero, bizkortu barik oraindiño, orra joaten. On bekio Jainkoari il ez dakigun. Egizu zuk, aita orrek, ondo artu daiela Almodovar'en, alegindu zaite ta esan eidazu zelan doian, arren bai arren, ez aztu. Neuk diñotzut, ilten ba'da, bera Jango gitxi geratzen jatzuzala".

Arduraz bete nai dabe batzarkideak Teresa amaren eskari au. Ortikan, maitatua, lagundua ta erega tua da Donibane Gurutz. Kalbario Mendiko nagusi autatu dabe, Segura ibai ondoko mendi artean datzan komentukoa. Aita Pedro, len komentu ontako nagusia Karmel barriztuko arduradun egin dabe Errom'rako. Ara orduko, conseju eske urreratu jako Juan'i, eta omek, Jainkoak argiturik, esan eutson: "Zu, ene aita, oiñutsik zoaz Erroma'ra, baiña zu oskidun biurtuko zara España' ra. Biurtu zanean, izan be, Granada'ko bizitz arindua erioen lekaideekana joan zan.

Toledo'tik ekarri dauan zalpurdia daroa Kalbario'ra. Arako bidean Beas daukagu, eta ementxe iru urte dirala Teresa amak jasotako monastegia; aren alabak Juan'i ez dautsoe izten eurakaz egon bage andik igaroten. Poza naigabe biurtu jake; beiñola euren autorle izana, legor, erkin eta zurbildua, ilda lez daukie. egun aretan besteakaz batera berbaz aurkitzen zan mojatxo batek idatziko dau: "Ildako baten itxuran etorren; azur gaiñean azala besterik ez ekarren; azkenetan, ia barbarik ebagi eziñik".

Jesusen ana da bertako moja nagusia. Eta danak, zeñek geiagoka, janez eta jantziz, lagundu ta bizkortu nai dabe, bidez era eldu jakena. Era askotara adoretu, itzez, bertsoz, izkirimiriz; kantaka, barre dagie danak batera; abestiak, alelu jak, burura datorkioen gutzia. Juan'ek, erantzunez, giltzapeko bizitza edesten dautse zearo. Onetan, goi-argitua nunbait, neskatilla sar-barri batek:

*"Miliaren barri ez daunak
minczko ibar triste ontan,
ez daki zer dan gauz ona,
ez dau maite-surik goza,
maitaleen jantzi da-ta..."*

Sor ta lor, lilluraturik geratu da Gurutzeko Juan. Suzko koloreak galdatzen dautso betartea. Eta mOnjak, ixil ta zurturik, Beas'tik Kalbario Mendira doa Juan, giza-zaratarik urrin, Andaluziko barkartadean. Etzan bera buru-ukapen eta penitentzi geiegi atsegin jakona; neurria zer guztjetan; komentu ontan zorrotz bizi ziran, eta Juan nagusi zalarik lenengoa zan ortozen legeak eskatzen eban gauzarik pitiñenetan be. Profesa egunean agindua bai ekien beteten; santutasunezko bidetik jo gura eben, nagusiak eta menpekoak. Egia da au be, nagusia aurrenik dabillenean, bakartadean batez be aren oiriatzez jokatu nai izaten da; nagusia nasaitzen danean, ostera, beste guztiak be nasaikerira egiten.

Kalbario'n ba-zan oitura bat, Juan'i atsegin ez jakona: eskean urten oi eben lekaideak. Onek bere eritxiz lazokeria sortzen, barruko lege-betetzearen kaltez; etzan au araudiak zuzenean aitatzen ebana, eta bere ustez Karmel bizitzaren ederrari ta xarmentari okerra ekartson. Bizimolde zintzoz eta esku-lan pizkati ekin ezkerroz, ez eben ezeren utsik izango. Jainkoak ez al dau guztion ardura?

Egun batean esan eutsoen etxean ez egoala jatekorik, baiña barri orrek ez eban bera larritu. Lekaideak joan ziran beste egunetan lez, ordu berean, jantokira. Ogi-zati bat an mai gañean, eta zuzendu ziran jantokian eskerrak emonez. Prajlleak artu eben maian bako-txak bere lekua ta Juan Guru tzekok itzaldi eder bat egin eutsen, txirotasunaren grazi ezkutua, eroapenaren irabaziak, Jainkoaren naian auki bear eben guraria biotz-gar biziz eta gantsu zerukoiz azaldurik, eta anai guztiak jantokia itxi sua eriolarik.

XIV

Zugatz eta lora artean

Bakeleku zoragarria aukeratu eutsoen Almodovar'eko batzarkideak Juarr Gurutzekoa Kalbario'ko nagusi izentatu ebenean. Guadalkibir'ko mendi-arte atsegiña, zugatz-mota askoz betea. Goeanean, eguzkiak eguerdian zut-zut ziztatzen dauan muiñotxoan dago Kalbario monastegia, dotore jantzia.

Udazkena da Juan bertoratu danean. Oritzen asirik zugatzak, uzta emon ondoren. Laranja-ondoak ugari, ugari, usaintsu, eta iko ta limoi-ondoak bete-beterik. edertasun guzti au begipe dauko Juan'ek bere gelatik. Gela txikia, baiña atsegiña. Eurrez datorkio barrura zugaztiak bialtzen dautson argi muskertua; Guadalkibir'i agur egin nairik dagoz inguruko muiño ta bizkartxoak, Kalortza'ko mendi-besangatik jatxiz datozen ur-xiripakaz edertuari eder iza-tearren. Juan begiak, lendik lur igar, bide austu, gari-sail ori ta agotz laruak ikustera egiñak, ba-daukie emen ikuspegi koloretsuz nun atsegindu.

Bestelakoa nunbait emengoa ta Toledo'ko presondegiko begimuga. Bazter osasunkorra, dudarik bage. Artutako zigarraldiaz gorputza oraindik makal-samar ekarri baeban be, lenagoko azpegi, zuzko ta giarra, sufriduz xendotua, "bere jatortasunaren eta dotrinearen" kirio ta zutabe diranak, emengo giro ta lekuaren ederrez barrero beraganatzen ditu. Orain ezta basa-bedarrak jaten dabezana bakar-bakarrik, orain olerkari be ba-da, inguruko ederra maite dauana, aldatz-beera ur-ari ibilkorrak lilliratzen dauana.

Eta goizean, otoitz bitartez, korurik urtenda, alboko munara joan da; Ederraren inguruak ikusiz, sorkariai deika asten jatzu.

*"O baso ta leku itsu,
Maiteak eskuz jarriak emaro!
Oi lorez jositako
barizki zelai musker,
esan zuetatik danetz igaro!"*

Eta sorkariak, birako tantai, lore ta enparauak, buru-makurka erantzuten:

*"Milla eder-jarioz
arin igaro zan ibar otatik,
ta begiratu soillez,
bere itxuraz bakarrik,
oro itxi euskun eder jantzirik.*

Eder dau Juan'ek, goizean goizetik, baita beste lekaideak lo dagozale be, jagi ta aldatz gora, gaiñeko bizkartzora igotea, izadiaren sotiltasunez asetu nairik. Beste batzuetan, Kalbario' ko ogetamar prailleakaz doa kanpora; otoitz ordua da, ta koruan egin bearrean, Juan Gurutzekok landara daroiaz, zeru zabalpean, egin dagien, basarte ezo ta usaintsuan. Itz dagitse, jainkoaren betiereko edertasunaz, sorkari guztien ots eztiz, zelaiko lorak, zugatz-orriartetik igaroz datorren argi-txintaz.

Beste batzutan lanera doaz. Lurra atxurtzen, ertzak garbitzen, adar-gailiak mozten. Juan ara-ona dabil, danai laguntzen. Eta komentu inguruak txukun daukiez, soloak eder, ortutxoak barazkiz jori. Otoitz eta lan.

Karta bat eldu da monjen komentura, Jesus'en Ana nagusiarentzat. Onela dirautso bertan: "barre eragin daust, alaba, suster barik negar dagizulako, autorrentzulea dala-ta; or daukazu, ba, nire Aita Gurutzeko, zerutar eta jainkozko. Neuk diñotset, ba, neure alabai, ara joan zanetik, bera lakorik ez dodala aurkitu Gaztela guztian, zeru-bidetik dabiltzanak sutan jarten ditu. Oso gogo-zalea dozu, experientzi ta jakitate aundikoa. Emon eskerrak Jainkoari, or ain ur daukazuelako. Zuoi laguntzeko diñotsat, eta ba-dakit egingo dauana, edozein estualditan zuokaz izanik".

Geroztik juan, lenengo Kalbario goitzora igon eta gero andik beera, Segura iparraldez Beas'era doa ango mojak autortzera. Beas' ko lugiñak urriñetik ikusten ei eben kapa zuriduna arri-mokor artean txirristatzen eta gero mun-egiko berdean ezkututzen.

Dana ez da, alan be, konfesatzea ta idaztea. Juan'ek ba-daukaz beste zaletasun batzuk be. Solo ta zugatz artean, eta iturrirako

bidean, ainbat gauza eder sartu jakoz begietatik; inguruetako koloreak be, argiaz batera jatorkoz gelara. Maian dago makurtua, paper baten aurrean, eskuz luma bat daukala; marrazketan diartu. Gaztetan ikasian saiatzen. "Lerro zutetan -diño idazleak- goi-erpin ostez ta argiz betetako menditxo bat pintatzen dau. Garaia da, egoera zakarduna. Lumearen puntua beian jarten dau Juan'ek, mendiaren erdi aldeko saietsean, eta beetik gora doa erpiñera eldu arte. Lerro zuzen bat marraztu dau. Barrero ipinten dau lumea beeko aldean, aurreko lerroaren ia ondo-ondoan, eta mendian gora, beste lerro bat marrazten dautzu, aurrekoa baizen tarte bardifiekkoa. Eta gero, mendi gora oster a be, bataren eta bestearen artean geratu dan utsune estuan, onela idazten dau. Ezer ez, ezer ez, ezer ez".

Osotasunaren mendia zirriborrotu dau. Alboan ortik ezer ez, emetik ezer ez jarriaz bidezidor ertzetan; bideska onek gaiñe-gaiñeraña daroa lerro zuzenez. Zeren ikur edo ezaugarri dozu berau? liburuetan erakutsiko dauan dotriñaren ezaugarria. Zapatuan, arra tsaldez, mojak, Beas'ko lekaimeak, autortzera doanean berarekin eraango dau zirriborrotu dauan papertxoa, eta mojak be eskolatu daitezcan, antxe itxiko dautse. Lagungarri izango jake arei, eta gomutaki, mendi mistikura igoeran.

XV

Baeza'ko Ikastetxean zuzendari

Jaen'en daukazu Baeza, probintzi erdi-erdian, iparretik La Carolina, sortaldetik Ubeda, egoan Jaen eta sartaldean Andujar daukazala. 1579'ko bagillaren 13 da, eta ara doaz lau fraille, oraiñarte Kalbario konbentuan bizi izan diranak. Aurretik doa tapa-tapa astotxo bat komentu barriari asiera emoteko bear diran gauzakaz. Atzean gera tzen dira ortu, sagasti ta bideak, eta txori-abia iduri, komentua.

Amesez beterik doa Juan Gurutzeko. Uri inportantea dozu Baeza. Unibertsitatea dago bertan, eta onek poztasuna dakartso lenago Salamanka'n eta Alkala'n ikasi ta egonari. Ez da izango, ez, edozelango komentua, Andaluzia'ko probintziko kultur-lekurik bikaiñena baiño, Gaztelan orduko Alkala'koa zan legez. Juan pentsakor doa, erriko Unibertsitatearen ondoan karmeldarren ikastetxea be zelan loratuko dan buruan irauli ta irauli.

Biaramonean kanpai-otsa Baeza'n, eta arriturik bertakoak izkiltxo baten dindon alaia entzunik. Ez dakie zer dan. Donibane Gurutz'ek, meza emonaz, komentu barriari emon dautso asiera; geroago be, andik urteetara, baezatarrak gogoratuko eben bagilleko egun gogoangarria, praille karmeldarrak Unibertsitate ondora etorri ziranekoa. Urrengo or jazoera barri bat Baeza'ko kaleetan; egunero karmeldar Ortozak, ikastetxetik urten eta Unibertsitatera doaz, apal eta batu.

Usain gozoaren antzera, laster zabaldu zan karmeldar ortozen komentuko nagusiaren jakituri ta zuurtasunaren entzuten, eta Ikasgu nagusiko maisu ta irakasleak eta doktoreak beragana jotzen dabe beragaz berba egin eta gauza ta gairik asko berari eritxia eskatu ta eztabaitu nairik. Eta Ikasgura biurturik karmeldar lekai-dearen jakituri zabala goretsi ta aundiesten dabe.

Ikas-urtea amaitu da. Aita Juan nekatuta dago, ta egoki jako oporraldia; Guadalimar ibai ondoko landetxe batera joan da; toki atsegiña bene-benetan atsedena artzeko; biran daukaz zelai ta landa bedartsuak, loraz jantzirik, zugaztiitsuak, iturri marmar-tiak... Nun obeto emen baiño?

Goizean eguna argitu daneko, landa erdian daukagu Juan, gau-iruntzez ezo dagozan izar-lili, begi-zuri ta bitxi-lorak batzen, gero txortatxoak egiñez altarara daroazanak. geroago, *Maite-kanta* iidaztean, onela abestuko eban.

*"Lora ta pitxi guriz
-goizalde otzean biok batuta-
egingo dogu txorrta,
zure maite-suz gara,
ene ule batekin alkar eiota".*

Lorak bakarrik ez ditu landatzen, baratz pitin bat dauka, eta a be zaintzen da ardura maitekorrez; bedar txarrak kendu ta ura egiten dautse bertako landara ta barazkia, zugatz-zale dozu, eta itxuraz daukaz, sagar-ondoak, limoiak, granadak, larrosak eta zapaloresaillak. Bere-bere ortua da au, arretaz jagona. Eta aize ozkirriak,

ipar-aldetik jotarakoan, lorak barneratu ta usainki barik gelditzen diranean, aize izoztuari koplariak diñotsa:

*"A go geldi, ipar illa,
ator ego leun, maite oroikor;
jo ene baratzean,
A ren usain-jario, I
lilietan Joke Maiteak baikor".*

Baiña dana ezta poza negar-erri onetan pozagaz naigabea errez nastu oi jaku. Donibane Guru tz'ek ezti ta gozo ebillelarik, albiste zurbil bat izan dau: ama il jako, Katalina Alvarez, Medina del Campo'n il da bere seme maiteagandik urrin. Ixil geratu da etxe apal a, ez da geiago eundegiko oskar eta arrabotsik entzungo. Juan, zizpuruka, otoitzean jarri da.

XVI

Azkenengo alkar-izketa

Amaren e,riotzak oiñaze izugarria ekarri dautso jua Gurutze-koari, eguneroko zer guztietan adierazo oi dau oiñaze orren eztena, beti saztaka; larri darabil amaren utsak. Ba-dau beretzat, Karmel-Ordenan batez be, bigarren ama, A vila'ko Teresa. Bizkor doaz urteak, eta au be osasunez urri ta lekaimen etxe barriak jaso ta jaso. Berak be Granada'n bear leuke aren laguntza. Eta egun baten, biotzak eraginda, Baeza izten dau Avila'rako bidea artuz. Linares'-tik gora Aranjuez eta Madrid'erantza, asto gaiñean. Etzan ibilte egokia orduan izango; Juan baiña erabagitsu izan. An gelditu dira Baeza ta Ubeda; 1581'ko azaroa da-ta, otzak izoztu bazterrak. Guadarrama gairiak zuri dagoz, edurrak artuta, piñadiak oker ipar-aizearen mende. Zamaria nagi dabil, gaiñekoak errukiz ez dau leratzen. Atzean nabari dira patariaren oiñatzak, edur-gaitzak, edur-gaiñean mordoka.

Avila'n dagoz, oraindiño ixil-loan aurkitzen dan uri edeztitsuan. Zuri teillatuak, zuri kaleak, ezta ezeren zaratarik. Ezkil arin batek, alan be, bere dei pozkorria zabalduz diardu. Nungoa ete? Katedral ondotik doaz, eta an urrintxoago San Joesp komentua, Teresa amak

jasoriko lenengoa. Edurpean ezta ondo ikuskatzen, baiña arantza zuzentzen dabez ibiltaunak euren oinkada astunak.

Zuri San Josep monastegia. Bertako larraiñean jasten da astotik Aita Juan, Baeza'tik datorrena. Sarrerako ezkilli tira eta poz alaiz dardaratu ditu inguruak, eta andik laster abots samur batek: "Agur Maria, guztiz garbia", eta "Sortzez garbia" erantzun etor-barriak. ez da geiago bear, naiko da-ta. Moja atezaiña bizkor-bizkor doa Teresa amari barria emoten. Aita Juan daukagu atean! Au benetako poza! agotik sudurrera zabaldu da, tximista legez, komentu guztian. Arein berbaldi gozo luzeak!

Eta ondoren askoren itauna: zek ekarri ete dau Baeza'ko nagusia, Andaluzia' ko giro samurra itxirik Avila'ko edurtzara? Jakin da atzenez, ames bat dakar; Teresa ama ikusi gura dau, aspaldian alkar ikusi ez daben ezkeru, uri onetan, arresiz bestaldeko Enkarnaziño komentuan azkenengoz, gauza asko gertatu dira arrezkeru. izteré begi ta etsaiak oratu ta Toledo'ko kartzelan euki eben, gero Andaluzia'ko lurraldeetan karguz ta Janez aserik, luzeerik egon da ama Barriztatzaillea ikusi barik. Bien bitartean ainbat gauza jazoak dira! Granada'n komentu barri bat jaso nai leuke gaiñera, Teresa ara eroanaz.

San Josep komentuko iztokian egiten da alkar-izketa au, Juan kanpokaldean eta Teresa barrukaldean, burdin-sare ziztakorra erdian daukelarik. Teresa, zaartua ta nekatua, pozik dago ta bizkortuz doala dirudi Aita Juan an ikusiz; beiñola lez gogotsu ta pozkor, gaztetan lez bizi-bizi ta gatz-jario mintza nairik. Itaunik asko egiten dautsoz, zera atxilo eroan ebanean zelan artu eben, giltzpeko egun larriak, oiñaze, ta barne-pipi ta ondoezak, zigorkadak, igesa.

Eta pozak, Maite-kantako estrofak biribiltzean. Juan'ek, barriz, galderok irripar erdi-maltzurra ezpan ertzean; areik, bederatzii illabeteko atsekabeak urtu ziran, laiño mordo baltzak ekaitz ostean ezereztu oi jatzuzan gisa. Martiri arek ez dauko inportantzirik. Inbidiz dago Teresa ama, eta berak zegaitik ez beste orrenbeste? Juan da egiaz Erreformako ziñopa. Zergaitik ez ete eban berak, Barriztatzaille zala, kartzelako ogi baltz lizundurik gustatu?

Gero, karmeldar Ortozak dabez azter-gai. Eraso ta astiñaldi ugari sufridu arren, pozik dago Teresa; izan dira arriskuz beteriko

unekada batzuk, larri ibilli ziran ekaitz artean egin ebena onda tuko ete jaken bildurrez, baiño gaur joana egun txar arein kiratsa, gaur trankil dabe arnas artzen. Beiñola loratu jaken asmoak frutuak dakaz: lekaide ta lekaime ortozak ederto boga dagie urgain apartsuan, ugarituz eta eratuz doaz askatasun osoz.

Alkala'n oraindik orain ospatu dan Batzarra gogora dakarre, an artu tako erabagiak, an egin zan probintzi-banaketa, Andaluzia'n zelan joian Ortozen ardura, Baeza'ko ikastetxea, ango Unibertsitatearen kerizpean, Teresak ain maite zituan misañoak, eta abar eta abar.

Eta orain biziago berba egiten Juan'ek. Zer orrek ez ete eban ekarri, batez be? Oraintxe dauko era ederra arei ikustaldi gozo bat egiteko. Ez-usteko ederra Teresarentzat, zurturik geratu da; araiño bera? Zartua ez ete da aurkitzen, mastruri aiekaz betea? Ostera be Juan'ek bere billa etorri dala dirautso: Granada' tik eske dabiltz, an komentu barri bat eregi naita. Ezetz diño Teresak buruari eragiñez. Egi-egiaz eziña. Orduantxe, ain zuzen be, B u rgos' era joan bear dau, ango fundaziño barrira; ez daki, gexorik, nekatua ta ajez beterik dago-ta, bizirik biurtuko dan San Jose bere komentu kutunera.

Buru-makur eta biotz-mindua alde dagi andik Gurutzeko Juan'ek. Oldozkor doa Teresa maitekiro agurtu ondoren. Biotz aundi biren agur maitekorra! Teresak aul daukaz begiak, eta aren arimeak gorputza itxi gura dau; Juan eta Teresak lurrean ez dabe geiago alkar ikusiko. Biak, Karmel Barritzaille biak itzik esan bage, begiakaz, agur egin dautse alkarri, zeru ederreraño.

XVII

Granada

Juan Gurutzekoa, Gaztel-erria itxi ta lengo lakura, Baeza' ra doa. Ez orraitziño esku utsik Granada'ko Karmeldar komentu barrirako doazan lekaimeakaz baiño. Ezta Baeza'n geratuko; an daukaz, ba, itxaroten Alanbra ondoko Martiriak deritxon komentukoak bertako nagusi aukeratu dabe-ta. Araxe zuzentzen da Juan, Baeza'koai agur esanik. 1582/ko urtarrillaren azkenerantza da.

Mojak be euren komentua daukie, antxe berago uri barruan lez, Elvira kalean, Ana Perialosa'ren etxetik ara aldatua. Ara jasten da Juan mojak autortzera.

Arduraz zaintzen dau Juan'ek etxea, barru ta kanpo. Prailleakaz ezta latza, bai ostera bere buruaz; legea gorde bearrez, ez dabil iñoren atzetik; eredu da bera, nagusiak izan bear dauanez, eta besteak ispillu danari berez jarraituko; alan be, iñoizkoren baten norbaitek uts ba'dagi ta berak ez-ustean arrapatu, banaka edo berezian artu ta zentzatu oi dau egindako utsaren barri iñok izan ez daian. Nagusiak ez ditu falta guztiak zigor-azo bear, ezta danak iruntsi be; lege au osorik jagoten eban Juan Gurutzekok.

Toki zoragarrian dago kornentua. Alanbra muiñotxoan koka-tua, beste aldean mairuen jauregi dizditsua, orma sendo garai ederrez apaindua, iparraldera Generalife baratx eta lorategi sorgi-ñez lizun; atzetik, ostera Mendarte Edurtua (Sierra Nevada), arri-mokor zabal zuria; eta azpian Genil eta Darro ibaiak zarata ozenez dabiltzanak, Albaizin, ijitu ta mairuen kanta ta dantza lekuari panpiñak egin bearrez. Gaur karmen-etxeak eta Sakramonte.

Ementxe emongo dauz Juan'ek urte batzuetan bere egunak, pozik dago. Bean eta urruti-samar zaratia dan arren, Jainko-zale batek bear dauan beste bakartade ez dauanik esatea, guzurra litzateke. Ba-dau ikuspegi ederra, an naiz emen, ba-dau nun apos-tolu tza egiñik, mojetan naiz erritarren artean, bietan jokatu eban arduraz.

Olerkari dozu Juan eta koplak, jainkozko koplak neurtzen dauskuz gela barruan, txori kantalarien txio, txorratxio ta firurika eztiak entzunaz; beste batzuetan auzoko zugaztian, zugatz-ondoan jarrita, luma eskuan, bertsoan diardu; oztopo barik dabil luma, bizkor eta gozo: burutik lumara doaz pentsamentuak, eta airez doazala biotzak sutzen ditu. Egaztitxoak soiñua damotsoe, urak polpol-otsa, baso-lorak usaiña, eta alboko maasti loratuak ezotasuna. Eta Juan'ek paperean dau:

*"Aizearen ats mea,
txindor eztiaren maite-leloa,
ibar ta ango giroa,
izar dan gau narean
min bage erretzen daunugar-lanboa".*

Gaba geituz doa. Inguruka sarri dabiltzan lukiak eta azeriak bildurtuko ete dabe? Sarri joateko diñotse, zugatz oiñean koplaxortagiñan ondo dagola-ta:

*"Azeriak aizetu,
loretan bai dago gure maastia;
larrosaz bitartean
txorta egingo dogu;
ez begigu ifiortxok izu mendia".*

Orrelaxe zugatz-ondoan kukurio lerrotzen ditu dozenaka aapaldi.

Kanpo-zalea dozu Juan, eta otoitz-aldian be, sarri, gozo ta esan-naiago jako zelaia, naiz zugatz-arte, korua bera baiño be gozo ta esan-naiago. Jainkoak bere eskuz, ederrez oparo jantzi bai zituan bazterrak. Ezta panteista, baiña izadiak eurrez eskintzen dausku Aren edertasuna.

Besteak, bere menpekoak be, gozatu daiela ortaz, eta berak laguntzen dautse inguruetak troka, mendista ta zelaietara; batzutan egun osoa emoten dabe kanpoan, bazkaria be bertan egiñik, alai ta umore onez. Beraz, lekaide bizitza ezta beti gelan eta koruan otoitzean eta errezuaz egotea. Zugatz artean, orain irakurri egiten dabe, gero gogartu ta azkenez puntu bat eztabaidatu. Iñoiz erre-kondoan zear daroaz, uraren burrunbada ta polpol ozen neurtua adituz eta Juan'ek, ibilliz, uraren ederrari buruz diñotsezan berbak jasoaz. Jauzi dagie berez-berez sorkarrietatik Sorkari Nagusira goratzera.

Iñor makal edo gaixorik ba'dago Juan'ek maitekor jagon oi dau. Berak gertatzen dautse sarri bear daben jatekoa: ez da sukaldari txarra.

Bazkari ta aparti ostean, prailleak geienez solasaldia euki oi dabe alkar-izketa interesgarrian. Juan'ek, ango komentuetan batez be, ots, Kalbario, Baeza, Martiri, egiaz alegintzen da ango aita ta anai guztiak pozik eukiteko; izkirimiriak eta ipuin polik barre eragilleak kontetan dautsez; euren erdian jarrita. Alkarregaz egon bear dabe guztiak jan ostean; entzun eta itaundu, sarri Bibliako testu bat be urkuldu oi dautse, salteriko bertso txoren bat edo. Modu orretan, solasaldiari azkena emoteko kanpaiaren dardar-deia entzun arteño.

Erritarrak eta Elvira kaleko lekaimeak autortzen ditu Juan'ek. Astero jasten da ona, esan dogunez. Banan-banan autortu ondoren, itzalditxoak daukaz eleizan danakaz, gaixoak eta enparauak zelan dagozan, ainbat galdera ta ainbat ardura. Zer onein ostean, iztokira doaz danak, lekaimeen salaldira. Oneik lan dagie emen, sedazko morgil eta lore-lakak eio, altarako izenak bir-jaso ta ertzatu, burukoak atondu eta abar; mojak lan orreitan diarduela, Juan Guru tze-kok, kanpokaldetik, arein lanak arriturik dago begira. Ordua bete danean, amaira da lana, sarea itxi ta bakotxa bere gelara baztertzen da.

Eta Juan, arein autorlea, Alanbra'ra, bere komentura doa.

XVIII

Donibane Gurutz Segovia'n

Karmeldar Ordena barriztatua, asieran jaugarri naiko sortu ziran arren, polito zabaldu zan epe laburrean, espaiñar bazterretan zear. Duruela ta Manzera ostean an daukagu Pastrana, bizitza gogorra eroiena, esan dogunez. Baiña aren eragiña, ez txikia, laster edatu zan an-or-emen. Jenteari eder jakezan ango erstura ta lazta-suna. Eta askok eskatzen eban karmeldar jantzia, eta karmeldar ortozen etxe geiago bear ziran.

Orrela jasoko dira Kuenka'n Altamiralcoa (1571), Kuenka'n bertan Roda'koa (1572), Granada'koa (1573), Periuela'koa (1573), Sevilla'n Remedios eritxona (1574) eta Almodovar del Campo (1575). Besteak ekaitz ostekoak dozuz. Ortozen eta ez-ortozen artean bakea egin zanean, Teresa amaren guraria zanez, Aita Grazian atera eben Ortozen nagusi; Alkala'n egin zan au, 1581'an; teresiar familiarentzat lenengo nagusi lez, Grazian zan ain zuzen Teresa'ren gobernu-kera ondoen ausnartu ta ekiana; au da, emakume arrigarri arek Karmel anaidiari sartu nai eutson espiritua ondoen ulertu ta bizi izateko gai zana. Ortozak aurrera doaz, eta Teresa pozik. Lekaimetxeak polito ugaritu jakoz; azkenengoak Soria'n (1581) eta Burgos'en (1582). Mixiño auzia be aurrerantza joian: 1582'ko apirillean Lisboa' tik urten eban, Kongo' rako, karmeldar mixiño expediziño aurrena. Orain, ba, bakean iltzeko moduan aurkitzen zan. Eta egin-egiñean, 1582/ko udazkenean il zan.

Granada itxi ta Gaztela'rako bidean jarri da Juan Gurutzeko; an geratzen dira Kalbario. Baeza ta Martiri komentuko bere menpeko ta anaiak. 1588'ko udan Segovia'n dago. Emengo nagusi autatu dau Batzarrak. Ez dauko emen Andaluzia'ko zero garbi urdiñik, baiña ezta Gaztela aldeko lur idor muturbaltz saputzik be. Ez dau ezagué tzen toki au, atsegin jako alan be; komentuak atzetik menditxo bat dauko, arri-mokortegi malkarrak, aitzean edegitako kobak, sasi artean estali, baita iturritxo bat be, ozgiro ta jori zume artean jarioz.

Guzti au komentuko ortuan. Bertatik ikusten da, aurrez-aurre dagota, Alkazar ospetsuaren isla-erraiñu erdi-arakoa. Arutzago Doneztebe'ren torre erromanikua, eta tartean Eliza nagusiaren gairi eder garaia, eta or urrin, sort-egotara, Guadarrama ta Balsain garaien erpin-gaiñaldeak, udan piñadi berdez eta edurrez zuri neguan. Urrago, komentuari ikutzen doi-doi, errekatzo bi doaz dantzari, bakotxa bere aldetik, Segovia kokatzen dan arkaitza inguratu ondoren, Alkazar azpian alkar besarkatu ta aurrera doaz batera Gaztela'ko lur lantzar eta latziñetan Eresma eta Clamores.

Granada'n legez eztau emen asti geieg;rik'irakurri ta idazteko. Beste gauza batek be buruko miñik naikoa dakartso; komentu barrian lan dagie, eta egiteko orrek eska tzen dautsozan ordurak ez dira garrantzi bakoak. Langilleak ditu ta lang;lle artean berak be ez dau izerdi gitxi emoten. Berak daroa beargin eta ofizialen ardurea; lanari daragoio sarri, eurakaz, arri naiz karea eroanik astraka naiz kopalet baten. Ez euriak, ez autsak ez dautso iguiñik emoten.

Ortua orobat nasaitu egin nai dau; goikaldean lur-zati bat erosteko ez dau eragozpenik. Erositako arloari mugak jarten dautsoez, an eta emen ezaugarri lez arri-mokor bereziak ipiñiaz. An oitura danez, bedarrak kendu, oinkadak emon eta arriak jaurtiz, Juan'ek jabetza damotso lur-zati ari.

Noizik-bein Aita Juan, Baeza'n eta Granada'n lez, ortuan gora dator illunkeran; urian izan da mojak autortzen, eta martu ta sasiz gorderik daukan bere kobara dator; goian, Azoguejo plazan, erro-mar irrikillaren arku izugarripean itxi dabezan salerosle ta merkatarien zalaparta eta barailatik igesi. Eta artzulo orretan, Alkazar'i bekoz-beko, erregu ta otoitzari dagitso. Baita idatzi be eguzkiaren sartze sorgiña begietan dauala.

Onela idazten dau.

*"Gauaro il baketsu,
argi-nabarretik ur danekoa,
musika-ots ixilla,
bakar-leku ozena,
apari eder maite-min eztizkoa".*

Komentura doa, bizkor, apaltzeko ordua dalako. Lekaideak, ondoren, bakotxa bere gelaratu da. Leio ertzean Juan, zero izartura begira; ezin geiagoko ixiltasuna, arima ta Jainkoaren arteko maitasunaren ezkutu gozoa barrendu nairik. Onan dau kantatzen:

*"O Zu, gau bide-erakusle!
Gau argi-urratzez gain maitagarri!
Oi gau maitea Maiteaz
alkaru, batu zenduzana,
maiteño Maiteaz alkar eseri".*

Eta zero izartu ederraren ederrez aseturik, gorputzari atsedean pizkat eskintzearren olezko oe ez bigunean etzuten da, andik lastertxo, gaberdian, maitinek errezau ta kantatzen korura joan bear dau-ta.

Goiz eta arratsalde, ordu jakiñetan, lanean edo egurasten baratzetan ibilli oi dira lekaideak, eta ortukd iturri ondoan aurkitzen dabe Juan, arri-mokor gaiñean jarrita; gaur go3arte sakon, biar irakurten Bibliako atal autatu bat, etzi uritik jator_ozan eleiz-gizon argiakaz izketan. Beste batzuetan bere anai Frantziskok laguntzen dautso, asti-uneetan, ango beargiñak joan diranean.

Aren espirtua kezkatan daukie beste zer garrantzitsuago bartzuk be. Gogora dakar sarri Teresa deunaren alaben Barriztatzea. Nola dabiltz? Zer joera emon nai jako? Illa zan Teresa, eta ez da arritzekoa. Prailleak ba euken arein ardurarik? Bide latzetik zuzenduko ete? Ama arek irakatsi eutsen alkar-maitasun espirtuz ete joiazan, arek beti tinkatutako askatasun-bide egokitik?

Kezka ta dudak jota bizi zan garai aretan. Bera zan, izan be, karmeldar Ortozen aita, Teresa'ren eragin gotorrez Duru elo'n len-

arnasa emon eutsona. Kezka ta duda orreik etziran, ba, suster bakoak. Jaunak, baiña, ez eban bakarrik lagako. Bein, antxe Segovia'ko eleizan otoitzeari ekion belauniko; Kristo eukan aurrean, gurutzea bizkar-gairi ebal; bat-batez argitzen jako arpegia, eta ezpanak mobidurik, au diñotsa: "Aita Juan, eska eistazu nai dozuna, nik emongo dautzut-eta". Auxe entzun dau Juan'ek argi ta garbi, eleizbarru ixillean. Eta Juan Gurutzekokjardetsi: "Pati et contemni". Au da: "Zeugaitik sufridu eta gitxieritxia izan naitela, Jauna".

Gitxi-etsia izango da, bai, eta laster izan be. Destaiña ta aintzarik eza izango ditu ugari. Berak eskatu dautso Kristori.

XIX

Azken-aldiko gurutzak

Pertsona bakotxak, esan daikegu, jaiotzez dakarrela bere dei berezia, eta dei orrek eraginda izango da gero pertsona ori nortasun apartekoa; bere lanak be orrek bideratu ta ots emonak izango dira. Juan Gurutzekoa, komentuetan sarri nagusi izan arren, etzan ori bere egi-egiazko deia; idazle ta olerkakari zan grña ta jaiduraz. Nagusitzak dakazan ardura artean be, arek beti jo eban ida tzgririara. Andaluzia aldean aurkitzen zala baitik-bat. An eta Segovia'n, ondu zituan libururik geienek.

Andaluzia'ko urteak eder izan jakoz, geienean, amesez beterik eldu zan Gaztela'ra, bere ama-lurrera, laster baiña naigabetan jarri zan; 1591'ko uda. Madrid'en ospatuko da karmeldar Ortozen batzar orokorra; ara joan bear dau Juan'ek be lenengo Aolkulari ta Segovia'ko nagusi dalako. Auzi asko eztabaidatu ta eioko dira bertan, ez dager beraz giro egokia. Lekaimen gobernuari dagokion dozu orrelako bat, naitaez erabagi bear dana, itz batean ezin geroratua. espirituak nastu ta biurrituz joiazan egunero. Karta pilloa mai gaiñean, geienak mojak idatzitakoak: Teresa amaren ize-nean, euren lege ta espirituari ikuturik ez egiteko eskatzen dabe, arren bai arren.

Alkartu dira batzarkideak, mojen auzia dala-ta, arin atondu nai da gauzea. Inkimanka diardue, bakotxak bere eritxia gaillendu gurarik, monja jokabiari dagokionez atan be.

Lotu egiteko bidea. Aita Juan ez da eritxi ortakoa, eta jagi da itz egiteko; soñez ezta zer aundirik, baiña or sala erdian zutik eta itz-

jario. Gogo bero, zirt eta zart mintzo biotz suar eta kementsu, gei-
nen aurrean zelan gera tuko dan gogotan artu barik. Auzi eta
bidezko baten alde dabil. Itza berez dator kio aora, sentimentu biziz
indarturiko errazoiz beterik. Berbaz diardun bitartean, bere solas
sutsuen oiartzun artean, salako giro epel aretan, Illa dan arren Santa
Teresaren espirituak dardar dagi.

Berbaldi gogor aren ondoren, jarri egiten jatzu jua Guru tzekoa.
Salakoak ixiltasun sakonean, luzaro. Ez da iñor jagiten ari erantzuteko.
Geziak les josirik geratu diran argumentu ausarti ta ezin ukatuen
aurrean, ez dau iñok aoa edegiteko arpegirik, Mutu geratu dira danak.
Baiña unetxo baten bakarrik. Laster dator aurka egitea, arpegiz arpegi;
ez da izango lotsabako destaiña; alan be, Lekaime ortozen babesteak
ordaindu bearko dau itzaldian esan dauana; argiegi itz egin dau, bera
da alan eta guzti be Barriztearen aita, erdiko ardatz eta irudi berarizko
Batzarkide geiennen artean bera da nabarmenen. Ezda ona aurrelari
izatea. Eta ia danak, bere alde egin bearrean, kontrarako gertuago dagoz.
Ezereztu egin bear da, andik urrun-erazo.

Amaitu da batzarra. Eta Aita Juan kargu barik geratzen da; Espairia'tik
kanpora joan bearko dau. Mexikora bialtzen dabe, indio artera mixiolari.
Eta arako ontzi bat aurkitzen daben bitartean, Bazter batera egotzen dabe.
Berak ez ete eban alako zerbait eskatu?

Gaztela'tik urrin Andalusia'n izango dau bazter ori. Teresa'ren alabak,
bene-benetan, minduta geratu dira. Ez da bidezkoa berarekin egiten dabena.
Olan diñotse mojak, eta jua'ek erantzun: "Ez egizue penarik izan; gauzok
ez ditue gizonak egiten Jau nak baiño; Arek ba-daki zer konbeni jakun,
eta dana egin oi dau geure onerako. Ez egizue beste ezer uste izan,
guztia Jainkoak antolatua dana baiño. Eta maitasunik ez dan lekuan,
jar eizue maitasuna eta maitasuna aterako".

1591'ko garagarrillean Periuela'n, Sierra Morena'ko mendi artean daukagu
jua Gurutzeko. Bertako nagusiak eta lekaideak txeratsu artua izan da.
Eta ango bakartadean bizi da, aingeruen antzera, eten gabeko otoitzean
jainkoari emona, gelan, koruan, baratzean, beñola Kalbarioan, Granada'n
eta abar egiten ebanez. Otoitz eta idatzi, zer biok alkarrekin korapilloturik.
Ementxe idazten dausku bere azkenengo liburua; ementxe utsituten dau
eder-tuen bere barru illintia lez Jainko sutan ixiotua. Onela diño.

*"Oi maite-sugar bizia;
samur zauritzen dozuna
neure arima-muin erdi-erdian!
Orain ez bai zara muker,
amaitu, alan nai izanez,
jo alkarte ezti onen eunean!*

Arat-onat ibilki, goitik datorkion aizetan arnasa artuz, barriro ditzul lenera, maite-sutan daukan biotza asazkatu ta ustutzerera. Onela dabes:

*"Oi erre-aldi me-mea!,
oi zauri txit atsegina!,
oi eskttgain leon! oi ikutu guri,
zeru-biziaz asea!
Zor guztia ordaindurik,
erioz dattstazu emoten bizi".*

Zerurantza jo gura dau Juan'ek. Ezta arrigarri. Ainbat lan burutu ondoren, Kristorekin gogoratzen jatzu; gizonak ulertzen ez ebela-ko, gurutzera igon eban Ak, noraiño maite eban gizona munduari erakutsi nairik. Antxe, besoak zabalik, emon eban azken arnasa. Gurutzeko Juan santuak antxe, mendi ertzean, ur-ur ebiltzan artzain eta ardiak, biotza dardaratu ta irudikaturik, "Artzantxo" deritxon poema laburra bai, baiña ezti, goibela ondu euskun.

Gizona okerra da, eta bekaitzez gaiñezka, sarri askotan; lausotu egin oi jako orduan adimena eta errez doa urko lagunari, anaiari kalte egitera, itzez eta egitez. Itsu-itsu doa txarto esatera, irain eta guzur anaiaren izen ona be loiturik iztera. Juan'ek nagusi zala, oituraz egiten zituan abisuak emon eta oker-zuzentzat, lekaide artean be, ondo ezi bageak ezin eroan dabezanak Eta olakoren batzuk, dokumentuak makur-azorik, aren kontra azpi-lan gaiztoa egien: guzurrak, iraiñak, txarto aituak, dana jarten da jokoan, aginpide barik eta jausia ikusterakoan.

Bildurturik dagoz lekaimeak, izan be aundiak dira entzuten dabezan gauzak, eta Juan'i buruz itanduten dautsezanak. santua ez

ete da euren aita? Itzal aundikoa da eurentzat, Teresa deunarentzat zan legez: Jainkoaren eleizan egoan arimarik garbi-ederrenetari-koa. Eta erdi-zoraturik, aren gomutakiak apurtzen dabez, kartak eta argazkiak erre, arek bere eskuz idatzitako esakunak eta abisuak be erabat suari emon. zati-zati egin baita, berak amesetz beterik, Kalbario'ko bere gelatxoan, Beasⁱ ko lekaimeentzat marrazturiko *Karmel Mendiak* be. Guk bai arin siñisten doguzala urko lagunaren kontrako zerak batez be.

Danak ez dira olarioak, ba-ditu adiskideak be, eta oneik, egia penaz beterik, euren aitari idazten Periuela'ra. Ordenatik jaurti gura dabela diñotsoe; Barriztatzaille jantzia kendu ta Ordenatik bota! Ernai egon daiten diñotsoe au. Karta oneik, negar-malkoz bustita bear bada, Periuelaⁱ ra eltzen jakozanean, Juan Guru tzeke otoitzari emona daukagu, bere gelan edo komentu alboko iturri ertzean. Eta antxe bertan, atz-arteaz idazkortza, mañte daben seme onai, baketu nairik, idazten dautse: "Seme -idazten dautso Santa Maria'ren Juan'i, ez izan orren penarik; ezi-gaitz eta esan-gatxeko nazalako abitua kendu leuskide bakar bakarrik, eta ni gertu nago zuzendu bear dodanean zuzendu ta emongo dausten penitentzi beteteko".

Ezta au bakarrik. Garraztuten dautsoe barrua beste irain eta txarto esate batzuk, berari barik, Teresa deunaren mojai ta Aita Grazian'i dagokiezanak; lekaide zintzo ta on au be, Teresa'ren babesle ta laguntzaille zalako edo, begi onez ikusten ez dabena. Ito egin nai dabe kirats artean. Juan'ek gogora dakar Teresak oni eutson konfiantza ta egiazko txera. Egun gorriak Periuela'n bizi zan santu bakar-zalearentzat, bere bizitzako latz gorrienak.

Gauzak onela, an inguruko komentuetan, Juan'i Mexiko'ra laguntzeko prailleak batu dabez, amabi dira, pozik, iñoiz euren nagusia izanari mixirioetara lagun egiteko. Dana prest dagoalarik, jakitun ipinten dabe. Baiña Aita Juan'ek irripar tristeza ezpan-gaiñean: beste bat da berak laster egingo dauan bidaia.

XX

Gaxorik

Udazkenean gagoz, 1591/ko iraillean. Peñuela ezta leku txarra; Juan Gurutzekoa alan be ez doa baratzera otoitz egitera. Gaixorik

aurkitzen da. Bernan dauka gorritu ta aunditu bat, eta ez dautso izten gelatik urteten. Baita agertu jakoz beroen edo sugar batzuk be, aspaldian naiko galdua daukan gorpu tzean asebeteten diranak. Ezta zarra oraindik, baiña gaixoak bereak egiten diardu. Aita Antonio, Andaluzia'ko Probintzialari idatzi dautsoe, baiña onek ezin dauala oraingoz beintzat Periuela'ra aldatu, aldatu digiela diñotse, Baeza'ra edo Ubeda'ra.

Juan Gurutzekok Ubeda'ra joan nai dau, emen atsekabe geiago izango dauala-ta; aita Frantzisko da emen nagusi, alan be ba-dau aierkunde ta asarrea Aita Juan'en kontra, onek zentzatu izan zalako Sevilla'n. Poza baiña naigabea guragu eban gaixoak bere azken aldiko egunetan. Mando gainean eta anai bat lagun, Ubeda'rako bidean jarri da. Benetan poztu ziran ango anaiak ara aldu zanean; nagusiak baiña ez eban ain txeratsu artu; gela zirtzil eta zakar baten ipiñi dau. Aita Antoniok maite dau. Duruelo'n alkarregaz bizi izan ziranetik, eta maitasun aundiz artzen dau, bear dauan guztian laguntzeko agindurik.

Bidean gosetu egin da Juan, eta zer jango leuken itandu dautsoe anaiak. "Prantes porru bat, esparrago bat", erantzun mando gainekoak. Eta ain zuzen be, alboko errekatxora begiratzuz, or arri gainean, esparragu eder bat. Joan eta jaso dabe, eta lekaidetxera eltzean, sutan errea emon dautsoe jan dagian. Eta, mirari!, janik indartua geratu zan. Irrits beteak askotan dakaz olako mesedeak.

Ubeda'n aurkitzen da Juan, beronek nai eban Komentuan. Nekaturik eldu da, ezta arritzekoa; zamari lepoan zazpi legua egin ditu-ta; bide-zidor, troka, beresi, aldapa ta zirkin-zarkinka; sugarra jaso dautsa onek. Eta emen, Ubeda'n, esan dogu, nagusi gereka, mukerbera ta zakarATEGAZ aurkitu da; otz samar artzen dau, gela estu leio txikidunean ipiñirik. Maitxo bat dauko bertan, eta oe txikia: ementxe emongo ditu azkenengo egunak, ementxe ilgo da.

Olakoetan gertau oi danez, gaixoak, gaixoaren eta alboan ardu-reai kasurik egiteke aurrera joian; sugarrak ez eban amor emoten, eta bernako aunditua be gero ta zabalago eginaz, gero ta moretuego; odolak bustiten eutsozan ezarten eutsoezan zapiak. Pasmooaren arrisku, eta osagilleak bizian ebagi daroa aragia, pasmotik iges egiteko azurra bera be ikaturik. Ez da deirik, zinkirik ez aienik, oiñaze bizian dagolarik be, irribarre dagi gozoro.

Gorputzetiko penak jasan-gaitz ditu, baiña ez dira motelago arima aldekoak. Arima sentikor baten jaube zan Gurutzeko Juan, eta Kristok gurutzean edo, berak be ordu batzuetan an eukan ezeren poz-asetasun larrienean egoanik ezin ukatu. Len ba-etorko-zan bisitaz adiskide batzuk, orain ez, galazo egin dau tso nagusiak. Eta iñogaz be, eztau barbarik egiten. Au bakartadea! Bereak eta kanpokoak itxi daben egoera triste orrek eroan bear dau laster.

Gaixo-zaiñak, Bernardo anaiak, baiña, ezin dau ori ikusi ta Andaluzia 'ra idazten, Aita Antonio probintzialari; Bereala dator, azillaren 27'an, eta gaixoari poza sartzen alegintzen da. Antxiñako gauzak gogoratu nairik, "Aita -diñotso gaixoari-, ogeitalau urte biar; Duruelo'n. karmeldar ortozen lenengo komentua jarri zala". Entzule guztiak, pozaren pozez, txaloka lez asi ziran. Baiña etzan ori gaixoaren atsegiñekoa. Bere birtuteak eta egindako gauza arri-garriak baiño bere pekatuak entzun naiago ditu.

Naizta gaixoak geienik zara tarik gura ez, probintziko aita Nagusia ikustez urreratu danean, ba-da ta zer-esana komentuan. baita beeko ate nagusi aurrean be, asko dagoz gaixoa zelan aurki tzen dan itaunka. Baita soñulariak be atean aurkitzen dira gaixoa musikaz poztu aal izateko. Eresi ta kantuz oiñazeak arindu gura.

Ezek ez dau, alan eta guzti be, gatzak daroan abiadea geldituko. Ugarituz doaz zauriak, zorna dariola, bernetan, azpigan, ipurtxuntxur eta soinburu zear. Osagilleak ezin dautzu ezertxo egin. Ez daukola osabiderik. Eta santua barrebera ta betargi.

XXI

Erio tza

Gurutzeko Donibane azkenetan dago. Azken sakramentuak eskatu ditu, eta biderako indargarri lez Jauna artua dau. Miñaren miñez ez daki ze egunetan dagoan. Abenduaren 13 dala diñotsoe, eta arratsaldeko bostak. Azken Igurtzia opa dau, eta komentuko prailleak eta kanpoko jentea urduri jarri jatzuz, gaixoak azken sakramentu ori artzen laguntzeko gertatu dira: momentu gurena benetan. Nagusiak berak ezin ditu negar-malkoak garde ta liburu gaiñera jausten jakoz tanta-tantaka.

Ondoren, gure Jaun txit Santua ekarri dagioela eskatzen dau gaixoak, lurrean azken aldiz gurtu nai daua-la-ta. Ba-dakartsoe. Begitu maitekor batzuk nagusiak begien aurrean jarten dautson Osti sagaratuari, otoitxa ta biotz zauskada samur eztiak oe-gaiñ erdi-etzunik, eta agur bigun-biguna, onela: "Jauna -diño Juan'ek eguzki deuna urruntzean, etzaitut geiago ikusiko begi oneikaz...". Eta eutsi-eziñeko negar anpuluak ango guztien begietan, ba-joa ken aitaren bedeinkapena eskatuz. Gelan dagoz Aita Antonio, nagusia ta besteak.

Ordu batzuk igaro dira. Barnekoi daukagu Juan, barruko suak gaxta galdatzen dautsolarik. Aita batek, Biblian, *A bestiko* bertso batzuk irakurten dautsoz noiztik noizera; zerurako deiak jakoz. Argizari usain artean, Maite-kantako bertso areik dardar dagie.

*"Goza gaitzean, Maite,
ta goazen zure doaiz asetzen
ur gardena darion
mendi-munio aldean;
barneko itzalean sartu gaitzean".*

Kanpaiak joten. Gau erdian izan bear dau. Maitiñak esateko ordua. Lilluraturik zabaltzen ditu Juan'ekbegiak, eta ingurukoagana biurtuz, diño: "Neu be zerura noa, maitinak esaten". Eta irripar dagi. Gero, eskuetan daukan gurutzeari begira, mun egin, eta begiak itxi ebazan, esanik: "In manus tuas, Domine, commendo epiritum meum" ("Zeure eskuetan, Jauna, izten dot neure arnasa"). Amaren besoetan loak artu dauan ume baten antzera joan zan; etzan egon ez neke-miñez. Jainkoak maitekor artu eban berean. Zapatu goiza zan, 1591'ko abenduaren 14, 49 urteko zala. Ogeitazortzi erlejiñoan emon zituan, bost karmeldar zaarren artean eta ogeitairu Santa Teresa'ren Barriztatzean.

Misterioz beterik inguratu zan aren gorpua, epel oindiño. Gelea argitasun dizditsuz. Negua danarren, lirio ta larrosa usaiña nabari da. Zirimiri meak artu dita kale ta alboak. Trumilka dator jentea santua zala iñoenaren ointxoak munkatzera. Leen baltzerana edo gari-kolrezkoa zan arpegia zuri biurtu da.

Lekaide eta laikoak, maite ebena il jakela ikusirik, aren eskuoiñak lastandu ondoren, il-jantziz apaintzen asi ziran. Anaiak

arazo orretan zirduen bitartean inguru guztian zabal-azo zan Gurutzeko Donibane santuaren eriotza. 11-ekilaren otsa entzunik, erri osoa aratu zan, ikusi ta erlikiren bat eskuratu naita.

Erri osoak lagunduta burutu ziran illetak. Bezerra irakasleak abestu eban mezea, eta itzaldia aldarrikaTu; onela amaiturik: "Ez dautzut eskatzen, oi danez, eskatu daiozula Jainkoari joan danaren arimnearen alde, gugandik joan dana santua bait zan, eta bere arimea donokian dago; nik eskatzen dodana zera da, jarrai daizula aren oiñatzez eta lort daiskula Jainkoaren grazia orrela egiteko".

Geroago be, luzaroan, antxe batzen zan jentea, Donibane Gurutzekoaren gorpua egon zan lekua goi-arnasaz indartua zala-ta. Santa Teresak esanda itxi eban: "Gorpuzrio aren azurrak, mirariak egingo dabez". Arimakiko ta Gorputzekiko mirariak egin be. Illeta ondorengo lenengo igande gabea, argi-dizdiz arrigarria ikusi izan zan eleiza, minutu batzutan, ñiTñir bizitan jarten.

Bederatzigarren illabetera edegi illobia eta usteldu barik aurkitu eben santuaren gorpua. Au ikusirik, Perialosa'ko Anak eta onen neba Luis Merkado'k, karmeldar Nagusien baimenak jadetsi ondoren, Ubeda'tik Segovia'ra aldatu eben aren gorpua. Anak maite eban eta eraspen benetakoa eutson karmeldar santuari onik asko egin eutsozalako, eta Segovia'n bertan, arek nagusi zan bitartean jasotako komentuan (ortxe daukagu gaur be) euki nai izan eban. Zaballos jauna zan aldaketa burutu bear ebana. Kutxa itxi baten gorpua ebala ba-joian Madrid'erantza, eta bidean bat-batez garra-xia: "Nora zoaze santu baten gorpuz? Itxi egizue egoan lekuan". Eldu ziran Segovia'ra eta ango lekaidien poza! Loraz ta ereiñotz ostoz jantzirik, kalerik kale erabillita gero, an batu zan jentetzari santuak erabilli eban abituaren ainbat eta ainbat zatitxo banandu ziran. Gorpuari ikutu eutsen lora ta abarrak be an ziranen artean erdi-banatu ebezan, eta oneitatik batzuk, diñoenez, gaur-egun be gordin eta ezo diraue, artu-barriak bai litzaz.

Ementxe dago, ibar sakonean, Alkazar eta Eresma'ra begira, bere aitz-koba azpian, zidar, atxuri ta borontzezko obi eder-ederra eta barruan Donibane Gurutz santuaren gorpua, ainbat otz, oiñaze ta neke-min jasan ebazana. Bere *Maite-kanta'ren* estrofetako osto batek dardar dagi, esanaz:

*"Arren, lira atseginkor
ta itxas-zona kantus, dagitzuet zin,
bare zuen sumiriak,
t'ez ikutu omarik
kutunak baketan atsedean dagin".*

XXII

Bere idazlanak

Norbaitek esan dau ez ebalatzen askorik idatzi. Olakoa ez dot uste egitan dabillenen. Naikoa idatzi ebanarren, etzan idazlaritza bere zeregin berezia; gaurko beintzat, 49 urtegaraz gazte autorle, arima zuzentze ta komentuetako nagusi, ez jakon asti-une nasairik, esatekorik, gelditu. Alan eta guzti be idatzi egin eban.

Bitan sailkatzen dira aren lanak *luzeak* eta *laburrak*. Luzeak lau: 1) *Karmelo Igoera*, 15, 32 eta 45 ataletan; 2) *Gau ill uana*, liburu bi bakotxa 14 ta 25 atalekin; 3) *Maite-kanta*, 40 estrofakin, eta 4) *Maite sugar bizia*. lau estrofa.

Eta laburak: 1) *Olerkiak*, erromantze, kanta ta glosa XVI lan; 2) *Argizko ta maitezko esanak*, 200 bat; or-emengo autografoetatik aterata; 3) *Oarkizunak* eta *Lau Abisu*, lekaideen barne-bizitzarako interesgarriak, 4) *Eskutitzak*.

Donibane Gurutzek, mistiku lez, sinbolismua bear izan eban bere pentsamentuak eta sen tipenak adierazo aal izateko; Biblia zale izanik, antxe eukan iturri garden ugaria sinbilismu edo antzagirirako, ez eukan beraz ez sortaldera arabiarrenera -gogora Algazel, Gazzali ta abar- joan bearrik; bertan aurkitu leikean eta aurkitu eban bere lanak zoragarritzko olerki jantziz dizti-azoteko beste edertasun. Barrua Jainko esperientziak sua eriola erabillenen sarri, itxi euskuzan bertso lanak testigu, eta kanpotik izadia Jainkoak ibilliz soilki edertasunez jantzita lkusi oi zituan, eta begira nola itxuratzen dauan urruti daukan maitasuna:

*"Bai, or-an dabiltzanak
milla zoragarri Zutaz diriostez;
danak zauritzenago,
ta il-urren naukie
itz erdizko esan- ezin motelez".*

Aldatz-beera datorren ura iduri, datorkio Juan'i olerkiaren ixuria; itz- lauz diarduala be ezta dariola diardu ta bere pentsamentuak indartzeko dakazan irudiak be, bene-benetan olerkitsuak ez diranik ezin gengike esan. Olerki ta prosazko lanik geienak arek eta onek, prailleak eta mojak -*Maite-sugar bizia* izan ezik- eskatuta egiñak dozuz. Areik ba ekien, ba, aren bertsoen mamin gurena, trinkoa; eta ainbeste trinkotasun barik, lauago eiotako janaria opa eben. Orrela sortu ziran aren liburuak, bere poesi-zentzuna azaltzeko idatziak.

Poema bat bera adierazten dau *Igoera* ta *Gau illun* azaltzekoan. Ba leiteke, norbaitzuk uste dabenez, lan bat bera izarea. Dana dala, poen-la labur bat, zortzi estrofakoa, azaldu daroa lan bietan.

Lenengoa espirituzko bidea dozu, santuak margoztu ebana. Igon-aldi bat da, mendiaren oiñetjk goiko kukutzerañño; an dago Jainkoa ara eltzen dana sariztuteko. Zelan eldu ara? *Ezerezen* bitartez, au da, dana ukatu fedean geratzeko; beste bideak, guk nai geunkezanak, alboetan galtzen dira, neurri onak irudituarren, ez dira egiazki goraiño garoazenak.

Bere irakatsiari ta artu dauan bideari zintzo jarraituz, Juan Gurutzekoak bigarren zentzu na ta espiritua oso-osorik u ger guztiz erantzi ta murriztu bear dirala, esango dausku. Gau illunean gertatzen dana, eta ezta besterik eten barik Jainkoaren billa ibiltea baiño, fede bizian nunbait. Ortarako, barriz, leen eta bein geure adimena errazoiz utsitu bear dogu, gomutamena gamutaz eta naimena zalekeriz. Jainkoa azarri aal izateko ez ei dago beste biderik garbiketa ezik. Fedea jaku baliagarri bakar-bakarrik. Juan Gurutzekok onan: "Bardin daust txoria naiz kordelez naiz aritxoz loturik egon".

Fede utsa, ezeren eta ezetariko euskai ta tenka-abe barik; auxe dozu karmeldar Aitaren dotrina mistiikua. Gorria bear bada, baiña orixe dozu Jainkoaz egiaz alkartzeko bidea. Baiña ez jako alderdi jatzetik bakarrik begiratu bear, baita atsegiñari be; gaiñ-gaiñera eltzen danak azkenean an aurkitzen dabezan onak. Jainkoak gizonari eskintzen dautson janketa zerutarra -juge convivium-, au da, Beragaz alkartzea, on guztien jaube egitea.

Liburua karmeldar ortozai zuzenduta dago; eurok eskatu eutsaelako irakatsi egoela Karmel Mendirako igon-bidea.

Bigarren liburua, *Gau illuna*, Bertso bardiñak azaltzen dausku zula, garbiketa artzailleaz ari da; ezta naikoa gizasemeak, naiz

emakumeak, bakotzak bere buruaren garbiketa *lana* osotzea. Gei-
go bear da. Jainkoak berak txautu bear dau. Xeetasun askoz ornidu
dausku Juan Gueutekok bere irakatsi barrukoia.

Bere lanean zear, beti baiña liburu ontan batez be, ainbat alegori
ta idurikizun ereiten ditu gaiaren betegarri. Txingar biurtu dan
suarena, adibidez, egur-orokorra erretzean; edoa-ta eguzkiarena,
beriri-leioa (vidriera) baten zenbat eta gogorrago emon ainbat eta
argiago agertu oi da bertan dagoan loia. Jainkoak, alan be, geituz
eta eurrez ordaindu oi ditu guk daroaguzan sifrimentuak.

Irugarrena, *Maite-kitnta*, Granada'n idatzi eban, eta Jesus'en
Anari, orduan lekaimetxeko nagusi zanari eskiñi eutson. 40 estro-
fako poema bat dozu, prosa tiragarrian, errez eta biziki azalduta:
santuaren lanik atsegiñena. Arimeak, zer guztiak arbiuatuz, Jain-
koa dau billatzen eta aurkitzen: auxe dau kantagai eta ardatz
poema ontan. Irakur erreza, edozeiñentzat egiña. Biblian datorrena
eredutzat arturik, maitaleak maiteaganako maite-sua kantatzen
dau; emen arimeak Jainkoari dautsona.

Laugarrena eta azkena, *Maite-sugar bizia*, azkenengo ida tzita-
koa, eta Perialosa'ko Ana andreari eskiñia. Sei bertso-lerroko lau
estrofa dira. Emen bai dirala miresgarriri alkartzen bare mistika ta
olerkia. Pasarte askotan sua dariola daukagu.

Len aitatu ditugun lan laburrak mailla ortera eltzen ez dirala be,
ez jatzuz gitxi-estekoak, zugatz-tantai onek, bada, frutu onak
dakazanak, onen arteko kaskarrak be, laketak izan oi ditu. Pensa-
mentuetan, esaterako, onakoak dakaz: "gizonaren pentsamentuak
mundo osoak baiño geiago balio dau; beraz, Jainkoa bakarrik da
beraren duin".

Lareun urte joanak dira Gurutzeko Juan deuna il zala, eta gaur
be, idatzi oneitan itxi euskun dotriña zerutarra, ez da atzokoa,
gaurkoa baiño. Naiz karmeldar komentuetan, naiz **naiz**
sortaldeko lurraldeetan, aren irakatsiak txalotuak, ikasiak eta onar-
tuak dituzu. Amar-amabi urte dirala, emendik igaro ziran beatless
gazte ospetsuak: India'rantza joiazan Donebane Gurutz deunaren
barne-olerki ta jakituriak lilluratuta.

OLERKIAK

SARRERA

Jainkoaren billa; berau bai da guretzat jakituri bakarra. Labur bizi gara, ta epe onetan gora jo bear, geure Egilleagana. Urrindu eztabaida ta burrukatik; txar orde z ona arindu, ez emon pozik barru-lerai, ta aaztu lezara bota eurok. Or jakituri bikaiña, Donibane'k bizi izana. Auxe erakutsi euskun bertsoz ta prosaz.

Jainko billa beti, gurari bizitan. Ikasle zala ta geroago, antza danez, ainbat erritar olerki ta bertso irakurri eban, Boskan eta Garzilaso batez be. Egin zituan erromantzetatik agiri da erri-poesiaren teknikan ikasia zala; 14 olerki-lan ditu guztira, eta lau bat izan ezik, beste danak erromantzeak; batzuk Toledo 'ko kartzelan onduak, "Super flumina Babilonis" legez; guzti ontan agiri da gure olarkariaren teknika, izkuntz aberatsa ta trebetasuna.

Ez ditut emen erromantzeak aitatu, ezta besteak be; "Maite-kanta" bakar-bakarrik, eta berau be laburkiro. "Maite-sugar bizia", lau aapaldikoa, kendu ezker, auxe da askorentzat ederrena, bai letraz eta bai pentsamentuz. 40 estrofa daukaz, ederto landuak. Onek darakusku Juan Gurutzekoa egi-egiazko olarkari zala, bere berezitasun guztiakin; emen be, besteetan lakoxe egitura darabil, poeta punterengoarena; akats bageko egitura. Orrez **klasi**-kuak erabili oi ebezan iru aldiak be ondo zaintzen ditu, ots, asiera, gara ta azkena. Billaketa da asiera, alkar aurkitzea gero ta azkenen gozotasuna.

Maitale bi dozuz olerki-ardatza darabilenak; Arimea ta Kristo. Arimea lurtar, Kristo zerutar, arimea Bereganatu naiez dabillena. Bien arteko izketaz giartzen da "Maite-kanta" poema.

Lenengo estrofetan arimea dabil benetako igitu ta kemenez Maitearen billa. Au aurkitzean, sua pizkat arintzen. Ortarako irudi

bero biziak darabiltz lurra puntan dardari. Maitalea ta Maitea beti daukaz aurrean, beti baratz loratsu erdian lurralde ta ikuskari bikaiñez esituan. Irudimena ta izakiak nastu oi ditu olerkariak. Begira, zelako bizitasuna emaztearen oiutan:

*Oi ene Maite, baso,
ibar-arte, zelai, bakar oiantsu,
oi ez lakoxe ugarte,
erreka soinulari,
aize bigunaren maitezko txistu!*

Emen dakusgunez, gauzak aberats esan, eta biotza guritzeko antz-indartsu billa ez doa gora be, naikoa dau aurrean daukazan gauzakaz. Izaki-zaleak, jakiña, or dau naiko gai barrua zirti-zarta jarteko. Bakar-zale dozuz maite diranak, baita arimea ta Kristo be. Ona bakartadea, Senarrak kantari, eder ta sotil jarria:

*Bakarrean bizi zan
ta bakarrean dau abia egin,
bnkarrenn daroa
bere maiteak soilki
bakarrean au be maite-zauriz min.*

"Bakartadez bakar-bakarrik, bakartadeaz jolaska, gorputz-mamin egin dau dakartadea; ikuspegi bat sort-azo margo min, kolore ta nabarduraz. Ez dago bardiriik".

Greko margolaria ta Donibane idazlea. Biok artizta. Garai baten biak egon ziran batera, Toledo'n. Espetxe illunean Donibane; eta antxe idatzi zituan "Maitekantako" estrofa batzuk beiñik-bein. Greko pintzelaz artista, Donibane lumaz; biak ertilari, baiña Donibane Gurutz klasikuago, iraultzaille ta barriztatzaille.

Arriturik ez gitxi geratuok dira maitale biren maite-sutik zelan aldendu zan lizun-zulo jausi barik. Alan be, amairugarren estrofa-tik aurrera maitale biak alkar-izketa bero-beroz diardue, maitasun lera sakonean; bero-bero ta garbi ez dago emen lizun-orbanik. Donibane'k ba-dau emen teknika ederra, lurtarrantzat jauskor diran gauzetan be, laprast egin barik aurrera egiteko.

I

Erromantze "in principio erat Verbum" Ebanjelioa dala-ta, Irutasun Deun-deunari buruz. 310 bertsozko erromantze luze onek giza-salbamenaren kondaira abesten dau, Jainkoaren erabagitik Kristoren Jaiotz-ordurarte. Bere literatura eta irakaspenari begiratu, obe dala deritxogu 9 agertaldiko erromantze dala esatea.

1

Asieran ba-zan Itza
eta Jainkoan bizi zan,
zorion azken bakoa
Arengan osorik eukan.

ta batzen ditun maitasuna
bat-berean egokitzen
balio ta batasuna
batez ta bestez egiten.

Itza bera Jainko gendun,
asiera eritxona.

Iru Nor ta maitatu bat
iruren arte egon zan
maitasun bat iruretan
maitale bera egizan;
maitale ta maitatua
bakotxa bizirik olan;
irurak dauken izana
bakotxak be daukalako,
izate onek daukana
bakotxak beraz maiteko.

Asieran A bizi zan
astepenik ez eukana.

Asiera bera zan A;
ez eban, ba, asierarik.

Seme deritxogu Itzari,
asieratik ernea,
sortzean zan beti-beti
eta beti eban sortzea,
muiña emotson betik
eta beti eukan ortik.

Izate au da bakotxa,
onek bakar alkartzen
korapillo arrigarriz,
iñok esan eziñean,
azken bakoa zan beraz
lotzen zitun maitasuna,
iruk daukee maite bera,
izate bera deitua:

T'olan Semearen aintza
da Aitarengan egoana
eta aintza guztia Aitak
bere Semean eukana.

Kutuna maitalean lez
bata besteko egozen,

batago dan maitasunak
geiago eiten maite-sura.

2

Iru Nortzuen ar-emonaz.

Maitasun neurrige artan
biokandik etorreanean,
atsegin aundiko berbak
Aitak Semeri soiltzean
iñok ulertzen ez zitun
gozotasun gurenean;
Semea solas areiz goza,
arekikoak bait ziran;
ulertzen zana, alan be,
onan eban adierazten.
"Ezek ez nau pozten, Seme,
zeure alkargoak ezik;
ta ezer pozbide ba'jat,
zeugan gura neuke nik.

Zugaz kidekoen dana
nitzat zoragarrigo zen
t'ezertan lain ez jatzuna
nigan ezer ez aurkitzen.

Zuk bakarrik bete nozu,
ene biziaren bizi!
Argiaren argi zaitut,
zu neure jakiña osoz
ene izanaren itxura
or bait dot nik atsegiña.

Maita zaitunari, Seme,
nik neu neuskio emongo,
zugan dodan maitasuna
bera aregan nik jarriko,
olan maite izan bai eban
nik ainbat maite nebana".

3

Ludia sortzeaz

Maitek zaitun emazte,
Seme, au nai neuke,
zeure balioz irabazi,
geure alkargo eukirik
ta ogia jan mai baten
neuk jaten dodan beretik,
ezagutu daizan nik
Semean neukazan onak...
ta eder izan zedin nigaz,
zure grazi ta mardulaz".

"Milla esker Zuri, Aita,
-Semeak eutson erantzun-;
Zuk emon emazteari
nik argia eskiñiko
berau bidez ikus daian
nire Aitaren balioa,
zelan daukodan izana
arenetik dan artua.
Neure besoatan makur,
zeure maite-sutan kiskal,
betiko atsegiñetan
zure onak leuke goituko".

4

B a-darrai

"Egin bedi -esan Aitak-,
zure maitasuna duin da";
t'esan eban esan ontaz
sortua eban mundua
emazteantzat jauregiz
jakite aundiz egiña;
eta berau gela bitan
goi ta beeko eban bereizi;
azkenik bako beekoa

bardin-ezaz tajutua;
gaikoa barriz edertzen
arri-pitxi zoragarritz.

Emazteak jakin daian
berak eukan Senarra,
goi-aldean jarri eban
aingeruen jerarkia,
giza izatea baiña
beian eban egokitu,
bere egituran zalako
ain etzana baliotsu.

Izanak eta tokiak
onan banatuta bere,
gorputz bat dira guztiak,
esan emazteantzat;
Senar beran maitasunak
amazte bat bilakatzen.

Gaiñekaldekoak eben
Senarra pozetan artzen,
beekoak itxaropenez
goitik etorkien fedez,
esautsela laster baten
berak zitula duinduko
eta euren kaizkertasuna
berak jasoko ebala
eta inok ez ebazala
onezkero gaiztetsiko,
osoan euren antzeko
bera egingo jakela
ta euretara etorritz
eurekaz biziko zala
ta Jainkoa gizon eingo
ta gizona Jainko izango
ta eurekaz ar-emonka,
jan-edanez ala-ala,
ta eurekaz etenbarik
egonez egongo zala,
oraingo gizaldi onek

amaia izan artean,
batera goza eitezan
azkenbako eres-otsez,
bera zan izan be buru
eukan emaztearena,
oni batuko eutsozan
zintzoen soin-atal danak,
emaztearen soin diranak,
auxe bai eban artuko
samur bere besoetan
an emonaz maite-sua;
ta olan batebatera alkar
Aitagana eroango,
eta Aitak gozatzen dauan
gozaz berak be gozauko;
Aita ta Semea, beraz,
ta biondik datorrena
alkarrekin dagozanez,
ala-ala emaztea,
Jainko baitan murgildua,
Jainko bizitzaz biziko.

5

Ba-darraika

Goi-goitik etorkioen
itxarote on onekin
euren lanen oiñazea
arindu egiten jaken;
itxoite luzeak, baiña,
ta aziz joaken irriksak
euren Senarrak pozteko,
eten bage nekerazten;
olan eregu beroan,
il-bearrik eta intziriz,
malkoz eta zinkuriñez
otoizten eben gau t'egun
erabagi eitela bein
bere baitan ar egizan.

Batzuk inoen: "Ai ba'litz
poz au ene egunotan!".
Beste batzuk: "Naiko, Jauna;
bialdu bialtzekoa!".
Beste batzuk: "Auts ba'zenduz
zeru orreik, ta nik ikus
begiokaz zeu ortik jasten,
nik laster negarra itxiko!".
"intz eizue, goiko odeiak,
eskean daukazu lurra,
edegi bei lurra azpian
ta arantzak ekarskuzanak
bekar arako lilia
berarekin loratua!".

Beste batzuk be inoen: "Bai
dontsu ordun bizi dana,
Jauna begiz ikusteko
duingarri izango dana
ta eskuakaz ikutu
ta lagunkide gertatu,
orduana eraturako
ixil barrukoiak gozatuz!".

6

Ba~clarraika

Onako ta beste erreguz
epe igaro aundia zan;
alan be azken urteetan
lei-garra zan asko azia,
Simeon urtez betea
guraz ixio zanean
Jaunari eskatuz itxi
eiola egun ori ikusten.

Ta olan Gogo Gurenak
zaar onari eutson esan
itza emoten eutsola

ez ebala erioik joko
goitik jatsiz etorko zan
bizia ikusi arteño
ta berak bere eskuetan
Jainkoa bera arturikan
eta besoetan izanez
laztanduko ebela maitez.

7

Gizakundean darrai

Aldia betea bait zan
emaztearen ordaiña
egitea ona zana,
Moisek inoiz emon eban
dalako lege azpian
buztarri latz-pe ikustean,
Aitak maitasun samurrez
modu onetan esanez:

"Orra, Seme, zure emazte
zeure iduriko egiña
ta zeure antzeko danez
zeurekin bat datorrena;
baiña aragiz ez da kide
zure izamen lau ez dana.
Maitasun txit osotan
bearrezko zan legea;
betor, ba, kidetasuna
maite eban maitaleaz
baturik maitea;
antziz eta aundienak
atsegin geiago izaten;
au, ziur, zure emaztean
gutziz aundi zan eginen,
au ikusten zengozala
berak eukan aragitan".
"Nik naia dozu zuk naia,
-Semeak dautso erantzun-

eta nik dodan aintza da
zuk naia nik be nai izan;
ta niri dagokit, Aita,
zuk, guren orrek esana;
gisa onetan zure ona
dizditsuuago legokena;
zure indar aundia ikusiz,
zuzena ta jakitea;
lurrari igarten noake
ta barri dautsot egingo
zure nagusitzarena.

Neure emaztetan noake,
neure gairi artuko ditut
ainbeste aunartzen daben
neke-lorrak eta lanak;
eta bizia izan daian
ni beragaitik naz ilgo,
ta aintziratik atereaz
zeuri dautzut biurtuko".

8

Ba-darraika

Goi-aingeru bati ordun,
ots, Gabriel eritxona,
neskatx bategana eban
bialdu. Mariagana,
onen baietzez zalako
ezkutapena burutzen.
Irutasunak orduan
Itza aragiz eban jantzi;
ta iruren lana izanik be,
batean jatzun egiten;
eta Itza aragi egiña
Mariaren erraian:

Eta Aita soilki eukanak
orain Ama be ba-eukan;

baiña ez edonor legez
giza-bidez aur jarria,
aren sabeltsail garbitik
artuaz ak aragia baten;
ore lau Jainko Semea
ta gizonarena iñotsen.

9

Jaiotzeaz

Aldia eldu zalarik
jαιο bear zanakoa,
ezkondua lez etorren
ezkon-gelatik urtenaz,
emaztea besarkatzen
besoetan ekarrena;
ta Ama txit zoragarriak
aska baten jarten
orduan antxe egozan
abere talde arten.

Soiñu-ots giza semeak,
aingeruak kanta ozen,
jai egiñikan ezkontza
bien arte zan burutzen;
Jaunak baiña askatxoan
negar egian ta intziri,
bitxiak bai emazteak;
ta Ama sor ta lor egoan
alako truka ikusiaz:
giza-malkoa Jaunagan,
gizona pozkarioez,
naiz bata naiz bestea len
ain bitxiak bai jakuzan.

II

"Super flumina Babilonis"
salmuaz erromantza.

Babiloni'n aurki nitun
ur-bizien ertz-zokoan,
an jarri nintzan adiaz,
an urezten neban lurra
maite zindudazan, Sion!,
zure gamuta bizitan!
Leun jatan zure oroia
ta orrek geitzen negarra;
erantz nitun jai-jantziak
ta lanerakoak jantzi,
sarats berdeetan esegi
neukazan eres-gailluak,
itxaroa jar-azorik
zuregandik itxaroan.

An nindun jo maitasunak
ta biotza eustan lertzen.

Ilteko eskatu neutson,
iltear bai nindun laga;
aren sutan nintzan sartzen
kiskaltzen nindula baiki,
sutan akituaz joian
egaztiñoa zurituz;
il-agiñik nengoala
zugan soil neban arnasa,
zeugaitik ni neurez ilten
ta zeugaitik ber-biztuten,
zurekiko oroiak ba
bizia emon, ta kendu.

II-gurarik ilten nintzan,
ta biziak nindun ilten,
berak bada bizi izanik
zu ikustez nindun gabetzen.

Atxillo zanaren aurre
arrotzak ziran gozatzen.

Ez ebela ikusten oar
pozak zitula marrotzen.
Sion'en kanta oi ziranak
kantak eustezan eskatzen:

Kanta Sion goratuaz;
dakigun aren doiñua.
Zelan lur erbeste, esan.
Sion-gaitik negar-aiez
nik aozkatu poztasuna
Sion'en geldi jatana?;
aantzira neuke botako
iñorenez ba'nintz goza;
ao-sapaiz bekik josi
mintzatu nintzan mingaiña,
zutaz, ai!, aaztu ba'nendi,
bizi naizen lurraldean.

Sion, emon Babilonik
darasta berdeakaitik,
aaztu betik askumea
zugan nik maiteen nebana,
zutaz ezpanaz oroitzen
geien atsegin izana,
nik jai-aldirik ba'nengi,
eta zu barik egingo...!

O Babilon'go alaba,
zori txarreko ta kaskar!
A bai zori onekoa,
niri uste on emostana,
zu zigortuko zaituna,
zeuk zeure eskuz eroana;
bere aurrak dauz batuko
ta ni, zugaitik negonez,
Kristo gendun arriari,
loturik, zindudan izten!

III

MAITE-KANTA
Arimearen eta Senarraren
arteko kantak

Emazteak

1. Nora juan zara, Maite,
ni emen lagarik min garrasika?
Orein antzera zoaz
iges ni zauriturik;
emen nozu deiez, miñez ta iltzear.
2. Artzaiñak, larre-bidez
ortik bait-zoaze muiñoan zear,
nik maiteen dodan A
baldin ba'dakuszue,
aul nagola esan, miñez ta iltzear.
3. Neure Maitasun billa
mendi-aran orreik zear noake,
ez dot loraik artuko,
ez ni piztien bildur,
zakarrez ta mugaz andik nabilke.

Sorkariai deika


4. Oi baso ta leku itsu,
Maiteak eskuz jarriak emaro!
Oi lorez jositako
barazki zelai musker,
esan zuetatik danez igaro!

Sorkarien erantzuna


5. Milla eder-jarioz
arin igaro zan ibar otatik,
ta begiratu soilez,
bere itxuraz bakarrik,
guzti itxi euskun eder jantzirik.

Emazteak

6. Ai, nok osa nagike!
Onezkero neure zaitez, egitik;
ez egidazu igorri
gaurgero geznaririk
nik naia esaten ez dakidanik.
7. Bai, or-an dabiltzanak
milla zoragarri Zutaz diñostez;
danak zauritzenago,
ta il-urren naukie
itz erdizko esan-ezin motelez.
8. Baiña zelan dirauzu,
bizi, zagozanez ezin bizirik,
ta il-bearrez ba'zaukaz
maiteaz gogartuak,
barrena dozula geziz beterik?
9. Zauritua bai nozu,
biotz au zelan ez dozu osatzen?
Ta ostu ba'daustazu,
zergaitik olan itxi,
zergaitik ez dozu lapurtua artzen?
10. Ito nire sumiria,
au itzultzeko beste ezpaita nainor;
zekusela begiok,
euron argi bait zera,
ta Zutzat soilki nai ditut izan zor.
11. Erakuts betartea,
ta il nagizu zeure zizta ederrez;
maite-miña ziburki
ez dau ezerk osatzen
itxurak ezik ta begiz ikustez.
12. Oi iturri leiar bizi,
zeure zidarrezko nini orreitan



ro
77
Cr
N
N
ro
O
ro
IT
O
73
O
ro



Juan Gueutzekoa, Duruela'ko bere komentu estuan.



Aita Juan'ek abitua jazten dautse beste karmeldar batzuei.



Juan gurutzekoa ta Santa Teresa, lilluraz, gora jasoak.




Aita Juan'ek deabru batzuk uxatzen ditu lekaime bategandik.



Aita Juan'ek gazte bat bide oneratu ebalako, zigortua.



Aita Juan 'ek neska gazte bat bide oneritzen.



Deabruak erasotzen dautso Aita Joan y

nik muiñean begiak
ñirñir ba'zauskidaz dardar gozotan!

13. Ken egistazuz, Maite,
egazka noa-ta.

Senarrak

Biur, usoa:

or orein zauritua
zure egaizez da agiri
muiño gain, eder daula otz-aroa.

Emazteak

14. Oi ene Maite, baso,
ibar-arte, zelai bakar oiantsu,
oi ez lakoxe ugarte,
erreka soiñulari,
aize bigunaren maitezko txistu;
15. Gauaro ixil baketsu,
argi-nabarretik ur danekoa,
musika-ots ixilla,
bakar-leku ozena,
apari eder maite-min eztizkoa.
16. Gure oe loreti,
ingurutik leoi-lezaz esia,
gorritan edatua,
bakerik eregia,
eun urre-ikurdiz eder jantzia.
17. Zeure lorratz atzetik
bidean dabilta neska gazteak,
txinpartak ikututa,
ardao onduaz txerbel,
Jainko-lurrunetan bizkor barneak.
18. Ardangela ixillean
Maiteaz ni an, ta gero ibarrez

abia nintzanean,
ez nekian ezertxo,
lengo elik be ez neban jarraiez.

19. An nindun ugatzatu,
an irakats eustan eztizko jakintza;
nik, ostera, nazana
oso neutsan eskiñi
betikoz emonik emaztezko itza.

20. Kemen ta dodan oro
Aren morroitzako dit aukerazi;
ez naz gero eli-zain,
ez nik beste arlorik,
maite izan dot soilki jardun berezi.

21. Gaurtik ni usa zear
ez baldin ba'nabe ikus-idoro,
galdu nazala esan,
maite-jolaska ibilki,
galdua egiñik nabela atxilo.

22. Lora ta pitxi guriz
-goizalde otzean biok batuta-
egingo dogu txorta,
zure maite-suz gara,
ene ule batekin alkar eiota.

23. Ule bakarño ari,
nik lepoan egaz nenkarrenari
ene saman so zeuntson,
eta, Zu bertan barro,
neure begi baten jaus ziñan zauri.

24. Zuk ni begiz jotean
begiak ninduen doaiz edertu;
alan ninduzun maite;
ta alan eben merezi
Zugan ekusana, nireak gurtu.

25. Ez nagizu ezetsi,
beiñola azal baltz ba'ninduzun aurki;
orain so eikedazu,
Zuk begitu ondoren
eder-dirdira bai eustazun itxi.
26. Azeriak eizatu,
loretan bai dago gure maastia;
larrosaz bitartean
egingo dogu txorta;
ez begigu iñortxok izu mendia.
27. Ago geldj, ipar illa,
ator ego leun, maite oroikor;
jo ene baratzean,
Aren usain-jario,
lilietan doke Maiteak baikor.
- Senarrak*
28. Sartua da emaztea
opa eban baratz zoragarrian,
ta gogo beroz datza,
samea makurturik
Maite dauanaren besarte eztian.
29. Sagar-ondo azpian,
antxe zifiean bai nigaz alkartu,
an neutzun emon esku
zure ama galdu zan
tokian bertan zu ziñan osatu.
30. Egazti ego-arin,
leoi, orein, orkatz jauzkari,
mendi, zelai, uralde,
euri, aize, sargori,
gau ernai igaroen izu dardari:
31. Arren, lira atseginkor
ta itxas-zora kantuz dagitzuet zin,

bare zuen sumiñak,
t'ez ikutu ormarik
kutunak baketan atsedean dagin.

Emazteak

32. Oi judear neskatxak,
lore ta larrosak lurrin ixurka
dirauen bitartean,
zagoze basaurian
gauetz etxeondoan ez ekin oi-u-oska.
33. Gorde zaitez, Maitetxo,
jo begi-zartaka mendi-erpiriak,
t'ez gero iñori esan;
baiña jo, ugarte arrotz,
deslai doanaren neskatx-urdiñak.

Senarrak

34. Uso zuria barriz
abarraz kutxara jaku biurtu;
baita usapalak bere
ur-ertz orlegietan
maite eban laguna jarrugi dausku.
35. Bakarrean bizi zan
ta bakarrean dau abia egin,
bakarrean daroa
bere maiteak soilki,
bakarrean au be maite-zauriz min.

Emazteak

36. Goza gaitezen, Maite,
ta goazen zure doaiz asetzen
ur gardena darion
mendi-muiño aldera;
barnego itzalean sartu gaitezen,
37. eta andik aurrerantza
artzulo goitara goakez gero,

txit ostenik bait dagoz;
an biébiok sarturik,
granada-mistela dogu txastauko.

38. An Zuk erakutsiko
nik apeta biziz gogo nebana,
baita emongo bere
an Zuk, ene bizial,
beste egunean emon zeustana;

39. Aizearen ats mea,
txindor eztiaren maite-leloa,
ibar ta ango giroa,
izar dan gau narean
min bage erretzen daun sugar-lanboa.

40. Etzan iñor begira;
etzan Txerrena be agiri iñondik,
esia bake egoan,
zalditeria barriz
ur-begi aurrean joian jatsirik.

I V

Gogoaren leloa, Jainkoa
fedez ezagutzeaz pozez dagolako.

Fedez ezagutu Jainkoa, lenengo bertsoak dira poema osoari indarra damotsenak: iturriaren ezkutapena, ezagutze segurua, gau illunetan. Azken-gai biak ia aldakuntza barik doaz estrofa guztietan.

Ondo dakit nik arin darion iturria,
gau izan arren.

Gorderik dagon betiko iturria,
ondo dakit nik nun dauan gordegia,
gau izan arren.

Bere sorburu ez dakit, ez dau-ta,
bai ostera andik dala jatorri guztia,
gau izan arren.

Ba-dakit ederragorik ezin dala,
zeruak eta lurrak andik edaten;
gau izan arren.

Ba-dakit ez dala ondorik aregan,
ta ñok ezin daula ibiz igaro,
gau izan arren.

Aren argia ez da ñoiz illuntzen,
eta ba-dakit argi guzti an dala sortzen,
gau izan arren.

Ba-dakit aren ur-biziak ain bete dirala
lur-barru, zeru ta jente uretzen ditula,
gau izan arren.

Iturri ontatik sortzen dan jarioa,
ondo dakit nik lala ain gai guzti-altsua,
gau izan arren.

Biotatik darion jarioa, ba-dakit,
bata bestearen aurreko ez dala,
gau izan arren.

Betiko iturri au gorderik dago
ogi bizi ontan guri bizia emoteko,
gau izan arren.

Emen diardu gizakiei deika,
illun dalarik be, ur ontan dira aseka,
gau izan arren.

Opa dodan ur bizi au
ur bizi onetan dakust nik,
naiz gau dalarik.

V

Gau illuna

1. Gau-aldi baltz illunean,
biotz-estu, ta maitez sukarturik,
au nire zorion aundi!,

ixil-ixil urten nintzan,
nire etxea baketsu egoalarik.

2. Illunetan ta seguru
maillali gordetik koko jantzian;
au nire zorion aundi!,
ixil-ixil urten nintzan.
neure etxea neukalarik bakian.
3. Gau-aro zori ontsuan,
ixilka, iñok oar ez nindulerik,
nik ezer ez nekusala,
ez argi ez gidaririk
biotza sutan eukana ezik.
4. Gau onek zuzentzen nindun
eguerdi-argiak baiño be obeki,
jakin bere nik ederto
ba nekian Arengana,
an iñortxo be ez zalarik ageri.
5. Oi zu, gau bide-erakusle!
Gau argi-urratzez gairi maitagarri!
Oi gau maitea Maiteaz
alkar batu zenduzana,
maiterio Maiteaz alkar aseri.
6. Neure bular loratuan,
Arentzat oso bai neukan gorderik,
loak artu eban ezti,
ta nik Ari maite egiten,
izaien aize-gailluak aizeturik.
7. Torreko aizeñoak,
nik Aren ule-adatsa orraztean,
bere esku samurragaz
saman nindun zauritzen ni,
zentsunak oro lilluraz jartean.

8. Ba-nengon egon, ta aaztutzia,
Maiteagan etzunik arpegia;
dana geldi, ta ni itxia,
neure ardura lagarik
zitori artean, ondo aantzia.

VI ARTZAINTXO BAT

Kristo ta arimearen arteko
jainkozko kantak

Artzaintxoa bakar dago miñetan,
ez dau atsegiñik, ez dau pozikan;
artzain-neska dau, gau regun, gogotan,
bularra dau zauriz aren maitetan.

Ez dagi negarra maite-zauritzez,
orrek ez bait dautzu jarten naigabez,
biotza daroan arren odolez;
aaztu daualakoz dago negarrez.

Artzain neskatxa txit aratz-ederrak
aaztu, oi!, dauala gogoratzeak
erbeste nai dauz jasan oiriazek,
bularra daua zauriz aren maiteak.

Onela diño: "Ai, ene zori urri!,
ni maitatu nai ez nauan ari,
nigandiko pozik nai ez dauanari,
biotza aren maitasunez zauri!".

Andik luzarora, zugatz batetik,
besoak zabaldu zitun ederrik;
eta antxe gelditu jatzun illotzik,
biotza aren maitez zauriturik.

Arimaren kantak, Jaungoikaren
maitez alkartze aldiko gozoan.

MAITE SUGAR BIZIA

Oi maite-sugar bizia,
samur zauritzen dozuna
neure arima-muin erdi-erdian!
Orain ez bai zara muker,
amaitu, alan nai izanez,
jo alkarte ezti onen eunean!

Oi erre-aldi me-meal,
oi zauri txit atsegiña!,
oi eskugain leun!, oi ikutu guri,
zeru-biziaz aseal
Zor guztia ordaindurik,
erioz daustazu emoten bizi.

Oi suzko argi-ontziak,
zuen ñirñir-erlantzetan
zentzun-leza sakon argi itzali,
illun ta itsu egoanak,
edertasun arrigarriz
bero ta argi emoten Kutunari!

Eztitsu baizen maitaro
neure kolkoan soil-soilki
zagozan orrek, ixil daragizu;
ta arnas egiñik gozatsu
onez eta aintzaz gaiñezka,
ain samurki maite-miñazten nozu!

Arimaren koplak, Jainkoa
ikusteaz miñez dagolako.

Neu bizi barik bizi naz,
eta alako ustea izanik,
ilter nago ezin

Ni ez naz enegan bizi,
ta Jainko bage ezin naz bizi;
A bage eta ni bagarik,
bizitza au, zer daiteke?
Milla aldiz litzakit iltea,
bizia bera ditxarot,
ilter nago ezin illik.

Nik bizi dodan bizitz au
da bizia faltatzea,
Zurekin bizi artiño;
ta beti ilten joatea
adi, ene jaun, esana,
ez dot gura bizitza au,
ilter nago ezin

Zugandik urrin egonik,
zer bizi euki dagiket,
iñoiz ikusi ez dodan
iltea eroan baiño?
Erruki dakit neugaitik,
ozt-oztan iraun dodala,
ilter nago ezin illik.

Uretik kanpo arraiñak
ba-dautzu aringarririk,
sufritzen daun erioan
iltea lortzen daularik:
zer eriok nire bizi
samintsu onen bardiñik,
zenbat bizi ainbat illik?

Ken naizu erio ontatik,
ene Jaun, t'eidazu bizi;
lakio ain gogor ontan
ez nagizula, ez, euki;
Zu ikus-miñez nago miñez,
ta nire miña aundi baita,
ilter nago ezin illez.

Min dot orain neure iltea,
ta bizia negartuko
neure obenak eutsia
tinko daukadan arte.

Noiz izango, ene Jainkol,
egiaz esatea nik:
bizi naz orain il barik?

I X

Otoitz aundiko zentzun-
-galtzeaz egindako koplak

Sar nintzan nun ez jakiñik,
ta bai jakinge gelditu,
jakite dana gaindituz.

Ez nekian nun sar nintzan,
baiña ara nintzanean,
nun nengoan jakiteke,
gauza aundiak uler nitun;
ezin esan an senti nebana,
jakinge bai nintzan lotu,
jakite dana gaindituz.

Bake ta errukizko zan
ango jakite betea,

bakartasun txit gorrian
bide zut-zutari buruz;
gauza ain ixilla izanik,
berbartu gelditu nintzan,
jakite dana gaindituz.

Ain artua bai nengoan,
ain sor-gor eta geldorik,
neure zentzumenetik be
osoan besterendua;
nire gogamena barriz
adi-eziñez adidun,
jakite dana gaindituz.

Benetan araiño dana,
beretik auldua dozu;
lendik jakin ekiana

orain zatar iruditzen;
jakiña geituz doakio;
jakinge gelditzen dala,
jakite dana gaindituz.

Zenbat geiago goratu,
ainbat gitxiago ulertzen;
gaba argi-azten dauan
odeia illun izaten;
ortaz, jakindun zana be
jakinge jatzu gelditzen,
jakite dana gaindituz.

Jakite ez-jakin au, ba,
ain jatzu goitar indartsu;
jakitunak jardetsiaz
ezin dabe iñoiz gaillendu;
arein jakitea ez da
uler-eza ulertzen eldu,
jakite dana gaindituz.

Jakite gorengo au be
ain dozu eder-bikaiñik,
jakin ez almenik ezta
berau burutu daikenik;
iñok gaiña artu balegi
ez-jakiña jakiteaz,
beti da joango gainduz.

Ta entzun nai ba'dozue,
jakite bete-bete au
batez be da onartzea
jainkozko izate bera:
Aren erruki, lana da
ulertu barik geratzea,
jakite dana gaindituz.

X

Jainkozko beste kopla batzuk

Maite-min baten ostean,
eta ez itxaro barik,
gora egaztuz, ain gora,
eizea nik atzemonik.

Jainkozko aldara oni
beatzez eldu nengion,
begitatik galtzeraiño
egaztea egokidan;
une onetan, alan be,
uts egin neban egadan;
maitea baiña goi izanik,
eizea nik atzemonik.

Zenbat eta gorago jun
lausoago nik begiak,
garaitze latzenak barriz
illunetan irabaziak;
baiña maite-zori izanik,
jauzi itsua emon nik,
ta gora egaz, ain gora,
eizea nik atzemonik.

Zenbat eta gorago jo
jokaldi ain goiko onetan,
ainbat nengian beerago,
ta eskurago nengoan.
Nik esan: "Nork orri eldu?";
gero ta beeragotuz ni;
gora egaztuz, ain gora,
eizea nik atzemonik.

Jas bakanez eun egada
igaro nitun batean,
zeru usteak zenbat itxaro
ainbat dau, ba, eskuratzean;

une bakar onen zain ni,
ez nintzan uts urten ortik;
gora egaztuz, ain gora,
eizea nik atzemonik,

XI

Jainkozko kanta

*Euskai barik eta euskaiz,
argige ta illun bizirik
gutziz noa suntsiturik.*

Aske daukat arimea
sorturiko zer gutzitik,
bere gairi jaso-azia
eta gozatsu bizirik,
Jaunari bakar loturik.
Nitaz esango da beragaz
ederren jatana,
arima dodala orain
euskai barik eta euskaiz.

Ta illunpeak jasan arren
oraingo bizi ilkorrean,
ez da ain aundi nire gaitza;
argik ez ba'dot arean,
zerutar bizia daukat;
olako bizi-suak, ba,
itsuago biur-aziz
arima dau gaiña artua,
argi barik, illun biziz.

Maitasunak dagi ori,
nik ezagutu ondorean,
on naiz gaitz nigan dagona,
dana dagi ein batean,
ta arima berez aldatzen;
t'olan, bere au gozotan,
ori neu nago somatzen,

leiaz, ezer gelditzeke,
oro doakit suntsitzen.

XII

Beste Jainko kanta bat

Edertasun guztigaitik
ez naz egundo galduko,
ausaz eskuratzen dodan
ez dakit zer-gaitik baiño.

Munduan dan on-aukera
el daiteken aundiena,
dozu irritsa nekarazo
eta ao-sapaia gaiztdtu;
olan, edozein gozokaz
ez naz iñoiz ni galduko,
*ausaz eskuratzen dodan
ez dakit zer-gaitik baino.*

Leiñargi dozun biotza
ezta iñoiz geldi-azten
igaro al dan lekuan,
zaillago danean ezen;
ez dau ezek be asetzen,
bere fedea gailtentzen,
t'eder jako *ausaz nai dan
ez dakit nik zer danik.*

Maite-miñez bizi dana,
jainkozko Izatez ukia,
jasta dau ain aldatua,
zaparez da aul-erazia;
ala-ala sukarduna
janari aurrean muker,
eta nai dau *ez dakit zer
ausaz aurkitu oi dana.*

Ez zaitese mirets ortaz,
jasta dalako olan gabe,

bera bait da gaitz-ekarle
bestez osorik lokabe;
orrela, sorkari oro
birloratua da ikusten,
eta eder jako ez *dakit nik zer*
ausaz aurkitu oi dana.

Egonik bada naimena
Jainkotasunaz txoralda,
ezin izan ordaindua
Jainkotasunaz ezpada;
ain dozu baiña sotilla,
fedez ikusten, soilki dana
eder jakon ez *dakit zer*
ausaz aurkitu daikena.

Arekin maitez mindua,
esan ez min, ba'dozue
ez bai dau zaporerik
sortutako ezertan be;
soil, era ta iduri bage,
euskai ta oiñik ezean,
txastatuz an ez *dakit zer*
ausaz aurkitu danean.

Ez uste zuok barrua,
baliotsugo ez danik,
poz-atsegiña daukala
zaporea damoanik;
baiña eder guztiz gaiñez
dan, izango ta zanetik,
dan txastatzen ez *dakit zer*
ausaz aurkitu oi dana.

Ardura geiago jarten
garai ager nai dauanak,
irabaz bear daunean,
t'ez irabazitakoan;
ta olan, goia lortzeko
ni beti naz makurrean,
batez be ez *dakit nik zertan*
ausaz aurki oi danean.

Era onetan zentzunez
daiteke, emen ulertu
eta obeto ulertu bere,
oso jagia izan arren,
ta ni graziz ez ederrez
egundo galduko ez naz
ez dakidan *zer batez ezik,*
ausaz aurki oi danetzaz.

XIII

Gabonetako

Jainko Berbeaz
astun Neskutza,
bidez or dator;
egin egoitza.

XIV

Deuntasunaren oso

Aaztu munduko gauzak;
gogora Egillea
zuur barrukoari
ta maite Maitalea.

KARMEL MENDIRAKO IGOERA

SARRERA

Karmeldar Ordeneak iñori ezer kendu bage, ba dau nun eta zergaitik burgoitu. Santa Teresa ta Juan Gurutzekoa, Santu bi goi-goi-koak, Eleizan irakasle. Mistiku bi egitez eta experientziz oindiño iñok burutu bakoak; XVI garren gizaldian karmeldar alkartea barriztatu ebenak; arima gartsu bi; Trento'ko batzar ostean Eleizea sustatzeko Jainkoak aukeratuak; erraldoi bi egiaz, euren barruko Jainkozko sua liburuetan agerturik, gaur be ainbat argitalpenetan atsegiñez irakurten diranak.

Juan Gurutzekoaren liburuetatik lenengoa dagu Igoera, Igon, Karmel Mendira igon. Zeregin neketsu, gaitz bait jaku naiznoiz gairi batera eltzea; aldatz gora izerditan Zertako, baiña, igote ori? Emen edo geroko bizitzan, Egilleagaz alkartzea ez ete da gaur elburua? Berak egiñak gara; Berak garabiltz eta Berak emongo dausku -orren zain gagoz- betidaniko atsedena. Ez egin jaramonik filosofu txatxu batzuei. Jainkoa, barriz, mundu onetan be, billatuz, aurkitu geinke, ez edozelan, saiatuaz baiño. Gizon eta emakume, orretan alegindu bear. Au be esan` dagidan: lekaide-lekaimeok batez be ortarako gagoz, Jainkoaren alkartasunean iraunik, nobere burua ta mundua salbatzeko: griñatan dago mundua, gau illunean, zotinka.

Eta Gurutzeko Juanek diñotsa neke geiago illunpe geiago izango dauala gau indartsuan sartu, murgil-azorik, zentzunak illun orretan garbitzen ez ba ditu, aalmen espirituzkoenak, adimen, gomutapen eta naimen, fedearen, itxaropenaren eta maitasunaren gauan, lexibuntzi baten lez, lardakatu ta garbi-azo ezik. Loi dago mundua, iñoizkorik nekatuen, gogaituen. Zek kenduko neke ta gogorik-ez ori? Griña ta irritsen une ori zek edo nok artuko? Jainkoak. Agustín, munduan sarturik, artega bizi zan. Azkenez, arek garraxi:

"Zeuretzat egin ninduzun, Jauna, eta urduri dabil nire barrua Zugandik urrun".

Toki berean ezin egon kontrako bi, mundua ta Jainkoa adibidez. Arimeak origaitik Jainkoa artzeko, barrua griñetatik ustu bear; Jainkoarentzat utsunea, garbi ta txukuna izan bear, loa ta garbia ez bait dira batzen; bai, ostera, bakea, argia ta ederra. Jainkoa *tasun* (edertasun, maitasun, ontasun, gozotasun...) guztien altxor da. Aita ta Senar da gizasemeentzat maitasunean alkartzeko. Olantxe agertzen jaku Kristo, Jainko gizon egiña.

Gizona gogoz eta zarta-zarta beretik eta Jainkoa, gizona artzaille dala, grazi ta doez, bien alegiñez, arimea gertatu egin oi dabe Jainkoarekin alkartu daiten, maitasunezko fedean. Jainkoak lan eta arimeak laga, egin oi da, Jainkoak bere goi-izatez arimea ornidutea. Gogotiko langille onek giza-barnean lan dagi, arima baratzak frutu aberats ugari ekar dagian. Jainkoar eguzkiz kiskaldu oi dau, Jainko izatearen jaube egiten dauala, barru-barruko batasun egiaz gartsu ezin-askatua burutuz.

Juan Gurutzekoa erraldoi dozu liburu ontan -eta besteetan- gai au aztertu ta miresgarriro azaltzean. Berak esperientziz eta oarrez ikasi ta bizi izana, ziur asko. Osa-puskak lez artzekoak dituzu atal guztiak. Artu eizuz eta irakur astitsu ausnartuz.

Idazle mistikuak ikutze barru-barrukoa izan dau Jainkoaz, esperientzi bizia; antxe artu dausku bide ezkutu orrein gozotasuna, gai ta dotrina guren orreina. Aren ekiña ondoren ez da izketa, begizatze dozu, gauzea Jainkoagan ikustea, erderaz *kontenplaziñoa* deritxona. Orixe da Juan Gurutzekok esan nai dauan itza. Edozelako azterketa dagiala, orixe dagi ak, begiz begi ikustea, kontenplaztea zer dan adierazo. Ez dabil adi-jokoetan, arek gura dauana da ezkutu dagon Jainkoa estalge jartea. Jainko gurtzaille ta maitale biurtu nai ditu gizasemeak.

Garbiketa bear da Jainkoagana urreratu ta Beragaz alkartzeko. Juan'ek, izan be, esango dausku Jainkoak naiago dauala garbitze pizkat, Aren zerbitzurako egin uste dituzun egintza guztiak baiño. Apaltasuna ta maitasuna dira, ildura ta ixillaz batera, igoteko maillak.




Espetxean sartzen dabe, Toledo'n.



Kristok ikustaldi bat egiten dautso kartzelan.



ariak poztuten au espetxean.



Aita Juan'ek iges kartzelati



ihma | **i**ⁿ | **nid1121i!!!2!**
parirra
0411M111
441011
11111



Aita Juan karmelidar lekane oetozen komentura doa.



Aita Juan'ek karmelidar oetozen aintas zuzantzen.



Aita Juan deabru bat uxatzen.



Aita Juan'ek penitente izaten ikasi nai.

Askatasun-zale da gaurko gizasemea. Erriak ez dabe gura bizkar gairi ezetariko sortarik, ez pixurik. Lera orreik, baiña, ez dira beteak, ez gara aske bizi, eta balio dau lan egitea, askatasuna lortu nai izateko; begira, alan be, katigu zaukiez griñak, askatasun barik. Libre gareanean erneten dira arimea edertzen dauskuen birtute gurenak eta oitura garbiak; duindu egin oi da gizonentzat eta Jainkoarentzat gure arimea, leen griñati zana goizale egiñik. Leen gizatiar ziñana, orain zerutar zara.

Sakonak dira Juan Gurutzekoaren lanak, ez ulertu eziñak. Liburu auxe berau, bere sakontasunean, ulert-erreza dozu. Bakar-zaleentzat idatzia, batez be, Karmel Mendirako bidea edozeiñek egin dagianarren. Oztopo naiko ausi daroez oneik arako bideak ezagutu ezak edota autorleak artez zuzendu ezak dakazanak. Olakoai lagundu nairik idatziak dira Juanen liburuak. Berak onela: "Bai arimeak berak eta bai autorrentzuleak zelan jokatu bear daben emen adierazoko dogu.

Jainkoak lagunduta". Arimearen garbitzen dan ala ez aitzen emoten dauskuen ezaugarriak zeintzuk diran azalduko dogu. Eta garbitze lana bada, zentzunarena ala espirituarena ete dan. Ots, *gau illuna* danetz; kirio-auleria (neurastenia) ala zentzunaren naiz espi-rituaren sorpena.

I GOERA

Liburu onek -Juan Gurutzekoaren itzak- Jainkoaz alkartzera arin-arin daroan bidea erakusten dautso gizonari. Abisuak emoten ditu, eta irakatsiak, zein ibiltzen asten diranai zein aurrerago joanari. Dotrina guztiz ona, lurreko guztiari agur egin eta espirituzkoan murgildu nai dauanarentzat. Azken batean, gizasemea billos-billos gelditu daitela, orixe bai da-ta jainkoaz alkartzera daroan espiri tuzko maitasuna.

Karmel Mendirako Igotte ontan esatea nai dodana, urrengo bertsoetan dago namiñez. Eurotan azaltzen da zelan igon bear dan mendigaiñeraiño, au da, zelan eldu kristau bizitzan grazizko osotasuneraiño; arimea zelan alkartzzen dan ortarako Jainkoaz. Emen ipinten ditut bertsuok danak batera esango dodana euron gairi edo kautan oiñarriturik.

Kantak

Fedezko gau illunetan, billois eta garbi, Jainkoagana doan ari-meak dabes:

Gaualdi baltz illunean,
biotz-estu, ta maitez sukarturik,
au nire zorion aundi!
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea baketsu egoalarik.

Illunetan eta seguru
mailladi gordetik koko jantzian;
au nire zorion aundi!
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea neukalarik bakian.

Gauaro zori ontsuan,
ixilka, iñork oar ez nindularik,
nik ezer ez nekusala,
ez argi ez gidaririk
biotza sutan eukana ezik.

Gau onek zuzentzen nindun
eguerdi argiak baiño be obeto
jakin bere nik ederto
ba nekian Arengana
an ez zalarik ageri iñortxo.

Oi zu, gau bide-erakusle!
Gau argi-urratez gairi maitagarri!
Oi gau Maiteaz maitea
alkar batu zenduzana,
Maiteaz maitetxo alkar ezarri.

Neure bular loratuan,
Arentzat oso bai neukan gorderik,
loak artu eban ezti,
ta nik ari maite egiten,
izaien aize-gailluak aizaturik.

Torreko aizetxoak,
nik Aren ule-adatsa orraztean,
bere esku samurragaz
saman nindun zaurituten,
zentzunak oro jarriaz lillurean.

Ba-nengon egon, ta aaztua,
Maiteagan neban ezarri burua;
dana geldi, ni lagarik,
ene ardurea itxirik,
zitori arte, aaztua.

Kopla bikaiñak. Zortzi estrofa oneik saillez sail emen ditun arren, eta liburu osoaren mamin lez ezarri, urrenez urren ez ebazan aurok azaldu, lenengoa ezik.

ZER BATZUK

Asieran egoki datoz abisu batzuk. Gaia, ez dago zetan esanik, berez da zailla. Fedearen bitartez gizona jainkoaz alkartzeko ibilli bear dauan bidea ez da ulert-erreza. Ezta adierazo erreza be. Bide ori nik dakidan lez adierazo al izateko nireak baiño jakitate ta experientzi geiago bear litzatekez. Eta jakiñik be sarri ez dakigu zelako itzak erabilli berau esan eta ganoraz aitzen emoteko.

Nik ez dodaz, gogai edo ideia illun au azaltzeko, ez zientzirik eta ez experientzirik oiñarri lez artuko, biak uts-egin leuskide ta ziria sartu, biok bidean laguntzeko onak dirala be; Liburu Santuak artuko ditut lagungarri eta eurok izango dira nire ordeztzatuko diranak. Liburu orreitan daukagu Espiritu Santuak esana; nik beraz Arek esanean oiñarriturik ezin dagiket utsik egin. Ez dot ezetan be Arek esanetik saiestu gura, ezta Eleizeak irakatsitako dotriña osotik be.

Au idazterakoan, uste dot, Jauna lagun izango jatala premiñan dagozan arimai bear dabena esaten.

Askotxo dira Jaunaganako bidean jarten jatzuzanak. Baiña gero Jaunak gau illunean sartu nai dauzanean, illun latza jakelako bear bada, ez dauke adorerik aurrera egiteko. Or sartu nai ez dabelako

batzutan, edo-ta or sartzen Jainkoari itxi nai ez dautsoelako; edo ulertzen ez dabelako beste batzutan, edo bidea dakian erakusle treberik ez daukielako.

Pena emoten dabe arima askok. Goietatik erabilli nai ditu Jainkoak, eta talentuz eta doe ederrez beterik dagozala, ez dira gai egazkada gotorrakoak emoteko. Jazo leiteke, alan be, Jainkoak bene-benetan laguntzea, baita iñork bidea erakutsi ta lagundu barik, aurrera egitea. Baiña beti doakez astiroago, eragozpen askorekin eta irabazi ta meritu gitxiagorekin, Jainkoak eroan nai zituan bidez joan ez diralako.

Arima batzuk, Jainkoagan euren buruak itxi ta lagungarri izan bearrean, Jainkoaren lanari eragozpenak jarten dautsoezanak, edo zuzentzaille barik dabiltzalako, edo Jainkoaren egiteari gogor dagitselako. Gurasoak besoetan eroan nai dabezan umeak lez dirala, esan geinke, eta eurak gura dabe oiñez ta ostikoka ibilli. Orrela ostera ezin aurrera egin. Eta, aurrera ba'dagie, ume modura izango.

Jainkoak nai dauanean arimak aurrera egin daitela, Ak zuzentzen izten jakin dagien, irakatsia ta abisuak emondo ditut, Jauna lagun, eragozpenik ezarri barik aurrera joten saiatu daitezana.

"Ba-dagoz autorleak eta aita espiritualak -diño Juan Gurutzekok-, onako itzul-inguru ta kakoetan argitasun gitxi dabelako, arimai kalte egiten dautsenak. Babilonia'n etxegiñan ziarduenak, ixkuntzak nastau jakezalako, gauza bat ekarri ordezt beste bat ekartena ebelako, ez eben aurrera egiten. Donekuntza bidean be ez dabe aurrerakuntzarik eukiko".

Jainkoa lagun, emen esango dogu barriz zelan jokatu bear daben bai arimak eta bai autor-entzuleak. Zerk garbitzen dauan arimea eta zerk ez, onen ezaugarriak ikusiko daguz; zerk garbitzen dauan zen tzuna eta zerk espiritua, *gauillunnri* gagokionez. Garrantzizkoa da auzi au, neurastenia ala akats bat dan jakitea, zentzun aldekoa ala espiritutik datorkiguana dan jakitea beti dauka inportantzi gorria.

Izan leiteke arimak edo euron autorleak uste izatea, Jainkoak, garbitzeko, *gau illunetik* daroazala, eta akats eta imperfekziño bat izatea. Otoitzik ez dabela egiten pentsatzen daben arimak ba-dira, eta asko egiten dabenak izan. Beste batzuk barriz asko egiten dabela uste izan eta ezer egiten ez dabenak.

Beste batzuk be naigabetan jarten gaiue egiaz, otoitz lanari su ta ke egin ondoren uste dabe orren frutua ez dala agiri. Beste batzuk, pazientzi ta atsedean aundiz jokaturik, asko be asko doaz aurrerratuaz.

Gaiñerako beste gauza askori be iku tuko dautset bide ontatik dabiltzanai gertatzen jakezanak, poztasunak eta atsekabeak, itxaropenak eta oiñazeak; atsegiñetatik datozeanak batzuk eta beste batzuk osotasunean bertan sorburua dabenak.

Guzti onetaz egingo dot berba, Jainkoa lagun; au irakurten dauan arimeak jakin daian nundik doan eta nundik joan bear dauan mendi tontorrera eltzeko.

Illun samarra ba dabe dotriña au, ezpei arritu irakurlea; *gau illunari* dagokiona dozu, eta ortik joan doa arimea. Zailtasun au, nik uste, asieran izango dala; jarraituz doala, obeto ulertuko dau leen irakurria, ideia batzuk be besteak argitu daroez. Barriro irakurri dagizanak, jakiña, argiago ikusiko dau gauzea, eta irakatsia jatorragoa dala konturatu.

Dotriña au norbaitek gogoz artu ez ba 'dagi neure jakite ta idazkera exkasagaitik izango da; gaia berez ona da oso, ta bearrezkoa. Obeto idatzi ba neu, alan eta guzti be, susmo dot, gitxi baiño etzirala izango gai oni guna aterako eutsenak. Ez noa, ba, gauza arin azalekoak idazten, Jainkoagana bide atsegiñez joan nai dabeneztat egokiak diranak baiño. Ebanjelioko osotasunari dagokion dotriña sakon betea emotera noakizu, emen azaldu nai dodan espirituzko billostasunera eldu gura dabeneztat.

Nire asmo berezia, orrez gairi, ez da edonontzat idaztea, geure Ordenako pertsona batzuentzat baiño, praillentzat eta mojentzat, eurok eskatu daustie-ta. Jainkoak egiten bai dautse Mendi ontako bide-zidorrean sar-azteko grazia. Oneik onezkero, munduko uskeriz uts dagozan legez, obeto ulertuko dabe gogozko billostasunaren irakatsia.

LENENGO LIBURUA

I

Mendiruntz

Gora goaz, Karmel Mendirantza. Gau illunez da gure urtetea. Mundutar guztitik urten, eta zorionez. Esan eziña da barruan daroagun atsegiña. Griñak, zalekeriak eta utsegiteak; gizonaren atal sentikorrak utsitu. Gizasemea ez bait dabil errazoiaren eskabidez.

Urtetean eta gorantz joanez, onela dau kanta tzen:

*Gaualdi baltz illunean,
biotz-estu, ta maitez sukaturik,
-au nire zorion aundi!-
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea baketsu egoalarik.*

Arimeak, osotasunera eltzeko, *gau* bi igaro bear ditu, garbiketak egiñik. Gauda deritxogu oni, illunpetan doalako. Gau bi dira; arimearen atal edo puska sentikorra garbitzen da lenengoan, eta liburu onen len-zatian dator azalduta; bigarrena espirituari dago-kio, bigarren estrofan emoten danez.

Asi-barriei dagokie lenengo gaba, ain zuzen, espirituak be esku artzen dauan arren, Jainkoak begizta tze egoeran jarten dituenai. Bigarren gaba, garbiketan aurreratuen da, Jainkoak Beragaz al-kartzeko moduan ipiñi nai dituanena. Benetan illun, goibel ta latz-gorria da, gaualdi au.

Kanta onetan arimeak au adierazo gura dau: Jainkoak bere maitez aterata urten ebala, Aren maitasunean suturik, gau illun batean. Gau au, ostera, zentzunetiko griñai ta munduko gauza guztiai uko egitea da. Bardintsu, nobere aragiari atsegiña ekarri leikeon zer danai, eta naimenaren berezko gozotasunai ezetza emonik. Guzti au dagigu zentzunaren garbiketan.

Etxea da zentzun-atala, griñak bare ta lo dagozanean, ezti ta baketan dagoana. Ezta, ba, urtetan atsekabe ta esturak dakarrezan griñak il-azo ta lo jarri arteño. Poz bizia emon autsan onek, ez bere

aragi irritsak ez beste ezek galazo ezin izan eutsona. Gabaz urten zan, griña guztiak Jainkoak kendu bai eutsozan.

Jainkoak berak sartu eban gau ontan, arimeak berak ezingo eban eta. Pertsona batek, berez, ez leuke indarririk izango Jainkoagana joateko, griña guztietatik bere barrena ustu ta garbitu al izatako.

II

Gabaz

Arimeak, mendirantza bide egin eta Jainkoaz alkartu al izateko, gauaren illunpea itxi bear dau, mundua ukatu ta gorantza jo. Ukatze ta eztasun au, gizonaren zentzunentzat gaua dozu. Fedez jo bear dau gorantz arimeak Jainkoaz alkartzeko; fedea, barriz, giza-adimenarentzat gaua baizen illuna jatzu. Eta mendirantza doan arimea Jainkoagana doa; bizitz onetan, ostera, Jainkoa be guretzat gau illuna izan.

Gau onen irudi bat damosku Tobias'en Liburuak. Iru gautan, emazteaz batu barik egoteko esan eutson aingeruak. Lenengo: sutan erre egiala *arratfiaren biotza*, edo bardin dana, izaki dan guztia goi-maitasun suz erre ta garbitu bear da. Bigarren: gurasoen alkar-tean sartzen da arimea, fedean bakarrik geldituz. Irugarren gauan lortuko eban Jainkoaren bedeinkapena, au Jainkoa bera. Jainko emote au, gau au, besteak baiño illunago jako, eta ain zuzen be, illunpe gordiñean murgil, orduantxe Jainko Jakituriarekin alkartea osotzen.

Gau bat da iru epetan bereizia; edozein gauk lez iru momentu leukakez. Zentzunaren gaua, lenengo, arrats-gorri, gauzak ez ikusten asten diranekoa. Fedea da bigarrena, gau-erdia lez oso illuna. Argi-urratze edo egun-sentia dozu irugarrena. Etorriz dator Jainkoa, argi-begian eguna legez.

Argia itzaltzea da gaua. Argirik ez bada, gauzak illuntzen. Begiak ez dabe ezer ikusten. Aldapa-gorako ibilte ontan gauza guztien lera bage geratzea dozu gaba.

Gurariak eta irritsak eztea gau jakon arimeari, irrits gustu barik geratzen dalako, beraz illunetan eta ezer barik. Argiaz ikusi leitekezan gauzakaz janaritzen da ikusmena; baiña argia itzali ezker, gauzak ez dira ikusten. Arimea, zerbaitez ase nairik, edozein

gauzaz asetzen jatzu, irrirts gogorik dan bitartean. Irritsa ito naiz ilduratu ezker, arimea ez da geiago bazkatzen gauzak dakarren atsegiñez. Gurariari dagokienez geratzen da illun eta ezer barik.

Gustuaren irritsa, ikumenari atsegin jakona, ukatu ezker, illun eta ezer barik geratzen da au. Arimeari, entzumena loxinkatu leikeon irritsa kendu ezker, illunpean geratzen da; usain gozotasuna kendu ezker, ezer barik geratzen jatzu usainmena; jateko irritsa kentzen ba jako, illun geratzen da ao-sapaia; iku atsegiñetatik ilduratzen bada, zentzun onetan be illun eta ezerezean.

Arimea, labur, zer guztien zaleari uko egiñik, irrirts oro itotean, gautan lez gelditzen da, illunetan. Uts-unea egin da arima baitan, beterik euki daben gauzak itxi dabena.

Zergaitik ete ori? Jakintsuak diñoe, arimea giza-gorputzean Jainkoak jariotean, ol soilla, lakatz bakoa dala. Ez dauka bertan ezertxo be margozturik. Ez dau ezer artzen iñongo sorburutik, zentzunetatik ezean. Giltzapean lez dago arimea gorputzean dagoalarik eta ezin dau ikusi espetxeko leioetatik datorkiona baiño. Leio orreatatik ezer ez ba jatorko, beste iñundik ezingo leuke ikusi. Zentzunak dira arimearen kartzela leioak. Eurotatik sartzen ez jakonik ez jako beste iñundik sartuko.

Arimeak zentzunetatik artu leikena uxatu ba 'dadi, argi dago, illun eta uts geratzen dala. Egia da, ikusi, entzun, usaindu, txastatu eta sentiduko dau, baiña ikusi, entzun eta abar egiten dauana ukatu ta onartzen ez daualako ez dau kezkatzen ikusi ta entzuten dauanak be. Begiak euki ta itxi ezker, olakoa ikusi ezin dauan itsua baizen illunetan gelditzen jatzu. Ondo diño Dabid erregeak: *Umetatik naz gizagaixo ta beartsu* (Salm. 87, 16). Beartsu diño, izatez etzala, bere naia ondasunai loturik ez eukalako; beraz beartsu zan egiazki. Baiña, alderantziz, beartsu izan ba litz, eta ez gurariz, beartsu izango zan egi-egiaz, arimea ba aberats leukaken ondasun nai-zaletasunetan beterik.

Billostasun au gau da arimearentzako. Murritzasuna ez da, izan be, gauzarik ez eukitea, ez nai izatea baiño. Billostasuana gustatu ta ez nai izateak gauzen lotura barik itxi oi dau arimea, gauza asko eukita be. Ez dira munduko gauzak arimea asetzen dabena, asetu ta kalte dagitsoenak baino, ezin bai dira bertan sartu soiñez eta egotez. Ariman sartu leikena izan daiteke, bai, eta ondorez kalte egin, eurak nai ta opa izateak.

Arimeari dagokio lenengo gau-mota (klase) au, bere alderdi sentikorrari begira. Bada beste gau bat espirituari dagokiona. Biotatik igaro bear dau arimeak Jainkoaren alkartasunera eltzeko.

III

Gau-bearra

Munduko gauzai errez lotu oi da arimea, eta izakietan jarten dan zalekeria lillura besterik ez da Jainkoaren aurrean. Arima illunpez jantzirik ba dago, ez da gai Jainkozko argia artu eta onek artua izateko. Argi ta illuna azin daitekez alkar buztartu. Juan ebangelariak onan: *Argiak illunpean argi ta illunpeak ez eban a menderatu* (jn. 1, 5).

Zergaitik olan? Filosofiak erakusten dau bi ezin leikezala norbaitegan egon. Illupeak eta argia. Paul deunak onan: *Zer ikusi dabe argiak eta illunpeak?* (2 Kor. 6, 14). Arimeak ezin atsegiñik jainko-alkartesunean, munduko gauza zaletasunez garbitu ezik.

Izakiari dautson lerakbardindu daroa arimea. Zaletasun geiago, bardintasuna be areago; maitasunak bardintasuna dakar maitatzen dauanaren eta maitatua danaren artean. Salmuak ortik: *Izan daitezala orrein antzeko, ustea orreitan jarten dabenak* (115, 8). Izakia, munduko gauzea, maite dauana izakia baizen bee geratzen da, edo beerago oindiño, maitasunak ba ez dau bardindu bakarrik egiten, maitalea maite dauanaren mende jarri be bai.

Arimea, zerbait maite dauanean, ez da gauza Jainkoaz alkartzeko, ezta aren baitan erabiltzeko be. Lurreko ta zeruko zerak, dandanak, Jainkoaz bardinean jarri ezkerro, ezerezak dira. *Lurrera begira dot, eta naste utsa*; zerura, eta ez dauka *argirik* (Jer. 4, 2). Lurrean naaste utsa egoala esatean, izakiak ezerez zirala esan nai eban, eta lurra bera be ezerez zala. Eta zerua argi barik esatean, izarki guztiak, Jainkoaz bardimdu ezketiño, illunpe uts. Gizonak, garbitu arte, eztau maitez era-aldatzerik izango ez bizitza ontan ez bestean.

Gizona ezingo da ezelan be Jainkoaren izate azken bakoaz alkartu, ez dana danagaz ezin daiteke bat-etorri ta. Antz ontan: Jainkoaren eder-izate azken bakoak bardindu ezkerro, motza be motza dozu izakiaren *edertasun* guztia. Esakunak diñoë: Guzurra

dozu liraintasuna, eta utsa ederra (31, 30). Munduz lilluratzen dan gizona, bada, zatarra da oso Jainkoaren aurrean. Zelan biurtu jainkoaren eder olako gizona, itsusiak artu ezin badau edertasunik? Ez da gauza, ba, Jainkoaren grazia ta edertasuna artzeko. Lirain ez dana urrun dago mugarik bage lirain danetik.

Izakien *zorian* eta *zoramen* guztia Jainkoaren sotiltasunaz alkar jota, zoritxar uts eta naiez-lorra besterik ezta. Izakien eder, grazi ta liraintasuna euki nai dituan gizona, eldu-eza ta doakabea dozu, Jaikoaren eurrean.

Munduko izakien *ondasun* guztia Jainkoaren ondasun azkenba-koaz kide jarri egizu, eta dongakeria dala esan leiteke. *Ezta inor on Jainkao ezik* (Lk. 18, 19). Munduko ondasunetan tinko dagoana, beraz, gaiztoa da guztiz Jainkoaren aurrean. Eta Ondasunean malizirik sartzen dan lez, gizon au ezin daiteke Jainkoaz batu, Jainkao ondasuna bera da-ta.

Mundutar jakituria ta giza-trebetasun guztia Jainko-jakituriaz bardiñean emon ezkerro, ezjakin uts eziñagokoa dozu. Paul deunak ederto:Jaingoikoarenaren *aurrean, zornkeria da mundu ontako jakintza* (1 Kor. 3, 19). Aren aurrean, bada, ezjakin-ezjakiña zara. Eta barriro: Euren buruak Jakituntzat egiten dabenak tentel dira bakar-bakarrrik (Errom. 1, 22). Euren jakitatea izten dabenak asten dira soilki Jainko-jakituria eukiten, ume ezjakin egin eta maitez Aren zerbitzari izanik. Auxe da Paul deunak korintotarra irakutsitako jakituria, esanik: *Ez bedi inor atipzetu Zuotan inor, gizarte ontan, jakitun dala uste ba dau, zoro biurtu bedi, egiaz jakitun izan daiten*. Mundu ontako jakintza zorakeria da-ta, Jainkoaren eurrean diñot (1 Kor. 3, 28-19).

Giza aunditasuna ta askatasuna Jainkoarenagaz alderaturik, morroitza, naigabea ta garraztaun ez dira besterik. Jainkoaren irakatsia onartu nai ez dauanagaitik esaten zan askatasunik bako morroi lez zala, goi- jarlekuetan ezarritako kargu aundidunak bear bada, baiña oso beartsuak espirituz. Kristok diñosku. *Zuen artean eundiena, izan bedi txikiena, eta agintzen dauana, zerbitznri* (Luk. 22, 26). Morroitzak ez dau eskurik askatasunaz; au ezin da bizi txeraz ta onguraz loturiko biotzean.

Naimenak emen euki leikezan poz, atsegin eta gustu guztiak Jainkoak daukazanak neurrian ipiñi ezkerro, ez dira atsekabe ta garraztasun baiño. Gauza guztien *aberastasuna* ta *aintza* Jainkoak

daukazanakaz kideturik, txirotasuna ta mixeria, uts-utsa, besterik ez dozu. Au maite dauan gizona, beraz, beartsu ta errukarri benetan; sekula be ezingo da eldu Jainkoaz alkartzera.

I V

Griñak kaltegarri

Gorputzak ez-ezik arimeak be ba-ditu bere oztopoak aurrerantz egiten galozoteko. Azaltzen gabiltzan lera, griña ta apetituak dituzu oneik. Nekaturik geratzen jatzu arimea, kalte bik autsia batez be. Batak ostu egin oi dautse Jainkoaren espiritua, eta besteak nekez bete, oiñazetu, illun-azo, loitu ta akaltu. Ondo diño Jeremias igar-leak: Txarkeri bi egin dauz, izan be, nire erriak; *Ni, ur bizien iturria nazana, bertan bera itxi ta urikeuki ezin daitekeen urtegi arrakalatuakegin dabez* (2, 13).

Edozein erabako griñak dakaz kalte izugarriak; bi egintza, gabetzezko ta baiezko. Lenengo daukazu arimea gauza edo izaki batez zaletzen jatzunean; zaletasun gogorra ba da, leku txikia geratzen jako Jainkoari bertan sartzeko, aurkako bi nor baten ezin daitekez bizi, ta esan dogunez Jainkoa ta izaki lera kontrakoak dira eta ezin leitekez sartu naimen berean. Zer artu-emon dau izakiak egilleaz? Zentzunak eta gogoak? Ikusi al daikenak eta ikusi eziñak? Aldikoak eta betikoak? Gogozko janariak eta zentzunezko utsak? Norbaitek leku barria artu dagian, leen egoana ,aurkakoa, bota egin bear dau, au oztopo jako bigarrenari ta.

Arimea zentzun-espirituari azpiko emona dan arte, ezta arengan sartuko espirituzko gogo garbia. Origaitik esan eban Ebenjelariak: *Ez dago ondo ogia semeen ogia artu ta txarriai jaurtitea* (Mat. 15, 26). Eta bardin: *Ez emon santua danik txarriai* (Ib. 7).

Esan bi oneitan Jaunak alderatzen ditu, izakien griñak ukatu ta Jainkoaren gogo garbi artzeko gertatzen diranak, Jainko-semeakaz, eta txakurrakaz, izakietan euren zaltasuna asetu gura dabenak.

Izakiak oro dira Jainkoaren maitik jausitako mirrin-apurrak. Errazoiz deitzen jako olan izakiz janaritzen danari. Zuzen jake, beraz, kentzen semeen ogia, Aitaren espiritu sortu bakosren naaira kriatuaren mirriñik jaso gura ez dabelako. Beti gosetan daukaguz, ba, ogi-mirriñak, gosea kendu orde, jan-galea biztuago egiten

dabe-ta. Salmuak ederto: *A rratsaldean ba datoz barrero, txakurrak lez ausi egiñez; urian zear ibilli dabiltz, janari billa ta biri-birika, kurrinkaz ase arte (58, 15-16)*. Onelaxe dozu griñaz beterik dabillena be; beti daukazu ezin-egonez, mergatz eta gozaka.

Zalekeriak, bigarren, nekez josi ta akit-erazoten dau arimea. Umeen antzeko dira, beti amari zerbait eskatzen, iñoiz be ez pozik. A txurren diartu altxor atzean, baiña sekula be asetu bage. Sugarrak daukan gaixoa dirudi, ez dago ondo sugarra jatsi artean; gero ta geiago berotzen jako egarria.

Egurra ezarriz geitu egiten dan sua dirudi griñak, edo-ta gaiztoago oraindik; asetua izanda be, griñea ez jatzu amaitzen, orduan oiñazez aurkizen da, gosea geitzen bai jako, janaria gitxituz. Onela mintzo da *Isaias: Bakotxak jaten dau, eskumaldetik aginka, alan be gose; ezkeraldetikjan, eta ezin ase (9, 19)*. Zer? goseagotzen ditunaz asetzen dira-ta!

Era askotan jarri oi gara miñetan. Ona modu bat oiñazetan jarteko: Jar zaitez, billosik, elorri gaiñean, edo-ta etzun untze gairi; olaxe dozu arimea be, oiñaze ta naigabetan, griña gairi etzuten dana. Oneik miña, oiñazea ta zauria dakarre. Salmuak au: *Erlemiñoak lez inguratzen nabe (11,12)*. Euren eztenez ziztatzen ninduen. Lugin edo lurlangilleak golde atzetik akulatzen dau idia, itxaron dauan uztagaitik; irriksak ostera bultz daragitso arimeari jadetsi nai dauan griñapean. Argi dago au Dalila'ren jardunean; Sason'ek eukan kemen gotorra, nundik etorkion jakin nai eban sekulako griña?.

Zaletasun biziago eta arimearentzat samintasun errimeagoa. Oiñaze biziago, irriks aundiago. Juan Ebangelariak, bere Agerpenean: *Bera goratu ta neurritz dotore biziago, emon egiozue beste arenbeste oiñaze ta min (10, 7)*. Gerran atxilo jausten dana, etsaiak astindu ta oiñazetu egin oi dabe, bardin jazoten jako bere griñen eskuetan erabillia dan arimeari be.

Goibel eta itsu ipinten dabe griñak gizonaren gogoia. eguratskutsarak airea illun biurtu ta eguzkiari ez dautso izten dizdiz egiten; ispillu lausotuak ezta arpegia diztiratzen, ezta ur eragin nastuak be bertan dagianaren betartea garbi ikusten. Ala-ala adiz griñak azpiratutako arimea be, ez dautso lerak izten, ez berezko errazoiaren eguzkiak ez Jainko jakituriak argi ta erraiñuz jazten. Ulermena goibeltzen da, naimena (bodondatea) makaldu ta goga-

mena aberetu Irurok nasturik, adimenari dagokiozanak dira-ta, naspil ikaragarria sortzen. Salmuak egoki: *Zoraldiak artuta daukat arimea* (6, 4).

Ulermenak ez dau adorerik Jainko-jakituria artu al izateko, aire kutsutruak ez daukan lez eguzkiaren argia artzeko. Naimenak ezin dau besarkaru Jainkoa maitasun garbitan, ispillu margulak ezin dauan lez arpegia dizdizratu. Era berean, irrirsaren illunak dagoan gogamenak (memoriak) be ezin daike ondo ondo eratu Jainkoaren iduria. Zalakeri gaitzak itsu ta goibel jarri daroa arimea, berez itsu dalako. Griña sortu oi dau gizonagan irrirsak, eta ulermena lilluratu ikusi ez daian bere argirik.

Egi-egitan tamalgarria askoren ezjakiña; penitentzi aundiz zamatzan dira, eta erregu ta errazu askoz; orregaz uste dabe Jainkoarekiko alkartasunera eldu edo elduko dirala. Baiña, bai zera!, ez da olan; eurak euren irrirsai uko egiten kementsu saiatzen ezpa-dira.

Griñak loitu ta zikindu egiten dabe arimea. Alde aundiagoa dago arimearen eta beste soindun izakien artean, edari garbi-garbi ta lokatz loi-loi baten artean baiño. Edaria lokatzaz nastau ezkeru, zikindu egiten. Era berean loitzen da izakiari Jotzen dan arimea be. Betarte bat, ederra dalarik be, itsusi geratuko jaku baltz-gaiez lerrotua. griña makur eratu bakoak, kalte geiago dagie, mundu ontako gauzekaz nastauta.

Dalako zalekeri batek, pekatu astun izan ezta be, oker-gaitz polita dakar; naikoa da gogoa loitu, zikindu ta lotzeko. Onakoa, beraz, ezingo da Jainkoaz alkartzera eldu. Ez, arimeak ez dau lortuko griñetatik garbi jarri artean.

Ezin daikegu berbaz adierazo, ezta ondo ulertu be, griña mordoak zelako loi-motak jaki-azten dituan ariman. Esan al ba litzaz eta aitzen emon, arrigarri litzateke ta atsekabe izugarria lekarkigu aldi berean, griña bakotzak bere izatez eta motaz, aundiago ta txikiago, bere oiñatza ta igaroa ariman izten dauzala ikusiaz. Zintzoaren kautan lez jazo oi da, osotasun bat berean, arimearen betegiñean, konta-ezin ala doe daukaz, birtute ederrak, Idase askotakoak, Jainkoari zuzendutako maite-egintzak. Arima naspilduak, izakiei dauksen zalekeri askotarikoai dagokienez, bestelako loikeriak eta txatxarkeriak daukaz, au da, griñak itxi eutsoezan aztarrenak.

Griñak kalte dagitsoe gizonari indarrak aultzen eta makaltzen dautsozalako, birtute bidea artu ta artutakoani jarraitzeko bear dauan kemena galazo. Osotasuna galtzen dau gizonak griñakaz eta sakabanatzean kemena galtzen. Bakarrago dagoan gauzea barrurago sakontzen; gauza askotara jorik, zenbat eta geiegora jo gura, urkulu gitxiago egingo bakotxean. Birtute osotua, filosofuak diñoenez, indartsuago dozu banatzen dana baiño. Argi dago, borondatearen guraria birtutea ez dan zer baten jarria ba da, birtutea baiño beerago geratzen dala.

Ur beroa estalki barik ba dago, laster galtzen dau bere berotasuna, usandikoa bardin gordegarri jakon azal-lotura kendu ezker, galduz doakio usaiña, eta Jainkoagan erdiratua ez dagon arimeari laster galdu daroa birtuterak bero-indarra. Zaletasun oro Jainkoarentzat jagon bear da. Salmuak onan. *Zugan nik begiak, ene indar* (58, 10).

Ez bai barik, griñak auldu daroe arimea. Zugatz-enbor inguruan erneten diran muskillak eta kimuak lez, ostu egiten dautsoe indarra eta ez dakarre ekarri bear leuken aiña frutu. Gauza nabaria da, beraz, onik ez dakertsela arimeari daukan ona ostu baiño. Ildurazten ez ba ditu, *ba*, berau il arte ez dira naikotuko. Eta eriotza ekarteraiño eltzen ez ba dira be, penagarri da beragan dagozan griñak zelan izten daben ikustea.

V

Griña danak moztu bear Jainkoaz alkartzeko

Itandu gurarik zagoz, irakurle, egoera guren ontara eltzeko, aurretik griña guztiak ilduratu ta ezi bear ete diran, aundiak eta txikiak. Edo-ta, batzuk ilduratu ta beste batzuk itxi, garrantzi gitxikoak beñik-bein. Gatxa dirudi, izan be, arimea garbitasun ain betera eltzea.

Erantzungo dautzut. Egia, griña danak ez dira kalte bardiña dakarrenak. Baiña egia da baita, borondatetik sorturiko griña guztiak, bai astunenak dozuzan pekatu ilkorrak, edo-ta ain astun ez diran pekatu ariñak, edo-ta uts-utsak, txikiago diranak, utsitu bearrak dozuz eta ainbarik arimea itxi, txiki-txiki diranetatik be, alkartze osora eldu al izateko.

Zergaitik orrela? Jainkozko alkartea auxe bait da, nabere naia Jainkoarenaz bat-eginda eukitea, osoe osorik arenean izatea. Arimearen naimenean ez dau ezer egon bear Jainkoaren naimenaren aurkakorik. Arimearen egitetasun guztia Jainkoaren naia izan bear dau.

Berezko griñak -nai bagakoak- gitxi edo ezerez galazo oi dautsoe arimeari Jainkoaz alkartzea gura izanak ez diranean, edo-ta leenmogimentuak baiño ez diranean. Leku emon bakoak dozuz, naiak ez aurrez ez gero lekurik euki ez daualako. Eurok kendu, au da, bizitz onetan osorik ilduratzea, eziña da. Oneik, oso-osorik ezirik egon ez arren, ez dabe galazoten Jainkoagazko alkartasuna. Izatean egon daitekez eta arimea eurotatik aske, erraoizko gogoari dago-kionez. Batzutan, gertatu oi da, atsedent-otoitzean aurkitzen dala, borondate aldetik alkartasun itzalean, eta eurak gizonaren atal sentikorrean bizi jatzuz, otoitzean dagoan goi-atalak eurotan lekuri-arteke.

Egoera onetan esaten da, borondate an bat-eginda geratzen dirala, au da, Jankoaren borondatean. Eta Jainkoaren nai au da arimearena be. Beraz arima onek Jainkoak gura ez leuken uts-egiteren bat gura ba leu, ez litzateke nai biren alkarterik izango, arimeak ba Jainkoak nai ez leukena gurako leuke.

Argiro daukazu arimea egiaz eta osorik Jainkoaz alkartzeko, aske egon bear dau naiezko griña guztitik, baita txikienetik be. Au da, konturatu ta ezagutuz, gogoz ez dagiola lekurik emon utsegite bati be ta indar eta askatasun jaube izan daitela gogor egiteko, oker doala ikusterakoan. Ezagutzez diñot, kanturatu barik, ba, eta askatasun barik sarri jausiko da uts-egiteetan eta pekatu ariñetan eta berezko zalekerietan.

Nai gabezko pekatu oneikaitik Esakun liburuak diño: *Zintzoa, izan be, zazpi bidar jausita be, jagi egingo da* (24, 16). Baiña gogotiko griñak, konturatutako pekatu ariñak, garaitzen ez dan batek berak galazoten dau alkartea. Oitura da ezita euki bear dana.

Bestelako griñen banakako egintzak ez dabe ainbeste kalte egiten oiturak ezirik ba'clagoz. Dana dala, banakako egintzok be baztertzea alegiñak burutu bear dira, gaitz-oiturak datozenak ditugulako. Gogozko uts-egiteen oiturak, iñoiz be osorik azpiratu bageak, ez bakarrik alkartzea, santutasunean aurrera egitea be eragotzi daroe.

Ona emen oiturazko utsegite batzuk: autu utsean ibilteko oitura; gauza bati dautzagun txera ta itsaspena, ezin ezia; pertsona bati, jantzi, liburu, gela naiz jan-mota bati dautzaguna. Izketaldiak eta burualdiak gauzen poza izateko, jakin, entzun eta olako beste zer batzuk. Utsegite onei dautsegun itsaspene eta oiturak, arimeari, birtutean aurrera egiteko, kalte aundiagoa dakartsoe, oitura txar baten ondorenak diran eguneroko utsegiteak eta pekatu arin banakakoak baiño. Txikia izanda be, utsegite ta pekatu dan zerbaiti arimea loturik dagoan tartean, ezingo da santutasunean aurreratu.

Bardintsu da, txoria ari mee bati naiz lodi bati loturik egon, egazteko apurtu ez ba dagi. Meia, egia, errezago apurtuko da; baiña erreza dala be, apurtzen ez ba dau, ez dau egazik egingo. Orrelaxe da zezeri loturik dagoan arimea be, birtute aundikoa izan arren ez da elduko Jainko-alkartasuneko askatasunera.

Griña ta eraspene dira arimearentzat itxas-ontziarentzat erre-moreo dala diñoena. Arrain nimiño bat da au, baiña ontziari eltzen dautsonean ez dautso oni izten ez ibiltzen ez portura eltzen.

Arima batzuk errukia damoskue, ontzi aberatsak lez, altxor askoz zamatuak, espirituzko egite on askoz eder, birtutez eta Jainkozko doaz beteak, eta gusturen bat, eraspene edo zaletasun bat, dana bai da bardin, ez iztearren, ez dabe egundo aurrera egiten, ezta santutasun-kaira eldu be. Eta guztiz ezta besterik, egazkada eder bat emon, eten bein baten lotzen dauan aria edo-ta kendu erremerua zalekeriari lotua.

Ez ete dau pena emoten, Jainkoari esker, beste lotura batzuk, lodiagoak pekatuz ta uskeriz jositakoak, Jainkoak bere maitasunaren laga dagiezala eskatzen dautsen ezerez -ari bat, ule bat-, ez iztearren, ez eltzea ainbeste onen jaube izatera? Eta txarren da, ez bakarrik aurrerantz ez egin, eraspene ori dala-ta, atzera doazala, ainbat orduz eta indarrez lortu ebena. Bide onetan, jakiña da, aurrera ez doana atzera dator, eta irabazi ezik galdu egiten dala. Onela erakutsi euskun Jesus'ek: *Nigaz ez dagoana nire aurka dago*, eta nigaz batzen ez dauanak zabaldu egiten dau (Mat. 12, 30).

Edontzia arrakalaten jatzu eta bera barriro atontzeko ardurarik ez ba da, naiz-ta daukan zuloa ezereza izan, bertatik joango da barruan daukan ixurkizun guztia. Sirak'ek ondo: *Gauza txikiak iguintzen dituana, ondamentira joango da* (19, 1). Eta bardin: *Txinpart batek ikatz asko ixiotzen ditu* (11, 32). Olan, naiko da uts-egire bat beste

bat sortzeko, eta oneik, beste batzuk; iñoiz be, era orretan, arima fardel batek ez ditu azpiratuko beste asko atzetikjatorkozan griñek, aregan daukan aulkeri ta akatsetik erneten diranak, ain zuzen. Beti doaz birabiraka.

Pertsona asko ezagutu doguz griñarik-eza ta askatasun zabaleko goi-maillara eldu diranak, gero Jaunarekiko espiritua ta zaletasuna galtzen joan diranak; bai, poza galtzen, gogozkoa galtzen espirituzko jardunetan; trokaraiño narras egiten ikusi doguz, irabazirik eukena osoan galdu arte.

Zergaitik ori? Zentzun gustu ta griña ari ez eutsoelako, ordu onez, osabide egokirik ipiñi; ez ebelako jakin euren buruak Jainkoarentzat jagoten bakartade gozoan.

Bide bat, joateko, artzen danean, jomugara eldu nai ezker, bideari ekin bear jako aspertu barik. Eta aurrera egiteko, gogo ta nai izateak, indartu barik, moztu ta kenduz joan bear da beti; danak itzali ezik, ezta iñoiz be eltzen; enborra ezta su biurtzen, bero-mailla bat falta jakon artean. Olantxe, arimea be ezta Jainkoan biurtzen, oldezkua izan eta be, akats bat bakarra daukon bitartean.

VI

Zeintzuk griña diran naiko arimeari kalte egiteko

Argi dago griñak triskantza izugarrien egille dirala gure ariman. Oneik ezi bearra dauka gizonak, on- bidean aurrera jo nai ba'dau, eta griñak eziz aurrera jote ori deritxogu *gaua*. Eta Jainkoagana eltzeko gau ontan sartu ta aurrera egin bearra dago. Ezmez ta dudamudak sortu leitekez emen; adibidez, zeintzuk griña ta zalekeri dira naiko arimea Jainko grazi barik izteko, edo kalte gebendua ekarteko?

Bardin, edozein griña dozu naikoa kalte eraginkorra, au da, esandako bost kalte nagusiak ekarteko? Edo-ta naikoa ete da, txikia ta edozelakoa izanik be, kalte guztiak batera sortzeko? Edo obeto, griña batzuk kalte batzuk dakarrez, eta beste batzuk, bestelako batzuk, oiñazea batzuk, nekea beste batzuk eta illunpea aragokoak, eta abar?

Gebentzea deritxogunak, Jainko barik izten dau arimea, eta oneik dozuz, pekatu ilkorrezko griñak, gurari berezitik datozenak;

oneik beste bizitzan Jainkoaz bat-egitera garoezan grazi ta aintza barik itxi daroe arimea.

Bai pekatu astunerako gai diran griña oldezkoak, bai pekatu ariñak eta uts-egite gaiezkoak, naikoa dira ariman kalte eragikor guztiak batera burutzeko. Onei leku emotea izakiekana biurtzea dozu, gebenkora, ostera, Jainkoagandik urrintzea. Alde onegaz, alan be; pekatu astunezko griñak itsutasun osoa dakarre, oiñazea, loia ta auleria. Pekatu ariñezkoak ez dabe osoan itsutzen, ez bait dabe grazirik kentzen. Griña ta zalekerien kalteak dira graziaren eriotza.

Griña bakotxak kalte guztiak batera ekarrita be, batzuk zuzenago dakarrez batzuk, eta areik beste batzuk. Aragizko griñeak kalte danak dakaz, baiña batez be arimea ta gorputza ezaintzen ditu. Zikoitz griñak be guztiak dakaz berarekin, baiña goibeltasuna bereziki. Arropuzkerizko griñak danak dakaz, baiña geienik illuntasuna ta itsutasuna. Sabelkeriak be danak dakaz, baiña batez be itxikeria onbideko zeretan. Eta orrelaxe beste guztiak.

Ondoren guztiok batera dakartsoe erimeari gurarizko griña-egintza bakotzak, aurkakoak ariman birtuteen kontra dagozalako. Birtutezko egintza batek arimera daroaz sentasuna, bakea, poza, argia, garbitasuna ta indarra batera, griña naspillak era berean oiñaz, neke, pota ta txakal-aldia dakaz.

Arimeak griña bati izten ba'dautso azten, beste danak be azten dira euren ondorioakaz. Arimea griñeak eroana dalarik, ez ditu ikusten dakartsozan gatxak, bere gustuak darabillelako, baiña ariñago edo beranduago nabaitzen da arek itxitako ao-kutsu txarraz; bai, guraria betez gozoa ta ona dirudi. Baiña gero datoz ondoren mergatzak. Txasta dabezanak ba-daki ondo be zelakoak diran.

Emen ez diñogu ezer beste berezko griña batzuei buruz: lenezirkiñak baiño ez diran pentsamentu ta tentaldietaz. Onakoak, ba, kontu pizkat euki ezkerro, ez dautse arimeari kalterik egiten. Onakoak daukazanak, bear bada, uste izango dau lera ta artegak loitu ta itsutasuna dakartse, baiña ez da olan, probetxua dakartse-ta. Gogor egin ezketiño, indarra, argia, poza ta ondasun ugari ekarri daroe, Jaunak Paul deunari esan eutsonez: Indarra, aulean agertzen bai da (2 Kor. 12, 9).

Gurarizko griñak, barriz, esandako kalteak eta geiago dakarrez.

VII

Zelan sartu zentzunaren gauan

Bidezko ta egoki da, azkenez, *zentzunen gauan* zelan sartu jakitea. Arimea geienik era bitan sartu oi da: eragille ta artzaille, edo sartéazoz eta sartzen lagaz. *Eragiñez* dozu arimeak an sartzeko egin daroan guztiaren bitartez. *Artuz* arimeak ez dagi ezertxo be, Jainkoak burutzen dau dana, arimea artzaille dalarik. Laugarren liburuan gai ontaz.

Emen abisu ta oar batzuk jarriko dodaz. Onetan jardun nai dauanak ez dau besterik bearco, oneitan bait daukaz danak ondo sar-azta.

Lenengo ta bein, Kristori danean antz-artzeko gogoa ekarri egizu, idekatu ta bardin egiñik zeure bizitzea eranaz; eta ortarako Aren bizimodu ta egiñak gogartetu bear dozuz eurok antz-artzen jakiteko, eta guztia egin Berak egin ebanez.

Berak egindakoa ondo egiteko, ukatu egizu zentzunetatik sartzan dan edozein gozotasun. Ez eizu onartu, garbitasun osoz ezpada, Jainkoaren dedu ta aintzarako. Laga zaitez uts gustu ortatik Jesukristori dautsazun maitasunarren. Arek bizitz onetan ez eban euki beste gustorik, ezta nai be, bere Aitaren naia egitea ezik; au zan beretzat janaria ta lana, esanik: *Nire janaria Aren naia egitea da* (4, 34). Ortik, Jainkoaren zerbitzu ta dedura ez daroien gauzarik entzuteko gustorik ba'dazu, ez eizu nai izan gustu ori, ezta gauza orreik entzuterik be.

Atsegin ba jatzu Jainkoagana ez zarioiazan gauzak ikustea, ez egizu ortan gusturik artu nai izan, ezta olako gauzarik begitu be. Autuan naiz beste edozein gauzatan gustua ba'zeunke, uko egiozu zaletasun orri. Eta olaxe beste zentzun guztietan be, zuurtasunak eskatzen dauan neurriz. Al ez bada, naiko da gustatu gura es izatea, ikusi, entzun naiz mintzatu bear izanda be, Orrelaxe ezi baretu bear dozuz, gusto ortaz utsik itxiaz, zentzun guztiak; itxi eizuz illunetan legez. Zuur ta arduraz jokaturik, arin be arin, aurreratuko aurrera joango.

Berezko lau irrirsak, -gozotasun, itxaropen, bildur eta oiñaze- ezi ta ibitzeko, oneik legez eukitetik erneten bai dira ainbeste birtute eder, onak dira urrengo abisuak:

Makur zaitetz beti:

- ez errezenera, gatzenerra baiño;
- ez jakerakoenera, mergatzenera baiño;
- ez gozoenera, gozo-ezenera baiño;
- ez atsedena danera, neketsuenera baiño;
- ez geienera, gitxienera baiño;
- ez bikain eta garaienera, bee ta txatxarrenera baiño;
- ez zeozer gura izatera, ezer ez nai izatera baiño;
- ez ibilli aldiko gauzarik onenak billatzen, txarrenak baiño;
- eta opa izan, Kristogaitik, munduko zer guztietan billois, uts eta beartsu bizi izatea.

Proba oneik biotzez onartuz, alegindu zaitetz borondaterik zintzoenakin eurak eurrera eroaten. Biotzez egiñik, ba, laster izango dozu eurretan poza ta atsegiña, ez txikia, beti jardunaz eratsu ta ganoraz. Au ondo burutuz, naiko eukiko dozu gau sentikorrean sartzeko. Bide onek erakusten dausku *aragi-griña, ikusi-griña ta andi-naia* (I Jon. 2, 16) ezi ta ukatzen; auxe da, izan be, Juan'ek dirauanez, munduan zabal dabillena, eta emetik erneten dira griña ta zaletasun guztiak.

Iru gaitz onein aurka onela jokatu bear da: - Aragi-griñen aurka bere destaiñaz gauzak egiten alegindu; - begien griñen kontra, berba egiten alegindu ta enparauak be olan egitea nai izan; - andinaiaren kontra zatarki pentsatzen saiatu, eta enparauak be beste ainbeste egin dagiela.

Karmel Mendirako Igoera Donibane Gurutz'ek berak marraztu eban. Eta berton erakusten dausku zelan igon ber dan mendipunturaino, ots, alkartzea egiten dan gaillurrera. Egia da, ba, an datorrena espirituzko ta barruko espirituari be; olan ikusi daiteke osotasunerako zidorraren alderdi bietan dagozan bide bietan. Emen sentikorrari daragoiogu. *Gau* onen bigarren zatiak emondo dau espirituzkoari dagokiona.

Lenengo zatiari ekiñez, onela diño:

- dana txastatzera etorteko,
 ez egizu nai izan ezertan be gustorik.
- Dana eukitera eltzeko,
 ezer eukiterik ez nai izan.
- Dana izatera eltzeko,

- ez nai izan ezertan ezer izaterik.
- Dana jakitera etorteko,
ez nai izan ezertan ezer jakiterik.
 - Gustatzen ez jatzunera etorteko,
gustatzen ez jatzunetik joan bear.
 - Ez dakizunera etorteko,
ez dakizunetik joan bear.
 - Ez daukazunera eltzeko,
ez daukazunetik joan bear.
 - Ez zareanera etorteko,
ez zareanetik joan bear.

Danari eragozpenik ez ipinteko modua.

- Begiak zeozertan jartean,
dana ez dazu egozten.
- Danetik danera etorteko,
dana danean ukatu bear dozu.
- Eta dana eukitera eltzerakoan,
ezer gura barik euki bear dazu.
- Zerbait danean euki nai ba'dozu, ba,
garbi ez daukazu Jainkoagan zeure altxorra.

Billoistasun onen bitartez gogo espiritu-zaleak aurkitu daroa bere atsedena; ezertxo be opa izan ezik, eztau ezek Jotzen ez goitik ez beetik; bere apaltasunaren erdian dago. Zeozeren egarri danean, orretan nekatzen bai da.

VIII

Bertsoak azaltzen

Ekin dautsagu aztertzen gabiltzan len-estrofako lenengo bertsoari, au da, *Gaualdi baltz illunean* deritxonari. Zentzunen gaba zer dan azaldu dogu, eta zergaitik daroan izen ori, eta zelan sartu bear dan leiaz gauean.

Orain beronen arrigarrizko egokitasunak eta ondorenak azalduko doguz. Bigarren bertso onetan datoz batez be:

Biotz-estu, ta maitez sukrrturik

Arimeak diño, *biotz-estu, ta maitez sukarturik*, sartu, igaro ta urten zala zentzunen gau illunetik Maiteagaz alkartzera. Arimeak ixiorik ikusten dau bere naia gauza guztien maitez eta zaletasunez. Griña guztiak gainditu ta gauza orreik dakartsoen atsegiñak uko egin al izateko, maitasun orreiña baiño sukartze aundiagoa bear eban, ots, bere Senarrarena. Gozoa ta kemena damotsan maitasun orregaz bakar-bakarrrik eukiko ditu adorea ta iraupena beste gustu guztiei agur esateko.

Maitez sukarturik egon bear. Izan be, zentzunezko griñen indarra azpiratzeko ez da naikoa bere Senarra maite izatea; maitez sukarturik eta gutartsu egon bear dau.

Irritsa eragina ta sentikortasunara erakarria da griñazko lera askoz eta espirituzko atala ixiorik ezpa-dago gogozko beste lera aundiagoakaz, ezingo dautso kuku eragin, ezta zentzun-gau one-tan sartu be; ez dau biotz onik izango gauza guztiak uko egiñik, zer guztiz illunetan gelditzeko.

Eta zeintzuk ete dira maitasunezko gurari biziok, arimak batasunaren bidean jartean daukezanak? Zelako lanak eta gertakuntzak etxetik, au da, nobere naikaririk urteteko egin daroezanak, euren zentzunen ildura-gauan ain zuzen. Zein errezak eta gozo-atsegiñak bai jakezala gau ontako alegiñak eta galzoriak Senarraren argitara ta berora burutuak; ez emen ez iñoiz esan eziñak dira. Au izan be begiztatu ta gozatzeko geiago dirudi, esan eta idazteko baiño.

Beioaz berton, ba, beste iru bertsoak:

*-Au nire zorion auncli!-
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea baketsu egolarik.*

Arimea emen kartzelan lez dago. Eta iñok eragotzi bage bertatik urteten dalako, zorion aundizat dau joten. Bai itzala dala askatasunak dakarren poza!

Gogoa, jatorrizko oben ondorean, egi-egiaz katigu da gorputz ilkorrean, berezko irrirts eta gririen mende. Itxitu ontatik eta kate oneitatik aske ta libre ikustea *zorion aundia* da arimearentzat iñok ikusi bage urten zalako; eze eban iñor euki galazoteko, eta griña batek be ez eban barriro atz-emon al izango.

Ixil-ixil, *iñor konturatu barik*, gau illunez izan zan, bardin dana: gustu danak albora itxi ta griña guztiak ezirik eukazala. Eta au bere etxea baketan egoala; bere etxea, zati sentikorra, griña ta zalekerien etxea, dagoneko baketsu, azpiratu ta sorgor-erazo ditulako.

Ildu rak sentikortasunean griñak lo-erazo arte; zen tzuloitasuna bera barrikaz baketan ez dagon bitartean, espirituari gudarik ez dagion artean, arimea ez dator egiazko askatasunetiko Maiteagazko alkartze gozatsura.

BIGARREN LIBURUA
ESPIRITUAREN GAU ERAGILLEA
(Ulermena)

I

Bigarren kantarena

Fedea zuzi dauala, oran abesten dau Donibane Gurutz'ek,
Karmel Mendira Igoeran dakarskun bigarren aapaldian:

*Illunetan eta seguru
mailladi gordetik koko jantzia n;
-au nire zorion aundia!-
ixd-ixil urten nintzan
ene etxea neukalarik bakjan.*

Gorantz igoten astean arimeak zorion aunditzat dauka bere etxetik urtena; espirituzko uts-egite ta akatsetetik, eta gogo aldetik bere lez zituan griñaz gabeturik, asi dau tontorrerako bidea. Au egi-egiaz zorion itzela jakon, nekezago bai da gogo aldeko etxea bare ta trankil jartea.

Olantxe sartu al da barruko illunpean, gauza oroz bai sentikorez eta bai espirituzkoz erantzi ta billoiz. Fede utsa bear da eusle, fedez bakarrik igon bear bai da Jainkoagana. Mailladi gordea deritxo mailla guztiak eta siñiskaitzak gordeak diralako, zentzuentzako ta ulermenarentzat ezku tuan dagozalako.

Illunetan geratu zan arimea, zentzunen eta ulermenaren argi barik. Bai, arimeak gainditu zituan berezko ta errazoizko muga arruntak Jainkoaren ondarreraiño fedearen mailladitik igon eta bertan sartzeko. Orixegsitik diño *koko jantzirik*, zomorro, berezko jantzia jainkoz aldatu ebalako, fedez igonik. Koko ta katamalo joian ezkerro, ez ezagutzeko eran, ez eutson iñok antz emon ezta igotea galazo be, ez lurtarrak, ez errazoiak, ezta txerrenak be. Fedez doianak ezin lei kalterik iru onein aldetik.

Orrezaz gaiñera, oso doa arimea gordeta, estali ta kuku egiña, deabruaren sareetatik urrin, egi-egiaz esan daikegu arerio orregandik illunetan eta seguru doiala, fede-argia orrentzatillunpeak baiño

lodiago bai da. Esan be egiaz esan gengike fedez dabillen arimea ez-ezagun eta deabruari trankart egíñez doala.

Urtetean ez eban gerrarik laga etxean, bere egoitza baketan itxi bai eban. Etxe au espirituaren eta errazoïaren egoitza da. Arimea, bada, Jainkoaz alkartzera eltzen danean, azpiratuak, mana ta ezti daukaz bere berezko aalmenak, baita espiritutik datozañ bultzadak eta irrirts-naiak be.

Beraz, emen ez diño *biotz-estu* urten zanik, *Zentzunezko Gauan* esan ebanez. An bada, sumakorretik billostu eiten, arimeak, urtetako, maitasun sentikorraren apeta bear eban. Baiña *espirituaren etxea* ezti ta otzan jarteko, naikoa dozu gogo-indar, gustu ta griña guztiak fede utsean tinkatzea. Au egin ezketiño arimea lokarri lau, garbi, maitati ta antzekoan alkartzen da Maiteaz.

Oso-oso da gau ontako illuna; zentzunezko gauan ba-da oindiño argi apur bat, ulermena ta errazoia ez diralako itsutzen. Emen ostera, espirituzko onetan, fedeari dagokio-ta, ez da geratzen argirik, ez ulermenarenik ez zentzunetikorik.

Arimeak orixegaitik, aurreko kantari ez iñoana diñosku, *illunetan* eta *seguru* joiala. Arimea, izan be, seguruago doa bere al-neurri ta gaitasunean gitxiago tinkatu oi danean. Fedea dau orduan eusle biziago.

II

Fedea zer dan arimearentzat

Fedea, Jainkoagana joateko bidea da. Gabak iru zati eukazala, esan genduan, lenengoa, bigarrena ta irugarrena. Lenengoan begiak ez dau ezer ikusten -zentzunaren gaba-, argitik beraz gauerditik baizen urrun ez sago. Gabaren irugarren zatia, egun-sentiarren aurrekoa, Jainkoaren antzekoa dozu, egun-argitik ur dago, orixegaitik argitik ez dago gau-erdia baizen urruti.

Oso-osorik berba egin ezkeru, Jainkoa arimearentzat fedea baizen illuna da gaba. Baiña Gauaren iru zatiak bukatu diranean, Jainkoak jadanik arimea argitu doa goi-bidez bere Jainkozko argiaren izpi-erraiñuz. Eta au onezkero ba-da batasun osoaren asiera, irugarren gauaren ondoren datorrena. Esan leiteke, ba, illun-ezagoa dala.

Bigarren gau ontako fedea be, lenengokoa baiño illunagoa da; au bada, gizonaren bee-zatikoa da, sentikorrekkoa eta, orretakoz, gainekoagoa. Bigarren au giza-goi-aldeari dagokiona da, au da errazoizkoa, beraz barrukoagoa ta illunagoa, errazoa argi barik izten dau-ta. Zuzen diñogu, ba, fedea gau-erdi lez dala esatean; gau-erdia bai dazu gabaren erdi-erdia ta unerik illunena.

Eta orain diñostazu: Zer da fedea? Arimearen izkune (ekandu) bat, ziurra ta illuna. Illuna da, Jainkoak berak jakin-azotako egiak siñist-erazten dauskuzalako; berezko argi oroz gainetik dagoz egiok, eta giza-ulermen oroz gainetik dagozanak. Auxegaitik, arimeari emon oi jakon argi gotor au goibel illun egiten jako, aundiago dalarik, txikia gainditu ta itorik. Eguzkiaren argiak beste guztiak itzultzen ditu, areik ba argiak be ez dirudie berak ñirñirtzen dabezanean gure ikus-indarrari kuku-eragiñik. Ikusteko indarra emon orde, itsutu egin oi da. Aren argia ez dago ikus-gaitasunaz Zaindua.

Era berean gertatzen jaku emen. Fedearen argiak trinkatzen dau eta azpiratu ulermenarena, bere dirdiratasun geiegiagaitik. Ulermenaren argia berezko zientzia bakarrik artu daroa bere kautan, Jainkoak ixuri *nai* dautsonean izatez-goikorako be ba-daukan arren.

Berez, ba, ulermenak ezin lei ezer jakin, zentzunetatik sartzen dana izan ezik; jakitunak diñoenez, izan be, *aurrean daukagun gauzatik eta almenetik jaioten da ariman barria*. Olan, norbaiti azaltzen balakoz egundo ikusi ez dabezan gauzak, arek ezingo dauz iruditu. Ezer esan ezpa-leutsoe lez geratuko litzateke. Esate baterako, badiñotsoe bati dalako ugartean berak iñoiz ikusi ez dauan abere bat dagoala, berak ikusitako beste abereren batekin kidetu ezin, sarri esaten dautsoen arren, ez dau bera asmatuko. Eda-ta argiago: Jaiotzez itsua dan batek, kolorerik egundo ikusi bakoak, kolore zuria naiz oria zelakoa dan esanarren, ez leuke ulertu al izango. Entzu menez artu tako izena, bai, eukiko leuke, baina ez sekula ikusi ez zituan itxura ta iduria.

Onelaxe da fedea gogoarentzat, ez berean ez bere antzekoetan iñoiz ikusi ez daguzan gauzak diñoskuzana. Fedeantzat, ba, ez daukagu berezko jakintzaren argirik, berak diñoskuna iñungo zentzunez ezin daikegu artu-ta. Belarritz soilki dakigu ori, esaten dauskuna onartuz, geure argi berezkoa lotu ta itxuturik. *Siñistu, entzutetik egiten da*, Paul deunak diñoanez (Errom. 10, 17). Fedea

ezta inūngo zentzunez sartzen dan jakintza, borondateak entzume-
netik sartzen danari emoten dauksan baietza baiño.

Fedeak gaindu ta igaro egiten ditu aurreko adibideetan esan
doguna.

Ez dau ezagutza ta zientzia emon bakarrik egiten, berak erakus-
ten dauana onartzeko beste ezagutza batzuk be kendu ta itsutu
dagiz. Beste zientzi batzuk ulermen argiz jadesten dira, baiña
fedearen jakintza ulermenaren argi barik da lortzen. Oni uko egin
bear dauksagu fedez. Fedea berberaren argitan galtzen da, au
illuntzen ezpada. Isaias'ek diñoana: Siñistu *ezik, ez dozue ulertuko* (7,
9).

Fedearen eskutik gorantza egin bear dau arimeak, eta au be
illunetan egon bear dau bere argitik, fedeak eroan daian alkartasu-
neko elburu garaira. Eta eztau illunetan geratu bear beeko ta
somalor aldetik bakarrik, baita goiko ta ulermen aldetik be. Olan
bee ta goi geratzen da fedeari laguntzeko gaiturik. Gorantza egitean
bee geratzen da berezkoa; orixe dozu izatez goitikoa esatean adie-
razo nai doguna. Alkartzea ezta zentzunetan, ez beste ezertan
burutzen, oneik itxi daben usgune bizian baiño.

Itsu-mutillak zuzenduta doanak segururu jarten ditu oiñak; an-
tzean oiñarritu bear da arimea be fede illunean. Bekio au eroale ta
argi, eta ez beste ezer, fedeak erakusten dauksanak, orrek daroa
ezeren errakuntza barik Mendi tontor zoriontsura, Jainkoaren
besoetara.

Dalako arimeak, beti aurrera doanak, graziz lortu gura dau
bizitza ontan, beste bizitzan aintzaz izango dauana. Ori bizitza
ontan graziz eta maitasunez izateko, zentzun, irudimen eta biotzak
garbi izanik, illunpez joanik jadetsi al izango da.

Adierazo daigun au be. bide onetan, beraz, gorantz egiterakoan,
nobre bidea itxi ta bide onetan sartu bear da. Au da, elburua eldu
ta bere modua laga; Modu rik ez daukan ortan sartzea da, Jainkoak
ez bai dau modurik. Egoera ontara eldu dan arimeak, ba, ez dauka
modurik ez erarik, eta gitxiago zutikorik; ez dau billatzen euskarri-
rik bertan edo-ta oratzeko.

Giza-izateko ulermen, gustu ta sentimenak dira oneik. Baiña
gogoz ta zentzunez jakin eta ulertu eiken guztiari agur egin dau-
ksan arimeak, bizitza ontan ez jakin ez somatzen ez danaera eldu nai

izan bear dau gurari bizi-biziz. Aldikoa dan guztia albora itxi eta gogo aldetik be somatu ta txastatu leikena arbuiaturik, opa izan bear dau irrirts osoz, bizitza ontan ez jakin ez somatu ezin leikenera eldu.

Aske ta uts geraturik, elburu au jadesteko, ez bei bidean gelditu, alboetako pizti, abere ta zidorrak ikusiz alaitu, jostatu ta geldierazo. Zenbat eta gauza orrei gora geiago emon, ots, bidean luzatuz, on garaiari balio gitxiago emoten bai jako. Eta bestera, gauza orreik garrantzi gitxiago ezarriz, naiz-ta aundiak izan, geiago ederretsi oi dau Egillea ta, orretakoz, geiago urreratuten da Beragana be.

III

Zer dan arimea Jainkoaz alkartzea

Orainarte esanetik zerbait atera geinke zer dan arimea Jaankoz alkartzea. Ez goaz emen, gero adierazoko da-ta, adimenarena, naiarena, gogamenarena zer dan zeatz-meatz mugatzen, ezta iragankorra, eta iraunkorra, erdizkakoa naiz osoa zeintzuk diran adierazten; ekiñari dagokionez esango dot au. Orain batasun oso ta iraunkorra aita tuko dot, arimearen izate ta bere almenai dagokionez batasunaren oitura illunari begira. Eitade danez, gero dagu esango. Orain auxe: bizitz onetan ezin leike izan batasun iraunkorrik arimenetan. Iragankorra izan daiteke bakar-bakarrik.

Zer da batasun au? Gogotan ar eizu, Jainkoa arima guztietan bizi dala, izatez laguntza emonaz, baita munduko pekataririk aundienetan be. Beti dana dozu Jainkoaren eta izakien arteko batasun au. Batasun onekin iraun-azoten dautse euren baita dauken izatea. Egin-egiñean be, Jainkoa eurakandik aldenduko balitz, ezerezero jausirik eta izatea galdurik.

Arimeak Jainkoaz dagian batasuna aitatzean, beraz, ez diñogu ezer Aregaz beti daukagun batasunaz. Beste au ezta ori, esan dogu, graziz ta maitasunez dagiana baiño; au ez dago beti eginda, bai ostera maitasunezko kidetza dagoanean. Auxe gaiñera dalako batasunaren izena, bardintza batasuna. Eta aurrekoari izatezko deritxogunez, au izatez goitikoa dozu.

Antz batasuna edo izatez goitikoa da naimen bi, arimearena ta Jainkoarena, bat datozeanean, batean ez dagoanean bestearen aurka-

ko litzakenik eta olan arimeak kentzean dauananean, oso-osoro beragandik, alkarri buruz ta Jainkoaren naiaz bat ez lagokena, Jainkoan eraz aldatua geratuko da, maitasunez.

Arazo ontan arimeak ez ditu Jainko-naiaren aurka doazan egintzak bakarrik kendu bear, baita eurok sortzen diran iturriak, ekan-duak, be. Ezereztu bear ditu, ba, borondatezko egintzak eta edozein akatsetiko oiturak. Izaki bat bera be ez da aiutua. Ez eg-intzak ez arimearen gaitasuna eltzen dira Jainkoaren izatera. Orixegaitik arimeak utsitu egin bear dau izaki osoz, bere egintza ta gaitasunez, ulertze, gustatze ta somatzez, Jainkoarenetik bestelako ta bardin-eza danetik iges egiñik, Jainkoarekin bardintasuna lortu dagian. Ezpei izan arimeak Jainko-baia eztanik. Olaxe besteratzten da Jainkoagan.

Esan dagunez, egia da Jainkoa beti dagoala ariman, bere egotez, berezko izatea emon eta iraun-azoten dautsola. Beti, baiña, ez dautso goi-bizitzea emoten. Au graziz ta maitasunez emoten jako bakar-bakarrik. Eta arima danak ez dagoz Jainko-graziz orniduta. Ezta mailla bardiñean be; maitasuna, ba, onegan naiz aregan ez dago neurri bardiñean. Eta geiago artu daroa Jainko-maitasunean aurrerago doanak. Maitasunean aurrerago egitea da bere naia Jainkoarenagaz antzetuago eukitea. Eta Aregaz oso-osoa bardin eta antzeta dagoan arimea izatez goitik dago Jainkoagaz alkartua eta Berarekin daukaz bere gora-berak.

Sorkariz beterik eta bere gaitasunari lotuta dagoan arimea ez dago gerturik Jainkoagazko batasunerako. Ez dautso Oni leku egokirik izten izatez goiko zelaira aldatu dagian. Au falta jako arimeari, berezko eraz emoten dautsan Jainkoak, goi-eraz be emon dakion, bere eta Jainkoaren artean dagozan gogo bereko eza ta ots gatxagaitik.

Auxe dirausku Kristok berak Juan Ebanjelariaren aoz: *Eta ez ditu oneik ez odolak, ez aragi naiak, ez giza-naiak sortu, Jainkoak bakarrik sortu ditu* (1, 13). Jainkoaren semeak izango dira, au da, arat-onatak egingo dabez Jainkoagan ez berezko indarrez, ez aragi naiak eraginda, edo-ta berezko almen edo gaitasunez, giza-naiez gitxiago, bere ulermenez ebatzi edo artuz.

Iñor ezin daiteke izan Jainko-seme Jainkoagandik jaio ezik. Graziz ber-jaioten da. Gizon zaarrera il eta izatez gaiñekora bere

gairi jagi-azo. Jainkoagandik artu sortze barria, izketa ororen gairi dagoana: *Egi-egiaz ditiotzuet, barrero uraz ta Espiritu Santuaz jaioten ez danak, ez dau Jainkoaren Erreiñurik ikusi aal izango* (Jon, 3, 5). Osotasunaren egoitza da Jainkoaren Erreiñu au. Eta bizitz onetan barriz jaiotea Espiritu Santuagan arimea Jainkoaren antz-antzekoa eukitea da, garbi ain zuzen, ezeren loi izpirik bage. Orduantxe emon daiteke bardintzea, batasun erkidegoz, ez izatezkoz.

Adibide batekin argituko dogu au. Eguzki-izpiak kristal baten emoten dau. Kristala loi edo lausotua baldin ba'dago, eguzki izpiak ezin lei argitu edo bere argian itxuratu loi naiz lausotua ezpaélego lez. Orban geiago ta argi gitxiago; garbiago ta argi tasun biziago. Eta ezta orrela geratuko eguzkia ren erraiñuagaitik, arimeagaitik baiño.

Onela edo: garbi ta aratz ba'dago arimea, eraz aldatu ta argituko dau eguzki-izpia bera legez emoten dauala itxirik. Leiar edo kristala, ostera, eguzki-erraiñuarena *ez* dan izatea eukiz jarraituko. Baiña esan geinke kristal ori eguzki-izpi edo argi dala erkidegoz. Arimea be antzera da; kristal au lez nunbait, bertan bai dauka beti jo ta erasoten, obeto esanik, bertan bizi bai da, izatez, Jainko-izatearen argia.

Arimeak leku egitean, au da, izaki-zapi ta orban guztiak bera-gandik uxatzen ditunean, eta auxe da naia Jainkoarenaz oso-osorik batuta eukitea; maitatzea Jainkoagaitik Jainkoa ez dan guztia murrutu ta billos jarrea da-ta; orduan geratzen jatzu gogoá bertatik argitua ta Jainkoagan aldatua. Jainkoak berak daukana, berbera dauka berak be.

Eta batasun au jadesten da Jainkoak arimeari goitiko erregalu au egiten dautsonean, au da, Jainkoaren eta arimearen gauza guztiak erkidegoz bardindurik dagozanean. *A rimeak, arima baino geiago, Jainko dirudi*, eta Jainko be ba-da erkidegoz. Egia da baita bere izatea bere izamenean, eraz aldatua danarren, Jainkoaren izatetik leen lez bestelangoa dala. Kristalak be, eguzkiak riirriirtua izanarren, ez dauko eguzkiaren izpi-izaterik, bestelangoa baiño.

Orain argiago daukagula dirudi zer bear dan alkarte ontarako: ez da arimearen ulertzea, ez txastatu, ez somatu, ez iruditu Jainkoa, ezta beste ezer be. Garbitasuna ta maitasuna dira bearrezkoak, dana erantzi ta bertan-bera itxi Jainkoarren bakar-bakarrik. Garbitasun zeatz osoa bear emen, arimeak Jainkoaz izango dauan argitasuna ta

batasuna, garbitasunaren neurrikoa izango da-ta. Au ezta barriz osoa izango arimea osorik oso, argi ta garbia ezpada.

Urrengo adibide onek argituko dausku au: Ona irudi bikain bat, itxura ta taiu eder askoduna, bene-benetan bitxi ta zoragarria bai da, gaitz da bere bereizgarri ta lits guztiak geureganatzea. Nork miretsiko ditu obeto aren barne-segailtasunak? Argi dago, begi zorroztena daukanak eta garbi-ezagoa daukanak, lits gitxiago ikusiko dau. Irudi au, baiña, ain dozu ederra, eta ainbat ikus-gaiez betea, begi argi indartsuaren jaube izanda be, litseren bat beti geratuko ikusi bakoa.

Era berean jazoten da arimakaz Jaingoikoagandik argitzea naiz eraz aldatzea artzen dabenean. Arima bat, egia da, bere txiki-aundiri dagokionez, eldu daiteke batasunera, baiña danak ez dira eltzen gradu edo neurri bardiñean, au Jaunak bakotxari emon nai dautsanari dagokiona da-ta.

Zeruan lez gertatzen da, batzuk beste batzuk baiño geiago ikusten dabe an. Danak ikusten dabe Jainkoa eta pozik dagoz guztiak euren usgunea beterik dagolako. Baiña bere gaitasunari dagokion garbitasuna lortzera eltzen ez danak ez dau egundo be jadesten egiazko bake ta ase-beterik. Ez bai da eldu batasun xalorako bear diran utsa ta billoistasuna bere almenetan.

I V

Jainkozko iru birtuteak osotzen ditu arimearen ulermenak

Arimearen iru aalmenak, ulermena, gogamena ta naimena, espirituzko gau-barrurantz biztu ta eregiñak izan bear dabe, gau orretan burutzen bai da Jainkoagazko batasuna. Arimea bere almenakaz alkartzen da Jainkoaz, egoki be egoki da iru goi-birtuteok - fede, itxaropen eta maitasun- zelan dagien utsa ta illuna bakotxak berari dagokion almenean. Fedeak usgunea dagi ulermenean, itxaropenak gogamenean eta maitasunak naimenean. Ulermenak fedearen illunean osotu bearra dauka, gogamenak itxaropenaren utsean eta naimenak, irrika guztiz utsitu ta olantxe dana ipiñi bear dau Jainkoagan. Emetik dakusgunez, bide ontatik doan arimeak gauza guztiz utsitu ta illundu daroen iru birtute oneitan sustraituta joan bear dau.

Fedeak utsa ta illuna egin daroaz Ulerrnanean, ulertu ez daian. Itxaropenak usgunea dagi gogamenean, eukitez daukan guztiaz. Maitasunak Jainkoa ez dan guztitik utsitu oi dau naimena. Fedeak diñosku ulermenez aitu ezin dana. *Siñistea itxaron dugunaren euskari da ta ikusten ez dagunaren erakusbidea.* (Ebert. 11, 1). Eta ulermenak sendo ziur artzen dabezana arren, ez dira agertzen jakozan gauzak. Agertuak balitzaz ez litzakez fede izango. Fedeak ziurtasuna damotso ulermenari, argitasunik ez orraitino, illuntasuna baiño.

Itxaroak be uts eta illun jarten dau Gogamena, emengo ta angoaz. Itxaroa, izan be, beti dozu oraingoz ez daukagunaren ustea. Ba'zeunke, orduan ez legoke itxarorik. *Ikusten dan itxaroa ez da itxaro; ikusten dana, izan be, zertarako itxaron?* (Errom. 8, 24). Birtute onek be, ba, utsunea dagi, ez daukagunaren itxaroa euki oi dogu, ez daukagunarena.

Ori bera, maitasunak be utsunea dagi naimenean, gauza guztien utsunea, danen gaiñetik Jainkoa maitatzera daragisku-ta. Au ostera ezta egiten gauza guztiekanako irritsa ito ezik, oso-osoa Jainkoari eskintzeko. *Bere ondasun diran guztiak izten ez dabezana, ezin izango da nire ikasle* (Lk. 14., 33).

Era onetan, iru birtuteok gauza oroz illun eta uts ipinten dabe arimea.

Isaias'ek serafiñak ikusi ebazan zutik Jainkoarren ondoan, bakotxak sei ego eukazala; ego bigaz euren oiñak estaltzen. Onak adierazten dau itsu-erazo ta itzali naiaren zalekeriak, gauza guztienak, Jainkoari bakar-bakarrik zuzentzeko. Ego biaz euren arpegia estaltzen, eta onak adierazten dau ulermenaren lainoa Jaunaren aurrean. Beste ego biakaz egaz egiten eben, adierazo nairik itxaropenaren egaza ez daukaguzan gauzetara, andik eta emendik Jainko Jainkoz landa euki daiteken guztiz gairi jasorik (Is. 6, 2).

Iru birtuteotara lei-erazo bear ditugu arimearen iru almenak auren soiñekoaz jantzirik, gogoa billostu ta illunetan jarririk iru birtute oneitatik izan ezik. Auxe da *Gau espiritual*a len *eragiña* esan dautsaguna, arimeak or sartzeko alegiñak egin oi dauzalako.

Eta *Gau somakorrean* arauak emon genduzan lez almen zentikorak euren gaietatik ustu egiezan, griñai egokienez, arimea bere biratik fedea dan batasun giroan jarri zedin, era berean emen be,

almen espiritualak utsitu ta Jainkoa ez dan guztiz garbiturik, iru birtute oneik illunetan gelditu daitezcan, esango dogu; onexek bai dira bide ta gertaera arimea Jainkoaz alkartu dedin.

V

Bide estu ta medarrez

Ez uste izan geiegia dala esaten doguna, arimearen billostasun eta garbiketari dagokionez. Jaunak berak diño estua dala betiko bizitzara daroan bidea. Gau onetan, bada, uts eta gorri laga bear dira arimearen almenak.

Entzun erne-erne Kristoren itzak: *Bai rnedarra bizitzara daroan zidorra eta estua atea! Eta gitxi dira ate ori aurkitzen dabenak* (Mat. 7, 14). Gitxi dira, bai, ate ortatik aurrera doozanak. Gitxi dira, izan be, kanpoko ta barruko zentzunak ez, arimearen almenak ondo txautu ta zurrera jo nai dabenak asko ez diralako. Osotasunaren mendi garaira doan zidor au estua da-ta, sorta ta karga bagarik doazan igoleak eskatzen ditu ezek makurtu ez daizan beekora ta goikora igoten ezek dabekatu ez dagioen. Jainkoa bakarrik billatzen da emen, 'eta irabazten; Bera bakarrik da, beraz, billatu ta irabazi bear dana.

Kristok au erakusten dausku, dotriña arrigarriz, baiña gitxi egiztuz ibilli gaitezala eta espiritu-zaleai batez be bearrezko jakuna. Kristok onela: *Nire atzetik etorri nai dauanak uka daijala bere burua, ar dagiala bere gurutzea eta betor neure atzetik. Bere bizia salba nai dauanak, ba, galdu egingo dau, eta bere burua Nigaitik eta Barri Onagaittik galtzen dauanak salba egingo dau* (Mk. 8, 34-35).

Ezta au askok uste dauan baizen erreza! Uste dabe, bai, momentu baten otoitzeratu, edo-ta zeetasunen bat moztu naiz kendu ezkeru, naiko egiten dabela. Eta beste batzuk asko dagie birtutezko zerbait burutu ba'dabe, burua ilduratu edo barru bizitzari ekin, baiña geiago barik, Kristok emen eskatzen dauskun txirotasun eta gogozko garbitasun barik. Munduko gauzak ukatu ezkeru, irriak ezereztu ta arimea nobere espirituzko jaubetasunean garbitu ezik be, naiko dabela uste dabe.

Emendika aurrera joaz zerbait geiago eska tzen ba'jake, gusto guztia Jainkoagan ezereztea, esatebaterako, lanean, legortasunean,

naiz gurutzeta dan beste edozein gauzatan, iges dagie ortik eriotik legez, Jainkoarekiko artu-emon gozoen billa dabiltzalako. Eta ezta au nobere buruari uko egitea, espirituzko gozokia baiño. Kristoren gurutzearen arerio egiñik. Egiatzko otoiziariak naigabeak eta liortasunak maiteago ditu gozotasunak baiño; Jainkoa beregan billatzea ez da soilki ezer euki nai ez izatea, baita Kristogaitik, Jainkoagan eta munduan, garratzena. Auxe dozu Jainko-maitasuna.

Kristo bidea dala esan dot, eta bide au geure izaeraz iltea dala zentzunari ta espirituari dagokienez. Beraz, berak zelan jokatu eban jakin bear da. Zentzunari begira, egi-egiaz il zan, gogoz bere bizitzan eta izatez bere eriotzan. Berak esan eban ez, ba, Kristok ez eban euki burua nun ezarri be: *Azerik euren gordelektak daukez, eta zeruko egaztiak, abiak; Gizasemeak, barriz, ez dauko burua nun ezarri* (Mt. 8, 20). Eta guztiok dakigu nun eta zelan azken-arnasa emon eban.

Eta moral-arloan, nok ez daki eriotzako orduan arima aldetik be ezereztua geratu zala ezetariko poztasunik ez arindurarik bage, Aitak berak be idor itxirik, bere sentikortasunean? Ori zala-ta zal egin eban garraxi: *Ene Jaungoikaoa, ene Jaungoikoa!, zegaitik itxi nozu bertan-bera?* (Mt. 27, 46). Auxe izan zan Kristok bere bizitz-aldian izan eban babes-barik itxite sentikorrena.

Eta auxegaitik, bertan-bera lagatze auxe zala-ta bere bizitzako eginkizunik arrigarriena burutu eban; zeruan eta lurtean egin zituan mirari ta egiñak baiño aundiagoa. Zein, ostera? Gizasemeak Jainkoaz bakeazo ta alkartu graziaz. Eta au gauzatu zan Jauna zer guztietan ezereztuen egin zan une-unean: *bere ospe ta indarra gizonen aurrean*. Ilten egoan, ez eben maite eta irri egiten eutsoen.

Bere izatea zuziturik, ondaturik geratu zan gurutzeko eriotzan. Aitak bertan-bera itxi eban, momentu aretan ezelango laguntza ta poztasun bage, garbi-garbi ordaindu egian gizonaren eta Jainkoaren arteko zorra, biak batean alkartuz. Eta Kristo ezereztuta geratu zan. Salmuak onan: *Ni zoro ta tentel bat nintzan, abere bat zure aurrean* (72, 22).

Zegaitik au? Gizonak ulertu egian Kristoren bidea ta atea Jainkoaz batzeko; eta ja kin daian arimeak zenbat eta ezereztu ta aieñatua Jainkoarren zentzunez eta gogoz, are geiago alkartzen dala Jainkoaz. Apaltasun gorenengoan ezereza egiñik geratzen danean, orduantxe egingo da arimearen eta Jainkoaren arteko batasun espirituala: ludi onetan lortu daiteken goratze garai ta aundiena.

Gorapen au ezta, baiña, jadesten jolasaldietan, atsegin eta arima sentikortasunetan, gurutzeko eriotza biziz, zentzun eta gogozkoz baiño, au da, barrukoz eta kanpokoz.

VI

Zer jakon kaltegarri ulermenari

Esana danez, ulermenari berez sortzen jakozan albiste ta barrietaz, orain goitiko eraz jatorkozan -ikusiz, entzunez, usaiñez, gozoz eta ikutuz- danak aztertuko doguz.

Izan aalezkoa da eta jazo be bai, espiritu-zaleak diran arimai, izatez gaiñetiko gauzak aurrean jartea. Beste bizitzeko irudi ta pertsonak, santu, aingeru, onak eta gaiztoak. Ikusi leiez eta ikusten dabez oi ez lako argiak eta dizdizak. Pertsona orreik batzutan itz bakanak esan daroez, eta arimak eurok entzuten. Beste batzutan itzak entzuten dabez, baiña esaten dabezana ez dabe ikusten.

Beste zentzun-gaietan bardin: usain gozo-gozaak asmetan dabez, baiña ez dakie nundik datoza. Gustoz bardin, aoko leuna sentitzen, baiña zelan? Ikutuan atsegin bizia, barruko un eta azurak oso loratu ta gozotasunetan jarteraiño. Gogoaren gantzua da au, bertatik jarioz arima garbien soin-ataletan gaiñez dagitsela. Gusto sentikor au gauza jakiña da espiriukoietan.

Oneik zerok Jainkoagandik letorkezanak izan daikezan arren, kasurik ez egitea dozu bide ohea; ez entzindu olakoetan. Ez asi azterketan be, ona ala txarra dan jakin-miñez. Ona erizmen ziur samarra: ondoren oneik kanpoko ta sentikorrakoak diran, Jainkoagandikoak ete diran zigurtasun bitziago. Jaunaren egikera da zentzunetara baiño barne-arnasari geiago emotea.

Zentzunai ez jake ainbeste jaramon egin bear. Eta oker dabil egiaz orrei mezu ta barrietan uste larregi jarten dabena. Atea izten jako askotan espirituzko bizitzarako. Deabruakbe emen egin oi dau bere lana.

Zentzunetatik sartzen diran gauzak, zenbat eta atekoagoak, espiritua sortzeko makalagoak dituzu. Jainkoagandik datoza, oster, espiritua sortzen. Arimea errez okertu leike argi sentikorra bide dala Jainkoaz alkartzeko, uste izanik. Olan zer orrei jaramon egiñaz, errez galdu daiteke bidea eta Jain koagana urreratzeko bearbearrezko dogun fedea.

Eder jakuzanak ez dira beingoan uxatzen; emen, baiña, egoki jako arimeari oneitako gauza guztiak, datozala datozen lekutik, ukatu ta baztartzea naiz onak eta naiz guzurrezkoak; ukatu ezik, deabruarenak geituz joango litzakez eta Jainkoarenak gitxiagotuz. Arima askoren esperientzi daukat, batzuk kultura urrikoak eta beste batzuk zurrezak, gozotasun orrei leku emonik, askok asko sufridu eben gero fede garbitan Jainkoagana biurtzeko. Beste batzuk, gaiñera, ezin izan eben atzera egin gatzak euren barruan sustrai sakonak botata eukazalako.

Bebil, ba, arimea zur eta zentzun aunditan. Zintzo ta luditar guztiz erantzia badabil, Jaunak gero ta geiago lagundu ta doez apainduko dau, maillaz mailla eroanik Jainkozko batasun eragiñera. Berak aztertu ta jasoko dau. Lenengotan, amak umeatxoari lez, oinkada txikiak, gero aundiagoak, arimeari berari dagokionez; zuzpertzuz ba'doa, zurrutz pitin areikaz, geiago emonaz doakio, apurka apurka azi ta aundituz, maitasunezko zazpi zapaldetara eldu ta Senarrak bere upeltegian sartu arte (*A best.* 2, 4).

Juan'en Agerpenean (Apokalipsis) zazpi buruko dragoia agertzen, maitasunezko zazpi zapalden kontrakoa. Buru bakotzak burruka dagi arimeaz egoitza bakotxean eta gogoak egoitza bakotxean, banan-banan, Jainko-maitasun mailla bat lortzen dau, eta olantxe doa gorantza. Batzuk, alan be, burruka asita gero, aurrera egiteko adore barik aurkitzen jatzuz, edo-ta luzaro burrukatu ondoren, atzera jotzen dabe.

Deabruarena bai poz beteaz ezaipian dabillen arima bat olan ikustean! Ate ederra zabaltzen jako okerrak buruan sartu ta fedea ondartzeko!

VII

Irudimenaren lana

Zentzunak billostu, griñak ukatu ta azkenez zentzunak izatez-gaiñetiko barri ta mezu kanpoetatik morriztu ondoren, berezko eraz irudimenean batu ta pillotu leikenari ekingo dautsagu oraingoan.

Eziña da, izan be, arimea Jainkoaz alkartzera eldu al izatea, irudimena ta iruditua ezer egiteke geldi ez dagozan bitartean, onein lana ez baita egokia Jainkoagazko batasunerako.

Barruko soin-zentzun bi bereizten doguz: irudimena ta iruditua. Biok lagungarri jakez alkarri. Irudimena arat-onat dabil irudituz, eta iruditua iruditua dana gauzatu egin daria buruan irauli ta anestuz. Bardin da izan irudimenez naiz irudituz mintzatu. Bego au bein betiko. Barruko zentzunok artu ta asmatu leikenai irudikizun deitzen jake, eta soin-lits eta itxurak baiño ez dira. Batzuk erneten dira barne-zentzunak arteratu barik; artuz artzen dabez. Goitikoak dira, eta goi-bidez etorritako irudi-ikuspen izenez ezagutzen doguz. Berezkoak dira beste batzuk, eta oneik irudimenak berak sortzen ditu.

Gogartea (pentsaketa) da almen onein ariketa. Gogoan gai edo gauza bat erabiltea dozu, egite bat, jardun bat, irudi, lits, itxuren bat, irudimenak sorturikoa, oiñarri dala. Kristo guratzean josia iruditua daiteke, edo arpillari lotua naiz beste momentu baten. Baiña Jainkoa be itxuratu daikegu aulki garai baten aundikiro jarrita. Edo-ta aintza bera argi eder-eder lez begitanduta. Gisa ontako beste gauza asko, Jainkozkoak eta giza-irudizkoak, iruditua daitekez. Arimeak, barriz, goi-batasuna lortzeko, irudikizunok itxi egin bear dauz, irudimena oso-osorik uts eta illunetan lagarik.

Irudimenaren lana kaskarra da; ezin dau antolatu ezer be zentzunetatik artu ez dauanik. Geien-geienik be, ikusi edo entzun dabezan gauzen antzekoak. Pitxi-jauregiak eta urrezko mendiak itxuratzen ditu, urrea ta bitxiak ikusi ebazalako. Orain ba, sortutako ezer Jainkoaz bardindu ezin daiteken ezker, irudimenak egin-alak eginda be, ez gaitu Jainkoaz alkartuko.

Onako iduriren baten Jainkoa itxuratzen dauanak, edo-ta su ikaragarri lez, edo zirt-zart eskerga lez naiz uste dau ikusten dauana Jainkoaren antzeko dala, oso urrin dago Agandik. Ona da au asi-barrietan, baiña gero gogarte, irudi ta pentsamentu oneik baztertuaz, aurrera jo bear dau gogo-zaleak. Arimea espiritu biur-tzen danean, almenak ez dagie lanik egintza jakirietan, orduan bera egintza uts eta orokor baten ezarten da; lana izten dabe almenak, leen egiten ba'eben be arimea eldu dan maillara eltzeko baiño etzan. Oiñak muga eldukeran gelditu egiten jatzuz.

Arimea batasunerako garbia izan bear dau, eta laua, mugarik bakoa, ez ulermenak artzeko modukoa. Jainkoa ez dau irudirik ez itxurarik. Espiritu santuak onan: *Garren erditik Jaunak itz egin euztuen fitxak entzuten zenduezan, baina ez irudirik ikusten* (Deut. 4, 12).

Mendia sutan egoan eta zeruraiño igoten ziran garrak, odei illun eta laiño lodi artean. Arimea ezin daiteke igon Jainkoaren bikaintasuneraiño, irudien bitartez. Jainkoa ezta alkartzen arimeaz irudizko ikuspenez, arpegiz arpegi baiño. Izatez izatezko artu-emona dauke; Jainkoaren izate uts eta aratza maitazunean, eta arimearen izate uts eta aratza maitasunean, dira alkar artzen dabenak. Onetarako arimeak ez beie oratu irudi-ikuspenei, ezta irudi ta ulertze zeatzai be.

Ikustekoa geienik nobera konturatu barik datorrena dozu; arimeak esangina artu egiten dau bakarrik. Kristalak ezin dau galazo eguzki-izpiak argitu ez daian. Kristalak ezer egiteke, onek artu ta arek argitu, or bien jokoa; bardin Jainkoarena ta arimearena be.

VIII

Gogo-maisuak

Agerpen, ikuskari ta besteak, orain azaltzen gabiltzan gaietan ba-da matazarik, eta ezta arrigarri olakoak daukezan arimak la-guntza nai izatea. Or gogo edo arima maisuak, arimen bide erakusleak.

Eder da zurtasuna gai oneitan. Eurak uste izanaz goitiko ikuskariok, onak eta Jainkogandikoak dirala, maisu ta ikasleak sarri oker aundietan murgildu ta epotx gelditu jatzuz. Eurotan bete da gure Salbatzailleak esana: *Itsuakinutil itsu ba diu, biakzulora bearke* (Mt. 15, 14). Jausi daitezcan, ez da bear okerrean jausterik. Batak besteari zuzentzen iztea, errakuntza dozu-ta.

Batzuk, ikuskariak daukezan arimak zuzendu oi dabez bidean saiesteko moduan. Nastau egin daroez euretan; ez daroez apaltasun bidetik. Gora ta lleba aundia olako gauzai emoten lagungarri jakez. Eta olan fedezko benetako garra galtzen dabe. fedean ez dabez oiñarritzen, baiña bai orretaz barriketa luzeak erabilli.

Maisuak eta ikasleak ziri ederra sartzen dautse alkarri. Arimak era ortan ikuskariai lotuak geratzen dira eta ez fedean eregirik eta gauza areitaz uts eta narru-gorri fede illuneko gaiñera egaz egiteko. Asko esan nai dau maisuak zelako abots-indarrez gauzak diñotse-zan be. Eurak nai ezta, itsatsi egiten jakez esanaren onéretxi aundia egiñaz. Eta fedearen lezatic baztertu egiten dabez begiak.

Errez geratzen da arimea ikuskarietan **Olan ez dab;1** ain apal, berak daukana gora aundikoa dala, Jainkoa beragaz dagola ta olakoakaz arroturik. Besteak, uste dau, ez daukela olako ikusterik. Au, barriz, xalo ta tolesbako izatearen aurka dago.

Lan egiaz aundia dabe emen autorleak. Maisuak indar itzala dauka ikasleagan, edo autorleak autortzen dabenarengan: autorleak, igarri barik, ixil-gordeka sortu daroa oben-esalearen espiritua. Uste dot, eta orrela da, autor-entzulea ikuskakari-zale ba da, konaturatu bage ixuriko dautso autortzen dan arimeari zaletasun bardiña, ikaslea maisua baiño argiagoa ezpada beintzat. **ba litza-**teke, kalte aundia eg;n leikeo aregaz jarraitzen ba dau. Autorleak ikuskariai dautsen zaletasunetik, ba, alako on-eritxia yatorko, eta arduraz ez ba doa, errez igaroko da on-eritxi ori autortzen danarena be. Eta au lendik olakora makurtua bald;n bada, biak eragingo dautse alkarri.

Arima batzuk, dalako ikuskizunak Jainkoari eskatzea ona dalata, egokitizat daukie ori. Eta Jaunak estutzen ba dau euren eskaria eta nai dabena agertu, zigurrago egin oi dira; eskabidean sendotu ta gero ta geiago eskatu, erantzuten dautsen ezkerro, Jainkoari eder jakola ori uste izanik. Jaunari, baiña, ez jako atseg;n ori. Olan jokatu nai dana, eta euren berezkoari amor emonaz eurak ulertzen dabenagaz egokiturik geratzen dira.

Ortan bide okerrez doaz askotan, ulertu ebenez ez jakela jazoten argi ikusten dabela. Sor ta lor gelditzen dira, rnarroa sartu ta iruzur egiñak. Ondoren datoz kezka ta ezpaiak Jaunagandikoak ete ziran eta antzekoak, pentsetan ebenez ez bait da jazoten.

Jainkoarena zala uste eben eurak, argiro be argiro ikusten eben eta. Jazo leikena, euren naiak berak pentsamentua sendo-aztea. Pentsaten eben, gaiñera, Jainkoarena ba zan, eurak ulertzen ebenez jazo bear ebala. Uste oker ez txiki bat daukazu emen Jaikoaren agerpen edo itzak ez dira beti urteten ots-dagien edo gizonak ulertzen dabezan legez, eta ez dira itsu-itsuka artu bear; euren kautan egiazkoak dirala be, ez dira beti euren zioetan, ez geure ulertu-eran artu bear.

Jainkoaren berbak

Jainkoaren berbak berenez beti dozuz egiak, baiña ez giza-askatasuna sartzen danekoan. Sarri sartzen dira or giza-goraberak, gauzea aldatzen dabenak, eta ez alda-eziñak. Eta baldintzak uts emon ezkeru, baldintzatuak ziran itzakbe uts emongo. Gauza batek besteari ba'dagoldo, batak uts ba'dagi, besteak be uts egingo. Jainkoak ba'lirio: "urte bete barru bialduko dautsot naziño orri olako zigorra", eta zema onen zioa naziño onen pekatu bat ba'litz, pekatu ori jazoko ezpalitz, zigor ori ez litzateke etorriko. Egizkoa zan zemaia, oraingo pekatuan oiñarritua zalako; pekatu orrek iraun ba'leu, beteko zan zemaia.

Auxe da Ninibe'n gertatu zana. Jainkoak esan eban: *Berrogei egun barru Ninibe erraustua izango da* (Jon. 3, 4). Zema au, alan be, etzan bete zioa eten zalako; pekatu egiñaz damu izan ziran. Penitentzi egin ezpa-eben beteko zan zemaia.

Ortik atera gengike Jainkoak esan edo iragarrita be arima bati edozein gauza aldezko naiz kaltezkoa beretzat edo besteentzat aldatu daiteke asko naiz gitxi, naiz osoan, dalako arimearen naiaren aldatzeari edo-ta Jainkoa oiñarritzen zan zioari begira. Eta jazo leitekean itxaroten zana ez jazotea, zergaitik Jainkoak ezean iñor-txok be jakin bage.

Jainkoak gauza asko esan, erakutsi ta agintzen ditu, ez esan edo eukiteko agintzen diranean, bere argiz diztiratzea izatea kobeni danean ulertu daitezana, edo agindutakoa lortzen danerako. Auxe zan Jesus'ek bere ikasleakaz erabillitako jardunbidea; alegi ta parabolarik asko egiten eutsezan eta ainbat erakuspen egin, eta apostoluak ez ebezan ulertu iragarri areik ots-egiten asi ziran arte. Eta ori Espiritu Santua euren gaiñera etorri zan arte, onan Kristok esan bai eutsen: Aitak nire izenean bialduko dautzuen Espirituak erakutsiko dautzue dana ta arek gogoratu nik esandako gutzia (Jn. 14, 26).

Onen adierazpen asko daukaguz Ebanjelioan. Juan deunak, Jesus'ek Jerusalem'en egindako sarrera aitatzuz, onela diño: *Bere ikasleak ez ebezan gauzok asieran ulertu, baina bai Jesus goretsia izan zanean, orduan gogoratu ziran idatzita egoan axe bete ebela arekin* (Jn. 12, 16). Euki leikez arimeak gauza zeatz batzuk ez berak ez zuzentzen dabenak, bere momentua eldu arte, ulertuten ez dabezanak.

Ezta uste izan bear, Jainkoaren berbak diralako, naitaez beteko dirala ots dagien legez, batez be aldatu leikezan giza-zioai loturik doazanean. Eta Berak bakarrik daki noiz dagozan giza-zioai loturik, beti ez bai dau esaten. Ak berbak oguzi edo erazagutu bakarrik, eta batzutan baldintza ixillazo. Orrela egin eban ninibetarrakaz, itz agiritan esanik "*berrogei egun barru Ninibe errausia izangozala* (Jon. 3, 4). Alan edo olan, itzak dakarren Jainkoaren ezkutu gordea ezin daiteke agortu. Bera dago zero gairi eta berba dagi betiereari begira. Gu itsu txikiak gara lurrean, aragiari ta aldikoari dagokionez baiño ulertzen ez dogunak.

Eta gauzok ulertu ezin ba doguz, zergaitik damoskuz Jaunak? Esan dot bere garaian ulertuko dala gauza bakotxa. Jaunak nai dauanean, Berak itz egin dauSKU. Eta Berak nai dauanak ulertuko dau. Eta ikusiko dau olaxe zala egoki. Jainkoak ez bait dagi alperreko ezer; ezta egia ez danik be. Beraz, ziurtzat euki daigun Jainkoaren berbak ezin dirala osoan artu, ezta euren zentzuna ulertu. Ez daigun ezer burutu ots-dagiana oiñarritzat artuz. Igarleak zur jakuzan ontan. Ez eben nai erriak euren lepotik ixeka egiterik. Negar dagi Jeremias'ek: *Zoratu egin nozu, Jauna, eta zorutzen itxi; ni baiño aaltsuagoa zara, eta azpian artu nozu. Barregarri naz orain, egun guztian; kifiuka dabilkidaz danak. Berba dagidan bakotxean, oi u egin bearra daukat: "Zigorra, Ondamendia!". Eta Jaunaren itza lotsagarri ta irrigarri biurtu jat. Eta auxe esan dot neure kautan: "Gogoratu be ez dot egingo; ez dot Aren izenean geiago itzik egingo* (Jer. 20, 7-8).

Ba-ekian igarle onek zelako aldea dagoan Jainkoak esanetik erriaren epaira. Erriak, au zala-ta, guzurtitzat eukoza igarleak.

Zergaitik arritu orduan, Jainkoak esan eta agert-azten ditun gauza batzuk arimai, jazoten ezpa-dira eurak ulertzen ez dabezan legez? Jaunak saria naiz zigorra agintzen ba dau arima bat ona dalako, edo-ta bide ain onetik ez dabillelako, ez da uts-eziña orrela jazoko dalakoa, ez baita alda-eziña zintzotasunaren naia ezta gaiztakeriarena be. Ezta sustraitu bear, ba, ulertzen danean, fedean baiño.

X

Agerpenak

Itz onek euskeraz zentzun edo esan-nai asko dabezan arren, emen gorderik dagon gauza naiz egi bat argi jartea, ixil edo ezku-

turen bat agert-aztea dozu. Jainkoak erakutsiko ba leutso arimeari zerbait bere izatea ulermenari adierazorik, agerpen bat egingo leuke, edo obeto, erakusketa bat egingo leuskio. Edo-ta, Jainkoak arimeari bat-edo-batek egiten jardun naiz egitea pentsaten dauan zerbait agert-azoko baleutso, ori agerpena izango litzake.

Era bitako egi-agerpenak, beraz. Adimen-ezagutzak, barriak, ulermenari egiak azaldu, eta *agerpenak*, ezkutuak agertu. Lenengoak ez dira estura ezkerko agerpenak, ez bai dira besterik Jainkoak arimeari egi utsak azaltzea baiño. Bigarrenak, batez be, emen jorratuko.

Agerpen oneitan ikusi edo entzuna gero adierazo eziña jako arimeari. Itz askoz esan nai izanda be, gero konturatzen da oar-ikasi ta gozatu dauanetik ez diñola tautik be. Ez daurki itz egokirik somatu dauana azaltzeko. Paul deunak orixegaitik, paradisura jasoan izan zanean, an artu tako barri bereziaz etzan ezer esaten alegindu. *An iñok ezin esan-alako berba sakonak entzun ebazala* diño bakar-bakarrik (2 Kor. 12, 4).

Jainkoaren jainkozko barriok ez dira iñoiz be gauza bereziaz buruzkoak. Oiñarri Garaiari dagokiozanak dira, eta beraz ezin daitekez azaldu banaka. Bakar-bakarrik Oiñarri Garaiaren barriaren barriakin, Jainkoak baiño beeragoko egite bategaz nastu ten danean, esan al izango litzateke zeatz meatz. Baiña jainkozko barriak ezin daikeguz zeaztau ezelan be.

Jainkoaz alkartzera eldu dan arimeak bakar-bakarrik euki leitezke onako barri bikaiñak. Orrez gairi, barri oneik eurok dira alkartea bera. Barriok eukitea da arimeak jainkotasunaz daukan olako ikutu bat. Jainkoa bera da arimeak somatu ta gozatzen dauana. ikutze au ezta ikusgarri dana zeruko aintzan lez, baiña eder ta goieneko jatzu bere barri ta gozotasunean, eta arimearen mamiria da asetzen dauana.

Barri bikain oneitara ezin da arimea eldu ez parean ezarriz ez begitanduz; guzti orren gaiñetik dagoz. Jainkoak gauzatzen ditu ariman, onek indarrrik egin bage. Onek nai ala billatu, gitxien uste dauanean, emoten dautsoz Jaunak jainkozko iku tuok, Beragaz gogoratu daiten. Zerbait gogora ekartean, beingoan datorkozan gomutakiak. Minkor utsak batzutan gorputzai be dardar eragiten dau tsenak. Beste batzutan espirituan somatzen dira, pozezko ta atsegiñezko zauskada bizkorrean.

Ikutu oneik baita artzen ditue Liburu Santuetako berba edo esakunen bat edo beste zer-edo-zer entzutean. Baiña, eragiñez eta sentimentuz, ez dira beti bardiñak; batzutan oso samur-gozoek dozuz. Baiña, leun-leunak izanik be, gomuta oneik eta Jainko-ikutuok geiago balio dautsoe arimeari beste barri ta egite asko baiño. Eta zer guztiok beingoan eta bere naia tarteko ez dala, ez bei ibilli arimea bai nai ez-naika, emoten jakona apal-apal artu baiño, Jainkoak bere egitekoa beteko dau-ta berak gura dauanez eta gura dauanean.

Barri oneik ez dirra baztertu bear, arimea eltzea nai dan batasunerako zati dozuzelako. Apaltasuna dozu bultzatzaille Jainkoak emon dagizan, eta sufridu Jainkoaren maitasunagaitik, edozein ordainketari uko egiñaz. On-eritxi ta txera billa dabillenari ez jako onako doe ta regalorik emoten. Jainkoak egin oi ditu esku-ikusi ta mesedeak arima orri dautson maitasun aundiagaitik, arima onek be bene-benetan maite daualako Jainkoa. Orixe diño Kristok: *Nire aginduak artu ta beteten dituanak maite nau; eta ni maite nauana maite izango dau nire Aitak, eta neuk be alakoa maite izango dot eta agertu egingo nakio* (Jn. 14, 21). Orra or barrien eta ikutuen agerpena.

Espirituzko gizonak ezin daikeez eurenez ezagutu arimearen barrenean gordeta dagozan ez pentsamentuak eta ez beste ezer. Baiña ezagutu dagikee goitiko argiz edo beste aztarren edo usno batzuetatik. Oker egon leiteke zer askotan, baiña geienetan igarri be bai.

Baiña ezda larregi entzindu bear ezaguntza orreitan be, deabrua ba errez nastu oi da onetan, eta me-me nastu be. Ezaguntza oneik, beraz, ezetsi egin bear dira. Espirituzko gizonak, egia, urrin dirala be, izan daikee ezaguntza gizonak egin naiz jazoten jakeenena. Giezi, Eliseo igarlearen morroiak ez eutson bere nagusiari esan nai izan Naaman siritarrak ze erregalu emon izan eutson. Eta Eliseo'k ari: *Gizona, zugana joateko, burditik jatsi zanean, nire biotzak jarraitu egiten eutzun* (2 Err. 5, 26).

Ezaguntza oneik ezer egin barik jatorkoz arimeari. Batzutan jazoten da, bat oartzaka ta olakorik uste bage aurkitzen danean, naiz-ta pertsona urrin aurkitu, gogora datorkio entzun edo irakurten dauana bizi be bizi jausten jako ulermenera, berbaz esanda baiño be argiroago sarritan. Eta batzutan itzak ulertu ez arren, latin

edo beste izkuntza baten diralako, itzen zentzuna agertzen jako, ulertu ezta be.

Bigarren agerpen-era da ixillak eta ezkutu gordeak agert-eraztea. Lenengo era Jainkoa bera danez agertzea, eta emen sartzen da Jainkoaren batasuna ta Irutasun Deun-deunaren misterioa. Bigarrena da Jainkoa bere egiñetan dana; eta emen sartzen dira fede katolikuaeren beste siñiskaiak eta euroi buruzko egi jakin azalduak. Emen datoz igarleen agerpen asko, Jainkoaren aginduak eta zemaiaak eta beste jazoteko ziran gauza batzuk eta federari begira jazoko diranak. Emen datoz orobat beste gauza batzuk, nor berezienak, Jainkoak sarri iragari oi dabezanak izadiari buruz geiñean edo-ta, bereziz, naziño, probintzi, eskualde, famili ta banakako pertsona bati buruz.

Agerkari ta errebelaziño oneik era askotara egiten ditu Jainkoak. Berbaz, ikurrez, irudiz eta itxuraz, alegi ta alderakizunez. Baita era oneik eta areik naspil jarrita be. Olan dakusguz igarleetan eta, batez be, Juan deunaren Agerpen edo Apokalipsis liburuan.

Eleizeari dagoneko agerturik dagozan fedeko ziñiskaiak baiño geiago, fedeatzaz arimari agertuko litzakion ezer barririk ez da onartu bear. Zur bebil onetan, eta barrua garbi zaintzeko fede aratzean, ez bei joan barrikerien atzetik. Eta lendik iragarritako egiak barriro be iragarri arren, ez beiz siñistu Eleizeari bear-aiña iragarrita dagozalako onezkero. Barrikeriak itxi, ba, ta onartu dai-gun Eleizearen irakatsia.

Iruzaku egiña izan nai ezpa-dozu, ez urtu zeure ulermena, ez artu aintzat barriro otsegiñak diran fedezko egiak, siñistez bat datozeanak izanda be. Maltzur jokutzen dau etsaiak; narrua josten diarduanaren antzera lan dagi, aurrenik zurda sartzen dau, gogorra, ta gera ari meiagaz egindako zulotik errez doana.

XI

Esanak

Asmatu edo buruz ernetako gaiak daguz esanak. Arimearen atxikitzeak, izatez goitiko esamaiña, gorputzêzentzunak parte artu barik gogo-zaleen espirituan egin oi diranak; modu ,askotakoak dira eurok, baiña iru eratan ezarri geinkez: *Berba urrenez urrengoak, eratuak* eta *izatekoak*.

Urrenez urrenegoak, itz eta errazoi batzuk dira, espirituak bere gaiñ batu-batua dagoanean, berretzat antolatuz eta arbideak emonez osotzen dabezanak.

Eratuak, itz batzuk dira, eratuak eta bestelakoak, espirituak ez beretik, beste norbaitek emonetik baiño, artzen dabezanak; batzutan baturik dagozala, eta beste batzuetan olako barik.

Izatekoak, beste berba batzuk dira espirituari argi ta garbi egiten jakozanak, batzutan batuta dagoala, beste batzutan ez. Oneik ari-mearen mamiñean egiten dabe itzok adierazten daben indarra.

Urrenez urrengoko itzok jazoten dira beti gogoia batua ta beregan morgildua gogapenen baten adi-adi aurkitzen danean. Eta iraultzen dauan gaitan berbera doia dantzari lez batetik bestera, erreztasun aundiz, itzak eta errazoiak, eta uste dau beste batek itz dagiala eta errazoiak ipiñi, eta ez berak, itandu ta erantzun berak egiten dau. Eta, izan be, olan uste izan daiteke; espiritua bera baita ori dagiana tresna lez, baiña Espiritu Santuak lagun dagitso egiazko gogai, itz eta errazoiak erutzen.

Gisa orretan, Maisu orrek argitu ta irakatsirik, adimenak, egi areik ulertuz, batera doa, berak berenez, esan areik eratuaz, beste aldetik iragarten jakozan egiakaz. Olan *Jakob 'ena da abotsa eta eskuak Esau'renak* (As. 27, 22). Emen sarri egon oi da trankarta, adimenak dagizan errazoiketak zuzenak ez diralako. "Nik ezagutu neban pertsona bat -diñosku Gurutzeko Juan deunak- urrenez urrengo esanok eukirik, Eukaristiari buruz egiazko batzuen artean ereji batzuk be eukazana.

Bigarren, barruko itzak dira berba *eratuak*, batzutan zentzunen baten bitartez gogoari egiten jakozanak. Eta eratuak deritxe gogoari, berak ezertxo egin barik, irugarren pertsona batek esaten dau-tsozanak. Aurrekoetan edo urren-urrengoetan itzok buruan erabilitako gaitik erneak ziran, emen ostera baturik egon ezta be, gauza diferenteetatik datorkioz.

Itzok, batzutan ondo eratuak dira, beste batzutan ez ainbeste; sarri, ba, gogai bakan lez dira zerbait diñoenak, orain erantzunez, orain beste era batean, gogoari mintzatuz. Oneik batzutan itz bat dira, beste batzutan bi edo geiago; batzutan andik aurrerakoak dira, igaroak balira lez, irauten dabelako, arimeari zerbait irakatsiaz, eta danak gogoak beretik ezer be ezarri bage, danak bai dira pertsona

batek beste bategaz berba egiten dauanez. *Daniel, zeure adimena argitzeko betor orain. Zuk otoitz egiten ziarduala, itz bat esan zan, eta itz ori adieraztera natorkizu* (Dan. 9, 22-23).

Irugarren barru-itzak *izatekoa* zirala esan genduan gogoari barren-barrendik egiten jakozanak. Eratuak dira oneik be arimeari josita geratzen diralako; baiña ez dituzu oso bardiñak, izatezko itzak ondoren bizia izten daualako ariman, eta ez olan eratu baiño ez danak. Beraz, izatezko itz oro eratu dan arren, baiña eratu itz oro ezta izatezkoa; izatezkoa, esan dogu, ariman izatez berak esan nai dauana irarrita izten dauana da bakar-bakarrik. Jaunak, adibidez, esango baleutso arimeari: "Izan zaitez on", izatez izango litzake ona ondoren. Edo esango ba leutso: "Maite naizu", bertatik sentiduko leuke Jainko-maitasunaren sua barruan.

Auxe da Kristoren berbearen indarra Ebanjelioan, gaixoak osatzean, illak birtutean, eta abar; esan bakar-bakarrik. Eta edu onetan arima batzzuk be, itz izatezkoak dira-ta. Arimeari onek bizia ta kemena damotsoz, eta esan eziñeko ona. Egin be, onako itz batek bizi guztian egin dauanak baiño geiago damotsa.

IRUGARREN LIBURUA
ESPIRITUAREN GAU ERAGILLEA
(Gogamena eta Naimena)

Gogamenari ta naimenari dagokienez be arimeak garbitu bearra dauko bere loi, eraspén, zaletasun eta atxikimenduetatik; Jainkoaz bat egiteko nunbait aalmen oneikaz itxaropen eta maitasun osoarekin.

Aurreko liburuan, ulermena (adimena) aztertuz egin doguna axe bera egingo dogu emen be gogamena (memoria) ta naimena ikusi ta azertuaz.

Guk esan eta egiñak, eta inguruan jazotakoak, gogoan artu daroaguz, eta or dagoz geure baitako gelatxo ortan, geuk nai dogunean barriro be gomut-erazteko. Iru eratako gauzak daukaguz gomutan: berezkoak, irudituak eta espiritualak. Baita iru eratakoak dira gogamenaren eukiak be: berezkoak eta izatez goitikoak eta iruditu gogozkoak.

Oneik azalduko lenengo. Eta gero ekingo dautsogu naimenari.

I

A) Gogamena
Garbiketa oso-osoa

Irakurleak bear bada uste dau ondatzen geiago gabiltzala egiten baiño. Aalmenen egintzak eztandu ta lur-jo eragiten. Baiña ez da olan. Jainkoagazko batasunera zelan eldu bear dan erakutsi nai dogu. Au lortzeko, barriz, aalmenen bide ta jardun sentikorrak albora itxi bear dira. Ixillik geratu bear dabe egin daian beretik ariman jainkozko alkartzea, Garbi ta uts ezpa-dago, ezingo dau artu altxor ain aundia.

Gauza ziurra da arimeak Jainkoa ezagutu bear dauala danetik baiño geiago ez danetik. Beraz Agana joateko ukatuz joan bear dau eta ezertxo be ez berezkorik eta ez izatez goitikorik onartu bage. Emen, bada, gogamena bere neurritik atera ta bere gairi, au da, barri zeatz eta jaubetza sentikor guttiz gairi jarririk, Jainko ulert-eziñaren itxaro garaian.

Eta zeintzuk dozuz gogamenean berezko albiste edo barriak? Gorputzeko bost zentzunetan eratu leikezanak: ikusi, entzun, usaindu, txastatu ta ikutu. guzti oneitatik erantzi bear. Euron irudia galtzeko alegiñak egin bear ditu. Ez dau itxi bear irarrita barri bat bere, ezta ezeren lorratzik bere. lau ta uldua oso, ezer egon ezpalitz bezela.

Jainkoaz alkartu bear ba dau, itxura ta zer guztiak suntsituta baiño, ez da izango, Jauna ez bai da sartzen itxuretan. Kristok onela: *Ugazaba biren morroi ezin iñor izan* (Mt. 6, 24). Gogamena ezin daiteke Jainkoaz alkarturik egon, eta batera itxura ta barri zeatzakaz. Jainkoak ez dau itxurarik ez irudirik gogamenak atzitu al daikenik. Origaitik Jainkoaz bat-eginda aurkitzen danean, itxurarik eta irudirik bage geratzen jatzu irudimena galdurik eta gogamena on utsa danagan sor ta lor, aantz-aldi osoan, ezeren gomuta barik.

Oroimenaren aaztutze au ta irudimenaren geratze au, gogamena Jainkoaz baturik dagon bitartean aundia da-ta, aldi luzea joan oi da epe orretan jazo danik somatu ez jakin bage. Irudimena ez dabil orduan, eta min emoteko zerak eginda be, ez dau ezer sentitzen. Irudimenik eta pentsamenturik ezean, sentipenik be ez dago-ta. Batasun ikutzok egin daizan Jainkoak arimeak askatu egin bear dau gogamena izpar zeatz guztiz. baiña utsok batasunaren asieran jazoten dira bakar-bakarrrik; aurrera doazanetan ezta olakorik geratzen batasun osoa lortu dabelako.

Norbaitek esango dau: ona dirudi onek, baiña era orretan ezerez-tu egiten da agintza arrunta, eta nalmen guztien ekiña. Abere egiñaz geratzen da gizona, aldendua, eta txarrago oindiño, buruan ezer erabilli barik, berezko betebear eta egiteak be aaztuta. Eta onek ixatea galtzera garoaz, morala ta errazoizkoa zokondurik. Eta Jainkoak ez dau nai izatea alperrik galtzen, beteagotu baiño.

Orrela dala deritxot. Gogoramena Jainkoaz batu-ala albiste zeatzak osoagotuz doazala, osoan galdurik batasun bete-betera eltzean. Alkartze au egin ostean guztiaz aaztu oi da, itxurak, irudiak eta barriak itzaliz joakoz-eta. Ortik daukaz utsik asko kanpotiko pertsona ta zerakaz. Jatea ta edatea be aaztu egiten jakoz. Eta gogamena Jainkoagan murgil eta arri egiña daukan lez, ez daki zer egin dauan, ez zer ikusi dauan, ez zer esan dautsoen.

Baiña batasunera oitu danean, au benetako ona dozu-ta, gelditzen dira aaztutze orreik berezkoan eta moralki errazoizkoa da. Eta,

gaiñera, egoki ta bearrezko dan guztia osotasun geiagorekin burutzen dau. Orduan alan be ez da gogamenaren era ta albistez, goiegoerako batasun oitura lortu dauan ezkerro, auldu egin oi dira gogamena eta beste aalmenak euren egiñetan, eta euren berezko mugatik izatez goitikoa dan Jainkoaren era igaroten dira.

Olan dagianean Jainkoan aldatua, gogamenak ezin dau gauzetako ez itxurarik ez barririk artu. Eta egoera onetan, gogamenaren egintzak, eta beste aalmenenak, jainkozkoak dira oso-osorik, Jaun soil-soillak lez Jainkoak daukazalako, Beragan murgildu ondoren. Berak daragioe eta Berak jainkozki zuzentzen ditu bere jainkozko espirituz eta borondatez. Egintzak orduan ez dira ezbardinak, arimeak egiten dabezan egintzak Jainkorenak dira, jainkozkoak beraz. Paul deunak onela: *Jaunagaz batzen da, A regaz espiritu bat egiten da* (2 Kor. 6, 17). Arimearen egintzak, ba, Jainkoaz alkaturik dagoanean, Jainkozko Espirituarenak dira.

Au dala-ta, arima onein egintzak zuzenak eta bidezkoak dira; egundo bere ez ezegokiak. Jainkoaren espirituak diñotse jakin bear dabena ta ez dabena. Eta aaztu eragiten dautsoe aaztu bear dana. Maite-eragiten dautsoe maite izan bear dabena, edo maite izan ez Jainkoagan ez dagoana. Arima orren len-zirkiñak oso-osorik jainkozkoak dira, eta ez dago zetan miretsirik ortaz, euren aalmenak Jainkozko izate egiñik bai dagoz.

Adibide bat ontaz. Pertsona batek egoera ontan dagoan beste bati eskatzen dautso beragaitik eska daiola Jainkoari. Pertsona au ezta ortaz gogoratuko pertsona artaz gomutan gordeten dauan alako era edo albistegaitik. Baiña egoki ba'da jainkoari eskatzea, Jainkoak nai izango doa pertsona orregandik otoitza artzea, Berak eragingo dautso olakoaren naimenari ori egitea nai izatera eroanik.

Baiña Jainkoak nai ezpadau otoitz origaitik, eskatzen alegiñak eginda be, ezingo dau ezta gogorik izan be. Jainkoak emongo dautsa, ostera, beste pertsona ez ezagutu ez aitatu bakoagaitik erregu egiteko gogoa. Eta au da jainkoak arimen aalmenak eragiten dautselako bakar-bakarrik Jaunak nai dauanez egoki diran egintzetarako. Orixe dala-ta, arima onein egintzak eta otoitzak beti dituzu eginkorrak. ortik, bada, egoera goi-goiko orretara jasota leenengotik egoan Andra Mariarenak, olakoak izan ziran, eta iñoiz be ez eban ariman josita euki izakiren baten itxurarik, ezta ortaz zirkiñik egin be, beti Espiritu Santuak eragin eutsolako.

Gai oni dagokionez espiritu-zaleak ezpei gorde gomutan, ez ikusirik, ez entzunik. Aztu bei dana beste batzuk gogoan erabilteko ipinten daben ardura bardiña ipiñiaz. Itxi bei aske gomutamena, ez zeruko eta ez lurreko gogoetaz lotu barik. Ez daiala zoztorrik jarri. Berezko guztik goikoari begira eragozpen eta jausgarri.

II

Kalteak

Gogamenaren iraulketa, arat-onat ibilli ta abarrez Jainkoagana eldu nai dauanak, barri ta gogarte ta antzekoakaz, iru kalte dakartsoz arimeari, bi baiezkoak eta bat bagezkoa edo ezezkoa. Lenengoa munduko gauzak dakarrena dozu, bigarrenean txerrenak sartzen dau eskua, eta irugarrena bagezkoa da, ainbarik izten zaituelako, arresi bat jasoten dautzue Jainkoaganako bidean.

Lenengo kaltea munduko gauzetatik jatorku. Zergaitik? Eguneroko gauzai jaramon egin ezkeru, sortu be ainbeste oker, griña, denpora galtze ta olakoak sortzen dira arimeari makiña bat loi, kutsu ta zikin dakartsoenak. Egia sarri guzur biurtuko, ezbaikoa ziur eta bestera, zailla da izan be egi bat ondar-ondarrerairño bear lez artu ta ulertzea.

Unez une daukazuz akats eta utsak, gogamenak gogora ba'dakaz ikusi, entzun, txastatu ta usaindu ebazan gauzak. Ortik datoz gero oiñazezko, bildurrezko ta asarrezko, itxaro, aundikeri ta uste oker-rak. Utsegite ta lorriñak beintzat diran sentipenak, eta batzutan egiazko pekatu ariñak be bai. Eta me-me sartuta izten dabe ariman loikeri meta; baita gogoetok eta barriok Jainkoari jagokazanak ba'dira be. Orrez gairi argi ikusten da griñak sortzen jakozala, barri ta gogoeta orreitatik berberez er^Peak. Are geiago: griña da eurak eukitea bera be.

Argiro ikusiko da, baita, barri ta notizi orreik askakeri ta utsiturri izango dirala, gogamen-indarrez argitan jarten ba'dira, bes-teengan be onak eta txarrak aurkituko dira, batzutan txarra on eta ona txar idoroz. Eta kalte ta min guztiotatik iñor be ezta osoan aske geratuko, gogamena gauza osoz itsu-azo ta illun jarri ezik.

Barriro esanik, ba, oba da aalmenak ixillik jarten ikastea, arimea mutu dan bitartean Jainkoak itz-egin dagian. Egoera au jadesteko berezko egitadak itxi egin bear dira, eta au gauzatu oi da Jainkoak arimea bakar-tokira eroanaz, Igarleak diñoanez: *Basamortura eroango dot eta biotzera egingo dautsot berba* (Os. 2, 16).

Bigarren kaltea deabruagandik jatorko arimeari, gaizto onek indar itzala bai dau ariman; erak, barriak, irudiak eta gogarteak asmatu daroaz, eta eurokaz arrokeria, zikoizkeria, sumiña, bekaitza ta abar sortzen dautsoz konturatu barik. Txerrenak egiten ditun iruzur, engaiñu ta gatzik aundienak oroimenaren gomutetatik datoz. Ateok izten ba'ditu arimeak, kalte askotatik iges dagi. Deabruak arimearen aalmenetan dauko bakar-bakarrik elkumena.

Irugarrena bagezkoa da, gogamenaren gamutak bada ekanduzko on barik izten dabe arimea, espirituzko onetatik uts-itxia, bagetua, kamustua. Moral ona da jit eta irritsakaz iraturik eukitea, griña nastuak galgan ezirik eukitea. Onek gar-azten ditu ariman eztitasun, bake ta egoarria eta ekanduzko birtuteak. Au da on morala.

Eta bere buruaren jabetasuna ta galga ezin daitekez euki arimeak gauzak beragandik uxatu ta aaztuten ezpa-ditu, irrits nasiak ementxe erneten bai jakoz. Gomutapen bada ezpadakoak jakoz barruko kezka ta kexaduren sorburu. Guzti ortaz aazturik, eztauka ezer griñak akulatzeke, esaera danez, ba, begiak ez ba'dakuse, biotzak eztau

Nai ta ez, ezin bestean, gomuta aldatzerakoan, gogo ta umorea be aldatzen. Gaur alai zagoz, biar gotillun. Amorrua sentitzen dozu, gero maitasuna. Oreka galdu ezker, eztitasun moralik ez. Bear dan bardin egona gauza danak aaztu diranean bakarrik lortua izango da.

Eta gorabera guztiok kaltegarri dituzu Jainkoaz alkartzeko.

III

Obariak

Gogamena neurrian ekarteakba-ditu bere irabazi ta obariak. Eta aitatu doguzan kalteetatik atera geinkez oneik. Izadi-Zientzietan tekniku ta jakintsu diranak dirauskue gauza baten lege-oiñarriak onen kontrakoak daukezala be. Kalteak eta obariak emen bekoz-beko dagozanak dozuz.

Gogozaleak bare ta bakez dauka barrua, gomutak eta pentsamentuak sortzen dabezan naspil, dardar eta eragin-aldietatik aske dagoanean. Eta oindiño geiago balio dauana, kontzientzi ta arimako garbitasunaren poz zoragarria daukazu. Guzti onek, ostera, birtu teen soloa ongarritu ez-eze benetako gertakuntza egiten dauz lurreko ta zeruko jakintza artzeko.

Gaiztoak gudan jagi-azten ditu bururakizun, eragipen, tentaldi ta astiñaldi ta olakoetatik, pentsamentuen bitartez ariman igarri bage sartzen dabezanetatik aske geratu oi da. Oneik, egia esan, loizikin eta pekatu asko dakartsoz. Eresiak diñoanez: *Irañak eta berba txarrak diñoenez, eta gaitiekaldetik indarkeri eskinka datoz* (Sal. 72, 8).

Gauza oneitatik gogamena ustutzea irabazi eskerga da gizonarentzat; beste ezer lortuko ezpalitz bere, zerbait balio dautsa onek. Munduko goraberak eta jazoera zoritxarrekoak ariman erne-azten dabezanak ez dabe ezer egiten, munduko goraberak eta jazoerak ez dabez erabagi ta aska tzen; alderantziz, txarragotu oi dabez eta gaitz egin arimeari.

Beraz, guztia amaitu ta suntsitu arren, eta gertari danak kontra etorri ta aurkakoak izan, alperrik kezkatuko zara, kezkatuz bada askatu ordez astunagotu oi jatzuz. Eta guztia, gogo-bardintasunez, trankil eta baketsu eroateak, ez bakarrik arimeari on irabazia ekarri on askotarako, baita sendotu be egiten dau, antzeko ezbear, estura ta naiezetan, bide obetikjo ta gauzak zuzen erabagiten jakin dagian.

Nai dana lortzeko, au da, arimea gertatu Jainkoaz alkartzeko, gogoak atsedena bear dau, eta atsedenez jantziko da irudietatik eta gomutetatik aske geratzean. Areik onak ala txarrak ete diranai buruz daukan kezkatik be aske legoke orduan. Onekin irabazi itzala eskuratuko, ez irudi, ez itxura dan Jainkoari itsatsi ta lotuaz. Obari orixe dakartso irudimenak sorturiko itxura ta era guztietatik iges egiñaz.

Ortakoz, artuémon guztietan, datozala zerutik, dirala irudizkoak edo-ta beste edozein eratakoak, bardin da ikuskariak naiz berbak, sentimentuak naiz agerpenak, alegin egin bei arimeak eurek, izkiz, azalez, au da, adierazo naiz antzestu naiz ulert-erazo nai dabenari uko egin eta adi-adi egon bedi soilki barru-barru ixuriz joakon Jainko-maitasunari.

Orrelaxe bakarrik onartu bear ditu sentimentuak. Ez dau iraun bear aren aokera, gozotasun edo-ta itxuran, garra sortzen daben

maitezko sentimentuetan baiño. Eta espirituan maite-sua biztu-azteko bakarrik maitasuna ekarri eutsan artu-emonaz gomuta izan daike.

Gomutaratzean, barriz, ez dakar lenengoz emon eutsan beste berotasun. Maitasuna, alan be, barriztatzen da gomutatuaz. Eta adimena Jainkoagana doa, batez be gomuta irudiz naiz gorpuzkiz edo-ta berez gaineko sentipenez danean; oneik ba ariman irarrita josirik luzaro iraun oi dabe bertan. Batzukiñoiz ez dira desagertzen.

Onela josita geratuak arimea eurekana biurtzean, maitasun-ondorenak dakartsenez, jainkozkoak atan be, gozotasun, argi ta olakoak, Orretarako josita daroaz aldean. Jainkoak arimeari egiten dautson maitasun-doe bikaiña dozu au. On-arrobi bat barruan eukitea lez da.

I V

Zelan jokatu gogamenagaz

Biziz dagigu kondaira eta kondaira dagie jazoten diran gauzak. Gauzok batzuk gizonak eta emakumeak jaso ta euren gogamen-gelan gorde ta zainduak dira. Gordetako onei buruzkoa da gure jarduna.

Gogamenez be Jainkoaz alkartzen da arimea itxaropenean. Ez daukaguna da itxaroten doguna. eta zenbat geiago euki, gaitasun gitxiago itxaroteko; beraz, itxarokizun gitxiago. Ortik, arimeak Jainko ez diran itxuraz ta gomutaz jarei itxi gogamena, geiago berau Jainkoagan ipiñi ta utsago eukiko dau bere gogamenaren betetasuna Agandik itxaroteko.

Jainkoaren itxaro garbi ta osoan bizi izateko, barriz, era ta irudiak burura jatorkozanean, eurotan iraun barik, bioa arimea Jainkoagana, gomuta orreitatik uts eta biotz maitekor, gauza orreik ainbat artu bage bere eginbearra ulertu ta betetako bere gogamenak eskatzen dautsona baiño geiago.

Eta euren kutsurik ariman itxi ez dagien, ez ezar areitan txerarik ez gustorik. Ezpei laga gizonak zer egin eta zer jakin bear dauan. Jaubezko txerarik ezpadauko, ba, ez dautso kalterik egingo.

Irudiak dirala-ta, ez uste onartzen dogunik, ezta urrik be, giza-
seme ustelkorren irakatsia; oneik, ba, Satanas'en arrokeriz ta be-

kaizkeriz, eleiztarren begi aurretik kendu nai izan eben bearbearrezko oitura, Jainkoaren eta santuen irudiak gurtzeko egintza bikaiña. Gure ikasbidea ezta areinaren antzekoa.

Ez diñogu ez, areik lez, ez dogula irudirik gura, ta gurtuak ez daitezala izan. Errazoiketean jardunik, ikusi daigun Jainkoaren eta irudi orrein artean zelako aldea dagon. Guk erakusten daguna da, pinturaren bitartez, bizira jo bear dogula; irudian ez dala iraun bear, gogozkora eltzeko bear dana baiño geiago. Bidea, erdikoa, ona ta bearrezko, azkenera eltzeko. Irudiak onak dira Jainkoaz eta santuakaz gogoratzeko.

Erdia, erdia baiño geiagotzat artzen danean, debeku egiñez jausgarri da, eta bestelako gauza batek lez eragotzi egin oi dau bidea. Baiña nikgeiago daukadaz begi aurrean izadi gainetiko irudi ta ikuskariak, iruzur eta galzori askoren iturri ditugu-ta. Oroitu, gurtu ta begirune izatea Eleiza Ama deunak aurrean jarten dausku-zanai, ez daukazu ezetariko engaiñu ta iruzurrik, euretan eurak iruditzen dabena aintzat artzen da-ta.

Irudien gomutak mesedea, obaria dakartso arimeari, orretan bai datza lotua itxuratzen dauanaren maitasuna. Ortarako bakarrik ba'ditu irudiak, Jainkoaz alkartzeko lagungarri izango jakoz. Jainkoak bere grazia emoten dautsonean, alan be, gauzaz oso-osorik aaztuta.

V

B) Naimena

Eraz eta kirian-kirian ekin nairik, arimea Jainkoaz alkartzeko bere iru aalmenetan gertatu lanean, adimena garbitu dogu lenengo fede-birtutean oiñarriturik, orobat egin dogu ondoren gogamena-gaz itxaropenean oiñarriturik; eta orain naimena garbitu bear dogu goi-maitasunean. Fedean sustraia daben egintzak, izan be, biziak dira eta balio aundikoak. Au barik, ostera, balio gitxi dabe Santiago'k diñoanez: *Illa da egin onik bako fedea* (Sant. 2, 17).

Gizona ez dago lur-gaiñean jan eta edan egiteko bakarrik. Jainkoa dau aita eta Semeak ba-dau aitari zor dautson maitasunari erantzun bearra. Darabilgun gai onetan eder be eder ekarriak ditugu Testamentu Zarreko Itzok: *Jainko zure Jainkoa, biotz-biotzez,*

zeure arima ta indar guztiz maite izango dozu (Deut. 6, 5). Emen daukat gizonak egin bear dauana eta espiritu-zaleak batez be zelan jokatu bear dauan Jainkoaz alkartzeko goi-maitasunez naimenezko bata-sunean. Emen agintzen jako gizonari jainkotan erabilli daizala aalmen, griña ta lera guztiak, espiritu-zko arretak, bere bizitzako gorputz-adimenari buruzko indarrak eta biotz-zirkiñak. Arimearen indar eta kemena, guztiz, izan bedi ortarako.

Arimeak indarra bere aalmenetan, griñetan eta leretan, naimenak oro zuzenduta, aurrelari dala. Eta oneik Jaunagana zuzendu ta Au ez danetik danari alde eragin eta ezesten danean, orduantxe gorde oi da arimearen indarra Jainkoarentzat eta orduantxe, ain zuzen, indar guztiaz maite dau Jainkoa. Gogoak ori egin dagian, naimena garbitu bear dau lera txar guztietatik.

Lau dira lera oneik: poz-atsegiña, itxaroa, miña ta bildurra. Lerok, errazoiak eskatzen dauanez, Jainkoagana zuzendu ezker, au da, arimeak ez daiala izan poz eta atsegin beterik Jainkoaren aintzarako diran gauzetan baiño, ez beste ezeren itxarorik izan, ez miñik izan oni buruz ezpada, bildurrik izan Jainkoari ezik, argi dago bere indarra ta kalipua Jainkoagana zuzendu ta Arentzat gardeten dauazala. A rimeak, izan be, Jainkoagan barik beste gauza baten poz-atsegin geiago jarri, gitxiago dauko Jainkoarentzat. Orrelaxe beste lera, irrika ta griña guztietan be.

Lerok ez dira ez on eta ez txar. Egia da, eurotatik ernetan dira etenak eta obenak ezi barik dagozanean; baita onak eta birtu teak be, ondo zuzenduak diranean. Eta lera bat bere ibilbidetik dabillenean errazoiari dautsola, beste guztiak be taiutuak dabiltz bakotxari dagokionez; laurak, ba, alkar-alkarturik dagozan lez, bat oraiñetan doan lekutik doaz besteak be muiriez bezela. Eta bat orain bereganatzen ba'da, besteak be bardin egingo dabe ixillik.

Gauzaren baten gozatzen ba'da naia, baita gauza ori itxaron be, eta miña ta bildura ortxe dagoz zelan edo alan sarturik. Eta gauzaren batez poz-atsegiña kenduaz doan neurrian, orrek dakartson itxaroa, bildurra ta miña be galduaz doa.

Ez eizu aaztu gogozale orrek, norantz doan lera bat arantz joango dala erimea be, eta bardin naia ta beste aalmenak; eta lera orren jopuak izango jatzuz guztiak. Beste iru lerak bizirik jarraituko dabe aregan, bere mende eukiaz eta naigabetuaz. Ez dautso itxiko

begiztatze (kontenplaziño) gozoaren askatasunezko atsedenera egaz egiten.

Orixegaitik iñoan Boezio'k, *egia argi aratzez ulertu nai ba 'dozu, uxa eizuz zeugandikpoz-atsegiñak, eta itxaropena, bildurra eta oiriazea*. Lerak eta griñak arimearen jaube diranean, ba, ez dautsoe oneik izten arimeari berez ta gañez jakituria artzeko bear diran nasaitasuna eta bakea eukiten.

VI

Onak eta txarrak

Arimearen lera edo pasiñoetatik naimenak zuzendu bear dauan lenengoa poz-atsegiña dozu. Naiaren pozkari da poz-atsegiña gozo-atseginkor jakon zerbaitek sortutakoa. Naimena gozatu oi jatzu miretsi ta pozgarri jakozan gauzaz. Poz *eragille* dozu, arimeak argi ta era bereziz gozatu oi dauanean gozatzen dauana ulertu ta gozatu edo ez gozatu bere eskuan dagoanean.

Ba-da beste poz-atsegin bat, artzale deritxona. Onetaz gozatu daike naimenak argi ta bereziki ulertu barik iñoiz bai poz-atsegin ori zergaitik dan jakin barik be.

Gakiozan orain poz-atsegin eragilleari. Au etorri leiteke sei gauza edo lerraoneitatik: aldiko, berezko, zentzunezko, oiturazko, izatez-goitiko eta espirituzkoetik. Zer guztiotan ikusi bear dogu naimena Jainkoagandik aldendu ez daiten.

Garrantzi aundikoa dozu au, berau bai da bide onetan zuzendu bear gaitun argia; beronen bidez baita ulertu bear dogu zientzi au, eta aitatu ditugun on guztietan Jainkoagana arteztu poz-atsegiña.

Auxe da bidea: Ak atsegiña artu bear dau bakar-bakarrik Jainkoaren aintza ta onerako diran gauzetan. eta guk Jainkoari emon gengikeon osperik aundiena; Ebanjelioak diñoskunez bera zerbidutea da. Ontatik aldendu ezkerro, ez dago ezer giza-semearentzat balioko danik, ez protxurik.

Lenengo lera da aldiko ontasunen poz-atsegiña. Onei deritxegu ontasunak: euki, dirutza, egon-mailla, ogibide, ezkontza, seme-alabak, senidartekoak eta abar. On eta aberaski guztiak santutasunerako lagungarri ba 'litzakioz gizonari, eurotan atsegiña artzea bidezko litzake, baiña ia beti pekatu-bide baiño ez jatzuz. Egia

esateko, munduko ontasunak, berez, ez garoetz pekatuta; baiña errez lotu oi da gizabiotza euron matazetan. Eta Jainkoagandik urrin doakigu.

Emendik ateraten da gizonak ez pozik eta atsegiñik artu bear eza daukazan edo euki (eikezan ondasunakaitik, ez bere anaiarenakaitik be. Poztu ta gozatu leiteke bakarrik ondasunak jainkoaren zerbitzurako diranean. Ortarako ezpa-dira, eta betiko bizitzarako bidea seguruagoa egiten ez ba'dabe, buru-loka ta tentela da olako onetan gozatzea. Izan be, Jaunak onela: *Zer aurreratzen dau gizonak, mundu guztia irabazi arren, bere bizia galtzen ba dau?* (Mt. 16, 26).

Semeetan be ezta gozartu bear, asko diralako, aberats, egoera onekoak, eder edo osasuntsuak diralako. Bai, ostera, Jainkoaren zerbitzari onak diralako. Ez seme-alabak euki naita. Arrokeri dozu andreaz gazatzea edo-ta senarraz, ez bai dakie ezkontzan Jainkoa obeto zerbiduten daben ala ez.

Eta egokiez dan zentzun bako gozatze onek arimeari dakazan kalte ez txikiak. Onako gauzetan naia jarririk, bada, espiritu-zale ondatu daiteke ta ondatu egin oi da sarritan: apurretik asita ezbear politak dakaz su-txinpartak, ezereza dala, mendi osoa sutan jarten dau. Kalte onein sustrai ta jatorria kalte gabezi nagusia da, Jainkoagandik alde egitea.

Gabezko kalteak lau ein edo mailla daukaz, bata bestea baiño txarriagoak. Eta Liburu santuan dagoz laurok: *A se arte jan eban Jakob'ek, nire Kutuna gizendu egin da, eta ostikoka asi, lodi, gizen eta errime egoan eta; baztertu egin eban bere Egillea; gerendu egin eban bere Arkaitz salbagillea* (Deut. 32, 15).

Lenengo beraz, munduko izakietan sartu ta asetzea da. Orduan arimeak ez dau sentikortasunik adimenean, eta Jainko-gauzetarako illun-illun egin jako, lainoak eguratsa lez eguzki argiak dizditzen izten ez dautsola.

Bigarrena lenengotik dator, lodi ta gizen dago ta naia errezago doa munduko gauzetara; au da, kezka barik dabil nasai aldiko ondasunetan, Jainkoaz aazturik; ez jakoz eder zeruko gauzak. Adimena illundu jako.

Irugarren kaltera eltzen da apurka-apurka Jainkoa bertanbera iztean. Legea bete nai bete ez, bardin dautso; munduko atsegiñak ez izteagaitik, pekatu astunetan be jausten da. Ezergaitik be ez dabe

eurenetik aldenduko. Ez dira arduratzen betiko bizi-az. Onakoak gogotan Kristok: *Mundu ontako semeak, euren gizartean, argiaren semeak baiño zuurragoak dira* (Lk. 16, 8).

Laugarren maillako kaltea, aitatu dogun textuak dakar ondo: gerendu (dedu rik, lotserik ez euki) *bere Arkaitz salbatzailea*. Jainkoaren legeari biotza erantsi ezik, luditar ondasunakaitik, zikoitzaren arimea urrinduz doa Jainkoagandik adimen, gogamen eta naimeanean.

Ez kalteak bakarrik, onakbe ba-jatorkoz arimeari aldiko gauzak dakarren poz-atsegiñai uko egitetik. Eta au danetan, aundi ta txiki, zuzen jokatu bear. Euki gogoan Kristoren itzok: *Gauza txikian zintzo dana, aundian be zintzo izango* (Lk. 16, 10). Urrian arduradun dana, ugarian be bardin izango. Eta bestera, gitxian ardura bako danak ataka itzala edegi dautso bere biotzari.

Askatasun geiago izango dau olan arimeak, argi-ago errazoa, bakez eta ustetsu-ago dago Jaunagan. Ederrago jakoz pertsonak eta gauzak bizitzan; emengo gauzak itxiz goikoakaz beteten da; obeto ulertzen ditu bertoko ta izalez gaiñetiko gauzak eta buru-austek. Euroi loturik bizi zanean baiño naiko obeto ezagutu ta ulertu oi ditu egiñak eta jazoak. Obari aundiak ekarten dautsoz bere bizimoldeari be. Bizitzeak beste arpegi bat erakusten dautso. leenak gauzen neurritz ekartsozan, oraingoak diñotsa zein guzurti ziran areik.

Alde izugarria daukazu batetik bestera, txarretik onera. Onak maiña dakus, arek, zentzuna areitan tinko daukalako, azala bakarrik; zentzuna, izan be, ezin da barnerairio eldu, eta espirtua, azalekoaren lainoz ta itxu raz gogaiturik, barru-barruraino, egiaren muirierairio eltzen da.

Poz-atsegiñak beste zer askoren artean ezagumena illundu daroa lairioak lez, ezin daitekkelako izan izaki-atsegiñ naiezkorik nai-jabetasun barik. Ezta ezin daiteke izan poz-lerarik biotzean oiturazko jabetasunik ezpada, eta poz-atsegin ukatu ta garbitu ezker-ago ezagumena garbi gelditzen jatzu, gasak urtzen diranean eguratsa garbi-azten dan legez.

Poz-atsegin au gauza guztietan datza, danak arturik legez aukirik. Ezer ez ta dana askatasun aundiz. Paul deunak: *Ustez ezer bagarik, baiña gauza jabe izanik* (2 Kor. 6, 10). Izan be, gizonak naia gauzai erantsi ta lot-erazorik daukana, ez dauka ezertxo be alde-

rantziz, eurak dira gizonaren biotza ondo arturik daukienak. Orixegaitik, jopu doakabe bezela, neketan dago. Beraz, izakietan lotuago biotza, ta naitaez estura ta atsekabe aundiagoz biotza.

Aske ta jarein dan gizona ez dabe larrituten olako kezka ez otoitz-aldian ez andik kanpo; eta olan, aldirik galdu baga, errez egin oi dau bere espirituazko irabazia. Besteari, ostera, aldia joako etenbako inguru biraka bere biotza emonda daukan lokarri gainean.

Espiritu-zalearen egitekoa auxe da: lenengo zirkiñean, atsegiña gauzetara doakionean, geldi-erazo, galgatu ta ezi, emen diñoguna gogoratu: *Gizonak ez dau poz-atsegillik artu bear Jainkoaren zerbitzuan baiño; gauza guztietan A ren aintza ta ospea billatu.*

Au egiñaz, izakien lera ta zaletasunetik garbitzen dau barrua; oneik artzen daben lekua ustua ta aske itxi biotza Jainkoari. Premiñazkoa da au Jainkoak erregali ta mesedeak egin dagitsozan. Ari ta gogaldi au barik, ez ditu emoten. Eta emon be Jaunak on-ugariak emon oi dauz bizitza ontan; bere maitasunez eta Ebanjelioak eskatzen dauan osotasunez izten danagaitik bateko eun eskintzen ditu Jaunak (Mt. 19, 29).

Baiña poz-atsegin interesgarriok dakarrena ezpaltiz be, izakietan poz artuaz Jainkoari emoten jakon atsekabegaitik bakarrik, espiritu-zaleak ito bear leuke bere biotzean. Gogora ondasunak pillotu ebezan aberats ari buruz Kristok esan ebana: *Zoro ori! Gaur gabean bertan eskatuko dautzue arimea; atondu dozuzan gauzak, noren-tzat izango ete dira?* (Lk. 12, 20).

Gauzarik txikerrenak be asmo ta gogo onenaz egin bear doguz beti. Begira daukagu Jauna, ez gu zigortzeko, baiña bai guri laguntzeko eta gauzak egikeran eurretan ipiñitako ardurearen kontua eskatzeko. Kristok onela: *Au dinotzuet: alperrik esandako itz guztien kontua emongo dabela, epai egunean, gizonak* (Mt. 12, 36).

VII

Berezko gauzak dakarren atsegiña

Uskeri da naimenaren poz-atsegiña berezko ondasunetan jartea. Jatorri edo berezko ondasunak dira: edertasun, ganora, jas **ta**-sun, adore eta gorputzeko beste gaitasun oro. Eta arimakoak: talentu, zuurtasun, eta errezoari dagokiozan guztiak. Gizonak

onakoetan jarten dau bere poz-atsegiña, eurotan, Jainkoari esker-
rrak emon ordez, goralpenaren billa dabillenean.

Ori dala-ta bakarrik poztu tea iruzur ta uskeri da. Ontan erakusten jaku gizonak ez dauala uste onik ipiñi bear onako gauzetan, orduan aldendu egin leikelako Jainko-maitasunetik eta, eurak erakarrita, aizekeri ta buru-eritxira okertu. Eder, lirain ta jas aundi-ko, edo-ta jakitun, asko-ikasi ta zurra dalakoan kalez naiz etxerik etxe dabillanak amaika zer-esan zabaldu daroa jente artean. Bera, barriz, ortan gozatzen da; poz-atsegiña, alan be, jarri bear da Jainkoaren zerbitzurako danean.

Jainkoaren zerbitzurako ete dira sarri berezko doe ta esker-graziak? Gizaseme naiz emakumezko bat arrisksuago da, bai beretzat eta bai besteentzat, ain eder ta jantzia ez dan beste bat baiño, nobere uste zoroz edo besteak lera gaiztoaz beragantzen dabezalako. Beraz, gaitasun orrein jaube dana, erabide ta modu onez jantzita ibilla bearrean dago, iñori biderik emon ez dagion bere biotza Jainkoagandik urrindu-azoteko.

Txepel ta epel biurtzen da berezko doe ta gaitasunak damoen gozo artean jausi dan espiritu-zalea. Poz-atsegin danak dakarskue au, baiña modu apartekoan berezko gaitasunak. Sei kalte larri beintzat zenbatu daikeguz, eta lenengoa dozu, urko lagunaganako *destaiña*. Ezin nobere burua jaso, besteak beeratu barik. Eta au ez dogu biotzez bakarrik egiten, baita miiñez be, esanik: dala edo dalako gauza, ui-lia edo urlia pertsona, ez da a edo bestea dalako. Bigarrena errez gaaroezala *lizunkerira*, geure doe ta edertasunak ezagutu ta zabal-aztea atsegin jakulako. *Leunkerira* goaz arin, edo geure zerak aizatzea laket jaku, irugarren kaltean jausiz. Erra oia ondoren *sogortu* egin oi da. Bostgarrenez, adimena izakietan *besteratu* eta azkenez jatortzuz auleri ta nagia jainko-gauzetarako.

Igarri barik artzen dan pozoia dozu txar au. Eta berau zeugandik jaurtzeko ona errezeta bat: lurreko doe ta ondasunez biotza eragin-da daukazunean, gogora zaitetz Jainkoaren zerbitzurako ez dan zerbaitez gozatzea, kirtenkeri galanta dozula: kaltegarri ta arrisku-tsua oso. Gogora baita, zertarako izan jaken aingeruai euren edertasunean eta berezko onetan atsegin izatea.

Beste aldetik, askotxo dira, bere poz-atsegiña berezko doe ta ondasunetan ipinten ez dauan arimeak eskuratzen ditun onak. Gai egiten da aurrenik Jainkoaren maitasunerako, eta beste birtuteak

bereganatzeko, apal eta goizale Ikusten diran gauzen bidez berezko ondasunetan biotza loturik geratu ez jakon ezker, jarei dauka arimea sare-arte guztiotatik, argi ta garbi guztiak gogoz ta indarrez maite izateko, Jainkoak nai dauan lez gu alkar maite izateko. Eta emetik ezagutzen dogu iñor be ez dala maitasunaren duin daukan birtute ta onagaitik baiño.

Olan maitatzen danean, Jainkoz maitatzen da guztiz, eta askatasun aundiaz, eta eraspén-legez bada, geiago da Jainkozko eraspén-legez. Maitasun au gora, Jainkoarena aziagoz doa, eta Jainkoarena azten dan neurrian urko-lagunari dautsoguna be aziatz doa. Jainkoagan dana, ba, errazoa bardiña da, eta zioa be bat bera.

Ainbat probetxu lortzen ditu arimeak poz-atsegiñoi uko egitean. Bat, Kristok esana bete: *Nire ondoren etorri nai dauanak, uko egin beio bere buruari* (Mt. 16, 24).

Beste obari edo probetxu bat, ez txikia. Arimeak somatzen dauan barealdi ta ez-titasuna, zentzunen batua, begiena batez be orren gozotasunik ez bait dau gura, begituz eztau alperrik aldia emon, ezta ez dau nai beste zentzunak orretan iñardu daitezunik ez dau opa. Suge zuurrak be orixe dagi, lilluratzaillearen berbotsik ez entzuteko, belarriak itxi (Salm. 57, 5). Arimearen ateak, ots, zentzunak, zaindu ezketiño, ba, asko egiten da, eta barru garbia ezti dago.

Au be bai jazoten da; gauza ta barri zantarrak ez diñotso ezer, ezta loikerirako biderik emon be. Beraz poz-atsegiñari uko egiñaz eta zentzunak ilduratuaz gizon espiritualari arima ta gorputzeko garbitasuna jatorko, au da, gogo ta zentzunarena, apurka apurka bere arimeaz eta gorputzaz Espiritu Santuaren jauretze **Eta** au eziña da bere biotza berezko on-edertasunetan barraiatua badabil.

Milla uskeritik askatzea be ez da probetxu makala; diñoguzan uskerietan dabillena, Izan be, bera ortaz konturatu bage, zoritxar aundian nastauta dabil. Arroak albora itxiak dira toki guztietan; apalak, barriz, ondo ikusiak eta miretsiak. Ez jatzuz sartzen munduko zor-bideetan, Jainkoari begiko jakozanetan baiño.

Probetxu guztiotatik azkena; arimearentzat on ezin ohea, Jainkoaren zerbitzurako noraezkekoa; espirituak bear dauan askatasuna; onegaz errez azpiratzen dira arerioen zirikaldiak, neke-min eta atsekabeak aise erooten, eta birtuteak onez doaz azirik.

VIII

Zentzunak dakarren poz-atsegiña

Zentzunak ba-dabez euren on-atsegiñak. Eta izan daiteke atsegiña ikusmen, entzumen, usaimen, txastamen eta ikumenetik eta, baita, irudimenaren barru-tresnatik sortua. Dana dozu gorputz-zentzun barruko ta kanpokotik jagia.

Emen gauza bat onartu bear da: gizonaren beeko zentzuna ez da ta ezin daiteke izan be, Jainkoa Jainko lez, ez ezagutu eta ez ulertzeko gauza. Begiak ezin ikusi daike ez Aren antza dauan ezer; ez belarriak entzun Aren aotsik, ez Aren antza dauan soiñurik; ez usainmenak usainki ain gozorik artu; ez txastamenak gozo ain bakana jaso; ikumenak ezin dau autemon ikutu ain mee ta atsegin-korra; ezin daiteke sartu adimenean, ez irudimean aren itxura ez beste irudirik, Isaias'ek eta Paul deunak diñoenez: *Thoizez begik ikusi eta ez belarrik entzun ez dauana* (Is. 64, 4; I Kor. 2, 9).

Zentzunak artu dagikee gozo ta atsegiña, espirituaz, Jainkoak barne-bidez egindako artu-emonetik, edo-ta zentzunetatik sartzen diran kanpoko gauzen bitartez. Alderdi sentikorrak ezin dau Jainkoa ezagutu, ez espirituz ez zentzunez. Bera gai ez izatean orren gora eltzeko, gogozkoa artzen dau eta sentikorra zentzunez, eta besterik ez. Beraz, naimena oneitako gauzaren batez gozatzen, gitxienez arrokeria litzateke, eta ez leuke naiak bear aiña kemen izango Jainkoaren ezkutuan sartzeko. Eu ezin dau osoan egin naimenak, garbiketa egiñaz zentzunen gozo-atsegiña illun jarri ezik.

Noiz jakingo ete dot zentzunen atsegiña probetxuko jatan ala ez? Eresi ta musika atsegiñak edo-ta beste olakoak ikusi, entzun, usaindu ta abar egitean, pentsamentua ta borandatearen *naiia* bat-batean Jainkoagana egaz ba'cloa, au atsegiñago ba'jako musikea, usaiñak eta abar baiño, ezaugarri da, sentikorra probetxugarri dana; espirituari lagungarri jakola.

Orrela ba'da, zoaz aurrera. Gauza sentikorrak, ba, Jainkoak ipiñi utsoen arloan dabiltz, euren Egillea geiago ezagutu ta maitatutik. Zentzunetatik ondoren garbi espirituala artzen dauanak, ez dau ori dala-ta lerarik eta ez dautso ardurarik areikaitik, eskintzen jakozanean gusto aundia emoten dautsoen arren, Jainko poz-atsegiña

dakartsoe-ta, naimena bereala urteten da areitatik, areik itxi ta Jainkoagan murgiltzeko.

Gauzok ez dautsoe biotzean ikutu aundirik egiten, Jainkoagana joaten lagun jakozan arren; Espiritua bizkor doa Jaunagana osorik eta betean, Jainkoazko espirituz gaiñezka, gertu ta doatsu bait dabil, ez dau ezer falta, ezta gura be. Eta gura ba'leu onetarakoxe, aita baten urtzen jako, aaztu ta ez dautso kasurik egiten. Gauza ta gusto oneitan espirituzko askatasunik sentitzen ez dauanak, eta bere naia gusto oneitan lotu ta geldi daukanak, kaltegarri jakoz eurok eta eza emon bear dautse. Errazoia, ba, Jainkoagan joateko erabilli nai izanda be, irrirsak zentzunkoiak diralako nai izan arren, eta lera gustoaz egoki etorri, ziurrenik ez jakoz lagungarri eta bai zoztor eta eragozpen.

Onela jokatu bei, beraz, espiritu-zaleak, zentzuketik, naiz berez naiz ala naiezkoa izan, datorren edozein gustorekin, ortaz baliatu bakar-bakarrrik Jaikoazko ar-emonetarako, Aregana jasorik arimearen poz-atsegiña onurakor izan daiten, oso ta probetxuko; orrela eztan gozotasun guztia, izan be, edozein gozo ukatzen dauana dozu, baita itxuraz goi-goikoa begitanduta be; utsala da, probetxu bakoa eta naimenari Jainkoaz alkartzeko poxelu ta eragozpen dana.

Zentzunezko onetan naimenaren atsegiña jarten dauan arimeak gaitz oneik beragantzen ditu: Errazoia illundu, epelkeria ta gogozko lanerako iguina. Irurok berariz aitatu arren, beste asko dira, bai espiritu aldetik eta bai gorputz-aldetik.

Ona batzuk. Jainkoaren ezkutu atsegiñera joan al izateko *gauza ikusgarrien* gozotasuna ez ukatzeagaitik, arrokerian jausten da zuzen-zuzen eta nasaitasunean, goregi jar-gura, lizunkerri, barruko ta kanpoko naste, pentsamentuzko likiskeri eta bekaizkeri.

Alperreko gauzak antzu teak dakarren poz-atsegiñak sortzen ditu irudimenak bultzatuta zabarkeri, berbontzikeri, ondamu, eretxi oker, eta pentsamentuaren goraberak. Oneitatik jagi oi dira beste asko ta galgarriak.

Usainki lleun-bigunetatik, edo-ta orreitatik gozo-atsegiña artzetik sortzen da ez-euki ta txiroakanako nazka, Kristok erakutsiaren aurka doana; mende dagozanakaz kirrimarri ta okerrak; biotz-samurtasunik eza gauza apaletarako.

Jatekoen gozotasun gozotik zuzen datortzu sabelkeri ta mozkorkeria, asarrea, burruka eta urko-lagun eta ez-eukienganako maitasunik eza. Ortik dozuz ondorenez gorputzeko makurrak, gaixoak; mobimentu txarrak sortzen dira, loikeriaren akulakadak azten diralako. Espiritua, be lur jorik gelditzen da, jainkozko zerbitzura-ko batez be.

Gauza bigun-leunetatik ernetako *ikutu* gozotasunez euki oi dira kalte askozaz geiago eta kaltekorrak, laster zentzunetik espiritura igaroaz il-azten dabe onen kemena ta mardultasuna. Eta emetik jaioten da lizunkerirako griña zantar-zantarra, eta ondorengo garrara. Gizonaren gogoia onek bildurti ta okel biurtu oi dau; zentzuna, barriz, gogo-zaku ta atseginor, pekaturako beti gertu.

Guzurrezko poza ta alaitasuna ixuri daroa biotzean; miin aske da, begi aske, eta lillurazo oi ditu beste zentzunak be; azkenez zorabiotu irrits eta gurariaren neurrira. Erretxia naspiltzen, jakitatez eta espirituz mekotuz; eta moral aldetik koldartu ta urduri egiten zaitu. Arima illun eta biotza makal, bildurrik ez dan lekuan be bildurra jarten. Poz-atsegin onek batzutan espiritua be azpikoz gora ipinten dau, barruko sentikortasunik eza sortuz eta errazoia indargetuz.

Beste alde, arrigarria da poz-atsegin au ukatzetik ateraten diran probetxuak. Zentzunen eskabideak ezetsi ta Jainkoagan tinkotzen zara; espiritua ta birtuteak zaindurik, aziaz doa ta bidean aurrera. Bigarren, bikain egiaz egiten dan aldakuntza: zentzunkoi zan gizona espiritukoa egiten da, abere zana errazoikoi, aldiko ta gizaki zana jainkozko ta zerutar zentzunai dagokiezan gauzetan atsegiña billatzen dauan gizonari lurkoi deritxogu, beraz sentikor gauzen gaiñez dabillen arimeari zerutar, espirituzko esan geinako.

Irugarren obaria: arimeak gaiñezka egiñez, bizitza onetan be, eurrez artuko ditu naiaren frutu ta pozkarioak. Atsegin bati uko egiñik, eun bider geiago artuko, begiak garbituz arimeak espirituzko poz-atsegiña Jainkoari sagaratuko, eta orobat beste zentzunena be, garbi ta aratz eskiñiaz. Errubako bizitzan egozan gure lenengo gurasoai, paradisuian ikusi, jan eta mintzatu oi eben guztia gozotasun geiagorako jaken, jainkozko begiztatzerako, alderdi sentikorra errazoiaren mende ta eratua eukelako. Era berean, zentzunak garbi ta espiritua azpiko egiñik daukazanak, lenengo zirkiñetik atera oi dau Jainkoagazko begitu jori gozoa.

Garbi ez danak ez dau garbirik ikusten; garbi danak, ostera, etenbako gozotasuna eukiko dau Jainkoagan, aren sorkarietan eta egiñetan. Zentzunen eta aalmenen egite guztiak, zentzunez bizi ez danarenak, Jainkoa ikustera zuzenduak dira. Jakintza artezak diñoskunez, gauza bakotxak, daukan izateari edo bizi dauan bizié tzeari dagokion egintza dau. Arimeak, beraz, abere bizia menperaturik espirituzko bizitzea ba'dagi, argi dago, bere egin eta indar guztiak, ezeren eragozpen barik, Jainkoagana doozanak, mundu onetako zeregiñetan be poz-atsegiñak aundi ta beteenak aurkituaz.

Labur: gizona, atsegin sentikorraren garbiketara zentzuna egié ñaz, lenengo soin-zirkiñetik gauzak Jainkora azkar bultz eraginda, gauzak dakartsoen atsegiña ukatzen jarraitu bear dau, arimea bizi sentikorretik aterateko. Eta gauzetako gozotasuna oraindik ezteko daukanak, ez bei ortan indarririk erabilli, onek espirituari laguntzen dautsola uste izanik. Arimearen kemena indarragotuko da, sentikorrakaz naste baiño.

Onek beste bizitzan daukazan aintzako aberaskiak, ezin esanak dira. Aintzazko gorputz doenaz gaiñera -bizkortasun eta argitasun- euren zentzunak ukatu ez ebezanak eukiko dabezanak baiño askoz eder ta joriagoak izango dira; arimearen izatezko aintza Jainko-maitasunari dagokionez geitua izango da; une bateko gozotasun ukatuagaitik, Paul apostoluak diño: *Apur bateko gure atsekabe arin onek neurri ezin alako aintza aundia ta etenbakoa sort-erazten dausku* (2 Kor. 4, 17).

I X

Birtute moralak

Emen artu ta aitatzen dira oiturazko ta ekanduzko egiteak, onak jakiña, errukizko egintzak, Jainko-lege ta aginduak, alkar-maitasunak, ar-emon onak eta ezikera leialak eskatzen dabezean zerak. Gizonkoi itzegiñez, estimagarri ta maitekor dituzu birtuteak; ortan jardun bear dabe gizonak eta emakumeak edergaillu diralako gizarte-bizitzarako be. Begira antxiñako filosofu ta jakitunak eta erregeak zelan alegindu ziran euron jaube egiten. Jainkoak, orrez gairi, on guztia eder jakota, naiz jentillengan izan, bizia luzatu, ospe ta deduz aberats egin eta lege zuzenak jagoten ebezalako, lagundu ta zaindu egiten zituan.

Oiturazko on oneik maite ditu Jainkoak. Salomon'ek erakutsi egiola entzun-azten, eskatu eutson, bere erria jaurri ta artez eroateko, eta onaren eta txarraren artekoa bereizten jakin egian. Jaunak ondo eritxi eutson eskaria, eta esan eutson: *Ori eskatu dozun ezkerro, eta zeuretzat bizi luzea, aberastasunak..., bearrean, erabagi zuzenak emoteko sena bairio, zeuk eskatu dozuna emongo dautzut, eta eskatu ez dozuna be bai: biotz zuur eta jakituna, zure aurretiko iñok be izan ez dauan lakoa, eta ostean be iñok izango ez dauan lakoa* (I Erreg. 3, 8-13).

Kristiñauak poza artu bear dau oiturazko egite onetan eta egiazko frutuak dakarrezan gauzetan. Bere pozak, alan be, eztau jentil batenak lez, emen gelditu bear, bizitz ilkor onetatik gorago eltzen ez danaren antzera. Arima goizaleak Jainkoagan ipiñi bear ditu begiak bere oitura on eta birtuteakaz Jainkoaren ospe ta aintza aziagotzeko. Gogora Ebanjelioko amar neskatxak.

Au be izan eizu aurrean Egitada onen -barau, limosna, penitxentzia- olakoen balioa, ez dator eurok sarri egitetik, zelako zaleztasun eta zelako Jainko-maitasunez egiten diranetik baiño. Oso, bete ta ederragoak dira Jainkoaren maitasun garbi ta gartsuagoaz egin oi diranak.

Emen be ba-dogu arriskurik. Zazpi kalte era sortu leikeguz egitada on eta ekanduetan poz-atsegiña jarri ezkerro. Kaltegai gaiztoak, gaiñera, espirituzkoak bait dira. Batetik bat, buru-erexia, arrokeria, uskeria ta burgoikeria, onein gozotasunik ezin bait dogu euki eurok onartu barik. Ekar gogora Ebanjelioko pariseutarra. Jaunaren aurrean eta, barauak eta egintza onak dagizala-ta, arroputz. Gaur batzuk, a baiño be zitalagoak jatzuz, esanik: "Ez naz urlia langoa, ez dot egiten au edo bastea onek eta arek lez".

Bigarren erakoak, pariseutarra baiño gaiztoagoak dira; oneik ezin dabez ikusi besteen egintza onak, eta iñoiz goralpenik artzen ba'dabe, sumindu egiten jatzuz.

Irugarren klasekoak, jente aurrean dagiez egintza onak, eta txaloak eta goralpenak opa dabez: olakorik ez dabenean, goibel jarten dira.

Laugarrena da, ez dabela olakoak Jainkoagandik saririk artuko. Emen nai izan dabe, ta emengoarekin geratuko. Jaunak onan: *Zuek, otoiiz egitean, ez zaitez azalutsak lakoak izan; orrelakoen atsegiña, sina-*

goetan eta kale-buruetan zutik otoitz egitea da, gizonak ikusi dagiezan; benetan diñotzuet: artu eben euren saria (Mt. 6, 2).

Bostgarren kaltea da, ez dala aurreratzen santutasunezko bidean. Euroi gogoko ez jaken oztoporen bat agertzean, egiñari ta egitekoari agur egiñaz, artutako bidean porrot eginda geratzen dira. Jainkoagan barik, euren egiñetan jarri dabe eder jaken gozotasuna.

Seigarren, uts egiñik dabiltz atsegin jakezan gauzak eta lanak ez jakezanak baiño obeak dirala uste izanik; areik txalotzen dabezala, oneik ezesten. Zabal dabil au, bai kale-gizonetan bai espiritu-zaleetan.

Zazpigarren kaltea dozu, gizonak jarten ezpadau bere poz-atsegin utsola moral-egintzak dakartsenean, ez da gauza egin bear leukenari buruzko errazoizko kontseju ta irakatsirik artzeko.

Eta probetxurik? Ez gitxi be. Etsai ta izterbegi asko daukazuz ostendurik egintza onen sareetan. Deabruak be berea dagi. Job-ek diño: *Lotondopean etzuten da, eta zingirako kañaberartean ezkutatzan* (40, 21). Zingirako ezotasunen eta kaiñaberen utsunean ziria sartzen-dau deabruak. Baiña ortaz aske dago garbitua ta Jainkoaz alkartua.

Egiñak, eder-osoagoak dituzu. lera atsegiñik bada, ostera, eziña jatzu au. Zakarra laster joatzu sumiñera, eta lausotzen jatzu errazoia; esku artean daukazuna itxi ta beste lei batek zarabiltz. Lan orrei loturik ezpa-zagoz, barriz, gogoz txiro egiten zaitu, eta Kristok: *Zorionekoak gogoz beartsu diranak, areik bai dira Jaurerriaren jaube* (Mt. 5, 3).

Poz-atsegin au ukatzen dauana apal-otzan eta zurtasunez betea izango da lan egiterakoan ezta ba ezer egingo poztasunaren sumiñak eraginda.

Eder ta gogoko izango jake Jainkoari, eta gizonai; on-gose, dirumin, txibizkeri, zabartasun, espirituzko bekaizkeri eta beste milla griñatik aske izango dira.

X

Izatez-gaiñetiko birtuteak

Gure izatearen gaiñetiko onak dira Jainkoak emondako grazi ta doai guztiak, berezko birtutea eta aalmenak gainditu ta eragiten

dautsenak. *Gratis datas deritxe*. Oneitakoak dira Salomon'i emonda-ko jakinduri ta zurtza, eta Paul deunak aitatzen dabezan doeok: *Fedea, mirariak egitekoa, igartekoa, espirituttak bereiztekoa, izkuntzak egitekoa ta berbak argitzekoa* (I Kor. 12, 9).

Gogozkoak dira on oneik, baiña danak ez dituzu bardiñak. Paul deunak: *Batzui Espiritu Santuaren eragin ori, diranen onerako emoten jakez* (I Kor. 12, 7). Espirituko onak, ostera, arimearen eta Jainkoaren artean emoten diranak dozuz, adimenaren eta naimenaren arteko artu-emon gozoan. Elburuan dago alde: espirituala.

Egillea ta arimea dira bakar-bakarrik; izatez goitikoena, sorkariak. Aldea dago baita mamiarian; beraz, egintzan eta, orregaitik, irakatsian.

Eta izatez goitiko doai ta graziak dakarren alperreko gozotasuna garbi-azteko egoki jaku gogoratzea on oneik emon daroen aldiko ta espirituzko probetxua. Aldikoa: gaixoak osatu, itsuai ikusmena emon, illak berbiztu, deabruak jaurti, geroa iragarri ta olakoak. Espiritua: ezagutua ta serbidua izan daitela Jainkoa egintza oneitan, batez be nork egiten dabezan, nortzukaitik egiten diran eta nortzuren aurrean gozoan eukirik.

Egite ta arrigarri oneitaz, bateren-bat probetxozko balitz egiten dabezarentzat, Jainkoak emonikoak izango litzatekez. Eta Paul apostoluak: *izkuntzetan itzegingo ba 'neu, baiña mai tasun bage ba 'nin tz, durunduka diarduan kanpai nintzake, zarataka diarduan txintxifia* (I Kor. 13, 1-2).

Gizonak, ba, ez dau poz-atsegiñik artu bear grazi ta doe askoren jaube dalako, eurak erabiliz Jainkoa otseintzen dabelako baiño; ortik eskuratuko dau geroko bizitzarako frutu ugari joria.

Izatez-goitiko graziak be ukatsetik lortu geinkez obariak eta mesedeak. Lenengoa da, Jainkoa aundi-etsi ta gorestea, eta bigarre-na dozu, arimeak bere burua gora jaso. Gogoak Jainkoa goretsi daroa Jainko ezdan gauza guztietatik bere biotza baztertuaz, Egille-gan bakar-bakarrik poz-atsegin betea izan daian. Orrela Jainkoa goresten dauana Jainkoak berak goretsi oi dau, goratze orretan bada Jainkoak arimeari erakusten dautso. Bera nor dan; au, baiña, ez da lortuten naiaren poza ta atsegiña kendu ta bota ezik barrutik, orduan, bai, geure barrena eremu jarri dogunean, orduantxe baka-rik, bere jauretxean, bere indar eta aintza zabalean ikusiko.

Gozotasuna ta poza Jainkoari bakarrik egotziz, aintza ta gurentasun geiagoz jaku agertzen; izan be, gauza aundiagoak beste bategaitik ezetsi. Egiago ederretsi ta goratzen. Jainkoa zenbat eta geiago mirari ta olako barik siñetsi ta goratu, arimeak geiago siñetsi ta maitatu oi dau Jauna.

Eta arimeak edu orretan bere buruari goralpena emon oi dautso. Naia baztertuz mirari ta gauza arrigarri guztietaz fede garbi-garbian goratzen dan Jainkoak ixuri ta indar-azten dautsolako bizi-bizi; batera goi-maitasuna ta itxaropena be azi ta ugalduz. Jainkoaren irakatsi ta albiste gurenen jaube egiten da fedezko illun utsez.

Esan eziña dozu gizaéalmenak ontan artzen daben atsegiña. Eta guzti au probetxu izugarria da arimearentzat, jainkoagazko batasun oso-osorako lagungarri jako-ta.

Gai onek, agortu gaitza dozulako, beste ikuspuntu asko daukazan arren, esanaz naikoa dala deritxat.

XI

Eleiz-irudiak

Askotxo izentatu geinkez espirituzko on atsegingarrien artean naimenean sartu daitekezanak. Onein artean bi eleiz-irudiak eta argazkiak. Oneitan egon leiteke naiko arrokeri ta buru-eritxi. Eleizeak onartuta daukaz eleiztarren eraspenna ta deboziñoa indar-azteko; beraz, ondo jatorkuz geure nagikeriari eragiteko. Baiña pertsona asko dira eurak iduriten dauen baiño dauken margo ta apainduran poz-atsegiña jarten dabenak.

Eleizeak irudien usadioa sartu eban elburu bigaitik: santuai lotsa izan eta agur egiteko, eta gero naimena sustatu ta irudi orrein bitartez santuekanako eraspenna sort-erazteko. Elburuok lortu ez-kero, onak eta probetxugarriak dira eleiz-irudiak. oneitatik autu bear daguz ondo eginda dagozanak eta deboziñora geien garoazanak. Au izan begi aurrean, irudiaren atsegintasun eta bitxi-apaingaian baiño, au da, ikusi-eziña danagan baiño, zeru-goitik lagundu oi dauskunagan adiera ta oarpen geiago jarriaz.

Batzuentzat santu au izan bear dau ta bestea ez, jantzi onegaz Doloretako Ama, Kristo illobian, San Juan, eta abar. Zenbat eta zelako istilluak, deboziñoa osorik uxatzen dabenak! Ez-jakiñaren

biribila! Batzui konfiantza geiago dakartsoe irudi batzuk, beste batzuk baiño, Jainkoak onen bitartez aren bitartez baiño ariñaongo entzungo dautsela uste izanik. Jainkoak, baiña, geiago begitu daroa zelako fedez eta biotz-garbiz egiña dan otoizlariaren eskaria.

Gure Jaunak sarri mirariak egiten ditu urrin eta bakar dagozan ermita eta irudien bidez. Erromes-ibilteak indartu daien maitasuna ta eskaria egintza garbiagoz eldu daiten santuagana; baita jentea zarata-otsetik eta barbaillatik asago joan dedin be, Jaunak egin oi eban legez. Origaitik, peregrinaziñoa dagianak, ondo egiten dau beste jenterik ez doanean berak egiñaz, beste egun naiz beste aldikada baten izanaz be. Nik ez neuskio iñori esango jente asko doanean egiteko, geienik bada, joan ziranean baiño nabarmen eta galduago itzuli oi dira. Askotxok eraapenez baiño ibilte ta turis-moz geiago artzen dabez erromes-ibilteok.

Otoitz eta erregu lekuak dirala-ta beste ainbeste esan bear. Pertsona batzuk irudi batzuk eta beste batzuk euren eleizan edo etxeko otoiztegiaren izan bear dabe, eurakjantzi ta apaindu daroezan moduan, euren eleizea naiz otoitz-lekua ondo jantzia ta ondo ikusia izan daiten. Onagaz, baiña jainkoa ez dabe maiteago, gitxiago baiño, iruditzen dauanari kentzen dautsoelako margo apainkatu areitan jarten daben gustoa.

Txalogarri da eleizak ondo atonduta, txukun eta garbi eukitea. Jainkoari emonagaz, alan be, Berari dagoliona. Gure errien -Euskal-lerrian- mendi ta troka baseliza ta ermitaz beterik dagoz, gure aurretikoen fede-ezaugarriak. Eurok barriztau ta dotore eukitea, egiteko bikaiñ-bikaiñik dira. Urte barruan zaindu ta Santuaren egunerako apain-apain jarrea euskal fedearen eskabide.

Eleiza ta otoiztegiak Jainkoari zerbitzu egiteko ditugu bakar-bakarrik; beraz, ez sartu orretaz naste beste elburu batzuk: ez ornidu ermitak tresneri -zaragi, bonbil eta kutxa- eta itsuskiz. Olan deabruak egin oi dau bere feria, Santuaren jaiaren eta inguruko egunetan.

Ez daigun Jainkoa naigabetu; ezta Santuakbe. Jainkoak ez daijala esan: *Erri onek ezpaneaz goratzen nau, baina euren biotza Nigandik urrin dago. Arperrik gurtzen nabe* (Mt. 15, 8-9).

GAU ILLUNA

SARRERA

Arimea, asi ta ibiliz, neke ez gitxiz bear bada, igon da Karmel tontorreraiño. Alegiñak bota ditu bidean, soiñeko apain dotorez jazteko, Jainkoaren aurrean eder ta duin agertzeko; saiatu da lan eta lan ezteguetara lez pitxitu ta gogoa oituraz eta birtu tez ondo bikaiña agertzen, Jainko onari gogoko izan dakion. Ainbat denpora erre dau orretan, dan guztia, barru ta kanpo, edertzeko lanean.

Eta orain? ezta oindiño bere Egille dan baizen garbi ta eder; ez, ezta. Arekin bete-betea alkartzeko lain. Garbiketa latz aundiago bat bear dau eder ta garbi danarekin bat egiteko. Il ondoren arima danak Garbitokian legez, Jainkoak berak egingo dautsu lan au, arimeak, arrago bizian, gorriak ikusiz bear bada, baiña geldi-geldi dagoala. Jainkoak berberak buru tuko dau arimearen azken jaketa egokia. Oni deritxo *Gatt illttna*, Jainkoak ezkutu ikaragarrian dagian lana dalako.

Dakusgunez, *Igoera 'ren* osagaillu edo betegarri lez dozu lan au, aren oiñarri ta azalpenak eskatzen daben jarraipena. Arima garbituz doia aurreko liburuetan, baiña oraintxe gertatzen da egiazko garbiketa, gau illuna emen bere egiteko ezin-obeian agertzen jaku, Donibane Guru tz'en "experientzi, irudikizun (sinbolo) eta irakatsi bete-betea".

Alderdi ontatik so-egin ezkerro, auxe dozu Juan Gurutzekoaren idatzirik sakon lilluragarriena. Eleizako Irakasle auxegaitik da batez be. Teologi mistikari bultzada apartekoa eragin eutson onek. Ba-ziran lendik be arimea Jainkoaz alkartu al izateko Mistika arloan erakutsi ta erabilliak, baiña espiritua garbitu al izateko. "Gau artzaillea", Jainkoak berak bere lanez buru tua, au Juan Gurutzekok

oar-ikasi ta zabal-azoa dozu, gaur mistikari guztiak eta Eleizak onartua; arek dizdiz jarri dau gau illuna bere ikuste ta experientzi adorez; berak bizi izana mamin dausku emen.

Aren aurretik etzan idazle mistiku bat be olako gai sakonera jatsi, itz batzuekak zerbait adierazo nai izan arren. Gurutzeko Juan, ostera, barne-barneraiño beeratu zan eta gizonki berba egin, gau illun orren leza osoa zeatz-meatz azaldurik. Zentzunaren gau eragilleaz be zerbait ba-diño, baiña ortaz aurreko liburuan naiko esana daukon ezkeru, orain espirituzko gauari ekingo dautso beren-beregi.

Zati edo liburu bi daukaz. Lenengo zatiak 14 ataltxo daroaz; sarrera lenen eta amaia azkenik, eta liburuaren ardatza: 1) gauaren bear-izana, gizonaren gatzak mixeriak eskatuta; 2) ortarako bear dan aldia, eta egoerak, eta 3) birtuteak eta fruruak.

Bigarren zatian kokatzen dira espirituzko gauaren adierazpenak; aurretik doaz kantako iru estrofa, sakonak eta ikuspegi berezikoak. Lenengo amalau ataletan dago zati onen ardatza, eta onek lenengo kanta azaldu nai dau. Gero datoz. 15'garrenetik 24'ra, bigarren estrofea. Gaia, barriz, onela: 1) griñak eta euron erroak; 2) askotariko experientzi edo oarrez ikasiak, alkar-joteak eta abar; 3) maitasun indartsua, eta askatasuna, eta 4) bigarren kanta, mailladi seguru ta ezkutua; zomorrozko jantzia.

Liburuaren erdi-unean datza Donibane'k dagian gertakiaren margotze ta azalpena eta bidenabar gaiaren adierazpen teologiku espirituala; lenengo zatitxotik amargarrenera artekoetan datoz guztiak, berton sarturik gai guztiaren guna. Guzti ori, barriz, kantako len-bertsoan daukazu: "Gaualdi baltz illunean".

Iruzkin edo azalpenean naste samar datoz idazlearen experientzi ta irakatsiak. Zabal-gune bi ezbaridiñak, or-emen gurutzatzen diranak. Jon Gurutz dozu oar-ikasiz aundi ta irakasle. Oar-ikasiz doa gau orren laztura igaroz. Eta teologi-oiñarriak damoskuz gauzak jazo lez geldu ta gozo aitzen emonik.

Idatzi onetan be lenengo, aurrekoan egin dogunez, arimearen kantak ipinten dira, aurrekoan datozenak eurak. Lenengo bietan spirituaren garbiketa bien ondorenak datoz, au da, giza-alderdi sentikorrarenak eta espiritualarenak. Beste seiretan, gogozko argitzeari ta Jainkozko maite-alkartzeari dagokiozanak dira, eta orixe

adierazten da. Emen, geiegi ez errepikatzearren iru bakarrik jarten ditugu. Ona:

*Gaualdi baltz illunean,
gogo bizitan, maitez sukaturik,
au nire zorion aundi!-
ixil-ixil urten nintzan,
ene etxea baketsu egoalarik.*

*Illunetan eta seguru
mailladi gordetik koko jantzian;
au nire zorion aundi!-
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea neukalarik bakian.*

*Gauaro zori ontsuan,
ixilka, iñork oar ez nindularik,
nik ezer ez nekusala,
ez argi ez gidaririk
biotza sutan eukana ezik.*

Aapaldi goi-goiko oneik arimeak osotasun betean aurkitzen dala kantatzen ditu, Jainkoaz maitezko batasuna egiñik daukala; bide esturik ibillia da, Kristok diñoskun betiko bizira daroan bidetik nunbait. Ortik ez dabiltz asko, eta arimeak zorion aunditzat dauko ortik maitezko osotasunera igaro al izatea. Zidor estu medar oni ederto jatorko gau illun deitura.

LENENGO LIBURUA

Gau bi, bata zentzunarena eta bestea espirituarena. Lenengo liburuan, zentzunak aztertzen dira; leen be jardunak gara ontaz, baiña mailla ezbarðiñean. Leen zentzunen garbiketa zan, Karmel Mendira igonik, Jainkoaren begien aurrean agertzeko; goi-erpiñean dago orain, Jainkogaz alkartzear. Azken garbitzea bear dabe zentzunak batez be. Liburu onek dirakas ori zelan osotu.

*Gaualdi baltz illunean,
biotz-estu, ta maitez sukaturik;
-au nire zorion aundi!-
ixil ixil urten niotzan,
ene etxea baketsu egoalarik.*

Kantari dabil emen arimea, len-kanta onetan, zelan askatu ta urten zan jit-zalez, beragandik eta gauza guztietatik, egiazko ilduraz gauza guztiak eta bere burua ezi ta il-azoz, Jainkoaz maitasun gozo eztiaren bizia bizi izatera eltzeko. Igaro-bide au gau illuna da; eta onek, artzez, ariman egin daroa bere burua eta gauza guztiak ukatzea.

Begizatze baltz illunean bere Senarraren maite-suak ezarri eutson ortarako kemena. Zorion aundiitan egin eban urtete au, iru arerioak be -munduak, deabruak eta aragiak- eragozpenik jarten ez eutsoela; irurok dituzu bide au egitea galazoten dabenak. Arimeak, baiña, bere zentzunezko etxean sartu ta illanditurik itxi zituan grña ta irrikak begizte garbiketaren gaua burutzean. Orixegaitik diño:

Gau baltz illunean.

I

Bear-bearrezkoa

Gau illun onetan jainkoak sartzen ditu arimak. Zeintzuk? Espirituzko bidean ibilli diranak, Jainkozko gaiak irauli ta irauli gogoketan ibilli diranak egiñik doazanen taldean jarten ditu Jainkoak, au da, *ikus te-otoizlarien* artean, emendik igaro ta aurrera egiriik, *osotuen* ein edo egoitzera eldu daitezcan, au bai da arimea Jainkoaz *alkartzen* danekoa.

Beraz, arimeak zearkatu bear dauan gau au zer dan eta Jainkoak zergaitik ipinten dauan berton, obeto ulertu ta azaltzeko, ikutu berrak dira emen asi-barriak euki oi dabezan zer batzuk. Egoki da dabiltzan bidea erbal dala; origaitik, aria emon, sustatu ta opa izan dagien Jainkoaren gau ontan ipiñi daizan; ementxe bai da arimea

sendo-azi ta birtutez edertzen Jainkoaren maitezko atsegiñak eta gozotasunak, sariz-gaiñezkoak ain zuzen, artu al izateko.

Doe itzala dau erabagia artzeak. Zalantzatik urten eziñak egon oi jakuz ez gitxi, baita Jainkoaren zerbitzurako bidea artu ta ekitean be. Ba-dira arima suar eta bioztunak, Jainko-zerbitzarako diñot, Jainkoagan biurtu ta ortan erabagitsu jarraitzen dabenak. Onakoa Jaunak berak azi daroa espirituan, baita esku erakutsi, losindu ta eder egin be, amak umetxo samur gurias egiten dauan lez edo: ama maiteak bere bular gairi berotu ta esne gozo atsegingarriz eta jateko bigun leunez azten dau; besoetan ekarriz, maitekor laztanduz.

Baiña, azi ala, amak erregalua kenduaz doa bere umeari, maitasun samurra gorderik zumintz mingotsa jarten dau bere bular ez-tian, eta, besoetatik beeratuaz, bere oiñez ibilli eragiten dautso, ume-gauzak itxirik, gauza aundi ta garrantzitsuagoetara jo daian. Jainko graziaren ama maitekorrak, bero barri ta Jainkoa otseinduteko goritasunez arimea bir-sortu dauanean, orixe berori egin oi dau beragaz; samur eta gozo aurkitu daroa espirituzko esnea, berak lanik egiteke Jainkoaren gauza guztietan, gusto betea barruko jardun guztietan be, Jainkoak emoten bai dautso emen maitasun samurrezko bularra, San Pedrok onela: *Jaunaren ona aogoza dozuenez gero, gaizto, makur, bekaritz eta itz diranakalde batera itxirik, irrika egizue biziro, ume jaio-barriak lez, esne naasi bagea sendo izateko* (I Pet. 2, 2-3).

Bere guritasuna, beraz, onetan dago, epe aundiak eta bear bada gau osoak otoitzari ekiñik emotean. Bere gustu ta guritasunak, pemitentziak eta bere pozak barauak, eta bere betargi ta atsegiñak, sakramentuak artu ta jainkozko gauzetako ar-emona, onetan zalezaleak bai dozuz espiritukoia.

Oneik, izan be, ortara eragiñak dira, espirituzko ariketan gozotasun betea artzen bai dabe, eta eurak birtuteen burruka latzeko jardunen bitartez ortara oitu barik dagozan ezkerro, gogozko egin-tza onei buruz akats eta uts-egite askoz beterik dagoz; azken baten, bakotxak bada, osotasun oiturari dagokionez jardunen dau; eta oneik oitura sendoak eskuratzeko erarik euki ez daben lez, naitaez jokatu bear ume makal antzera, aurki.

Asi-barriak, ezta arrigarri, birtutez urri dabiltz lenengotan; aogozak eraginda geienbat jokatzan dabe, errezena dalako eta konturatu ezean legez. Urrengo saillean ipiñiko doguz errez jausten diran

uts-egiteak, zazpi griña nagusi aztertuaz. Emen ikusiko dogu zein ume antzera dabiltzan oraindik euren jainkozko bidean. Baita ikusiko dogu zenbat on ta obari dakazan emen azalduko dan gau illunak. Beronek gardostu ta garbi-azten bai dau arimea bere akats, utsegite ta makur guztietatik.

II

Zazpi griña nagusiak

Griña oneitzaz zerbait idatzi genduan *Igoera* liburuan; barrero be eurok aitatzea ez deritxot geiegikeri, berez dakarguzan akatsak bait dira, zail osoan kentzeko. Beraz, emen be, aitatu beintzat, labur-labur egingo ditugu.

Arrokeria. Lera gaizto ta griñen artean aurrenengoa; eres-batz orretan beronek daroa neur-zotza. Espirituzko barrutian be, esana dogunez, egin leikez onek, eta egiten ditu, era askotako galkuntzak. Bedar txar onek modu askotan agertu oi dau bere burua, ez ain atsegiña.

Jainko bidetik doazanak, baiña, osotasunean doazanak, beste eran jokatzen dabe, apalak izanez, euren gauzak eta egiñak ezerezean eukiaz, ingurukoak obatzat eukirik, eurak lez Jainkoa serbiduteko garra biztuaz. Jainkoak, onein gogo leialaz oarturik, gau illunean jarten ditu, akats guztietatik garbitu ta aurrera egin dagien.

Zikoizkeria. Asi-barriok, batzutan, naiko espirituzko zikoizkeri erakutsi oi dabe, ez bait dira pozik agertzen Jainkoak damotsen barne-gogoaz. Buru-makur, kezkatu ta asarre antzo dabiltz, gauza espiritualetan eurak nai leukien poza aurkitzen ez dabelako. Kontsejuak eta aginduak nai dabez entzun asetu arte; liburu asko irakurri ta abar; irudi ta argazkirik asko gelan eta aldean. Umeak, pitxiak...

Bide onez dabiltzanak, ez dira olakoak; ots, ondo oiñarrituak, ez dira ikusten diran tresnai loturik geratzen. Diran eta dauken guztia oneik Jainkoari ta urka-lagunai eskintzen dautsee; eurentzat ez dabe ezer gura, Jainkoari atsegin emon bakar-bakarrik. Betor gau illuna arimea guztiz txautzen.

Likiskeria. Ez nabil emen aragizko ezertan, gogokoiak be euki oi dabezan beste gorputz-zirkin batzuetan baiño.

Diñodanez akatsik asko daukiez asi-barriak, Jainkoaz batu aurretik gau illuna deritxon garbitegian garbitu bearrak. Likiskeri deitu geinkeon au, espirituazko jardunetan sortu oi dana dozu, zergaitik jakin bage, zentzukortasunean jagiten diran tringitz eta mogi-aldi ganora-bakoak, gure Jauna artzean naiz otoitzean zagozanean be etorten jatzuzanak.

Oneitatik batzuk melankolik joak dira, beste batzuk ur naiz urrun dagozan pertsonak ikusi edo-ta pertsamentura ekarriz be jazo oi da. Maitasun, melankoli eta zer guztiok uxatzen dira gau illunean gertatzerakoan.

Sumina. Garramura ta irritsa dauke asi-barri askok gogozko gustuetan eta sumin-gríñak dakaz sarri estu samar. Barruko gozotasunak amaitzen jakezanean zakar eta mergatz aurkitzen dira, eta barru daroen kezka ta gezatasunak jit eta esker txarra dakarrie. Ume baten antzera, bere gogora esnea artzen dauan ugatzetik alboratzean.

Berezko ontan, gogorik ezak eroaten laga ezik, ez dago errurik, akatsa baiño, gau illuneko liortasunez eta estuasunez garbitu bearko dana.

Sabalkeria. Espirituzkoa, jakiña. Eta guzurra dirudiela be, askorena. Askotxo, bada, jerdun orreitan aurkitzen daben gozotasunez lilluraturik onbidean zear Jainkoak nai dauan barne-gozotasuna, garbitasuna ta zentzun-zuurtzia baiño naiago dabe.

Otoitzerakoan; jaunartzean eta abar, gozoaren kutsua nai dabe oneik, eta olakorik ez ba'dator, ezta ezer lortu. Orduan uste dabe alperrik galdu dabela denporea. Barruko po-atsegin billa dabiltz onakoak, liburu zalekeria ezin aseturik, Jainko gauzakaz nobere atsegiñaren billa, eta jainkoak zuzen eta artez ukatu egiten dautse ori; olan ezpalitz, bada, sabelkeri onetan gero ta geiago ugariturik, zenbatu-ezin alako oker eta gatxetan jausiko litzatekez.

Bekaizkeria. Oso ugaria, landan eta barruan, kalte izugarriak dakazana. Oni dagokionez be, ainbat oker dabez asi-barriak, oneitariko askok enparuan espirituazko onen naigabea euki daroe, santutasun bidean eurak baiño aurrerago doazala-ta. Barruko zimiko ta arzori ezin izaten dabe garde, ez estalpetu. Ez dira gauza iñori

gorapenik botateko, ezta sarri entzuteko be; eurak nai dabe guztien aurretik agertu. Atsekaberik eukitekotan, bedi besteak daukazan birtuterik ez daukalako eta euki bear leukezalako.

Nagikeria. Kemen aundiz asi diranak be errez nagitu oi dira Jainko bidean. Ibil-erreza dala uste da lenengotan; "besteak egin dabena, neuk be egingo dot" esaten dogu; baiña bide-egiñik zozto-rran bat idoro ezkeru, laster gogait egiten. Eta emen dator asierako kemenaren porrota.

Batzutan Jaunak berak aztertzen ditu, otoitzean eukazan gustu ta gozotasunak bazterturik; beste batzutan onbiderako gogo ta adore gitxi erakusten dabelako da: guri azitakoak ez dira gauza laztasunerako, iges dagie buru-makur gauza latzetik, aspergarri jake gurutzea. Izan be, gau illunean sartu ta Jainkoak olako arimearen garbiketa egin, ezta gai Jainkoaren misterioa txastatzeko.

III

Gau illuna

Begira ikustea edo kontenplaziñoa dala diriogun gau onek, era bitako illunpeak sortzen ditu, edo-ta obeto gizonaren zatiai dagokienez garbiketa bi, *zentsunari* dagokiona ta *espirituari* dagokiona. Olan *gau* edo *garbiketa* bata *sentikorra*, arimea zentzunei dagokienez garbitzen dalakoa, espirituari doiturik; eta beste *gau* edo *garbiketa gogozkoa*, arimea bai da espirituari dagokionez garbitu ta billosten, berau doitu ta eraturik Jainkoagazko maitasun alkartzerako.

Sentikorra, askorena da, askori gertatzen jakona; eta oneikaz ekingo dautsagu lenengo. *Espirituari* dagokiona, gitxi batzuen dozu, ta asko jardunena ta aurreratuen, esango dogunez.

Lenengo gaba edo garbiketa garratza da eta ikaragarria arimearentzat. Bigarrenak ez dauka irudi ez bardintzarik larri ta latza data spirituarentzat. Lenengoaz, lendik be ortaz asko idatzita dagoalako, ez dot zer aundirik esango; bai, ostera, bigarrenaz, ontaz gitxi idatzi dalako.

Asi-barriak jainkozko bidean daroien bizi-moldea naiko kaskarra ta euren erara bizia danez, Jainkoak, Jainko billa bai, baiña erdizkako maitasunez eta otoitz-era ez-egokiz dabiltzala ikusiz, espirituari dagokion zeru-bidean jarri nai ditu, birtutezko bidean

aurreratu ta Jainkoaz benetako artu-emonean sartu daitezcan. Era orretan, duda-mudan dabiltzalarik, nora jo ez dakiela, Jaunak oindiño urduri ta artegatuago izten ditu, eukezan gustuak eta argiak be kendurik; oinkada bat be ezin dabe emon gogaketan, illuna ta larritasuna ez dabe besterik. Gau illunean sartu dira, zentzunezko gau aizaroan. Ariñago jazoten jake au asi-barriai; besteai baiño ariñago, oneik ba asitako bideari eutsi nai dautsoe, eta besteak aske dira atzera biurtu ta gizarteko gauzak obeto ta astitsuago atonduteko. Batzuk eta bestezuk au, burutu bear bai dabe zentzunaren gau zoriontsu onetan sartzeko.

Erlauntz atakatik sartu nairik, egazka ta egazka diarduen erleak legez dira arima asko, eta asi-barriak; gau illunean be, sartu bai sartu ez... Zintzo ta Jainko-gosez ikusten dabezcanai, Jainkoak berak, danbatxo bat emonez, daki garbitegi orretan sartzan. Arima oneik agor eta legor aurkitzen jatzuz sarri, eta orduan dator Jainkoaren lana.

Baiña agor eta legor aurkitze au ez ete da norbere erruz? Ona iru ezaugarri orren jatorria jakiteko. Zentzunen garbiketarik bage, etorri leike ori nobere pekatu ta akatsetatik, edo-ta bat epel-laxo dabilletako, naiz gorputzeko umore-gogo txarragaitik. Ona zelan ezagutu.

Lenengo ezaugarria. Arimeak, Jainkoaren gauzetan pozik eta atsegiñik aurkitzen ez dauan lez, sortutako gauza baten be aurkitzen ez dauanean; arima ipiñi daroa Jainkoak gau onetan irrits sentikorra txukatu, garbi-garbiegiteko, eta gauza baten be ez dautso izten zaletu ta gozatu dedin. Eta onetan agertzen da ziur asko legortasun eta gogo-ez au ez datorrela ez pekatuetatik ez barriro egindako akats-utsetatik. Orrela balitz, or izango litzateke lera-txar edo makurren bat edo jainkozko gauzetatik kanpotiko zerbaiten poza artzeko gogo.

Bigarrena. Garbiketa ontatik datorrena bada, Jainkoagan dakar geienik beintzat, ardura-arduratsua ekarri be, Jainkoa ez dauela bear bezela serbiduten uste izanik. Eta onetan argi ikusten da nagikeri ta ardura-bakotasu-netik ez datorrela ori, nagi-errazoia sortzen bai jatzu Jainkozko gauzai garrantzirik ez ezartetik.

Irugarrena. Len legez ezin dala gogoetarik egin, ezta irudimena erabilliz asmaketan jardun be; alegiñak egin arren, eziña jako.

Jainkoa sartzen da emen ar-emonean, ez len lez zentzunez, barriak zatitu ta eratuz, espiritu utsez, emen ez baita asmaketarik jausten, begiratze lau-lauzko egote samurrez ar-emonean jarriz; onaiño ez dira eltzen bee-aldeko zentzunak, ez kanpokoak ez barrukoak. Ortik, ba, irudimenak eta iruditu (irudipenak) ezin dabe tenkarik egin burutapen edo beste olako zerbaiten, ezta ortik aurrera, onezkerero, oiña nun jarririk idoro be. Gau illunez bai doa, Jainkoak zuzendurik.

I V

Bidean galdurik?

Legortasunez gainezka daukagu gau sentikor au; ementxe dagi Jaunak trukamurka, arimea zentzun bizitzatik atera ta espirituzkora aldatuz, au da, gogarte edo meditaziñotik begiztatze edo kontenplaziñora; emen ez dauko arimeak bere aalmenakaz, onezkerero, ez egiterik ez gogoketan jardurik terik Jainko gauzetan.

Espiritukoiak orduan neke-min ikaragarriak eroan bear izaten dabez, bai bidea galdurik dabiltzala uste dabelako eta bai gustoak kenduz Jaunak saiets itxi dabezalakoan, gozotasun izpirik be ez bait dabe gauza onetan aurkitzen. Nekatuz doaz orduan eta oitura ebenez buru-jardunen bati aalmenak oratuaz uste dabe, au egin ezik, ez dabela ezer egiten. Olan kalte dagitse euren buruai, gauza bati emonaz ez dabe bestean probetxurik lortzen; espiritua billatzearren lendik euken bakezko espiritua galtzen dabe. Olan egiña barrero egin nai izanik, izten dauana lez da, edo-ta uritik barrero bertan sartzeko urtetan dana lez.

Emen dabiltzanok, nok zuzendurik ezpa-daukie, atzera biurutzen jatzuz, bideari agur nasaituz edo beintzat, alkar oztopo izanez, gogarte bidetik joan naita dakarrean ardura geiegiekin; larregi nekarazo daroe berezkoa, euren arreta-ezez edo pekatuz orrela dagozala uste izanik. Au izan parkatzekoa dabe, Jainkoak daroaz ba, dagoneko, beste bide batetik, ots, ikuste bidetik, lenengoaz oso diferentetik; bata pentsaketa ta gogoetazkoa, ta bestea da ajusten irudikizun zelaian ez gogoeta barrutian.


Olan dagozanai egoki jake pazientzi aunditan irautea, naigabetu barik, jakiña. Uste on izan beie Jaunagan, biotz errimez. Aren billa dabiltzanak ez bait ditu egundo bertanbera izten. Ez ditu lagako




Aita uan'ek, meza bitartean, grazi bereziak artzen ditu.



Jainkoak lagunduko gautse estualdi guztietan.



Aita Juan bere lekaidenak eskolatzan.



Aita Juan limosnak banalzen




Aita Juan'ek lekaime gaixo bat osatzen dau.



Aita Juan'ek ainbat jente autortzen dau.



Aita Juan'ek, gurutzeaz, deabru batzuk uxatzen ditu.



Aita Juan eta Juan Orozko gotzaiña.

biderako bear dabena emon barik, maitasunezko argi garbi garde-nera eldu arte, Jainkoak ipintea merezi izan dabena espirituzko gau illunaren bitartez emongo dautsena.

Len arimea gai bat artu ta pentsaketan nekatu oi zan; orain oster, zentzunezko zer guztia itxirik, gogoeta ta adierazpen bage, doa bidez bide, ortarako epea amaitu bai zan; orain bego arimea baketan egoariz, ezer ez dauala iruditu arren; bego otoitzean be, pazientzi aundiaz, ezer egin bage. Auxe egin begie bakar-bakarrik: aske itxi arimea, zer guztiz uts, pentsamentuz ta albistez, adiera maitekorra josirik Jainkoagan, arimeak emen daukan patxada nare ta begirak dakarren mana leun gozoan.

Otoitzean ezin dau ezer egin ez bururatu. Baiña artxintxor egonda be barruz, zeozer egitea egoki litzakela-ta, jasan zimiko ori ta iraun baketsu, otoitz-lekura ezpa-loia lez bere gogora ta espiritu-nasai egotera baiño; berenez egin nai ba'leu zeozer barne-aalmenakaz, pare egin eta gaitz izango litzakio bakearen bidez emon nai leuskion mesedeari. Olantxe, arimeak baketan eta barne-gozotasu-nean iraun gura dauanean, edozein ekintz, zaletasun edo zear-mearka, berak orduan euki nai leukena, kaltegarri leukake ta zentzunaren utsa ta legortasuna somatuko leukez.

Arimeak, beraz, ez bei emen kezkarik izan aalmenen ekintzak galtzen ba ditu be, alik eta ariñen galtzea opa izan baiño. Jainkoa emonaz doian ikustatze ixuriaren egintzari zoztorrik ipiñi ezik, baketsu ta ugariago artu daroa ixuri ori, eta ikuste illun-ixil onek beragaz dakarren maitasunezko espirituan sutu, indartu ta kiskal-du dedin.

Begira irautea ezta besterik Jainkoagazko begi-zizta ixil, baketsu ta maitekorra baiño; itxi ezker, arimea maite-espirituan gartu oi dau. Arimeak berak diño:

Maitez sukarturik

V

Iru bertso azaltzen dira

Donibane Gurutz'en liburuetan, lenengo olerkia dator eta ondoren olerki edo bertso orren adierazpena. Kanta onetan lenengo

bertso bien azalpena egin daula-ta, ataltxo ontan beste irurena egiten dausku. Ots:

*Au nire zorion aundi!,
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea baketsu egoalarik.*

Zentzuna ta espiritua alkar korapilloturik dagoz giza-erroan eta Egilleaz batzeko biak garbitu ta duindu bearra daukagu. Ja inkoaganako bidean gorantz asteen, asibarritan ezta oindiño sutu oi biotza, ezta gai be, berezko loiagaitik, eta arimeari bake-aldirik eskintzen ez dautsoelako. Noizik bein, alan be, ori barik edo orrekin, gero asten dira Jainko kezka ta larri-aldia sentitzen.

Gero ta aurrerago doa arimea, Jainko maitasunez ixiotuago, zaletuago, Jainko-maitez leratu-leratu dabil; ez daki nundik eta zelan erneten jakon maite-su gozo eztia, ta gar biurtzen da pizkaka, ta Jainko-miñez garraxika dabil. Dabid erregeak be (Sa. 72, 21-22), gau onetan ebillela, onela iñoan: *Nire biotza gar-azo zan*, au da, begiratzuko maitasunean, *nire barruak be mintzen ninduan*, au da, nire zaletasun sentikorrak minbera egozan aldatuz, sentikor ziranak espiritukoi egin ziran eta danak legor ta geldi geratu jatazan; eta *ni zoro ta tentel nintzan, abere bat zure aurrean*; arimeak ez daki onakorik, baiña andeatua geratzen da, len atsegin jakozan goiko ta beeko gauza guztietaz. Eta batzutan, egi-egiaz izugarria bai da espirituan jazoten dan maite-sugarra, aundiak dira Jainkoaganako arrusi ta apetak be, eta itxuraz azurrak aurak sikatu egiten dira egarri onetan. Beroa be gaiztotu, maite-egarri biziagaitik.

Aalmenak uts eta legor daukaz, baiña alegiñez ardura ta leia aundia jarten dau Jaunagan, begira egote ixil gozoan tinko jarraituz, eta apur bat garbitu danean zentzuna, au da, alderdi sentikorra, legor ta idor ibilte bitartez, berezko kemen eta zaletasun eta loieta-tik, gau illuneko arrago bizi mingotsean, zentzunak garbi ta goi-birtutez aberatsa, jauzi dagi mailla ortatik goragokora, onela diñoala:

Au nire zorion aundi!

Dakigunez, egoitza ontara eldutakoan, Jainkoak berak egiten dau zentzunen garbiketa, bee-alderdikoa, ta egokitu ta alkartu espirituaz, aalmenen lan eta egiteko barik itxiaz, espiritua be txauririk Jainkoaz alkartu dedin. Garbitoki onetan dirauan bitartean arimeak ainbat eta ainbat on ateraten ditu beretzat.

Kanta ontako len-estrofako laugarren bertsoan, zelan jarein ta urten eban etxe ortatik dirausku arimeak. Katetan lez egoan, eta andik aske urtetea opa. Jainko billa alegiñak erre sentikor alderditik igestatzen, eta ezin, noiznaika jo egiten bai eban ainbat erogazpeneke, ezetariko onik atera bage.

Onak alan be erimeari jatorkoz ugari be ugari. Zelan, baiña? Gau illun orren bitartez lurreko gauza guztiak laga ta betikoetarako bidean jarri dalako. Eta au zorion aundia da, batetik on ikaragarria bait da gauza oroz aztu ta bada-ezpadako lera guztien irritsa itzungi ta iltea; eta bestetik, gitxi diralako ate estu ontatik sartzen diranak.

Ate estua da zentzunaren gau au; emen garbitu ta erantzi oi da arimea barrura sartzeko, fedean alkartuz, zentzun danez arrotz danean, ondoren bide estu zear ibilli al izateko, ots, espirituzko gauean zear Jainkoaz batzeko Arengana bide egin daian utsean. Asko gitxiago dira, medar, illun eta izugarria dalako, bide ontatik doazanak. Konta-eziñak dira, alan be, arimeari bertotik jatorkozan onak. Origaitik kantatzen dau:

Ixil-ixil urten nintzan.

Pozgarri izan da arimearentzat garbiketa egitea. Jairako josi jakon soiñekoz aurkitzen jatzu, neguaren ostean datorren udabarri legez, eder, dotore, panpox. Probetxu aundiko onak etorri jakoz ontatik. Eta Abraan'ek jaia ospatu eban antzera Isaak bere semeari bularra kendu jakonean, olaxe poz-alaitzen dira zeruan Jaunak arima au sein-oialetatik atera, besoetatik jatsi, oiñez ibilli eragin eta umeen jateko samurra kendurik, ogia kuzkur eta guzti jan eragiñik, nagusien azkurria jaten asten danean.

Emendik dator, birtute askoren artean, urko-lagunarekiko mai-tasuna be; leen auzo eukazanak ezetsi egin oi ebazan, bere burua gar geiagogz ikusirik Jainkoaren zerbitzuan. Orain bere rnixeria

dakus batez be, eta begien aurrean dauka. Dabid'ek bikain gau ontan aurkitzen zalarik: *Mutu geratzen nintzan; ez neban uskeririk esan* (Sal. 38, 3). Au esaten eban, bere arimako onak aitu ziralako ta eurak goresteko itzik aurkitzen ez ebalako.

Bai, gau legor onetan neke ta naigabe artean ainbeste on, doe ta mesede jadetsi dauazan ezkeru, eta Jainkoari biotz leiala atsegin, zentzun aldetik prest daukagu arimea gorago joteko. Munduko lera ta gustoak azpiratuak. Jainkoaz alkartu eiten loturik euken lokarriak ausirik...

Ildura ta mortifikaziñoen bitartez lau griñak, atsegiña, miña, itxaroa ta bildurra, bare-aldian lo, zentzunak bake gozotan, barnezentzunak egiteko barik, bere etxea, au da, arimeaeen azpi-azpia geldi, gogoak onela:

Ene etxea baketsu egoalarik.

BIGARREN LIBURUA ESPIRITUAREN GAUA

I

Barruragoko garbiketa

Jainkoak, urrera eroan bear dauan arimea, lenen garbiketako edo *zentzunen gautiko* idortasun eta laneta tik urten danean, bere Aunditasunak espirituzko gau onetan egokitzen dau. Aurretik luzaro ta urteetan ibillia da, asi-barrien egoera itxi ta aurreratue-
nean jardunik; emen, espetxetik urten dauanaren antzera, pozago ta nasaitasun aundiagoz dabil Jainkoaren gauzetan. Otoitzean eta abar, ez dakar orain irudimena loturik eta aalmenak gogoetari ta gogozko ardureari itsatsita; orain, len ez legez, bare ta baketsuago dauka bere espiritua asmaketa barik eta begiratze gozo maiteko-
rrean.

Baiña oindiño ez dago dana egiñik; arimearen garbiketa bear dan bestean egiteko daukazu, oraindik alde nagusia osoan txautu bage dagolako. Au barik, ba biak dalako bat izanik, biak alkarregaz daben ar-emon estua dala-ta, zentzunen garbiketa be, danik eta gogorrena izan arren, ezta oso-osoan garbitua geratzen; iñoiz be ez jakoz falta ezak, preminak, leortasunak, illunpeak eta esturak, batzutan igarotakoak baiño biziagoak, gairi datorren espirituzko gauaren aztarren eta mezulari diranak.

Begira Jaunak zelan aztertzen ditun beraganatu nai ditun ari-
mak. Gau izugarri onen zantzuak datoz lenengo, ondoren datorre-
na baizen latz ez diranak. Unekada bat edo unekadak edo egunak ekaitz onetan, gauan sarturik, atzera biurtzen zara gero zeure eztialdira; eta onela garbitu oi dauz Jainkoak arima batzuk besteak baizen gora maillaz mail igongo ez diranak, espirituzko garbitegian eta begiztatze gau onetan noizik beinka ipiriiaz.

Garbi esateko, illundu ta argitu egin daroaz sarri, Dabid erre-
geak diñoana bete dedin: *Bere izotza dau bialtzen*, au da, begiz artzea, *aokadaka* lez (Sal. 147, 17). Begiztatzen illuneko aokadok esango dogunarena baizen ikaragarriak iñoiz be ez diran arren; emen Jainkoak ala-alaka jarten dau arimea Jainkozko alkartera eroateko.

Ondorioz, aurreratua izan oi dabezan gustoak, len baiño sarri ta ugariago daukiez; zentzuna orain garbiago bait dago, espiritua-
ren gozotasunak errezago, bere modura, artzeko eran aurkitzen da.

Baiña arimearen alderdi sentikor au makal, aul dalako, eta espirituaren gauza sendoetarako gai-eza, oneik aurreratuok orixe dala-ta, alde sentikorrean egin oi dan artu-emon gogozko au dala-ta, bertan jasan bear izaten dabez auleziak, makalaldiak eta urdailleko miñak, eta espirituan, ortaz, atsekabe ta nekeak. Oindiño zentzunen jokoa dogu emen eta onein makaltsuna dala bide, Jainkoalkartzeak eskatzen dauan baizen sendo ez dagoz, eta ez onen ikuste zangar, bizi ta egiaz gogozkoak artzeko be.

Ortik datoz, beraz, gaiñezkaldi, birlora ta zorabiak; ortik atsekabe, azurrak lokatzeak eta abar, artu-emonak guztiz espiritualak ez diranean jazoten diranak, au da, osotuetan lez espirituzkoak bakarrik ez diralako; oneitan, ba, begigarrian gauan, espirituzkoan, garbituak diran ezkeru, ez daukie olakorik. Gogozko askatasunean atsegin dabe oneik, zentzuna ez kendu ez aldatu barik.

Aurreratu oneik aldikada bat egin dabe joan-etorri, artu-emon eta autu gozoetan zentzunak bazkatzen, olan espirituzko gustoz erakarria ta gozatua, alderdi sentikorra espiritutik ixuria, spirituztuaz batu ta baten egokitu daitezen, bakotxak bere erara janik espirituzko janari bat bera dalako biren azpil bardiñetik; orrela bi biok zelanbait alkarturik eta bat etorrikerik gertu egon daitezana gairi datorkioen gogozko garbiketa latz gogorra eroateko; ementxe, ain zuzen be, txautu ta edertu bearko dabez arimearen zati biok, gogokoia ta sentikoia, bata egundo ez bai da ondo garbitzen bestea barik, egiazko gabitze onartua, ba, zentzunarentzako, erabagia artuta spirituarena asten danekoa dazu. Olan *zentzunaren gauari* obeto deitu geinkeo alako barriztatze eta irritsaren aurrez-aurre jarrea, garbiketa baiño egokiago; eta au sentikorra deritxogun aldetik datozenak ats, utsegi ta zalaparta guztiak euren erroa ta kemena espirituan daukielako; ementxe dagoz loturik oitura guztiak, onak eta txarrak, eta auxegaitik oneik txautu arte, zentzunaren biurrialdiak, zalapartak eta ezbeurrak ezin leitekez ondo gaillendu.

Beraz, alderdi biak garbi-azten dira gau onetan, batera; auxe dala-ta egoki zan lenengo gautik igarotea eta bertotikjagitako biotzaldi ez-tian gozartzea, zelanbait zentzuna espirituari erantzirik, emen biak sendoago jasan eta garbitu daitezana gogo ta trebetasun aundiak bear dira-ta garbiketa ain latz-gogorrerako; benetan aundia, barriztau ta antolatu barik batez be bee-aldeko makala ta gero Jainkoagan eukiko eban kemen barik oindiño.

Aurreratuok Jainkoaz dauken ar-emona guztiz kaskarra da oraindik, gogozko urrea garbitu ta argirik emon bage bai dagoz. Paul deunak diñoanez, oraindik osotasu nera eldu ez diralako, ume antzera diardue Jainkoaz (I Kor. 13, 11). Arimea Jainkoaz bat-egiten danean, ostera, aundi lez aunditasunak burutzen dabez euren espirituan, bere aalak eta egiteak onezkero giza-egiñak baiño Jainko-egiñak geiago izanik.

Jainkoak egi-egiaz gizon zaarra erantzi nai dautse ta barria jantzi Paul santuak idazten dauanez: *Egillearen antzera egiazko argiaz barritzen doan giza barri biur zarie* (Kol. 3, 10). Gizaki zaarra dira aalmenak eta eraspentak eta zentzunak, zein gogokoiak zein zentzunai dago-kiezanak, bai kanpokoak bai barrukoak; onek illun izten ditu, adimena ta naimena legor, oroimena uts, eta arimako eraspentak larri gorrian. Gabetza auxe da, izan be, espirituak eskatzen dauan zer bat, bertan sartu ta batu daian espirituaren gogozko tankera, au da, maitezko batasuna.

Guzti au jaunak arimeagan egin daroa begizatze uts eta illunez, arimeak berak lenengo kantantzen emoten dauanez. Au, barriz, *zentzunezko len-gauan* azalduta dagoan arren, arimeak ulertu daroa batez be *espirituzko* bigarren ontaz, auxe da-ta arimearen garbitzearen zati beifena.

II

Begira illuna

Begira edo ikuste garbitegian sartu gara; Jaunari begira garbitzen da arimea. Irudi, sasi-uste ta olakoetatik askaturik, adimena illun, naimena larri ta oroimena fedean, ots, gau baltzean, naia bakarrik Jainko-maite-suak ikutua, urten eban arimeak bere izakera ganora-bakotik, iñok be, ez sentikortasunak ez deabruak galazo barik. Zorion aundia benetan arimearentzat.

Len, aalmenak, griñak eta irritsak azpiratu ta baketan jarri arte, arimeak Jainkiaz eukazan artu -emonak, guztiz zirtzillak ziran. Baiña egin eutson agur bizikera orri, giza-egikeretatik Jainko-egikerara aldatuz, au da, bere adimena urten zan beretik, gizakoitik jainkoiti biurturik, garbiketa onen bitartez Jainkoaz alkaturik, onezkero ez dau ulertzen bere berezko indar eta argiaz, alkartu zan jainkozko Jakituriar baiño.

Bere naiak urten eban beretik, jainkoti egiñik; Jainko-maitasunaz alkarturik, ba, orain ez dau doillar maitatzen bere berezko indarrez, Espiritu Santuaren indar garbiz baiño. Olan naiak, Jainkoari begira, gizon-legez ez dagi ezer; gomutamena be, bardintsu, aintzazko burubide betierekoetan biurtu da. Era berean baita arimearen beste indar eta eraspen guztiak be; danak barritzen jatzuz giza-zarraren garbitegi onetan.

Begiztatze illuna arimearentzako ezta gau bakarrik, baita atseka-be ta oiñaze be. Jainkoaren eragin bat da ariman, eta eragin orrekin gogoa garbitu daroa bere ezjakin eta oiturazko akats izatezko ta gogozkoetatik; begiztatzailleak oni diñotsoe begiztatze ixuria edo teologi mistikua, ots grazi mistikua; Jainkoak ixillean eskolatzen dau arimea, maitezko osotasuna erakutsiz, berak (arimeak) ezer ez egin ez ulertu bagarik.

Begiztatze ixuri onek, Jainkoaren jakitate maitekorra da-ta, ondoren nagusi bi dakartsoz arimeari, txautu ta argitu Jainkoaz maitasunean alkartzeko. Ortik, espiritu zoriontsuakzeruan garbitu ta argitu daroazan jakituri maitekor berbera da arimea emen garbitu ta erraiñutzen dauana. Garbitze ta argitze au, esan dogu, naigabetsua da, gaba ta illunpea, naigabea ta oiñazea. Zergaitik orrela? Arimearen adimen-indarra ez da jaristen Jainko-jakituriaren goiraiño, eta, jakiña, illunpea jako, aurrenik; eta gero, arima beraren txatxartasun eta garbi-ezagaitik; beraz, alagarri, samin eta illuna.

Filosofoa diñosku, jainkozko gauzak berez argi ta agiriagoak, arimearentzat oster garden ta illunagoak. Argiak be, argiago ta gauontzaren begi-ninia geiago illundu daroa. Ortik begizta tze Jainko argiak oindiño osorik argitu barik dagoan arimeari, espirituzko illunpea egiten dautso, ez bakarrik gaiña artzen dautsolako, baita bere berezko adimen-indarraren egintza gabetu ta illuntzen dautsolako be. Dionisio ta beste mistiku batzuk begiztatze *illuntasun izpi* edo txingar deitzen dautsoe oni.

Samingarri ta neketsu be ba-jako, arimeak oraindiñok oso-osoan garbitu barik eta Jainkoz begiztatze irudia ain aratza izan, aurkako bi dagoz burrukan, arimearen izate baitan, illuna ta argia adibidez. Ikusi: *lenengo*, begiztatse onen argia ta jakituria garbiak dira oso, onek erasoten dauan arimea barriz illun eta loi aurkitzen da; arimea orixegaitik penetan daukazu ori artzen dauan gogoa, argiak betebetan joten dabezan begiak penaz egiten diran legez.

Bigarren eraz oiñazetan dago arimea bere berezko makaltasun, moral ta espirituzkoagaitik, Jainko-argiak indartsu ekin oi dautso, ezi ta ondutzearren, eta arimeak, aul aurkitzen bait dau bere burua, naigabez dago eta il-agiñik, batez be une batzuetan jote ori gogorra-goa danean. Karga aundi bat gaiñean ba'leukie lez dagoz bai zentzuna eta bai espiritua.

Irugarren sufrimentua alde bitik jatorko arimeari, au da, *jainkozkotik* eta *gizatizkotik*. Biok bai dira emen batzen. Jainkozkoa begizatze garbitzaille au dozu eta gizatezkoa arimearen oea. Illunpe bete-bete ta barne onetan, jantzi bat bogada edo lixibontzian zikiñetik garbi-azten dan legez, arimea ezereztu eta urtuaz bere mixeri ta loietatik. Pizti bat sabel baltz-illunean iduri sentitzen da. Eta egoki jako erio illuneko obi ontan egotea ondoren datorkion berbizkunderako.

Laugarrena dakar begizatze illun ontako beste bikaintasun batek; beste ertz batek dardaratzen dau, bere barru-txirotasuna, bere mixeria; auxe da, izan be, garbiketa ontan somatzen dauan penarik nagusiena arimearen gustoak diran iru on-eraren pobretasuna ta uts-uneaz konturatzen da, aldiko, berezko ta gogozkoaz, gaitz aurkakoetan jarria bait dago, ots, akats eta legortasunik asko, aalmenen larde ta engaretatik uts, espiritua illun. Alan be, Jainkoak arimea garbitzen dau emen, izamen sentikor eta gogozkoari, aalmen barruko ta kanpokoai dagokienez, egoki da arimea uts, txiro ta alde guzti oneitatiek babes barik, aidor, utsik eta illunean istea; sentikor dana, izan be, legortasunean garbitzen da, aalmenak euren eldu-gaietatiek uts eukiaz eta espiritua goibeltasun baltz-illunean zainduaz.

Arimea samintzen dalarik be, guzti au Jaunak begizatze edo ikuste illun onen bitartez egin oi dau.

III

Naimenaren estura ta larri-aldiak

Emen, esan geinke, itzalak dirala naimenaren esturak. Alderik alde igarora da batzutan daukazan oiñaze ta gatxen artean, onek osabiberik ez daukala siñisturik. Gairi jatorko oni igaro ebazan

egun eta une zoragarrien gomuta; onek gau ontan sartu aurretik Jainkogandiko gozotasun ederrak izan ditu eta orain oso-oaoan ainbarik aurkitzen da.

Ondo datoz emen Job'en itzak: *Nasai bizi nintzan Arek birrindu nindunean; lepozurretik oraturik, zatitu egin ninduen, bere jomuga egiñik, bere gezilarialcaz ingurutzen ninduala; alderikalde zulatu eustazan guntzurrunak erruki barik, nire beztuna lurrera jarioz; zuloz bete eustan aragia, eta guda-gizonak lez etorri zan nire aurka* (16, 12-14). Onako idatz-zatirik asko daukaguz Liburu Santuetan, Jeremias 'enean batez be.

Ontaz gairi, bakarrik dago arimea, gau baltz onek damotson bakartade itxian; ez dau poz-biderik ez euskairik irakatsi ta dotrina baten be, ezta bere arimagan bere: neke-min orreitatik jatorkozan onak aundiak dirala diñotsen arren, ezin dau siñistu. Bere mixeriak argi be argi dakusan lezan murgildua dagoan ezkeru, berak ikusten ez dauana besteak be ez dabela ikusten. Eta ulertu eziñik diñotsez itz areik, eta poztu orde z oiñaze barria dakartsoe; ez dala begitan-tzen jako gatxaren osabidea, eta egi-egiaz olan da; Jaunak, berak egin nai dauanez, osoan garbitu daian arte, ez dau izango saminta-sun ori uxatzeko biderik ez osagairik.

Egoera ontan arimeak ezin dau asko egin. Presondegi illunean katigu daukenaren antzera dago, oiñak eta eskuak lotuta, ez.mugi, ez ikusi, ez goitik ez betik laguntzarik somatu barik, emen apal-azo, bigundu ta espiritua araztu ta Jainkoaren espirituaz bat-egin al izateko me ta zintzo ta zingil biurtu artean, Noiz arte? Aren errukiak emon opa dau tsan maite-batasunari dagokionez, onen neurritz bai da garbiketa gogorrago edo bigunago, aldi geiago edo gitxiagokoa.

Zerbait iztekotan, latza izanik be, urte batzuetan iraun oi dau, onetan ba, ariñaldi tarteak egoten dira, Jaunak orrela nai izanik; begizatze illun orrek orduan ez dau erasoten garbiketa antzean, argiketa maitekor antzean baiño; Arimeak, alako presondegi bal-tzetik urtenda, aske orain, nasai ta jolasti, Jainkoarekiko bake gozo aundia ta adiskidetasun sutsu gain-gaiñekoa gozatzen dau, gogoz-ko artu-emon bete-betean.

Garbitze orrek mesede aundia ekarten dautso arimeari berau konturatzera iño ekarri be; batzutan iruditzen jako amaitu jakozala, onezkero, bere lanak eta miriak. Baiña ezta olantxe. Au jazoten da,

eta uste da, aurkako bat daukagula espirituan, bestearen sentikortasuna uxatzen dau onek; au baiña ez da gertatzen arimearen zentzun-alderdian, artzeko berez ^sula dalako. Ondo garbi ez dago-nean, espirituz aldatu ezta be, eragin eta jasetatik garbi ez dagolako, samiñez aldatu leike. Dabid erregeak esan eban lenengo, nasai aurkitzen zala: *Ez naz kolokatuko sekulan* (Sal. 29, 7). Orobat arimeak: Gogozko ondasunez beterik aurkitzean, oraindik aldean eukazan ainbat uts eta akatsen sustraia ikusi bage, amaitu jakozala uste eban lan eta neke-miñak.

Pentsamentu au ezta betikoa; arimeari geratzen jakon barruan onako ezin esandako zerbait, falta jakona edo egiteko dagoana, atsedean ori bete-betean gozatzen izten ez dautsona, an bere barruan somatuz etsai bat lez, bakez eta lo lez egonarren, oindiño berbiztu ta bereak egingo dauazanaren susmoa artzen dautsona. Olantxe da, izan be, seguruan dagola ta gitxiago begira egon, arduantxe arimea iruntsi ta zurgatu oi dau beste mailla txarrago, latz eta lengoa baiño illunago baten.

Garbitokian dagozan arimak be, auxegaitik, euki daroetz duda ikaragarriagoak, andik ez dirala egungo urtengo eta euren penak beti-betikoa. Olantxe garbiketa ontan dagoan arimea be. Onek badaki Jainkoa ondo maite dauala, eta egia dan lez, berak Jainkoagaitik milla bizi emongo leukezala, guzti au ez jako arindura, penagarrri baiño. Au zori baltza! Kaskar ta doillor bai dau bere burua ikusten! Jainkoak ez dauala maite, pentsatzen dauala aren naigabe ta atsekabe bizia! Arek ezetsia. Beragandik jaurti ta baztertua! Ez arek bakarrik, baita izaki guztiak be ez dabe ikusi gura; berakainbat kutun dauanak arbiuiatua!

I V

Argitzen dauan gau illuna

Arimeak ba-dau oindiñok beste samiña dakartson bide bat: gau onek gabendu ta loturik daukaz aalmenak eta eraspenak eta eziña dau Jaunagana jaso ez adimena ez biotz-txera, ez Ari ezer eskatu; Jeremias'i lez jazorik (Lam. 3, 44); *laiño bat ipiñi dautso Jaunakaurrean otoitza aurrera joan ez dedin*. Iñoizka erregurik ba'dagi, indar eta gun bakoa da-ta, Jainkoak ez entzun ez kasurik egin ez dautsola egiten iruditzen jako.

Jauna dabil emen, arimea batasunerako gaitzen. Onekberaz ezin dau ezer. Ez otoiztu ez jainkozko gauzetan adi egon, ez eguneroko ar-emon eta goraberetan ezin da oar eta arduraz ibilli, batzutan zoraldi, zabarkeri ta aztute sakonak izanik; luzaro iraun oi dau egin ebana edo pentsatu ebana, ez zer dagian ez zer egin bear dauan, ezta ezin da konturatu be, nai izan arren, aretan zetan dagoanik bere.

Emen ezta adimen bakar bere argitik garbitzen dana eta naimena bere erasoenetatik, baita gogamena be bere joan-etorri ta albisteetatik; egoki da naia guztiotatik ezeztatzea garbiketa onetan diñot, Dabid erregeak diñoskunez: *Ezereztua izan nintzan, eta ez neban jakin* (Sal. 72, 22). Ez, ez eban jakin, kantenplaziño onek ba irunsi daroa arimea bere barrura batze gozatsuan. Maitezko batasunerako, otz-epeldu ta eztitu egin bear ditu aalmenak, izaki lokarri guztiz askatu ta maite-suan murgiltzeko duin egiñik. Gogora emen, barriro be, Filosofoak esana, izatez goitiko gauzak, berez argi ta garbiagoak, gure adimenarentzat illunago dirala.

Au argiago gelditu dedin, bego emen bardintza bat, berezko argitasunez osotua. Eguzkiaren izpia dakusgu emen, Ieiotik zear barrura sartzen; atomu ta kiziz garbiago, argi-ezago ikusten da, eta eguratsa atomuz ta samar-pitsez beteago, begiarentzat argiago izan oi da. Zer dala-ta? argia ezta berenez ikusten dana, joten dabezan beste gauzak ikusten diran bitartea baiño; orduan, areitan dagian dizdiza dala-ta, a be ikusten da, eta areitan emongo ezpa-leu, ez areik ez bera ez litzatekez ikusi al izango. Izan be, eguzkiaren izpia gela bateko leiotik sartu ta beste batetik igaro, gela bitartez, gauzaren bat ikutu ezin eta eguratsean atomurik ezpa-lego dirdir egiteko, geleak ez leuke eukiko leen baiño argi geiago, ezta izpia ikusi be; bestera, orduan, ondo begitu ezkeru, izpia dagon lekutik illuntasun geiago legoke; onek jan eta illundu egin daroa apur bat beste argia, eta bera ezta ikusten, esan dogunez, ez bai dago dizdiz egiteko ikusgarri dan gauzarik.

Kontenplazerakoan beste ainbeste dagi ariman Jainkozko izpi onek. Bere goi-argiz erasoten dautso eta arimearen berezkoa gainditurik, illundu eta izatezko erakartze ta eraspen leen eukazanetatik ainbat izten dau uts baizen illun, aalmen eta irritis eta gurari berezko ta gogozkoetatik; olan garbituz zeatz be zeatz, eta argituz gogozko argi Jainkotiz. Arimeak ez daki zer jazoten dan, izpia lez

illunetan dagoala bakarrik; gela erdian egon arren, garbi egon eta zertan txil egin ez euki, ez da ikusten.

Gogozko argi ontakoak, ariman zer dizdiratu daukanean, au da, espirituzko zerbait, oso edo oso-ezezko zer-edo-zer txikiena izanda be, egia edo guzurrezko eritxi bat, orain ikusten dau leen baiño, illunpe oneitan egon zanean baiño argiago. Daukan gogo-espirituz ezagutzen dau errez-errez argi orrek eskintzen dautson akatsa, esan dogu izpia lez gela illunean aurkitzean, ikusi ezta be, ikusgarri egin oi da esku bat edo beste edozein gauza bere aUrrertik igarotean bertatik dakusgu eskua, baita ezagutu be an egoan eguzki argia. Arimeak, ba, errez eta orokor ezagutu ta sar-azten dau edozein gauza, goitik naiz beetik jatorkona, Apostoluak diñoanez: *Espiritukoiak dana aztertzen dau, Jainkoaren sakona be bai* (I Kor. 2, 10).

Auxe da, egi-egiaz, ondo garbi ta ezeraztua dan arimearen gaitasuna, bere uts eta illunean egonik, dana besarkatzen dauala; gogozko ezeukiaren miraria. Labur: gau onek, illundu bai, baiña gauza guztien argia ezartzen.

V

Garbiketa osoa

Gogo bizitzan, maite sukaturik diño abestiko bigarren bertsoak. Gurari biziz dago arimea Jainkoaz alkartzeko, maitasunean sukaturik maitezko garbiketa burutu ondoren. Jainkoa maitasuna izanik. Ak egiña be maitez buru tua izan bear. Sua da jainkoa, ta egurra arimea. Suak egurra bere biurtu oi dau. Ortarakoan aurrenik, zur ori legortzen asten da, izardia bota eragin eta daukan ura be negar erazorik; gero baltz jarten dau, illun eta motz, eta usain txarreko be bai, eta, astiro astiro legortuz, argitara atera ta kanpora ateratzen dautsoz bertan daukazan suaren kontrako eraskin motz eta goibelak; eta, azkenez, kanpotik berotu ta sukartzen asiaz, beretu ta sua bera baizen eder ipinten dau.

Egurraren aldetik ez dago onezkero lerarik, ez ezer egiterik, suarena ezik, astuntasuna ta loditasuna baiño. Beste dana suarena da; zura legor dago, legor eta bero, argi dago ta argiazten; len baiño ariñago, suak egiñik egurrean gaitasunok. Era berean jorratu bear dogu jainkozko su au be. Jainkoak arimea berarekin batu ta egokitu aurrerik garbitu egin oi dau bere kontrako eraskin danetatik;

barruan daukazan loi ta ezain guztiak ateraten dautsoz baltz eta illun ipiñirik, eta olan leen baiño itsusi ta iguingarriago agertzen da. Jainko-garbiketa onek kentzen dautsoz arimeak sustartuta eukazan eta leen ikusten ez ebazan loi ta uger eta likistasunak. Orain bai, argi ikusten ditu, Jainko kontenplaziñoko argi illunetiko oni esker.

Orrez gairi, errezago ulertu daroa, oiñaze bizitan garbitzen ditun argia ta jakituri maitekorra dirala arimea Jainkoaz alkartuko ditunak; argi ori artu ezin daulako jasan eziñak jakozala samintasun orreik; garbitokiko arimak be antzera garbitzen dirala; maitasunezko su onegaz garbitzen dala, egurra apurka apurka berotuz doan legez; arindura onein ostean, arimeak biziago sufritzen dauala; zergaitik arimeak uste dauan on guztiak amaitu jakozala, eta azkenez, arrimea tarte batzuetan nasai-nasai egon arren, miñak barriro jotean, gozotasun bete barik geratzen dala.

Leza aundi bat da arimea, zokondo askogaz, eta errez geratu oi dira zokondo batzuk arras garbitu barik; eta naiko sustrai bat ondo garbitu bage geratzea, arimeak gozotasun osorik ez izateko, zokondo garbitu bako ori, izan be, beti daukazu zemaika, barriz eraso naika. Eta, barrurago garbitu ta argitu barik dagona ezin leike arimea konturatzeke, garbitu dana or dago-ta; egurrean be ba-da diferentzirik garbitu ta argitutik olako bakora, eta garbiketa onek barneago ber-erasoten dauanean, ezta arritzekoa arimeak on guztia amaitu jakola eristea.

Egoera triste au, ba, itxi nai dau. Maite-gar bizitan daukagu, ortik aske bere burua ikusi gurarik. Noiz izango ete? Bitartean, berak opa dauana kantatzen dausku:

Gogo bizitan, maitez sukarturik.

VI

Estu-aldi onein frutua

Gorago azaldu gendun arimearen alderdi sentikorrean zein latza dan gau illuna; orain adierazten dogun au zelanbait naiko diferentea dozu, arimea ta gorputza diferenteak diran legez, edo-ta espiritua ta zentzuna. Au, bada, ezta besterik maite-garra espirituan baiño; arimea, larri-aldi ta estutasun illun onein artean, zauri-

tua somatzen da Jainkozko maitasun sendoan olako Jainko senti-
mentu ta usmatze gozoan, alan be gauza berezirik ulertu bage,
adimena illunetan dago-ta.

Espiritua emen griñati egin da, maitasun aunditan; maite-su au
ixuria baita, artzaille geiago da, eragille eta orri dagokionez
maitasun griña sortzen dau animan. Eta onek dagoneko Jainkoaz
alkartu daneko zerbait daroa beragaz, eta olan . Aren gaitasunetatik
ba-dau zerbait, eta arimeak dagizan gauzak bereak baiño Jainkoare
nak geiago dituzu; egintzok artuaz dagoz arimeari loturik, baiña
beronek emen ez dagi baimena emon besterik. Alan be, beroa ta
kemena, lera ta garra Jaunarenak dira, arimeaz alkartzetik erneak.

Aundikiro gertatu oi da au garbiketa illun onetan. Jainkoak
ugatza kendurik daukaz arimearen aalmen eta lerak, eta ez dira gai
eurak nai leukeenik nai izateko. Onela dagi Jaunak, arimearen
kemenok lurtar gauzetatik baztertu ta danak. Beregan baturik,
gogoak indar eta trebetasun geiago euki daian, Jainkoagazko mai-
te-batasun sendo au artzeko. Dabid erregeak onela: *Zeuretzat nire
indarra osorik* (Sal. 58, 10). Au da, zeuretzat nire trebetasuna, nire
naimenen irrika ta indarrak oso. Zugaz kanpo, ez dot ezer gura.

Batu ta batzaindurik, ba, emen, su-gartzte ixiotu maitezko ontan,
arimearen gurari, irrirts, leia ta indarrak, lera gutartsu ta griñak
artua, zauriz ikutua, arei dagokienez, nolakoak izango dirala uste
dogu gurari ta indar guzti onein zirkiñak eta joan-etorriak, maite-
sutan eta zauri bizitan eta. Bera barik, illunetan eta zalantzaz? Aiko-
maiko ta ezbai barik, *gosez*, urian zear dabiltzan txakurrak legez.
Arimak be, maitasun ortaz ase eziñik, ausika ta erostaz dabiltz.
Maitasun onen ikutua, bada, jasan eziña da, ta maitasun orrek
dakartson min izugarria kendu eziñik milla jirabira egiten ditu bere
kau tan eta milla modu ta eratan doa Jainkoagana gurari bizitan.

Orrelaxe bizi zan Job santua be. Morroia, illuna noiz etorriko
egon oi danez; langillea, lan-sariaren zain, alaxe igaro zitun arek be
illabete latzak, eta gau nekegarriak, opera joatean, "noiz jagiko naz"
esanik, eta jagitean, "noiz etorriko ete jat gaba" esanaz. Urduri ta
atsekabe aunditan, bai, bakerik idoro ezinda. Dana egiten jako
medar, ez dau leku nasairik ez lurean, ez zeruan. Itxaron eta jasan,
emen lez, iñundiko uste ta pozkario barik. Sute onetan arimearen
oiñazea askoz be biziagoa da, alderdi bitatik geitua dalako; lenengo,
murgil aurkitzen dan espirituzko illunpeagaitik, dudaz ta susmoz,

bizi-bizi mindu ta erretzen dabela; bigarren, Jainko-maitasunaren aldetik, sutu ta akulatu da^soalako; bere zauri maitekor maitatsuz gaiñera arrigarrero izu-erazten daualako.

Sufriduteko era biok, egoera ontan, Isaias igarleak adierazten dauskuz ederto: *Zeu gura zaitu gabaz nire arimeak* (26, 9) au da, larri bizi nintzanean; baiña ondoren diño: *Alan be, nire espirituua zure zain dago goizerrarte*, eta au da bigarren erea, maitasunaren aldetik, espirtuaren erraietan, gurariz eta leiaz pentsatu, au da, gogozko eraspentak ausnarrean erabilli.

Emendik ikasi geinke, su maitekor onen gau illunak, arima illunetan garbituaz doan lez, era berean illunetan ixiotuaz doala. Espirituak olantxe garbitzen dira beste bizitzan, garbitokian, su goibeltsuz, emen garbitzen dira su goibel maitekor espirtuzkoz; an suaz garbitzen dira, emen garbitu ta argitu oi dira maitasunez bakar-bakarrik. Garbituz argitzen da arimea maitezko jakituriaren arragoan: Jainkoak ez dau iñoiz emoten jakituri mistikurik maitasun bage; begiratze samurrik, au maitasunak berak ixuria dozu, maitasuna ta jakituria alkarregaz.

Emendik ateratzen dogu, baita, arima oneik garbitu ta argitu egiten dabezana Jainko jakituriak berak garbitzen dabezala aingeruak be euren ezjakiñetatik, jakintsu egiñik, ez ekienetik be argiazorik. Jainkogandik ixuriz lenengo jerarkietatik ondorengoetara, eta andik giza-semetara be. Beraz, aingeruak egiñiko gauzak, eta goi-argipenak, egi-egiaz diño Liburu Santuak JAinkoak egiñak dirala eta eurak; geienik, ba, euren bitartez datoz, eta eurak be eurenetik eurenera luzatze barik; eguzkiaren izpia be, leiar edo kristal askoz eraturiko moltzotik etorrita be, berez egia da leitar guztietatik igaroz datorrela izpia, oindiño bakotxak bialdu ta argitu daroa beste obeto atondua, leiar moltzo arek eskatzen dauanez, laburtuago ta ez ain gogor, eguzkitik a zelan aurkitzen dan urrago edo-ta urriñago.

Ondorenez, ba, goiko ta beeko espirtuak, Jainkoagandik urrago ta garbiago ta argituago aurkitzen jatzuz; eta azkenengoak me, bakun eta urrundik artuko dabe argitze au, eta jakiña,onek bere modura artuko dauan ezkerero, mugatua ta nekez eta ozta-oztan izango da artua.

Su-pizte ta maitezko gogo au arimeak ez dau beti sentitzen, lenengotan bada, gogozko garbiketa au asten danean, jainkozko su

onek denpora geiago daroa arimearen egurra leortu ta eratzten, berotzen baiño; gero, alan, be, aurrera egiñik, su onek arimea berotuz doanean, somatu oi ditu geien-geienetan sugar ori ta maitasunaren beroa. Naia kiskaltzen doa, beronek ezer egin bagarik; garretan dago jainko-maitasun sua, eta arimearen ustez, su bizia jatorko emonez dau kan ulertze argitik. Dabid erregeak ederto: *biotza barruan erreten asi jatan* (Sal. 38, 4).

Emen aalmen biak, adimena ta naimena alkartzen dira, arimea edertu ta pozturik. jainkotasunean egiten dan alako ikutu bat da au, eta itxaroten dan maite-alkarte osoaren asiera. Eta olaxe, jainkoagazko maitasun eta sentitze ain goikoaren ikutura ezta eltzen nekelan asko ta garbitzearen epe aundia igaro arte. Baiña beeragotik dabilzan beste batzuk, geienetan jazoten dana, ez dabe bear orrenbeste garbiketa.

jainkoak ariman, guk artuaz, ixurtzen dauskuzan espirituzko doai ta onetan, naiak ondo maite izan leike adimena konturatu barik, baita adimenak bē ulertu leike naimenak maitatu bage; gau ontan sartzen dira jainkoak argia ta maitasuna eta suak argia ta beroz jantzita dagoanez, ezta atzerabide, argi maitagarri au datorrenean, batzutan borondatean geiago jotea, Maite-suaz ixiotu ta adimena illunetan iztea ezta arrigarri, argiaz bertan zauritu bage ain zuzen be, eta beste batzuetan, argiaz ditziratzen dauala, aditzen emonik, naimena legor itxirik; baita gertatu oi da suaren beroa artu izatea argia ikusi bage, baita argia ikusi al izatea be suaren beroa artu barik, eta au jaunak egiten dau bakotxari berak nai dauanez doaiak banaturik (I Kor. 12, 11).

Gartze au maitasun griña geiago dozu naimenaren egite askea baiño, maitasun bero orrek ba arimearen mamin-mamirieran zauria dagi, eraspelai artuz zirkin eragiñaz. Ortik esan oi dogu, arimea zeozergaitik bero dagoanean, naimena dagoala, eta egia da, naime-na onan katigu geratzen bai da, griñaren indarrak narras daroalarik. Or Mari Madalen, Kristoren billa joan zan illobira, maitasunak sukartua, illobia sillatua ta zaindua egoan arren, ez eukazan gauzok begien aurrean, eta illobi ondoan dago negarrez. *Jauna illobitik eroan dabe* diño.

VII

Seguru doa arimea

Maite ezin daikegu aurki ez munduko zurru ta abarrots artean, ezta giza-barneko barbaillean be. Kristori legez basamortuko ixilla ederrago jako Jainkoari beragana erakarri nai dauan arimeaz artu-emonean ekiteko. Maite diranak bakartadea billatu daroe euren gauzak alkarri emoteko. Arimea be, aitatu olerkiaren metaforari eutsiz, gabaz urteten jaku bere etxetik, iñok galazo ez dagion, etxeakoak bakezkoak egin ondoren.

Zorion zabala ziur gau onetan, Jainkoak egin eutsona: bere etxeke jente guztia lotan jarri. Bardin dana, aalmen danak, griña, gurari ta zer guztiak baketu, zentzunez eta gogoz animan aurkari bizi diran guztiak ixil-erazo, iñok oartu barik andik urrindu eiten.

Beraz, zuzen eta egoki abestu eikean arimeak:

*Illunetan eta seguru
mailladi gordetik koko jantzian;
-au nire zorion aundi!-
ixil-ixil urten nintzan
ene etxea neukalarik bakian.*

Kantuz doa arimea, eresika, daukan poza zabalduz. Ez daijala iñok uste izan, oinbesteko oiñaze, duda, ezbear, iruditu ta peko sufridu bear izan ba'ditu be, origaitik galtzeko arrisku geiagotan sartuta ibilli zanik, gau illunetan ibilliz irabazi geiago egin eban-eta. Jantzia be aldatu egin eban, iru jazkera ta kolorez koko biurturik. Eta mailladi txit gordetik, iñok ez ekianetik urten zan, fede bizitan, oso seguru; etxeakoak lo, ta "nire etxea bakean".

Arimea, beeko gaiez garbi ta goikoz argi, Jainkoagan ustetsu doa. Ez dau zergaitik usterik galdu. Geienik ez dau okerrik bere gurari, irrits eta lerak, bere barruko goraberak dirala-ta izan ezik; oneitan okertu oi da geiegiz edo gitxiegi, aldatu edo utséegin daualako, edo egoki ez danera makurtu dalako. Ortik arimea, egin eta zirkin oneik galazorik, argi dago, orreitan uts-egitetik seguru geratzen dala.

Illunetan doalarik *seguru* bakarrik ez doa, baita irabaziz be. Zergaitik orrela? Arimeak geienetan berak galduaz doala uste

dauan lekuan irabazi egiten dautzu; berak ez dau egundo be izan olako zantzurik eta barririk, beretik urten eragin eta edu orretan argiturik; irabazita gusto ta gozotasunak galduaz doala, ekiana be ez dakiala, eta abar.

Adibide bat. Ezagutu bako lurraldera doa urlia. Bide barrietatik doa, ez lendik ekianak zuzenduta, dudaz eta besteak esanai kasurik egiteke. Eta argi dago, au ezingo da joan lurralde barrietara, ezta leen ekian baiño geiago jakin be, ezagutzen ebazanak itxi ta barrietan zear ba'dabil. Gisa-berean, gauza geiago ikasiz doana bere arte edo ogibidean, beti doa illunetan, ez bere lenengo jakiñagaitik, aurreratzea itxiko ezpa-leu ba iñoiz be ez leuke andik urtengo ezta aurrera egingo be: orrelaxe arimea be, aurreratuz doanean, illunetan doa ta ez-jakiñean. Jainkoa da arima itsu onen itsu-mutil zuzentzaille, eta pozik adierazo daike onek *illunetan* eta *seguru* doala.

Ba-da emen beste errazoi bat be, arimea zergaitik doan *seguru* aditzera emoten dauskuna. Sufritzen dan bidea atsegin bidea baiño seguruagoa dalako. Batetik, neke ta oiñazetan Jainkoak berak indar-erazo oi gaturalako, eta bestetik, nekeak bizi ta jasan izatean, birtuteak ugaritu ta arimea bere kautan jakintsu ta zuurrago biurzen bai jatzu.

Nasai ta ondo aurkitzen da arimea, emen ezkututua ta babestua, Jainkoaren ondoan. Jauna bera dau etxola ta egoitza, eta bardin dautso argitan naiz illunetan egon, zaintzaille ezin-obeia bai dauko alboan.

VIII

Maillaz mail gorantza

Mailladi gordetik koko jantzirik doa arimea. Egoki dala deritxat itzok azaltzea. Ikuste illunetik urtenaz doakigu, azken gaillurrean Maiteaz batzeko. Bide au ezkutua da ta maillatsua.

Oni esaten dautsagu lenengo Akino'ko Tomas deunak diñoanez teogia mistika; arimeari emoten jako naitasunez ixurita, eta ezkutan, egimenak eta beste almenak ezer ez dakiela. Espiritu Santuak, arima barruan dago-ta, iñok jakin barik, ixuri oi dautso; ortik deritxo ezkutua. Egi-egiaz ez berak bakarrik beste iñok be ezdaki,

ezta deabruak be, irakasten dautson Maisua barruan dauko-ta; orra, oster, ez daukie eltzerik, ez deabruak, ez berezko zentzunak, ezta adimenak be.

Ezkutu izate onek daroa arimea Jainkoaz alkartzera; mistikoki itz-egiñik emen legez, jainkozko gauzak eta doeak ez dira ezagutzen ez ulertzen eurak diran bezela billa ibiltean, aurkituak diranean baiño. Baruk igarleak onan: *Ez da aren biderik jakin dagianik, aren bide-zidorrai antzik emoten dautsenik* (3, 31).

Jakituri ezkutu au mailla be ba-da; errazoi askoz deitu geinako olaxe. Lenen, zurubiz igon bakarrik ez-eze, gaztelu ta gotor-lekue-tan dagozan ondasunak eta altxorrek euretatik jasoten diran lez, orrelaxe emen be, ikuste ezkutu onetan, zelan ez dakiala, zeruko ondasun eta altxorrek ezagutu ta eskuratzera igon oi da arimea; zurubiak goratzeko ta beeratzeko balio dau, goratzeko daukazan maillak daukaz beeratzeko be; goratu ta apal-azo daroa Jaunak, jainkozko doeak, ba, indar orize dabe; bide onetan, jastea igotea da ta igotea jastea. Lukas deunak ederto: *Bere burua goratzen dauana, beeratua, eta bere burua beeratzen dauana goratua izango da* (14, 11).

Au onela da. Egoera betea, esanda geratu danez, Jainkoaren maitasun oso-osoa dago, eta nobere burua oinperatzean; au da, Jainkoa ta nobere burua ezagutzean. Arimea naitaez zati bi orreitan jarduna ta oitua izan bear, lenengo goratuz eta gero beeratuz, oitura ta ekandu osoz jantzirik, gora ta beeratze ori gelditurik, dagoneko zurubi azkenean dagoan Jainkoaz alkaturik. Gogora eizuz Jakob'en mailladia ta gora ta beera ebiltzan aingeruak.

Orain maimiñagora joaz gai onetan, *mailla* esaten jako emen ikustea maitasunezko zienzia dalako, Jainkoak ixuritako albiste maitari legezkoa arimea maiteminduz ta argitan murgilduz, maillaz mail bere Egille Jainkoaganaiño daroana, maitasuna bakarrik baita arimea Jainkoaz batu ta alkartzen dauna.

Arimea koskaz koska igonaz doan *maillak*, amar dira.

Lenengo, gaixotu egiten dau arimea obari ta probetxuz. Abestietan dirakurgu: *Jerusalen'go alabak, arren bai arren dirautzuet: neure maitea aurkitzen ba'dozue, esan eigozue, maitasunez gaixorik nagoala* (Abest. 5, 8).

Bigarren, arimea Jainkoaren billa jarten dau aspertu bako arazoan: Toki berean: *Jagiko naz, eta billatuko dot nik maite dodana* (Abest. 3, 2)

Iragarren, beroa ezartzen dautso arimeari egintzetarako ta utsik egin ez dagian. Dagian guztia txiki iruditzen jako, ta aundiagoetara joten.

Laugarren, arimeak, Maite dala-ta, neke bagako sufritze bat. Augustin deunak: Gauza aundi ta astunak oro ez dira maitasunge egiriak.

Bostgarren, arimeak Jainkoa billatzen eta gura izaten errerik. Maitea ulertu opa dau, eta berarekin alkartu.

Seigarren, maiteagana doa bizkor, itxaropenaren egoz; sendo dago maitasunean, eta egazka doa azkar be azkar.

Zazpigarren, ausart egiten jatzu arimea. Zer-esanak ez dau emen atzeratzen, ezta konsejuz asitik aldendu, ezta lotsaz bertan bera itxi be.

Zortzigarren, arimeak oratu ta ez laga, egin oi dau. Abestietan emazteak onela: *Neure biotzeko maitasuna idoro neban, eldu neutsan eta ez dot itxiko* (3, 4).

Bederatzigarren, arimea kiskaltzen dau leuntasun aundiz. Osoena da mailla au. Kiskaltze au Espiritu Santuak burutzen dau eurekan, Jainkoaz alkartuta dagozalako.

Amargarren, arimea Jainkoaz bardintzen da oso-osorik, onegaz daukan ikuste beteagaz. Bizitz onetan arimea, bederatzigarren maillara eldurik, aragia itxi egiten dautzu. Onakoak, ez dira askorik, baiña Garbitokian be sartu barik doaz zerura. Ondo diño Juan deunak: Ba-dakigu aren antzeko gareana (3, 2). Ez arimea Jainkoa baizen gai egingo dalako, ori eziña. bai da, bera dan guztia Jainko antzeko egingo dalako baiño; origaitik, Jainko deituko jako, eta Jainko izango da arteko izanik.

Auxe da arimeak diñoan mailladi ezkutua, gorenengo mailletan ain ezkutua ez danarren, arimeari bada, ezkutu ori, asko beintzat, agiriko egin jako. Egun aundian bete-betean eta zabal-zabal egingo jakon arte.

Orrela doa arimea, teologi mistiku onen bidez, lureko zer guztietatik eta beretik be urterik, Jainkoagana igonaz. Suaz kidetua da arimea; sua beti doa gorantza, bere goi-billaren erdian barrendu naiez. Gurari bardiñak darabil arimea be.

I X

Koloreak

Oraindik zerbait falta da emen bertsoa osotzeko. *Koko jantzirik* diño. Zer da ori? Kokotx-egun, sasi-aratuzte ta olakoetan aldatzen da jazkera, iñok ezagutu ez gagizan. Karatula, muxaranga, koko, zomorro ta antzeko izenak ezartzen dautseguz batez be arpegi ta buru aldeko jantzi-orde onei.

Gure artean urlri ta sendi egunetan egin oi dana, arimeak be, beretik eta lureko gauzetatik, ixil-ixil, iñor konturatu barik urtete-ko, koko-jantziak artu dauz, leen aukan soiñekoa aldatu egin dau, itxura eder orretan orain, garbi, aratz, sotil eta lerden, grazi ta maitasun bizitan, berak laztan dauanaren biotza irabazi nai dau, baita koko jantzi da bere etsai ta leikideak igarri barik iges eginda, berea obeto aurrera eroan al izateko. Beraz, jantzirik nabar, txukun, dotoreenak artu ditu Maitearen biotza erakarteko ta aurkakoak ondoen atzipetu al izateko.

Arimea ba emen, Kristo Senarraren maite-suak ikutua, grazi ta lerdentasunez borondotea irabazi gurarik, koko jantziaz doa, bere biotzaren gurari, irrits eta apetak bizien adierazo leikezan koloreakaz eunduz jantzita doa. Olan, aldean daroan soiñekoa iru kolore nagusiz dotoretua da, zuria, berdea ta margotua, au da, iru teologi birtuteak: fede, itxaropen eta goi-matasuna.

Fedea, barne-jantzi bat dozu zuri-zuria irakoi oso, begiak lausotzen dauskuz ulertu naitik. Eta arimea fedez jantzia joanik, etsaiak eta izterbegiak ezin deusik nabari. Eta jantzi auxe eroian arimeak gau illuna iztean; adimenak ez eutson atsarterik emoten, ez goaldirik, ez argizko babesik, ez goitik, zerua itxirik zirudian, ez jainkoak, gorderik bai egoan; ez beetik, erakusten eutsenak, ba, ez eben beteten, eroapentsu sufridu eban eta luzez iraun, neke-min areik eroanik akitu ta Maitea iraindu bage, Onek lanetan eta atsekabe-esturetan ikuskatu oi dau bere Emaztearen fedea.

Jantzi zuri onen gaiñean jazten dau arimeak beste bat, berdea, itxaropena, eta jagon eta zaintzen dau arimea bigarren etsaitik: mundutik. Berdetasun onek -itxaropenak-, berotasun bizia Jainkoagan, sendotasun bizi ta beroz ornitzen dau arimea, eta betiko bizitzako gauzetara jaso daroa, munduko gauzak olan lior, pirtxil eta ildako begitantzen jakoz, bape balio bakoak.

Zuri ta berde onein gaiñean, jantzi ta mozorro onen amai lez, arimeak emen irugarren kolorea daroa; soin-gaiñeko lez toga eder bat daroa, margoztua, irugarren birtutea, goi-maitasuna, iruditzen dauana; onek ez bakarrik beste kolore biai bikaintasuna ezarri, arimea bera, goi-goira jasorik, Jainkoagandik ur-ur jarten dau, eder baizen atsegingarri.

Mail-suzkoa dan jantzi onekin onezkero, Maiteagan maitasuna geiago ixiotuz, irugarren arerio dan aragitik be babestua, ezta emen maitasun loirik sartuko, norberez eta beste gauzez garbi, birtuteak loran, grazi ta eragin eta liraintasun guritan, Maiteari eder izan dakion. Jantzi onegaz, eder eta zoragarri, doa arimea, esan dogun lez, beretik eta gauza guztietatik urtenda, Jainkoaz alkartzera.

Labur: auxe da arimeak mailladi ezkutuan zear Jainkora doala aldean jantzi ñabarra, iru kolorezkoa. Auxe gertaera Jaunagana joateko modurik ezin-obeia arimea Jainkoaz alkartzeko bere iru aalmen, aditza, gogoratze ta nai izatez.

Fedeak illun-azten dau adimena, Jainko-jakituriaz batzeko. Itxaroak gogamena garbitu ta urrindu dagi zoztor jakozan zer guztitik. Goi-maitasunak naimena utsitu gurari ta griña oroz ustua ta alkar-tasunerako gaiturik.

X

Bakean ene etxea neukalarik

Ezta errez gure izatearen alderdi biak, goikoa ta beekoa, bakean jartea; etsai bi, bakotxa bere guda-taldeakaz, aspertu bako ixtilluan dabiltzanak dira. Goiko alderdia beekoren aurka, eta alderantziz. Arimeak, alan be, Jainko maitezko batasunerako urten ebanean, goiko ta beeko griña ta aalmenetan, ezti ta gozo, baketan itxi ebazan.

Andik zelan urten eban dakigun arren, egoki izango da emen be azken igurtzi bat egitea. Gau illuneko auzka ta burrukaldi aretan, arimea modu bitan eraso ta garbitua dalderdi biai, au da, gogoari ta zentzunai dagokienez, euren aalmenakaz eta gurariakaz; edu orretan jadesten dau-ta bakea ta naretasuna.

Atsarte, geldi-aldi ta bake au arimeak espiritzuko etxe onetan jaristen dau, oituraz ta oso-osorik, batasunezko ikutu izatezkoen bitartez, ixil-ixillik eta ezkutuz, deabru, zentzun eta griñak konturatu barik, arimeak garbituz Jainkoagandik artu dabezan mesedeakaz. Orrelaxe lortu dau bakea ta sendotasuna, eta iraunkor gertatu da esandako alkartzete ori, arimearen eta Jainko Semearen arteko ezkontza iraunez artu al izateko.

Arimearen etxe biok baketu ta euren etxeko guztiakaz baten indartsu diranean, goiko ta beeko zer guztiakin lo ta ixillik jarten diranean, Jainko Jakituri au tartekorik bage ariman lotzen da maitasunezko jabetze barri baten loturaz. Jakituri liburuak onela: *Dana ixiltasun baretsuak eukala, eta gaua bere ibiltaldiaren erdira eldu, zure. Itz guztialduna, Jauna, zeruetako errege-aulkitik jatsi zan* (Jak. 18, 14-15). Abestiak be onela: *Uri-zaiñak aurkitu ninduen, astindu ta zauriturik; soingaiñekoa kendu eusten* (5, 7), *baiña areikandik aldendu nintzaneko, neure biotzeko maitasuna idoro neban* (3, 4).

Bost naiz zazpi bidar esanik be, egoki jaku egi aundi au ondo barrentzea: ezin daiteke eldu batasun ontara garbitasun benebenetako barik eta garbitasun au ezta lortzen sortu gauza guztietatik billostu ta nekaldi ta ildura bizi bage. Auxe adierazo nai dau Emaztearen soingaiñekoz eta gabaz zauritu Senarraren billa ibilliaz; ezkontzatik etorriko jakola uste eban soingaiñeko barria, ez jakon etorriko zaarra erantzi barik.

Beraz, naimenez billois eta ilduratua Maitearen billa gabaz urteteko muker dagoana. Emazteak egin oi ebanez oian nasai egonik, ez dau Maitea aurkituko, arima onek, illunetan eta maite-leraz urtenik, aurkitu ebaladiñoanez.

*Gauaro zori ontsuan,
ixilka, iñork oar ez nindularik,
nik ezer ez nekusala,
ez argi ez gidaririk
biotza sutan eukana ezik.*

Arimeak oindiño antzeko ta metafora bardiñari jarraituz, gauean aurkitu ebalá diño bere Maitea. Biziro nai eban azkena lortzera eldu zala adierazten dausku labur eta ziurki, iru obari aitatuaz.

Lenengo, modu bakar eta ezkutu batez daroa Jaunak arimea gau mistiku ontan zear. Ez bere ezerk eta ez sorkarien ikutuk ez jako eragozpen daroan bidean geldi-azteko.

Bigarren, gau ontako illunpeak; arimearen goi-aldeko indar guztiak illunetan dagoz. Ezin dau begitu ezertara be, Jainkoa bakar-bakarrik begiraten dau; gogoa bidean geldi-erazten daben zer guztietatik aske doa.

Irugarren, illunpe itzal onetan, arimeak ez dau euskairik, ez nok zuzendarik, eta beti illunarte baltzean, baiña barruan su-garretan daroan maitasunak saka eragiten dau tso Maiteagana, eta auxe dau gidari, eta pozik diño:

Gauaro zori ontsuan.

MAITE-KANTA

SARRERA

Auxe da Gurutzeko Juan deunaren poemarik luze ta ederrena, erderaz *Cântico Espiritual* deritxona. Or itxi dogu arimea Jainkoaz alkaturik, *Gau Illuneko* oiñaze bizi-biziak urratsez-urrats igaro ondoren. Orain Jainkoaren altzoan daukagu kanta-kantari. Eta emen Jainkoaren zerbitzu mistikuan sartu dan arima berberaren bizitzako poz-atsegiñak argi ta diztikor eskintzen dauskuz berrogei estrofatan.

Aurreko liburu bietan ikusi dogunez, apurka doa bere alegiñez eta Jainkoaren ondonaiez, santutasunean gora egiñez. Olan saiatuz ikusi dogu *Igoera'n* eta *Gau Illunean*. Jainkoak santu loi barik eta beti barri nai gaitu; eta Gurutzeko Jaun deuna ortarako bideak erakusten alegindu jakun eta ez dira gatxak onek irakatsitako bideak. Arimeak lenengo garbitu egin bear dau Jainkoaz alkartzeko; garbiketa ori osotzeko era damosku lenengo liburu bietan: Gero, arimeak Maiteaz daukazan artu-emon gozoak azaltzen dauskuz, astiro ta barrenkoi, *Maite-kanta* ta *Sugar bizia* deritxonetan.

Iru bide, garbitzekoa, argitzekoa eta bat-egitekoa, ikutzen ditu gogozko jardun onetan, naitaez urratu ta igaro bearrak. Lenengo bidean asi-barriak dabiltz; bigarreanean, argituz aurrera doazanak, eta irugarrenean, ezagutzez eta maitatzez Jainkoaz gero batago egiñik, gogozko ezkontza dagienak. Iru bide oneik, alan be, ez dira alkarrengandik oso bereziak, edo urrinduak, bide bat beraren iru zati baiño. Beraz, ezin dogu esan: "Emen amaitzen da bat, emen asten da bestea". Bide orreitan dabiltzanak ba-dabez, bai, euren etenaldi ta gora berak; gaur aurrera ta biar atzera egiten dabela, esan bear. Ortxe dabiltz, jagi ta jausi, euren kautako burruka latzean. Zergaitik? Iñoiz be artzen ez dabela aurrera joteko erabagi sendorik.

Poema au etzan sortu dana batera. Ziurrik asko etzan sortu beroaldi batean. Albisterik seguruena dogunez, Toledo'n (1577-78) giltzape aurkitzen zala ondu ziruan 31 lenengo estrofak; Baeza'ko Ikastetxean nagusi zala (1578-81) urrengo irurak eta azkenengo bostak, 1582-84 bitartean, Granada'ko konbentuan nagusi zala 1582-84 'an, bear bada. Euron azalpena geroago egiña da.

Olerki bikaiña. Gurutzeko Juan deunak, karmeldar Lagundia, Santa Teresarekin batera, len-erara biurtu eban gizaki gotorrek - idatzi neban nik beiñola- ez dau ezer be erdizka ta urgun izten. Or dozu *Barne-kanta*, maite-eresi sutsua, munduko literatur kondairan ezagutzen danik eta olerki lirikurik ederrenetarikoa. Or argi oro, poz eta atsegin; argitara baita arimea. Uxa ta urtu dira laiño baltzak eta odei ikaragarriak; gogorra, txit neketsua izan da gora-bidea, *Igoera* deritxonean; nekearantzez josia *Gau Illunetan* ibillatakoa; baila or orain arimea aratz eta dirdaitsu, mendi-gaillurrean, jainkozko argitan blei-bleita. Aren gozotasunean murgildua.

Maite-kanta onetan arimeak eta Kristok, alkar izketa lillurkorez, euren barren miriak oiukatzen dabez, samur baizen giar. Ez arek ez onek, ez dau ezeren kezkarik; edozelako axolik ba'dabe, maiteminduak izan oi dabezanak dira, maitasunak dakartsoezan min eta zauri gozoak, gogo miña samurtasunez urtuaitzen dituenetarikoak.

Lenengo aapaldietan, gorde ta agiri, kukuka dabilta jolaszurean; gero, bertso-kantu garaitsuenakin, alkarren arteko edertasunak eta doaiak abesten dabez; eta, azkenez, alkarri itz -emotea ta ezkontza ostena, arimearen eta Kristoren arteko ezkontzea, bi maitaleen arteko gurari, uisi ta naizko bat-egite zoragarria. Arima Emazteak ez dau nai emen Kristo Bere Senarrak nai dauana edo nai ez dauana baiño: onezkero, bata-bestearenak dira alkar-emote txit zoramenezkoan.

Orrela amaitzen da zerutar kantu au, loretsu, argi ta sentimentuz betea. Baiña gero zer gertatzen ete da berton? Zer gertatzen ete maitale bion artean? Zelako bizimodua ete daroe biok? Arimeak ez dau beste arazorik, begiratu gozo etenbagean Maitea ikusi ta maite izatea baiño. Ixil utsezko egoitza barnekoian zokoratu bi, Kristok ikutu bigunez, gero ta geiago pitzazo ta azkortzen dau bere Emazte arimea.

Maite bizitza ori be ezin itxi iñolaz karmeldar Olerkariak -berak biziz ikasia nunbait- adierazo bage. Beste poema bat ondu eban ortarako: *Maite sugar bizia*, labur ta jori. Arek bai azaltzen ditula ederto arimearen barru-oarpen, zauskada ta zirrara esangaitzak! Illeti antzo, irazarkia dirudi arimea Jainko-maitezko su goritan; eiagora ta asperenka dager, maite labean murgil. Batean iru dan Jainkoak erreten dau bere altzo uler-eziñean. Alan be, oraindiño lurrezko soin-barruan esiturik bere burua ikusi ta zeru-dirdira zelanbait dastaturik, ez dau bizi nai geiago; eriotzea opa dau, ta alan eskatzen dautso Jainkoari.

Onako zerbait kantatu eban beiñola gure olerkari gartsu batek:

*"Hilik baizen ezin bizi, hau da bada zortea!
Eta oraino bizi behar, bortxaz, o dolores!
Ezinéhilak ene baitan ala baidu luzatzen,
O Heriotze maitea, zer hau horla berantzun?"*

LENENGO KANTA

Deika

Arimeak, Jainkoagana biurtu ta Aren zerbitzuan asiz, ainbat egia gogoratu ditu: bizia laburra, zerurako zidorra estua, uts-guzurtiak munduko gauzak; danak dauala amaia ta azken-kontu zeatza. Bera bestaldetik Jainkoak egiña da, eta Ari zor dautso daukan guztia; Kristok bere odolez eresia da. Eta zer egin dau berak ainbeste mesede ta maitasuni erantzuteko?

Orrenbesteko esker-txarrari osakaia ipinteko, bertatik jagi ta zerbait erabagi dau. Jainkoa, baiña, urrindua dau ikusten, gordeta legez. Arima lurreko izaki artean ibilli jatzu luzaroan, bere Egille samurraz azturik. Bildur izugarria damotsa onek, baita barru-min bizia be, beraz beeko zorakeri guztiai agur dagitse, ez egun ez gau geiago luzatu bage. Jainkoaz zauritua, garraxi bizitan asten da bere Maiteari oiuka lenengo estrofan onela diño:

*Nun baiña gorde zara,
Maitea, ni emen oiuz itxirik?
Ni zaurituta, iges
zoaz oreiñn legez;
emen nozu deika, ta Zu joanik.*

Maitearen urriña eroan eziñik, zauriaren miña ezin gaindituz, indar biziz dagitso deadar: "Nun ezkutatu zara; Maite ori?". Kristo izan be Jainko gordea da; aitaren altzoan bizi da, antxe dau bere izatea. A oster a eztau giza begiak (jainkao) ikusi, ezta giza adimenak ulertu be. Ortik atera ta jakin gengike, arima batek mundu onetan Jaunagandiko ar-emon, agiri ta jazo gurenak euki arren, guzti orreik ez dirala egundo be Jainkoa bera, zer guztiok baiño gorabera ta ezkutuago dala arimearentzat. Arimeari bidezkoa jako beti be gordea billatzea, Maitea gorderik baitago.

Kristo, arimearen Senar maitea, nun ete dago ba gorderik? Itza, au da Jainkoaren Semea, Aitagaz eta Espiritu Santuarekin bat, izatez eta andi-andirik, gure arimearen muiñ-muiñean dago gorde ta lez. A idoro bear dauanak be ba, orixe bera egin bear dau: griña zelekero ta badaezpadako gauza guztietatik urtenez, bere barru-barruan sartu ta Kristo dagoan tokian bertan kiribildu ta gorde. Ez balira lez begoz kanpoko zer guztiak. Ez billatu ortik zearka zeure barruan daukazuna. Jainkoa gorderik dago, eta egiazko maitasun berok ortxe billatu bear dozula Kristok berak diñotzu. "Jainko-erria zeuen barruan daukazue" (Luk. 17, 21). Eta Paul apostoluak: "Zuek Jainko biziaren etxe zarie" (2 Kor. 6, 16).

Pozgarri jako arimeari, Jainkoarena dala jakitea. Pekatu astu-nean egonik be, Jainkoa beti berarekin; grazian bizi ezkerok, are geiago. Pozru beraz, eta ez ezer billatu kanpoan; barruan daroazu bada: aberastasunak, atsegiñak, pozak, ots, Jainko-erreiñua, zeure Maitea. Ur-ur daukazu. Bere zaitu; sar zaituz zeure barruan, eta ar atsegin-poz; gurtu ta maitatu or. Etzaituz joan Aren lorratz billa, oiuka ta zoriñez. Urrago ta ariñago ez dozu aurkituko, zeure barruan baiño.

Jainko ostendua

Alan be Maitea, zeuje gogo-gela ixillean euki arren, gorderik bizi da. Nun dagon jakitea, orraitino, ezta gitxi. Oindiño diñozu: "Bai, ba-dakit barruan daukodana; baiña zelan ez dot nik somatzen?". Ona zergaitik: Gordeta dago, ta zuk be A somatu ta aurkitzeko, gorde ta ostendu bearra daukazu. Nun baiña? Zeure izatearen muiñean. Gauza bat aurkitu nai dagunean, izan be, gauzea bera

da gon lekuraiño eldu bearko dogu, ezta?, eta gordetako gauza baizen gordeak egin. Eta billatzen genduna aurkitzen, gauzea baizen gordeak gagoz gu be.

Zure Senar maitea onela edo da: soloan gordetako gordairua (Mat. 13, 44). Merkatari zurrakeukan guztia emon eban axe erostearen. Zuk be, gauza guztiai agur egin eta ateak itxirik, sar zaitez zeure gogo gela ixillean, eta egiozu otoi zeure Aitari ezkutuan. Eta Agaz gorderik zagozala, ezkutuan begira daukazun Aita somatuko dozu, gozo baizen bizi, ezkutuan nabari izan eta maitatuaz, ezkutuan izango dozu Aren atsegiña, miiñak ezin-esan alakoa.

Fedea ezta emen garrantzi gitxikoa. Jainkoa bera da ezkituan mamin, Jainkoa bera dozu misterioz beteriko ezkutua, Jainkoa barriz fedearen guna, mamiña. Jainkoak diño jasai i garlearen bidez. *Toki ezkutuetan gorderik dagozan ezkutuak emongo dautzudaz* (45, 3). Fedea da ezkutu ori. Arimea orren bidez doa Jainkoagana. Fedea nunbait Agana garoazan oiña, eta maitasuna Agana eskutik zuzentzen gaituna.

Bebil arimea siñismenezko ezkutuak arakutzen, eta maitasunak estalgetu ta agiri-azoko dautsa Senar maitea. Alan eta guzti be, ori eldu artean, au da, maitasunezko Jainko alkartze betikoz zeru ederrean atseginkor bizi izatea lortu artean, arimearentzat beti izango Jainko ezkutua -Jainko Aitaren kolkoan baidago gorderik- eta berezko jako etenbako itauna ta Jainko-billa ibilte asperbakoa. Billatze ori ondo datorkio arimeari; olan, ba, asko be asko goratu oi da Jauna, ta ixil zakonean aurkitzen dan Orregana ez gitxi urreratu be.

Arimeak beti, zein zori txarrean zein ugaritasunean, jainkoa ezkututzat euki bear dau, ta Ari oles egin deadarka. Ementxe dago gure eskabide askoren untzea. Jainkoari sarri deitzen dautsagu "Maite", baiña bene-benetan ezta gure Maitea. Zergaitik? Geure bizitza ez daukagulako oso-osorik Jaunagan jarrita; gure eskaria olan ezta Aren begien aurrean izan bear leuken baizen baliotsu. Eta, jakiña ezain arin eskuratzen eskatu daroaguna, baiña bai aspertu barik otoitzari ekiñik; olan gure espiritua geiago jarraiago Jainkoaz eukitera eltzen gara. Biotza be Arekiko maitasun griñaz osoago egin oi jaku. Ba-dakigu, Jaunagandik ezta ezer jadesten maitasunez ezpada.

Intzirika

Biotz maite bik alkar espa. Ta banana, alkarrengandik urrun egoteak, benetako intziri-oiva sor-azten arein biotzetan. Mistika zelaian be, arimeak eztau Jainkoaz kanpo ezertxo be maite, ez dautso ezerk pozik ekarten, ez jako ezer atsedeen-bide. Ain zuzen, ezerk pozik ez ekartetik ezagutu oi da arimeak Jainkoa maite dauala; ez, gauza guztiak batera eukita be, Aregaz ezik, eztau pozik izango; bai, ostera, poz gitxiago ta ase-ezago aurkitu. Zerk dakartso biotzari atsegiña? Ez asko eukiteak, gogoia billois eta txiro eukiteak baiño. Ementxe datza maitasunaren betea.

*Ni zaurituta, iges
zoaz oreiña legez.*

Irudi au ezta arrigarri. *Abesti bikaiñean onela: Nire Maiteak niri, basauntza ta basauntz-kumea gogora dakarstaz (2, 9)*. Basauntza edo oreiña bere gisako da, bakar-zale, zelai-landetatik igeska dabillena; ager-gordeak bizkor egin oi ditu. Orrelaxe Kristo *maitea* be; igeslari dabillena, ikustalde gozoak egiten dituna. Arimea olakoetan, poz emoteko egin oi dau tsozan ager-aldietan jasoaz doa, baita oar-azten dautsozan urriñaldi ta oztasunetan maite-auzian ziurpetu be.

Gogoak, onako Jainko ikustaldietan, zauritu ta sutan izten daberen maitezko ikutu batzuk izan oi ditu. Onek arimea, suzko gezi antzera, alderik alde urratu ta zulaturik izten dau. Ikutu oneik dira berarizko maitasun zauriak. Zale-zale egin oi arimea, sutatu, maitegarretan kiskaltzeraiño. Igartu ta arbinduaz, bere baitatik atarazten dau. Baita izaketa barria artu-azo be egiten dautso. Penix egaztia erre ta ber-jaioten ei da. Orrelaxe arimea bere.

Maite-oiñaez

Maitea ikusi, or arimearen irrika ta miña. Geiegizkoa deritxo maitasunak beragaz daukan jokabide latza. Bera zauriturik ikusi arren, orrek ez dau ainbeste kezkatzen, zauriak osasungarri bai jakoz. Maitasunean penaz itxi daualako, or bere kexaren zio ta errazoa. Indartsuago jo ta ilteraiño zauritu ba'leu, gogozkoago



Aita Juan bakeak egiten.



Aita Juan, eroango zituan miriak aurrean daukazala.




jauna agert7r1 jako, gurutzea bizkarrean dauala.



Aita Juan, bere aniaiaz berbetan.



Aita Juan sute aundi bat itzultzen.



Aita Juan, erbesteratua lez, Ubeda'ranta.



Ekaitz aundi bat baretzen dau.



jakon; olan beintzat, bizitza ontan be, maitasun obeagoz Arekin alkartua ikusiko eban bere burua.

Baiña iges egin eutson. Aren ikutu ezitia somatu eban ezker, beingoan jagi da Arengana eltzeko; baita bat-batez sentidu be Maitearen urrintasuna. Arima gaixoak Beronek opa eban lez, Maitea berarekin ezin euki. Biotz-muiñean sentitzen dau Maiteagandik urrin egotearen oiñazea. Taiu ontako ikustaldiak ez dira gero jainkoak arimea poztu ta atsegüñetan jarri oi dabezanen antzekoak. jainkoa ikusi naiezko griña ta miñak, ondorenez, biotz-barrurago sartu ta kemen-azo oi dabe. Maitasunezko barne-zauriak urtzen jatzuz, gogoari gustukor, ezti ta guragarri jakozanak. Zauskadok nai leukez arimeak, eta eurokaz ilten bizirik iraun, miñetan izanda be. Nobere kautatik atera ta jaunkoagan sar azten bait dabe.

jainko-maitasunak, egiaz, arimea benetan ikutzen dauanean, gorantza jaso daroa, berau berez zer dan aitzu eragiñik ez eze, beretik eta berezko era ta griñetatik atera, eta orduan Aren atzetik deika doakizu. Ona edo diñotsa: "Ene Senar, zeure ikutuz eta maite-zauriz atera nozu, ez gauza guztietatik, baita neuretik be urten-eragin daustazu. Zeugana jaso nozu, Zeuri intzirika jarririk etenbako oivan. Onezkero beeko gauzaz erantzia naukazu oso, Zeuri bakar-bakarrik lotua".

Au arimearen zoria! *Abesti* bikaiñetako Emaztearen antzera, uri ta basauri, auzo ta zeiakarakatu ditu, bere biotzak maite dauanaren billa, billaka ler egin arren, ez dau aurkitu. Alegiñak eginda be, aurkitu ez. Bardin diño emen arimeak be. Maite-miñez zaurituta dagoala, Maite-mindua, jakiña, Maiteagandik urrindua dalako beti penetan bizi da. Maiteak bere Maitearen eskuetan ipiñi dau eukan guztia, eta egin dautson emonaren ordain-saria opa dau. Gauza guztiak galdu dauz, baita bera ta maitasunarren. Eta eztau oindiño aurkitu galpenaren irabazia. Ezpaita oindiñokarren maite daunaren jabe.

BIGARREN KANTA

*Artzaiñak, larre-bidez
ortik bait-zoaze muirioan zear,
nik maiteen dodan A
baldin ba 'dakuszue,
aul^p agola esan, miñez ta iltzear.*

Kanta-sail onetan arimeak, bere burua miñez auldua ikusirik, Maiteaz bat egin guraz, irugarren, bitarteko ta gomentzailleakaz baliatu nai dau. Ta eskari-arren berbera dagitse danai: berak dauan atsekabe ta miñaren barria zabal dagiela or-zear; bai, jakin dagiela guztiak zelako samiñak daukan erpa artean.

Maitearena da, izan be, maiteaz egi-egitan artu emonik izan ezin dauan ezkeru, alik eta bide onenez opa dauana eskuratzen saiatzea. Jo ara ta jo ona, eragozpen danak azpiratu ta garai atera nai izaten dau. Itz baten, al dan moduan barruko isi ta leia bete, ortarako bear litzakezan bide ta gauza guztiakaz baliaturik. Bardintsu dagi arimeak; bere nai, biozkada, eraspén eta intziriak esku arte erabilli ditu emen; eurok bait-dira mezulari, mandatari eder bikaiñak, biotzak daukazan ixilpeko ta ezkutua Maiteari erakusten dakienak.

Eta onela diño:

Artzaiñak larre- bidez...

Artzaiñak dira, izatez be, gure barrenetik, ur-sorburutik lez, jaioten diran gurari, boizkada ta intziriak; oneik janaritzen dabe arimaok atsegingarri jakezan jaki ixiltsuz. Ardiak larran dabe bedar baguna; arimeak bera nai, lera ta oiuetan, barren-jateko bikaiña. Artzain itzak kazkatzaille, angiozain, larreduna esan nai dau. Jainkoa, arein bitartez, artu-emonean sartzen da arimegaz, eta, izan be, gurari, biozkada ta oiuetan bidez izan ezik, ez dira alkarregaz batu ta ar-emonean jarten.

...larre-bidez.

Larre-bideak aingeruen sail eta jerarkiak dira. Ta gure eskari, erregu, otoitz, asperen eta zotiriak Jainkoari eroaten dautseez. Auxe da euren egitekoa. Baiña biozkada ta gurari guztiak ez dira maitasun berotik urtenak, eta beraz ez dira, aingeruen bitartez, Jainkoaga, nario eltzen. Maitasun garbi utsetik urtenak, bai, sarobe ta larrebidez doazanak, orreik elduko dira Matea dagoan aulkiraiño.

Ortik bait-zoaze muirioan zear.

Jainkoak, Beregan, muirio naiz bizkartxo batetik lez, gauza guztiak goi-begirale ikuskatzen ditu, baita goiko ta beeko aingerusaillak be.

Guk, Jaungoikoari eskiñitako otoitz eta eskariak aingeru orreindez doaz Arengana. Ortaz diñotsa aingeruak Tobias'i: *Negarrez otoi egiten zenduanean eta, bazkaria itxirik, illak egunez zeurean garde ta gabaz lur-emoten zeuntsenean, nik zure eskaria Jaunari aurkezten neutson (12, 12).*

Artzain oneik, naiz gure biotz-ekarriak izan naiz zeruko aingerivak, arimeak bere ta Maitearen tartean zati ta erdikide izan dakiozala gura dau. Bitartekoak, bai, bere barriak Ari eroan-azteko gai ta gauza diranak. Eta onan dei dagitse danai:

*Nik maiteen dodan A
baldin ba'dakuszue...*

Maiteena da biotzak beste guztien gainez kutun dauana. Biziro maite, txit maite, ezin geiagoan laztan; gauza ta izaki danak baiño maiteago izan. Eta arimeak emen orrela dagi bere Maiteaz; onen zerbitzuan, koldartu leikean ezer barik, edozer egin eta eroateko iñundiko eragozpen eta beatzarririk jarten ez jakonean.

Bertatik diño: *baldin ba 'dakuszue...* Au esatea edo da: bear bada, ausaz, nire zori onez, zuok, artzaiñok; Aren aurrera eltzen ba'zarie, Arek zuok ikusi ta entzuteko eran, edo zeuok A ikusi ta Ari entzuteko gauza ba, zarie, orduan esaiozue, arren, zelan aurkitzen nazan, geixorik, miñetan, eriotz-zori, il-bearrik.

Jainkoagana eske doan edozein arimak, eskatu-ala artu ezta be, bear-izana erakutsi premiña adierazo ta irri-arra batean eskatua lortu ez arren, Jainkoak ez dau egiten jakon eskaria mugonez ontzatat artu barik itxiko. Jainkoa, Dabid erregeak diñoskunez, gizonaren t-zat gordeleku, ta larri-alderako abaro gozo da (Salm. 9, 10). Eta arimeak, porrot egin eta eskatzeari izten ez ba'dautsa, goiz edo berandu, lortuko dau eskuratu guraz dabillena. Auxe da "baldin", bear bada, itz onegaz emen aitzen emon nai dauana. Ona benetako zentzuna: bear bada, eldu balako nire eskariak beteteko aldia.

Noiz elduko? Ezta eskari askoz beteten dana, dirudienez, fedez eta maitasunez jadesten dana baiño. Arimeak, Jaunagaitik edozer egin eta sufriduteko gertu dagoanean, ezpai barik esan daikegu Jainkoa adimen osoz, indar guztiz eta gogo-gogoz maite dogula. Ortara ezkerroan, egoki baizen errez esan daike urrengo bertsoa:

Aul nagola esan, miñez ta iltzear.

Arimeak emen iru premiña adierazo nai ditu. Au da, aultasuna, miña ta eriotza. Jainkoa maitasun samurrez maitatu dauan arimeak Berau urrin ikustean, biotzez maita dauan zer ori barik aurkitzean, iru eratarata jasaten dau. Dakigunez iru aalmen ditu arimeak; adimena, naimena ta oroimena. Eta gorriak ikusi oi dabez irurok maiteagandik urrin aurkitzean.

Adimenari gagozala, *aul* aurkitzen dala diño, makal geixorik, ez bait dau Jauna ikusten. Jainkoa da barriz adimenaren osasuna. Dabid erregeak au jarten dau Jaunaren agoan: *Neu naz zure osasuna* (Salm. 34, 3). Naimenari so egiñik, *miñez*, atsekabetan dagoala aurtortzen dau, borondatearen atsegiña, Jainkoa da. Dabidek onela: *Zure atsegin-ibaian edanerazten dituzu* (36, 9). Gomutamenari buruz, ilteko zorian dagola, diño. Izan be, adimen-ondasunez, ots, Jainko ikusteaz, eta naimen atsegiñez, ots, Bera eukiteaz, gabetua dagoala gogoratuaz, eta lurbira ontako arrisku ta galzozietan, daitekena dala Bera barik betiko geratzea be; au dala-ta, egoera larri au gogora ekarriaz, eriotz antzeko sentimentuz gorriak ikusten ditu. Ezta arritzekoa; esan dogunez, Jauna da arimearen bizia, eta au barik bere burua ikastea estura ta larritasun ikaragarriaren iturri jako.

Gogoak, azaltzen gagozan aapaldi ontako azken bertsoan ez dago besterik bere bear-izan eta samintasuna Maiteari aurrean ipiñi baiño. Zuurki naite dauana ezta saiatu oi eztaukana edo nai dauana eskatzen, bere premiña erakusten baiño, Maiteak gura dauana egin dagian. Andra Mariak, Galilea'ko Kana ko ezteguetan, bere Seme mai teaz edu onetan egin ebalá, esan bear dogu; ardao barik gelditu ziranean, ez autson artez ta zuzenean ardaorik eskatu, zearka lez onela esan baiño: *Ardaorik ez dabe* (Jon. 2, 3). Eta Lazaro'ren arrebak, nebea il jakenean, ez eutsoen Jesus'i iñor bialdu euren nebea osatu egiala esanaz, *maite ebana* geixorik egoala iragarriaz baiño.

Eta au iru errazoi bidez: Lenengoa, Jaunak guk baiño obeto dakialako guri zer jakun egoki, bigarren, Maitea laztan dauanaren premiria ta eroapena ikusiz, geiago errukitu oi dalako; irugarrena, arimeari bere eritxiz palta jakona eskatzea baiño, ezdaukanaren premiña erakustea, seguruago jakolako.

Osixe berori dago orain arimeak, bere iru premiñak adierazten ditu artzaiñai diñotse: Ona, esan, otoi, nire Maiteari *aul* nagoala, Bera bakarrik dan ezkeron, nire osasuna, emon dagistala palta jatan osasuna, eta *minez nagoala*, eta Bera bakarrik dan ezkeron nire atsegiña, emon dagistala palta jatan atsegiña; eta *iltzear*, *il* ez bai il, nagoala, eta nire bizia Bera bakarrik dan ezkeron, emon dagistala bear dodan bizia.

IRUGARREN KANTA

*Neure Maitasun billa
mendi-aran orreik zear noake;
ez loraik artuko,
ez naz piztien bildur,
zakarrez ta mugaz andik nabilke.*

Otoitzak eta intziriak ez dira naikoa Maitea idoro al izateko; ezta besterik, irugarren esku-ematea be. Geiago bear da, ta arimeak, jakiña, aurrerago jo bear dau; naiera gartsuz, benetako maite-suaz

billatzen ba' dau beintzat, mende daukazan neurriak artu ta ingirak egin arte, ez da ziurki aspertuko. Egi egiaz jainkoa maite dauan arimea ezta atzeratzen; bai, ostera, alegin guztiak egin Jainko-Semea, bere Maitea aurkitzen, aurrean jarten jakozan oztoparriak gorabera. Al dauan guztia burutu arren be, ez dago pozik, ezer ez dauala egin uste izanik.

Irugarren ahapaldi onen mamiña txastaturik, arimeak berak, Maitearen bi! Lla asi nai dau; egiaz era egitez; inguruko laguntzari jaramonik egiteke. Ta bertatik ze bidez asiko dan diño, au da, birtueetan, on-egiñetan gaituko da, trebetuko da, bizimodu eragille ta begira otoiñtari loturik. Ez dau ortarako atsegiñak gura, ezta doai ta mesederik be. Ta arimearen iru etsaien indar ta zelata guztiak ez dira naikoa izango artutako bidea galazo ta bertan sostorrak jarteko. Mundua, txerrena ta aragia dira iru etsaiok.

Maite billa

Arimeak gauza bat azpimarratzen dau emen argi ta garbi: Jainkoa egiaz aurkitu al izateko, ez dala naikoa biotzez ta miñez ekitea, ez iñoren laguntzaz etsitzea. Aurrerago jo bear dala: norberak egin bear dau bere lana. Jainkoak gurago dau norbere lana, besteak beragaitik dagiezan guztien gaiñetik gura be.

Arimeak bertatik, Kristok esana dakar gogora: *Zoaze billa ta aurkituko dozue* (Luk. 11, 9). Urtetea erabagi dau, ba, egi-egiaz bere Maitearen billa. Ez, ez dau askoren antzera egin nai: itz egin, eta ori be txarto, or jainkoa eskuan. Onakoak ez dabe gozotasunik laga nai, ez pozik, ezta dagozan lekutik jagi be. Jainkoak berak emon bear dautse olakoai dana aora ta biotzera emon; euren atsegin poz eta alperriko naiak galduko dabezalakoan, ez da ezertxo be zeartu gura.

Baiña jarrera txepel ortatik jagi ta Jainkoaren billa urten artean, naiz ta oiñ zoliak bota, ez dabe Maitetik idoroko. Olan ibillia dogu Abestietako Emaztea be, bai ta ez. *Gabaz*, neure lotokian, neure biotzak maite daunaren billa ibilli naz; billa ibilli bai, baiña idoro ez. Jagiko naz ta uria arakatuko; auzo ta zeiak zear ibilliko nire biotzak maite dauanaren billa. Billa urten artean ezin, iñolaz be, neke-lor ta ausi-abarrak igaro ondoren, orduantxe aurkitu ebala diñosku.

Atsegiñean eta atsedenean nasai egonik Jainkoa billatu nai dauanak, gabaz billatzen, eta jakiña, ezin aurkitu. Baiña birtute

egitez, bere atsegin, gozagarri ta oldeen ogea beratara itxi ta billa dabillenen egunez billatzen dau, ta edu orretan dudarik bage aurkituko dau: gabaz idoroten ez dana, egunez agertzen. Auxe agertzen emoten dau Senarrak, ederto asko, Jakituri deritxon liburuan: *Egia da jakintza*, eta ez da iñoiz zimeltzen; billa dabiltzanan aurkitzen dabe. Berak aurrea artzen dautse, eta nabari izan. *Goiz-arratsetik aren billa dabillenen ez dau lanik egingo bere etxeko ateetan jarrita aurkituko dau* (Jak. 6, 1). Zer dirausku onegaz? Arimeak, bere naimenezko etxea laga ta bere atsegin-ogetik urten danean, urtenaz bat, antxe kanpoan aurkituko dau ala egiazko jakituria, au da, Jainkoaren Semea, bere Senarra.

*Neure Maitasun billa,
mendi-aran orreik zear noake.*

Garaiak dira *mendiak*. Birtuteak adierazo nai dira emen, batetik birtuteok garai diralako eta bestetik euretara eltzeko artu bear diran nekeak, aundiak diralako. Arimea ortik zear joango jatzu, Maiteaz ikuste-bizitza egiñik; zeru-otoitzari ekingo dautso aspertu barik. Begiz begi goiko gauzak ditula biziko da, biotzez maite dauana oiuz, leia biziz billaturik. Ikuste (kontenplaziño) bizitza ta eragin edo egintza bizitza alkartu bear dira emen, naitanaiezkaok doguz biak, birtu tez jabetu ta Jainkoa billatu al izateko.

Orretan dabillega arimeak ez dau lorarik artuko; Jauna aurkitzeko biotz soil, erantzi ta sendo baten jaube izan bear. Jainko ez diran txar eta on guztietatik aske ta libre dagoanaren jaube. Ez, ezin leikegu Jainkorik idoro arima askatasun eta sendotasun benetako bakoak.

Ez dau bide egileko lill pitxiai begira astirik emongo. Zer pitxi? Bizitz-aldian eskinka lez euki daikeguzan poz, atsegin eta naiera guztiak; oneitan arimeak esku ta artu ta jasan nai ba'litu, eragozpen aundi izango litzakioz bideari ekiteko. Iru eratakoak nunbait: aldikoak, zentzunetakoak eta gogozkoak. Oneik naiz areik biotza bete oi dabe; ta arimeari, osoro erantzi ta billostuteko, eragozpen jakoz. Kristo'ganako bidez doalarik, gogoia onakoetan aulkia artu ta jarri Maitea ez leuke aurkituko. Beraz, ez ei dau onako gauzetatik ezertxo be artu bear.

Ez naz piztien bildur.

A rimeak aurrean tente jarrita lez daukazan iru etsaiak, gizartea, deabrua ta aragia, aitatzen dira emen. *Piztiak* deritxe munduari. Jainkoaren bidea asten dauan arimeari, ba, piztiz gaiñezka iduritzen jako mundua, zemaika, adarrez beterik, kiñuka ta lardariaka. Iru gauza datorkioz begien aurrera: Lenen, gizartearen ondo-ikusiak, adiskideak, ospeak, kemenak eta ondasunak galdu egingo ditula, uste dau; bigarren, -ta ezta berau piztirik txikiena- aurrerantzean ia zelan eroango dauan munduko pozik eta atsegiñik iñoiz be ez izatea; ta, irugarren, miin txar guztiak kontra jagiko jakozala ta esames, ijiaja ta purrustada naikoa eioko dituela, bere lepotik ederto barre-zantzo egiñik. Arima batzuei, bizirot jarten jakez aurrean idurikizun oneik, eta oso aldatz-gora egin oi jake, pizti onein kontrako barrukan irautea ezeze, bidean ibilten astea bera be.

Zakarez eta mugaz andik nabilke.

Deabruak dira *zakarrak*. Eta polito asko dirausku zakar eta indartsu dirala. Sendo ta traketsak, izan be, arimeari bidean indar egiteko, bidea arturik. Euron tentaldi ta maltzurkeriak, gorago aitaturiko eragozpenen aldean, latzagoak dira.

Ez dago, ondorenez, zetan esanik, deabruon goi-kemena azpiratu bear dauan arimeak otoitzari ta barru-bizitzeari ekin bear daursola, iñoiz nekatu ta aspertu barik; orrezaz gairi, ezingo ditu orreine maltzurkeriak ulertu soin-ildura (mortifikazirio) ta apaltasun barik. Paul deunak zeozergaitik diñotse bere eleiztarrai: *Deabruaren maltzurkeriai gogor egiteko, jantzi eizue Jainkoaren **Gure** burruka ez bait-dogu aragiaren eta odolaren aurka, altsuen, inodartsuen, mundu illun onetako nagusien eta zerupean dabiltzan espiritu gaiztoen aurka baiño* (Ef. 6, 11-12).

Arima zintzoa ez da arerio biurri orreine aurrean be kikilduten. Adoretu diño:

Zakarez eta mugaz andik nabilke.

Zeintzuk ete dira muga ta lubanok? Aragiak, espirituaren kontra, berez daukazan ezezko, iguin eta batu-eziñak. Aragiak, bada,

espirituaren aurka dagi; Paul doneak darauskunez: *Aragia espirituaren aurka dabil* (Gal. 5, 17). Aragia muga lez jarten jaku espirituzko bideari aurre egiñik.

Muga oneik igaro bear dauz arimeak, aurrean daukazan oztoparri ta matra tzu guztiak urratuaz; bai, zentzunen zalekeri ta berezko griñak espirituaren erabagiz suntsitu ta erre kara jaurtirik. Arimeak izan be, onakorik ba'leu, espiritu arein azpian lotuta legoke, egibiztara ta gogo-atsegiñera aldatu ezinda. Paul deunak argi edierazo euskun au, esanez: *Aragiaren erara bizi ba'zarie, il egingo zarie; espirituaren indarrez, aragiaren zalekeriak zapaltzen ba'dituzue, barriz, bizi izango zarie* (Errom. 8, 13).

Auxe dogu apaldi onen muiña; onela jokatu bear dau arimeak bere Maitea billatzeko ta aurkitzeko bidean. Kemenez ta iraupenez, bidean doala bide-ertzetan irriz daukazan lorarik be artu bage; piztien kontra burrukatu ta gaztelu ta muga-lubak gaiñez igaroteko biotz ona izanik. Onoimen eta birtutezko mendi ta ibarrak zear ekin bear dautso, adore biziz gaiñezka.

LAUGARREN KANTA

*Oi baso ta leku itsu,
Maiteak eskuz jarriak emaro!
Oi lore zuri-gorritz
pitxitu zelai musker,
esan zuekandik danez igaro!*

Maitea aurkitu bear da. Fedeak eta barruko errazoi indarrak ezarten dasku ortarako adorea. Aragiaren lera ta makur guztitik norbere izatea garbi-azobear da lenengo; ezta beeko ezer billatu ta maite izan bear, ezertariko bildur barik beti gorantza begira bizi, baiño.

Goiz eta arrats, urduri ta artega, billa alegindu; billaketa ontan auxe da noski arimeak egin bear dauana: lurreko atsegin eta gozotasun giztai agur egiñik eragozpemak oinpean jarri ta kemenez jantzirik, Jainkoa, bere Maitea nor dan ezagutzera zuzendu.

Zelan? Nola lortu, baiña, ezagutza ori? Nundik asita? Lurreko izakiak, gauzak ditugu ortarako len-mailla. Guk begiz ikusten daguzan zer guztiak ez al dira Jainkoak egiñak? Oneik ezagutu ezkeru, errez joko dogu maillarik mailla, euren Egilleagana be.

Jainkoa ezagutzeko, egiaz, norbere burua esagutu ondoren, izakiak zer diran jakin bear dogu, nok egiñak diran, nundik datozan, zeru-lurrak noren eskutik urtenak ditugun. Munduko gauzen ederra, aundi-zabala ta sakona ikusi ta arteztu ondoren, errez jakin geinke Jainkoa zein eder, bikain, aundi, indartsu, jakitun dogun. Paul apostoluak ederto: *Izan be, bidebakokertiz Jainkoaren egia lotzen daben gizonen gaiztakeri ta bidebakokeri guztien aurka, Jainkoaren asarrea zerutik agertzen da: Jainkoaz jakin daitekera agirian daukie, Berak erakutsi dautsie-ta. Aren ikusi-ezi, iak, mundua sortu zanetik egindakoen ezaguraz ikusten dira; beraz, alako gizonak ez dabe atxakirik; Jainkoa ezagutu ondoren, Jainkotzat goratu ta eskerrik emon ez dautsoelako* (Errom. 1, 20-21). Arimeak, ba, Jainkoak ditun gauza ikusi-eziñak, Jainkoak berak egiñiko gauza ikusgarrien bitartez ezagutu leikez. Eta errez ezagutu be.

Ori ba-daki arimeak, eta munduko izakiai dei dagitse, berak maite dauanagaitik itandurik. Eta oargarri benetan arimeak dagian itaun au: Zeru-lurretako zer guztiai dei dagitse, mendi, zugatz, ibai, erreka, egazti, izar eta eguzkiari. Eta zer erantzun artzen ete? Sorkari danak egia dirautsoe: "Bai, emendik igaro da Jainkoa. Ak egiñak gara, baiña ez gara gu Jainko, Aren lorratz baiño. Oiñez ibilliak itxi daroan aztarna; zerbait, baiña bera ez. "Mundu zabalari galderin nion -diño San Agustin'ek- ene Jainkoaz, eta "ez nauk ni" erantun zidan. Ak egin niagok". (Autorkizunak, 10, 6).

Gauza guzti orreik, baiña, naiz-ta Jainko ez izan, biotza zauritu dautsoe arima gaixoari, maitez itzez zauritu. Eta maitatzeko dirauskue guztiak, era batean. Zer maitatu? Agustín deunak erantzuna: "Ez gorputz eder, ez aldi eder, ez begiok maite duten argi zuria, ez lelo guzien dañu gozo, ez lore ta gantzuki ta usainki guri, ez mana, ez ezti, ez aragi laztangarri: ez dut au maite jainkoa maite dutanean. Alare argi antzeko zerbait maite dut, mintzo edo sain edo janari edo nere giza-barruko antzeko bat • dut maite, argi egiten ditanean: tokiak artzen ez eta mintzo du aldiak ebazten ez eta usain du; aizeak barratzen ez, ta jasta du; janak ez du tipitzen, aseak ez du erautzen atziki ba'lekio. Au dut maite; nere Jainkoa maitatzean" (Ibid. 10, 6).

Toki bitakoai dei dagitse arimeak, lur ontako gauzai ta zerukoai. Lurrekoai aurrenik:

Oi baso ta leku itsu.

Zer dira *baso* orreik? Eta *leku itsuak*? Munduko zati edo izagaiak nunbait. ur, lur, egurats, su. Gaiok, izan be, basarte ikusgarri lez, izaki mardul zarratuz beterik daukaguz. *Leku itsuak* deitzen dautse emen arimeak, gai bakotxean izaki asko ta milla eratakoak aurkitzen diralako: lurrean, abereak eta landarak kontatzen; uretan, arrain-mota bereziak, millaka; eguratsean edo aidean, makiña bat egazti klase bata baiño bestea ederragoak; eta su-gaia, azkenez, beste gai guztiak berotu ta iraun-azoten dituna. Gauza bakotxa olan bere lekuan ipiñita dago, ta bere giroan bizi da: jaio ta azi oi dan oillo-lurrean letxe.

Edu orretan jarri zituan Jaunak. *Asiera* deritxon liburuan irakurten dogu: "Bedi argia" ta argia izan zan. Orrelaxe gaua, lurra, itxasoa, goiko argi-zaiak eta abar. "Lurrak sortazo begi bedar ezea", ta orrela jazo zan, "urak irakin begi", bizizko arnasadun piztiz bete zan; "bebiltz egaztiak lur gairiez" eta egazti ta txoriz bete zan eguratsa. Eta izadiak edesten gizaseme arlosteak ez dakiana, gizon lanez zanpatuak erantzuten ez dauan, asko daukanak entzun ez dauana, eta gaiztoak entzun nai ez dabena.

Jainkoa ixillik dago, zarataka dei eginda be, ez dau erantzuten. Orduan, zer egin? Billa ibilli gaur eta biar, bere oiñatzak idoro nairik, Aren atzamarren aztarrenakaz topo egin artean. Ezker-esku ma daukagun izadian begiak ezarri, gure amesak bairio zerbait gorago dagon orregan tinkatu, gu zaindu ta babesteko ur-ur daukagun Orregan ain zuzen. Or daukagu eguzkia gu berotzeko, gure illunpeak argiz ispillutzeko, illargia gabaz gu zuzentzeko zidar-ariz iruntz gaiñean eta bideko mugita zelaian; aizea beste aldeko musika ezkutuaren eresia, beste aldeko oin-neurkera entzun al izateko; ito bearrean gaukazan oiñazea txiki-azoteko mendi-katea...

Arimeak, bada, gauza guztiok Jainkoaren aginduz egin zirala ikusiaz, urengo bertso au kantatzen:

Maiteak eskuz jarriak emaro.

Onako au gogora dakargu emen: izaki ta gauzetan dakusgun aunditasun au, eta diferentzi berezi oneik, *Maitearen eskuz* sortuak eta egiñak izan daitekezala bakar-bakarrik. Jakiñaren gaiñean diño *Maitearen eskuz*; Jainkoak, ba, iñoren esku, aingeru ta giza-semeen bitartez, esaterako, gauza asko buru turik be, gauzak sortu ezerezetik ateratea eztau iñoiz egin bere eskuz izan ezik. Eta arimeak, ori jakiñik Jainko maitearen barne-suan sutuago egin oi da; izakiak, au da, munduko gauzak begiratu ta gogoan erabilliaz.

Begi biakaz ikusten daguzan gauzok, Jaunak bere eskuz egiñak dira, zoragarri. Olerkariak are geiago:

*Oi lore zuri-gorritz
pitxitu zelai musker.*

Musker marmutzak, kolore berdea, orlegia izan oi dau, inguruko ezotasunak emonda edo. Zerua be orrela dogu, kolore berdezkoa, beti eze ta mardul dagoalako. Jainkoak egiña ori be. *Lore zuri-gorritz*, au da, aingeruz ta santuz beterikoago zerua; beti margo ta eze. Aingeruok eta santuok pitxitu ta edertzen dabez goi-aldeak, urre-bikaiñezko ontzi illuragarri baten pareko egiñik.

Goi-zelai ta landok aldiro *musker*, berde diraue bai. Zergaitik? Zeruko gauzak beti zimeldu eziñeko berdetasunean diraelako. Ango gauzak, luzeneko be ez jatzuz ilten, ez igarten. Arima zintzoak, areitan alai guri otzam arretan lez, poza ta atsegiña artu daroe. Eleizeak auxe berau dakarsku gogora ilzorian dagozan arimen alde Jainkoa otoiztean, arei ango berdetasuna opa izanik: *Jainko biziren Semeak jarri zaiezala egundo be margulduten ez diran landa ta lorategi zoragarrietan* (Eleiz-lituijian).

Esan zuetatik danez igaro!

Gorago aitatua bera dogu emen itauinka diñona. Edo bardin dana: "Esan, otoi, zelako edertasunak diran Jainkoak sortu ebazanak. Iragar, bai, zelan itxi zituan zoko ta bazter guztiak guri ta margo, zoragarri orniduta.

BOSTGARREN KANTA

*Milla eder jarioz
arin igaro zan ibar otatik,
ta begiratu soillez,
bere irudiz bakarrik
guztia itxi euskun eder jantzirik.*

Munduko zer guztiai dei egin eutsen arimeak, aurreko kantan. Biotzez maite dabena galdu egin jako, ta berezkoa dau billaketa urduri au. Eta dei dagi, dei gozo ta latz. Osin sakon da gure barrua; beronen zirkiñak, zauskadak, igierak..., nork oartu ta adierazo?

Mendeen barrena asko dira misteriozko osin orren zulo-gune, arri-zirrikitu ta zapalduren ixilla jakin-naiean saiatu diranak. Freud eta olakoen azter-lanak gorabera, olako zerbait daroagu geure barne-muiñean, oraindiño be zeatz aztertu barik. Osin zabala, bai, gizasemearen barrua, kontzientzi gaiña ta azpia; egin alak egin arren, osorik arakatu eziña.

Egon-gaitza benetan maite-miriak jota dabilkigun arimea. Ezin dau ezertan be atsedetik artu: zirin, Pertxikota-bizi dabal, oiñak nun ezarri aurkitu ezinda; betillun ta larri, aize biurrik eroana. Eta olako girotan edozerri dagitso dei ta itaun, ez ixil-mixilka, garraxika ta zaratotsean baiño. Ingurumari ditun izaki guztiai deika dabil emen, Maitearen billa.

Izan ete eban erantzunik? Bai, ta zabala. Biran daukazan zer guztiak diñotse, abots, abots batean: "Ez, gu ez gara Jainko; gu Jainkoak egiñak gara". Izan be, munduko ta zeruko gauza guztiak, gogoki ta mukulu, ez dira Jainko, Jainkoaren lorratz eta aztarna baiño. Jainkoaren jakituri ta ederraz itz dagiskuenak ditugu. Gauzoi be gora dabil arimea, galdez ta itaunka; ta Jainkoaren jakituri, al izate ta aunditasunaren testigantzarik ederrena aurkitzen dau eurotan.

Munduko sorkari guztiak, goiko ta beekoak, batera erantzun darotse:

Milla eder-jarioz...

Ona kantaren guna. Errez ta labur sortu zituan Jainkoak guk goi ta bee begiz ikusten doguzan gauza guztiak, eta eurotan josita, margoztuta, itsatsita itxi eban Bera nor dan adierazten dauskun lorratza, zantzu ta ikurra; baita eurok konta ezin alazko doe ta indarrez bizkortzean, batzuk eta bestetzuk era arrigarritzko alkarren artean dauken atxiki eta artu-emon ezin agortuz ederturik itxi zituanean be.

Eta guzti au, Jainkoak bere jakituriaren bitartez egin eban, Bere pentaamentu dan Itzaren bidez biztu-azo ebazan, ba, gauza guztiak. Or-emen jario ziran *milla ederrok*, zer ete dira? Mundu nasai, zabal edatuko izaki (kriatura) ta sortukariak; zenbatu ezin-ala diranak kontixu. Orixegaitik jarten dau emen numerorik gorenen, milla; eta izakien ugaritasuna aitzen emon nai dausku. Edertasuna deitzen dautso oni; eta, izan be, ainbat ederrez jantzi zituan, nai izate utsez jantzi be, izatera ekarri ebazan gauza guztiak. Esaterako, munduan zear ibiltaldi bat saiatu ba'leu lez, ibilliaz bakarrik igaroz, izaki biziztunez beterik itxi euskin mundua. Orixegaitik diño:

A rin igaro zan ibar otatik.

Jainkoak eztau geldirik: Arentzat ez dago ez joanik, ez gerorik; oraiña baiño eztau Ak ezagutzen. Eta olerkariak, ibar eta oian, baso-arte eder batzuen antza jarten dautse munduko zokondo guztiai, ibar eta lianotatik, arin-arin igaro zan jauna beiñola batean, eta Bere ederraren ederrez milla bikaintasunez jantzirik itxi zituan bazter guztiak. Auxe da gaur guk dakusguna.

Baso, oian eta ibarrak aitatzen ditu Gurutzeko Juan deunak; baso ta oian baten, ostera, zugatz klase asko aurkitzen daguz. Gairik asko dogoz munduan be, eta gaiok, ikusiz dotoretu auskuzan Jaunak. Onez gaiñera, indar berezia be jarri eban gai orreitan, bakotxari antzekoa sortzeko ta ekarteko trebetasuna ta kemena emonaz. Landaraz, ortaz, landarak dakarrez; abereak, ostera, abereak. Eta orrela doa mundua ugarituaz, gai bakotxak dagokiona ekarriaz; ugaltzeko ta iraun-azteko indar au oso garrantzi aundikoa da.

"Igaro zala" diño; eta izakiak, izan be, Jainkoaren igaroteak itxitatako oiñatzak, deitu nai dozun lez, ez dira besterik, igarote edo

ibilte onen aztarnak dira; beraz, Jainkoaren aunditasena, aalmena, jakituria ta beste bere-bere dituan doe ta gaitasun batzuk iragarten dauskuezan munduko gauza zoragarriak. "Arin igaro zan", ezarian lez, dana edertuaz; munduko izakiak, ain zuzen be, Jainkoak egiñiko gauza txikiak dira, bidenabar edo ibiliz lez egiñak. Gauza aundiak beste batzuk dira: Kristo'ren Gizatzea ta kristau fedezko ezkutapen eta misterioak; oneitan agertzen dauz Jaunak, aunditasun betean, bere gaiñezkako edertasuna ta jakituria. Beste gauza guztiak, oneikaz alderatu ezkeru, txiki geratzen jakuz, aundi dirala be.

*Ta begiratu soillez,
bere irudiz bakarrik,
guztia itxi euskun eder jantzirik.*

Paul deunak: *Kristo, Aitaren dirdira, Aren izatearen irudia da* (Hebr. 1, 3). Aita betikoak bere Seme onen irudi ta itxuraz bakar-bakarrik begitu zituan gauza guztiak; au da: Itzaren bitartez, Kristo'ren bitartez edo bestera esanda: gauza guztiai berezkoa daben indarra ezarri eutsen, doai ta ezagutza ta ikusgarri asko emonaz. Oso amaitu ta beteak egin ebazan danak. *Asiera* deritxon liburuan irakurten dogu: *Eta Jainkoari, sortu zituan guztiak begitu ondoren, onak eritxi jakozan* (1, 31). Eta dana on jotea, on ereistea etzan besterik bere Seme Itzagan on-onak egitea baiño.

Eta begiratzekoan, ez eutsen izatea ta berezko esker grazi ta doeak zabaldu ta erein bakarrik egin, baita bere Semearen irudi bakar onekin edertasunez orniduta itxi be, izatez goitiko izatea emonaz. Jainkoaren Itza, Kristo gizon egin zanean jazo zan au; orduantxe izan zan Jainko-ederrez goratua. Ta ondorioz, baita Arengan izaki guztiak be, Kristo guzti onein izatean, gizon egiñik, alkartu zan-eta.

Kristo 'k berberak esana: *Eta nik, lurretik jasoten nauenean, diran guztiak Neugana ekarriko ditut* (Jon. 12, 32). Eta Jainkoaren Seme Kristo'ren jasotze, altxatze ontan -gizon egitean eta illen artetik biztutean-, Aitak etzitun izakiak erdizka bakarrik edertu; oso-osorik itxi zituan edertasunez eta duintasunez jantzirik.

SEIGARREN KANTA

*Ai, nok osa nagike!
Onezkero, neure zaitez egitik;
ez, arren, niri bial
gaur-gero geznaririk
nik naia esaten ez dakidanik.*

Lurbira, edo obeto, gaudia -gaudia-di- (kosmos) Jainkoak bereztat sorturiko soloa dogu. Solo onetan erein zitun danetariko aziak, eta aziok ekarri eben euren frutua. Baserriko solo batean jazoten dana bera, urrean.

Izakiak, areik eta oneik, jainkoak ereindako azien frutua besterik ez ditugu. Ta oneik ikusi ta ezagutuz, arimeak errez konturatzen da zelako edertasunez apainduta dagozan danak. Eskertsu, indartsu ta edertasunez beterik dakus, ta jainkoak bere irudiz, igaroz jarioka, edertu zitun. Jainkoak, bada, mundua ta zeruak bikain eta alai egiten ditu bere begiratze gozoagaz. Dabid'ek ederto: *Zabaltzen dauskuzu Zure esku ori, pozik emoten asea bizidun danori.*

Arimea, ortaz, azter-ondo augaitik, maitasunean zauritua dabil; esan dogunez, bere Maitearen ederra izakietan ezagutu dau. Eta ikusgarri dan edertasun onek emon dautsan gurari bizia, au da, edertasun ezin-ikusia ikusteko griña ta leia zorrotzari eutsi-eziñik, onela kanta tzen dausku:

Ai, nok osa nagike!

Izakiak arimeari beronen Maitearen ezaupidea emon eutsoen lez, Ak itxita eurak eben ederraren bikaintasuna erakutsiz, maitesua gero ta biziago egin jakon; eta, jakiña, Agandik urrun egotearen miña azi ta zolitu; izan be, arimeari, zenbat eta onek geiago Jainkoa ezagutu, aundiagoa egin oi jako A ikusteko egarria. Eta ori ezin lortuak emoten dautsan miña Maitearen begi-aurreak bakar-bakarririk sendatu daikela ikusten dauan ezkerro, beste osabide guttiz etsia, Bera begi-aurrean eukitea emon dagiola eskatzen dautso, abesti ontan.

Ez, ez dau nai gaurtik aurrera beste Aren barri, albiste, artu-emon edo lorratzetan alperrik aldia emon. Oneik, ba, ez dabe bere naia beteten; ezta bere egarria ito be: ikus-leia geitu ta miña biziagotu bakar-bakarrrik. Borondate bizia ez da, iñundik be, asetzen, ez poztuten, Maitearen ikuste ta begi-aurrean izan ezik. Emona bekio, beraz, egitan, maitasun oso ta betean. Onela diño, beraz: "Ai, nok ni osatu?". Esango ba'leu lez: Munduko atsegín eta zentzunen poztasun eta espirituaren gozotasun guztien artean, egiaz ezerk be ezin nagike osatu, ezerk be ezingo nau bete. Orrela baita.

Onezkero, neure zaitez egitik.

Ekar gogora auxe: benetan maite pertsona bat ez dau ezertxokbe asetzen, ez poztuten, egiaz maite dauana bere beso artean euki arte. Lurra gura dau, ez aizea; gauezko itargia biur dedilla eguneko eguzki. Olaxe jazoten jako Jainkoa zintzoko maite dauanari. Ots, gure arima jainkozale maiteminduari. Beste zer guztiak, ba, ez bakarrik ez dabe asetzen, ezpabe, esan dogunez, Bera dan lez ikusteko gose ta irritsa gei-erazo ta areagotzen dautsoe.

Onantxerik, Maiteagandik artzen dauan ikustaldi bakotxean, dala ezagutzez, dala sentimentuz naiz beste edozelako artu-emoenez -oneik bai dira *mandatariak* lez, Bera nor dan arimeari adierazten dautsoenak, nunbait- barruko leia ta gurari bizia itxartu ta geitu egiten jakoz arrigarriri. Edu orretan gertatu oi jako gose aundian dagoanari be, ogi marrin eta paurrakaz; astun jako, bai, ain gauza gitxitan denpora emotea.

Ez dogu opa erdizkakorik. Gizasemeak, millaka ta millaka deika dagoz Goiko Soillari, Absolutuari: euskaldun Jaun-Goikoa deritxogu, gerkarrak *Zetts*, latindarrek *Deus*. Itz asko dei egiteko, baiña Nor bat, *Jainkoa*, antxiñako euskaldunen *Urtzi*. Au ikusi nai dogu, aurkituaz. Aztruak berein gauza igarten munduaren azkenari buruz; ez dogu nai olakorik, guk mundua sortu ebana maite dogu, erakuts daigula onezkero bere betarte dirdiratsua. Emen gagozala be, ikuskatu irrika gara-ta.

Mundu onetan Jainkoari buruz jakin geinkean guztia, asko izanik be, ez da egiaz ezagutzea, erdizkakoa bakarrik eta guztiz urriñekoa. Mamiñez eta izatez ezagutzea, ostera, benetako ezagu-

tzea da. Auxe da emen arimeak nai dauana eztau naiko beste gorabera ta ar-emon orreikaz. Beraz:

*Ez, arren, niri bial
gaur-gero geznaririk.*

Au baliño lez: Aurrerantzean ez eizu nai zan, ain neurritan, nik Zu ezagutzea nai zan. Zurekiko barri ta sentimentuak, geznari edo mandatari oneik niri ekarriak, ain dituzu urriñekoak eta nire arimeak opa dauanetik ain arrotz eta bakanak. Zuk ondo dakizu, ba, nire Ezkon maite orrek, mandatariak, penaz dagoanarentzat, atsekabe ta miña areagotzeko baiño ez dirama: lenengo, dakarren barriz zauria atzera zolduten jakelako ta, bigarren, Maitearen etorrera atzeratzen dabela dirudielako.

Ez, ez daiola gaurtik aurrera geznari, mezulari ta mandataririk bialdu urriñeko izpar eta albisteakaz. Orainarte ba-ziran zerbait arima errukarriarentzat, bere Maitea ainbeste ondo ezagutzen ez ebalako ta ain biziro maite ez ebalako; baiña onezkero, maitasuntsutan dago-ta, ezin ezelan be ardura orreikaz naikotu; ez, ori baiño geiago opa dau. Emon zakioz, ba, oso-osorik.

Argiago esanda: "Zeure zer ori, ene Jauna, ene Senar!, nire arimeari zatika, apurka emoten zabiltzan ori, emoiozu oso-osorik; eta irrikilletatik lez erakusten zabiltzan ori, erakuts zakidaz bein zabal-zabal; eta tarteko, ararteko ta olakoen bidez ezagutu ta jakin-erazten zabiltzan ori, jolas-ziñuka lez da-ta, egidazu egitan Zeu zaranez adierazten emotea. Zeure ikustaldi bat bistan, irudi danez, bitxi ori, Zeugaz egi-egiz jaubetzekoa, emon nai daustazu; eta nire arimea konturatu ordukoxe, Berorri barik aurkitzen da, gordea egin dautsazulako; au, barriz, iseka edo burlaz emotea lez dozu. Onezkero emon zaitez, ba, zindotan, osorik neure arimearen osoari emonaz; Zeu oso ori berak osorik euki zagizan".

Eta ez bialdu geiago mandataririk.

Nik naia esaten ez dakidanik.

Onela nunbait: "Nik Zu osorik nai zaitut, eta orreik ez dakie ta, ezin dauste Zu osorik esan, adierazo". Izan be, ez lureko ez zeruko

ezerk ezin dautsoe arimeari emon, onek Jainkoagandik izan nai leukean aiñako albiste ta izparrik, edo ezaguerarik. Eta mandatariorik ez dakie arimeak gura dauana adierazten. Beraz, mandatariorrein orde z Jainkoa bera, arimeak gartsuki maita dauan Senarra nai dau mezulari ta mezu izan dakion.

ZAZPIGARREN KANTA

*Bai, or-an dabiltzanak
milla zoragarri Zutaz diñostez:
danak zauritzenago,
ta il-urren naukie
itz erdizko esan-ezin motelez.*

Aurreko kantan arimeak erakutsi dau gaixorik edo bere Senarra-ri dautson maitasunez zauritua dagoala, izaki edimen bageak emon eutsen albiste ta barriagaitik; emengoan, barriz, mintzar ta zauriz josia dagoala diño, areik baiño goienagoak diran errazoidun izakien bidez, Maiteari buruz artu dauan maitasunezko beste izpar bategaitik. Izakiok aingeruak eta gizasemeak dituzu. Eta ez ori bakarrik, maitasunez iltear dagoala diño, sorkari onein bitartez, oso-osoan agertu barik, begi aurrean jarten jakon arrigarrizko zabaldi neurri-bakoagaitik, Emen total ta motel geratzen da arimea, ez dakialako zelan dei egin zoragarritzko aunditasun oni. Onek, alan be, ilbearrez dauko gogoa.

Ortik ondorendu geinke maitasunezko eginkizan onetan iru era dagozala Maiteaz penetako, Arengandik artu geinkezan izparrai dagokienez. *Zauria* da lenengoa, txepel ta ariñagoa, urratu bat legez, arimeari izakietatik sortzen jakozanak bai dira jainkoaren egiñak beerekoenak. Eta zauri ontaz, emen gaixoa be deitzen dautsagun au, gogora dakar Emazteak Abestietan, esanik: *Zuoi, Jerusalengo neskoï arren bai arren dirautzuet, neure Maitea aurkitzen ba'dozue, esan egiozue, maitez gaixorik aurkitzen nazala* (5, 8).

Bigarrena *zauri urtsua*, eta onek egite gogorragoa dagi ariman, geiago iraunik, zolduaz eta zauri bizi biurtuaz, onela arimea maitez

zauritua dabil. Zauri au dator ariman Jainko-Semearen Gizon egiñaren egitekoak eta fedezko ezkutapenen bitartez; oneik bai dira lanik nagusienak eta izakienak baiño maitasun aurdiagoz euren kautan dabenak. Ariman be oneik ondoren biziogoa dagie, lenen-
goa beraz zauria ba'da, bigarren au dirauan minbizia.

Maitasunean penetako irugarren era, iltea lez da; eta au, onezkero, *zauri zornatua* dozu; ilten bizi da arimea, eta atzenez maite illik, maitasun biurtu ta maitasunezko bizia bizi-azoten dautso. Eta maitez ilte au ariman burutzen da jainkotasunaren izpar garai baten ikutuz, kanta onetan *itz-erdizka esan-ezifiekooan* gelditzen denez. Ikutu au ezta jarraikoa, ez asko be, arimea gorputzetik askatuko litzakelako; arin igaroten da, eta olan arimea iltear geratzen da ez dala ilten ikustean. Gogora Errakel seme eske (Asiera, 10, 13).

*Or-an dabiltzanak
milla zoragarri Zutaz diriostez.*

Or-an dabiltzanak, emen, aingeruak eta gizasemeak dira, adimendun izakiak A, zerbait beñik-bein, ulertzen dabenak; batzuk, aingeruak adibidez, zeruan aurrez-aurre dan legez begizatzen dabe; besteak, lurrean, gura izan eta maitatuz. Ba-dira oindiño irugarren batzuk, errazoi bakoak, itxaso ta ibaiak, arkaitzak eta mendiak odeiak eta euriak, zerua eta izarrak, narrasti ta egalariak... Jainkoa goretzi daroenak.

Arimeak, orraitino, biziago ezagutu oi dau Jainkoa adimenezko izakien bitartez; sortutako gauza guztien gainetik dagozalako, jainkoarekiko eurak erakusten gauzakaitik; batzuk, aingeruak lez, goi-argitze sakonak emenez, besteak kanpo-aldeetik, Liburu Santuen egien eta irakatsien bidez, "Zutaz diriostez" milla gauza zoragarri.

Olan da. Ulertzera damostez Zuk graziaz eta errukiz Gizakunde-
dean misterio arrigarrietan eta fedeko egietan. Zutaz iragarten daustezanak eta gero ta geigo azaltzen daustezanak; izan be, Zutaz geiago esan nai, zurekiko grazi, doe ta edertasun geiago ager-azo al izango dabez.

*Danak zauritzenago,
ta il-urren naukie
itz erdizka esan-ezin motelez.*

Barri geiago ta arimea saminduago geratzen. Ondo eskatu dabe aingeruak eta gizonak, eta beste izakaik. Oraindik, baiña, milla grazi orrein artean, beste gauza asko geratzen dirala uste dau arimeak esan barik, itz-erdizka ta ezagutzen ez diran zer askotxo ixil gelditzen: Jainkoaren doe ta gaitasun ugari geratzen dira atzerik atzemon barik, zelan adierazo ez dakigun Jainko-ulertze moltzo ikaragarria or dardarka, esan-ezin benetakoz; ulertu ez ulertu, dindil geratzen dan orrek maite-suz zauritzen nau; ulertu ezinda osoz naukan garai-garai usmatuz, eriotza dakart.

Onezkero aurreratuak dabilzan arimai jazoten jake au nozik-bein, onei Jaunak egin oi dautse entzun edo ikusi edo-ta ulertzen dabezan gauzetan, baita iñoiz olako ta olako barik be, Jainkoaren aunditasun gurena aitzen emonaz. Eta sentitze garai aretan uste dau ulertzen dauala, argi gero, ulertu bear guztia; eta emen konturatu oi da, ulertze ta sentitze orretan, ikaragarriri neurri bakoa dala jainkotasuna, ta ain gurena danez, ala-ala ta eraz ulertu eziña.

Beraz, bizitz onetan arima bati egin legikeon mesederik aundiena dozu Jainkoari buruz ezin daitekela gorago ez geiago pentsatu ez sentidu konturatzea; zelanbait zerukoak ikusten daben legez data. An, bada, geien ezagutu daroenak Jainkoa, obeto ulertzen dabe ulertzeko geratzen jaken bide azken bagea; izan be, gitxiago A ikusten dabenak dira, euren eritxiz, uste dabenak, ikusteko geratzen jakena ez dala geiago ikusten dabenai geratzen jaken abeste.

Experientzik ez daukanak ez dau au errez ulertuko; baiña experientzia dauan arimeak bai, bizi-bizi sentitzen dauana, *ez dakit zer* deitua, ulertzen eztan lez, esan be ezin egin leikelako; nabari bai, besterik ez. Izakiak, beraz, motel geratzen jakoz arimeari, esan-nai ta ezin esanez. Aurren antzera, aitzen emon naiez, baiña berbartu, miin-lotu.

ZORTZIGARREN KANTA

*Baiña zelan dirauzu,
bizi, zagozanez ezin bizirik,
ta il-bearrez ba'zaulcaz.
Maiteaz gogartuak,
barrena dozula geziz beterik?*

Arimeari jazoten jakoz, beste izakiai buruz be, esan daguzan lango argiratze batzuk, ain goikoak ezta be; jainkoak arimeari albistea edegi ta adierazo eziñik, Jainkoaren aunditasunak azaldu urri eurentan espirituaren zentzuna geratuaz, ulertzen emotera doazana egin eta ulertu-emon bage geratuaz, nunbait...

Arimea olan aurrera doa bere kexa ta zirri-borraon. Bere biziaz mintzo da urrengo kantan:

Baina, zelan dirauzt...

Sentipen biziz adierazo dauskunez, maitasunez ilten ikusten dau arimeak bere burua; ilten eta il eziñik, aske nai dau maitasuna gozatzeko, eta ezin. Soin-bizia luzatzen jako, ta bizi da beragan bizi bage. Eta emen bere arimearen biziari berba dagitso, barne daroan miña esanik. Au aditzera emon: Ene bizi, ene bizi!, zelan iraun al dozu aragizko bizi onetan, erio jatzu-ta? Egiaz ez ete bizi, Jainkozko zerutar bizitzan, izatez, maitasunez eta gurariz, gorputzean baiño geiago? Eta onezkero au ezpalitz zio ta errazoi gorputz ilkor onetatik (Errotu. 7, 24) urten eta askatzeko, Jainkoaren bizia bizi ta gozatzeko, oraindaiño zelan iraun zeinke gorputz makal eta aulean? Onez gairi. Ez ete dira eurenez bakarrik naiko biziza amai-azteko Maiteagandik artzen dozuzan maite-aunditasunak dakartzuezan zauriak, danak bizi be bizi maite-zotiñez irrintzika izten zaitue-ta? Ainbeste gauza ilten dabezanak, ainbeste ikutu ta zauri Beragandiko ez ete dozuz artzen?

*Zelan, ba, dirauzu,
bizi, zagozanez ezin bizirik?*

Jakingarri jatzu arimea bizkortu daroan gorputz-mukuluan baiño geiago bizi dala maite dauan lekuan, onek ez dauka ba bere bizia gorputzean; bestela, berak damotsa bizia gorputzari, ta bera bizi da maite daunetik. Baiña arimeak, Jainkoagan bizi dan maitezko bizi onez gaiñera, bere sustraiko ta berezko bizia dau, beste sorkari danak lez, ots, Jainkoagan, Paul deunak dirauskunez: Jainkoagan daukagu geure bizia eta geure igiera ta geure izatea. Eta Jon Deunak: *Aregan bizitza egoan* (1, 4). Eta arimeak bere berezko bizia Jaunagan daukala ikusirik, Aregandik bizia bai dauka, baita bere gogozko bizia be, Ari dautson maitasunagaitik, gorputz ilkorreko bizitza ain aulak bizitza ain sendo, egiazko ta joria, izatez eta maitasunez Jainkoagan berak bizi dauana gozatzen izten ez dau-tsolako, aieika ta deitoraz dago.

Gorantza ta espantuz dabil arimea, aurkako biren artean sufri-tzen dagola-ta: berezko bizia gorputzean eta espirituzkoa Jainkoagan, euren artean aurkako diranak, alkarri aier izanik; eta bera bietan bizi izanik, naitaez oiñazetan aurkitu bear; bizi neketsuak, bada, galazo oi dautsa beste atsegintsua; arimeari olan eriotza lez jako berezko bizia, beragaitik ba bere izate ta bizia izatez gabetua ta bere maitasunezko egite ta gorabera guztiak geldu daukoz.

Eta bizitz aul onen kemena geiago adierazteko, onela darrai:

Barrena dozula geziz beterik?

Ori guzti ori dala bide, zelan iraun zeinke gorputzean eurok bakarrik bait dozuz naiko ta geiegi zuri bizia kentzeko? Maitasunezko ikutuak dira gezi edo dardai orreik, Maiteak arimearen barne-orman josten dabezanak. Zenbat edertasun itsusi bihurturik. Gauza baxotxa bere aldiz, goiz eta arratsalde, luze ta labur, indar, trebetasun, maite-su, sarritan auts biturturik dana geratu arren.

Goi-ikutuok arimea joritzen dabe, adimena be Jainko maitasunez kisaldurik. Ortik diño olerkariak:

Maiteaz gogartuak.

Maiteari buruz erabiliak; sortu, asmatu, gogoz artu. Zer, baiña! Maitearen aunditasun, edertasun, jakituri, grazi ta birtuteak.

BEDERATZIGARREN KANTA

*Zauritua bait nozu,
biotz au zelan ez dozu osatzen?
Ta ostu ba'daustazu,
zergaitik olan itxi,
zergaitik ez dozu lapurtua artzen?*

Ba-dogu emen antz, irudi bikaiña arimeari jazoten jakona naikoa argi adierazteko. Len-aspaldian be aita turiko orein edo basauntzarena. Zauriturik dagoanean au, ara ta ona ibiltzen jatzu artega, ezin-egona; uretan sartu nairik, miña arintzeko. Bedar batek ikutu egin dautso, ta edena atxiki. Apurka apurka biotzera doakio, ta il-bearra. Arimea orobat, orrelaxe dabil maitasunezko bedar kutsugarriak jota. Eztau ezer aurreratzen, eztau osabiderik aurkitzen; bestera baiño, esan, egin eta pentsatzen dauanak miñagotu egiten dautso daukan oiñazea. Eta, azkenez, bere Senarragana biurtuz, eriotza eskatzen dautso bertso onetan:

*Zauritua bait nozu,
biotz au zelan ez dozu osatzen?*

Maite-lera irrituan, ba-dakizu, arimeak emen agertzen dauan lakoak, ezin dau iruntsi ezelango luzatzerik, ez atsedetik bere miñarentzat, azkeneraiño errerik osabide billa bere kemenak. Eta, zauritua ta bakarrik, zauritu eban bere Maitea ezik beste laguntzaille ta osakairik ez dauan ezkerro, Ari diñotsa, bere albiste maitez biotza zauritu eutsonez, zergaitik ez dauan osatzen bere aurrez egote samurrez. Berak, maiteminduz ostu dautso biotza, indar barik itxiaz; zergaitik laga dau orrela, beretik jalgi-azota, maitatzen dauanak bere ez bait dau biotza, Maiteari emon dautso-ta. Osorik, baiña, eztau berean ezarri oindiño, guzti-guztia, dan lez, beretzat artu ta aintzan maitez eraturik.

Ez dago kexaz zauritu daualako; biotz maitemindua, ba, zauritua go ta ordainduago dago; zauritu ondoren, il ez ebalako, alatzen da. Maitasunezko zauriak txito ezti ta gozoak jatzuz, eta eriora eldu

ezik, ez dira asetzen; gustakorrak, bai, il-azterairio eltzekoak nai leukezanak.

Origaitik diño: zer dala-ta, zornatzeraiño zauritu bai dozu, zergaitik maitez ez dozu il-azten? Zeu zara maite-miñetan orren errudun; onela lagarik, urrin zagozalako. Zergaitik ez nozu sendatzen zeure begitarte gozoz?

*Ostu ba'daustazu,
zergaitik olan itxi?*

Ostutea ezta besterik jaubea bere zer barik iztea baiño; lapurrak bere egin oi dau ostutakoa. Eskatima edo kexa au ipinten dautso emen arimeak Maiteari; biotza ostu dautso maitasunez, bere nai ta anetik aterarik, eta eztau bene-benetan beraren mendean jarri, lapurrak egiten dauanez; onek, ba, ostu dauana berarekin daroa.

Maiteminduagaitik esaten da osturik daukala biotza, maite duanak ostuta; beragandik at dauka, maite dauan gauzan ezarrita; beraz, eztau biotzik beretzat, laztan dauan arentzat baiño. Emendik igarri leike arimeak Jainkoa egiaz maite dauan ala ez, bere Egillea garbiro maite ba'dau, ez dau biotzik izango ez beretzat ez bere gusto ta obarientzat, Jainkoaren ospe ta aintzarako baiño: noberantzat biotz geiago, Jainkoarentzat urriago.

Laster atera leike biotza jainkoak ostua dagoan ala ez, gauza biotatik: arimea Jainkoagan gurariz baldin ba'dago, eta arimeak emen diñoanez, Arengan ezik beste ezertan gustorik ez. Biotza ezin da-ta jaubetza barik ezin daiteke bakez eta atsedenez egon. Ordu-rate arimea edontzu uts pareko aurkitzen da, betearen zain; gose danaren antzera eta osasun eske zizpuruka dagoan gaixoa legez. labur: Goian dingilizka, oiñak bean nun jarri ez daukanaren irudira.

Era onetan aurkitzen da biotz ondo lilluratua. Eta ontaz oarturik arimea, aurretik be izan dauan experientziz, deadar dagi: *Zergaitik olan itxi zenduan?* Esan nai dot: uts, gosekil, bakar, zauriz josia ta maitez, txarto, dindil aidean. Zuri deiez: Eta zergaitik ez dozu artzen ostu zenduan ostutakoa? Edo-ta bardin dana, zergaitik ez dozu artzen niri lapurtu zeustan biotza, maitasunez ostu be, ase-bete ta laguntzeko, jarleku ta atsedeen osoa Zeugan emonik?

Zergaitik ez dozu lapurtua artzen?

Arimeak Maitez berbatua ta ainbestean itundua egon arren, ordaiña nai dau, edo maitasunaren saria; berak Maiteari dagitson zerbitzu-ordez. Onek zor dautsona; olantxe ezik, elitzake benetako maitasuna izango, alogera ta maite-ordaiña ez da besterik, eta arimeak berak be eztau besterik eskatzen maitasun geiago baiño, beronen osotasuna jadetsi arte. Maitasuna maitasunez ordaintzen da, Job igarleak be aitzen emon euskenez: *Morroiak itzala opa dauan lez eta alogerekoak bere lanaren amaia, alan igaro dodaz nik illabete latzak eta gau neketsuak. Ogera joanik, noiz elduko ete jat eguna? esaten neban. Eta jagitean "noiz etorriko ete jat gaba? Eta goizetik gabera or nabil oiriazapean (2-4).*

Bide bat bear eta, arima Jainko-maitez kilkilduak maitasunaren betea opa dau, ortan al bada, ozkirri ta otz-atsegiña izango ditu bete-beteak. Kerizpeak dakartson nasaitasuna opa dau lanak nekatu dauan morroixak, an itxaroz bere egiñaren amaia. Job igarteak ez eban esan bere alogerekoak bere lanaren amaia itxaroten ebala, bere egiñaren amaia baiño.

Bardintsu, maitatzen dauan arimeak ez dau itxaroten bere lanaren amaia, bere egiñaren amaia baiño; maitatzea da. ba. onen egiña, maitatzea dana, arimeak itxaro dau azkena ta burua, au da, osotasuna ta Jainko-maitasun betea. Au oso-osorik gertatu arte beti izango dira egunak uts eta gabak neketsu. jainkoaren zerbitzuan dabillen arimeak, ba, eztau beste osotasunik itxaron bear, Jainkoa bene-benetan maitatzea ezik.

AMARGARREN KANTA

*Ito nire sumiña,
au itzaltzeko beste ezpaita nainor;
zakusela begiak,
euren argi bait-zara,
ta Zutzat soilki nai ditut izan zor.*

Arimea, ba, maitasunezko gaillur ontan dagoala, geixo nekanekatu bat legez dago, aokera ta jan-griña galdurik, jaki guztiak gogaikarri, iguin jakozala. Burura naiz begitara jatorkozan gauza

guztietan gauza bat darabil gogoan, bere osasuna ta onetzaz ez dan guztia nekezko jako ta gogoikarri.

Ortaz, Jainko maitasunezko gaixo ontara eldu dan arimeak, iru zer egoki oneik daukaz, adibidez: begien aurrera etorri naiz berak darabiltzan, bere osasuna, ots!, bere Maitea, daukala aurrean; olan, ezin-bestean areitan ibillita be, -Arengan dago bere biotza. Ortik jagiten jatzu bigarren egokitasuna, au da, galdurik daukala gauza guztien gustua. Eta emetik dator irugarrena, gauza danak jakozala nazkagarri, astun eta zail.

Zergaitik au ete? Arimearen nai-sapaia Jainko-maitasun jateko onekin jota dabil edozertan eta edozein unetan: eta gero, luzera barik, beste ezeri begiak ezarri bage, naimena bere Maitearen billa doa, Arekiko atsegin billa. Ori berori egin eban Mari Madalen'ek ortuan zear ibilli zanean, Kristoren billa, Arima onek era berean, nun-nai ta gauza guztietan Jauna billatzen dau, batzutan oztopo jakozala be arazo orretan. Modu orretan ezta arrigarri, onan deai-der egitea:

Ito nire samiña.

Aurrera doa arimea bere Maiteari eskatuz bere gurari samiñai jarri daiela amaia, besterik ez bait da asko, Bera bakar-bakarrik dalako ortarako naiko, Bere arimako begiak ikusi daiela, Bera bakarrik bait da oneik begiratzen dabena. Eta berak ez ditu beste ezetan erabilli nai Beragan baiño.

Maite-griñak au be ba-dau: berak egin, esan edo-ta naimenak maite dauanaz bat ez datorrenak, gogait eragiten dautsala, nekatu ta asarrekor jarri, berak opa dauna beteten ez dau-ta ikusten. Oni ta jainkoa ez ikusteak damotsan nekeari deritxo *sumiria*, eta ez dau ezek saportu ta autsiko, Maitearen begi-aurreak ezik. Berotan larri dagoanari ur otzak dakartso poz-aldia. Origaitik diño emen, *ito*, maitasun sutan alan-bearrez dagoala adierazo nairik.

*Ito nire samiña,
au itzaltzeko beste ezpaita iñor.*

Maitea beraganatu ta lot-azteko, au diñotsa, Bera ezik beste iñor ez dala gai daukan bear-izana erabagi dagion; Berak itzungi daijala erre-bearrez daukan sumiña. Jainkoa, izan be, orduantxe dago gertu arimeari poztaziz laguntza emoteko, arimeak Beagandik kanpo ez daukanean, ezta euki gura be, ezelako atsegiñik ez poztasunik. Jainkoz kanpo nork alaitu ta jostarazirik ez daukanean, ezta luzez egongo Maitearen ikertaldi bage.

Zakusela ene begiak.

Bai, ikus zaizela nire begiak; ez erdizka be ispilluan lez, aurrez aurre baiño (Paul, 1 Kor. 13, 12). Zu bai zara begion dirdira. Arimearen begien izatez gaiñetiko argi-diztira da Jainkoa, ori barik illunetan legoke. Zalez diñotsa bere begien *dizdira*, Maitaleak be olantxe deitzen dautso maite dauanari, zenbat gura dautson erakusteko. Aurreko bertso biotan au adierazten dau: nire arimako begiak ez dauke beste argirik, ez etorkiz ez maitez, Zeu ezik; ikus zagiezala, ba, nire begiak, nai onetara nai aretara euren argi zarata.

Argi au uts emoten eban Dabid erregeak, errukiz iñoanean: *Begietako argiak berak be iges egin daust* (Salm, 37, 11). Eta Tobias'ek: *Pozik izan ete neike? Illunpean eserita nago, zeruko argirik ikusten ez dodala* (5, 12). Jainkoaren ikuste argia gura eban, zeruko argia Jainkoaren Semea baita. Juan deunak onela: *Uriak ez dau ez eguki ez illargi-bearrizanik: Jainkoaren aintzak argitzen dau, eta Bildotsa da, aren argiontzi* (Apok. 21, 23).

Eta Zutzat soilki nai ditut izan zor.

Beartu egin gura dau arimeak Senarra bere begien sutargia erakustera; ez bakarrik, geiago ez eukiaz illunetan egongo dalako, ez bait ditu euki nai beste ezertarako Arentzako izan ezik. Izan be, goi-argi onez errazoiz da gabetua, Jainkotik ateko beste zer berezi baten begiak jarri nai ditun arimea, berezkobidetik okertu da-ta; era bardiñean, arimeak merezi dau emotea bere begiak, bere Jainkoarentzat bakar zabalik, eta beste zer guztietarako itxirik daukazanak.

AMAIKAGARREN KANTA

*Erakuts betartea,
ta il nagizu zeure zizta ederrez;
maite-miña ziurki
ez dau ezerk osatzen
itxurak ezik ta begiz ikustez.*

Senar maitetsuak ezin dau arimea euki ainbesteko miñetan, Errukior da biotza, ta erruki eske dagonaren oivak entzun daroaz. Jainkoak, ba, ezin gorrarena egin arima maiteminduaren intziri ta deiei; gauza guztiak, ta bere burua be bai, laga ditu Beragaitik; zuzena dala dirudi, beraz, erregu bizi onei esker, Jaunak egin bear izan dautso espirituzko ikustaldi gozoren bat, Bere Jainkotasun ederraren dirdiratu sakon batzuk egiñez, eta ikusteko gogotan eta maite-su berotan biziago jarritz.

Irudi bat. Ago edo sutegian ura bota oi dabe sua geiago indartu ta biztu-azo daiten. Bardin diardu Jaunak be maite bare-aldietan dabiltzan arimakaz, geiago gartsutu nairik bere bikaintasunaren erakutsi batzuk egiñaz, eta ondoren burutu nai dautsezan mese-deetarako eratuaz.

Arimea onezkero, Jainko maitasunak erre ta kiskaldua, ezin egonik, ausart eta erabagitsu, ager daiola bere betartea, eskatzen dautso, bere edertasuna, au da, bere barne-izatea, ta il-azo dagiala iku ste orrekin; jarein daiola aragitik, onegaz ezin bai dau ikusi ta nai leukean lez gozatu. Beraz, diñotsa:

Erakuts betartea.

Erakutsi, ba, arpegi ori, begi-arte ori, lilluratuta naukan itxura ori. Iru eratara dago Jainkoa ariman: lenengo *izana* emonez; bigarren, *grazi*az, eta irugarren, espirituzko *txeraz*.

Baiña gogozko aurrez egoteok, danak dira estaliak, ezta agertzen eurotan dan bezela, ezin bait dau jasan bizitz ontako girorik. Jainkoa beti dago ariman, lenengo eraz beintzat. Agert-azo dedilla eskatzen dau arimeak, alan edo onan, berak Bere eder eta jainko-

tasun betean ikusi aal izateko moduan. Lenengo egotez berezko izatea damotsan lez, eta graziaz osotu, bere aintza agiriaz be gorai patu dagiala.

Bardin jazo jakon Moises 'i Sinai mendian; an, Jainkoaren aurrean, jainkotasunaren dirdai joriz esitu ta murgildua zala ta au ezin eroanik, birritan eskatu eutson bere aintza erakusteko, onela: *Ondo ezagutzen nozula diñozu neure izenez; neure ederra lortu duzula; beraz, zeure ederra lortu ba dot, eraku ts eidazu zure bidea* (Urt. 13, 12, 13). Baiña jaunak: *Zuk ezingo dozu nire arpegia ikusi; gizonak ezin lei ni ikusi ta bizi* (Ibid. 33, 10). Ez, gizonak ezingo leuke sufridu Jainkoak emongo leutson poza ta atsegiña. Au jakiñik arimeak diño:

II nagizu zeure zizta ederrez.

Orduan, nire gogoak ezin eroana ba'da zure izate ta ederrak ikusten damotsan atsegiña, ta bera ikusiz il bear ba'dot, il-azo naiala zure begien ziztak. Dakigunez, begi-zizta bik il dagi gizona; eren-sugearenak, adibidez, eden-pozoiz il-erazten dauna, eta Jainkoaren ikusteak; baiña errazoi diferenteakaitik, batak eden ugariz il dagi ta besteak osasun ugaria ta aintza betea emonik.

Bertso au are geiago azaltzeko, arimeak emen baldintzaz itz egiten dauala, il dagiala diñoanean; il barik ezin dau-ta ikusi; il barik ikusi al ba'leu, ba, ez leuke ori eskatuko. II gura izatea, izan be, ezta berezkoak daskana. Alan be, giza-bizitza ustelkor au Jainkoaren beste bizitza zimeldu-eziñarekin batera egon, nairik diño diñoana; *il nagizu*.

Arimeari, onek maite dauan lez Jainkoa maite izank, ez litzakio nazka izango Aren begi aurrean iltea, egiazko maitasunak ba maitearen aldetik dator kion guztia, zein txarra zein ona, baita zigorrak eurak be, bardintsu artzen ditu. Juan deunak: *Maitasun osoak, bildurra kanpora jaurtitzen dau* (1, 4, 18).

Benetako maite-sua su geiago naita dago, eta bildur barik; ez, iñok ez dautso erantziko daukan maitasuna, ortaz daukanaren betegiña eskuratu baiño. Arimeak, ba-badau motiburik il *naizu zeure begi ziztaz* esateko. Onek ba-daki jakin be, erio garratz ostean, maitasunaren gozotasun eta atsegin guztiak daukazala. Au ez jako triste, pozkor baiño, naigabeen azkena eta on guztien asiera jakota.

Bere adiskide ta Senar danaren gomutaz poz-atsegiñetan blei-blei dago.

Dabid erregeak: *Balio aundikoa Jaunaren aurrean, A ren zintzoeen eriotza* (Salm. 115, 15). Arimea ezta eriotz-aurrean izutzen, opa izan baiño; pekataria ostera, bildur da, ba-dakialako ezer barik geratuko dala, on barik eta gaitz guztiakaz, izugarria bai da pekatarien eriotza (Salm. 33, 22). Mundu au laztan dabe gerokoaz azturik, eta geroko zer orrek, eriotz onduko zer orrek dakartse bildur itzala.

Jainkoa maite dauan arimea, barriz, oraingo bizitzan baiño gerokoan geiago bizi jatzu, arimea, esan dogunez, bizia artzen dauan lekuan baiño, maite dauanean geiago bizi da. Beraz, gitxitzat dauko aldiko bizi au; orixegaitik diño: *11 naizu*.

*Maite-mixTa ziuurki
ez dau ezerk osatzen
itxurak ezik ta begiz ikustez.*

Zergaitik onan? Maite-miña diferentea bai dozu; ezta beste gaixoak langoa ta bera osatzeko be era ezbardinez jokatu bear da. Beste gatxetan, oker ez jarduteko, aurkakoak aurkakoakaz osatu bear dira, baiña maitasuna ez da sendatzen maitasunaz egoki datozenakaz izan ezik.

Errazoa? Jainkoaren maitasuna da arimearen osasuna; beraz, maitasun beterik ez daukanean, ez dauka osasun beterik, eta gaixorik dago. Gaixoa ezta besterik osasunik eza baiño. Ortik, illik dago arimea jainkoaren maitasun-izpi bage aurkitzen danean; zerbait daukanean, ostera, naiz-ta gitxi, bizirik dago, baiña gaixorik eta makal: maitasuna geituz eta osasuna obetuz. Eta maitasun osoa leukakenean, osasun bete-betea legoke.

Jakingarri da auzi onetan, maitasuna ez dala iñoiz oso izatera eltzen, maitaleak bat estuan alkartu arte, bata ta bestea bakar bat egitera eldu arte; orduantxe dago maitasuna oso-osoan osotua. Emen, barriz, arimea olako maitasun marratzez sentitzen dan ezkerro, au da, gatxak eraginda, laga daiola eskatzen dautso bere Senarra, au da, Itza Jainko-Seemea marratz-irudiz iruditze jardutea. Itxureak ez dau-ta maite-miña osatzen. Betor, bai bere arpegial

AMABIGARREN KANTA

*Oi, iturri leiar bizi,
zeure zidarrezko nini orreitan
nik muiñean josirik
daukadazan begiak
ñirfir ba'zeuskidaz dardar gozotan!*

Arimea ba-doa aurrera, xixtu edo abiada ezin eutsian. Jainkoa-gana doa; ari baten antzera, nunbait, erdirago ta indartsuago. Bizi da ta Maite laztan; artega daukagu; ezker-eskuma izakiak daukaz, eta oneik ez dabe gitxi baiño laguntzen. Maitea nai dau, Arekin alkartu; miñaren miñez garraxi dagi, ots bizitan deadar.

Fedeagana jo dau estrofa ontan, ia lagungarri jakon. Uste dauanez, onetxek ezpai barik emongo dauetsa argia, bere Maiteaz dakiana, nundik dabillen, zer diñoan; ain zuzen, orixegandik etorriko jako gura dauana; ortik lortuko dau egiazko batasuna, Jainkozko ezkontza. Gurari biziz Kristori diñotsa kanta onetan: o Kristo neure Senarraren fedel, ainbat egi jarion dozu Maiteaz nire barruan; illun samar bialdu daustazuz egiok eta nik nai neukez argi ta osorik. Egizu, bai, olan, aintzazko agerpen ederrez!

Oi, iturri leiar bizi!

Diño bertatik. Kristal edo *leiarrezko* diñotsa fedeari, gauza bigaitik: lenengo, bere Senar *Kristo'rena* dalako, eta bigarren, *kristalaren* gaitasunak daukazalako; aratza da egietan, sendo ta garbi, berezko era ta okerretatik. *Sendo*, esaten dautso, arimeak bertatik erionda artzen ditu gogozko ondasun guztien urak. Kristok, samaritarraz mintzatzean, iturri deitu eutsan fedeari: *Nik emongo dodan ur au betiko biziraino igoten dan iturri' biurtuko da* (4, 14). Ur auxe zan siñistuko ebenak artuko ebenen espirituzko ura.

Zeure zidarrezko nini orreitan.

Fedeak erakutsi daroaskuzan egi ta siñiskaiaia deritxe zidarrezko *niri, arpegi, mosu* edo *begitarte*. Au eta urrengo bertsoak ulertzeko, on jatzu jakitea, fedea, irakasten dauskuzan siñiskaietan zidarragaz bardiñean emona dala eta sustraizko egietan urreagaz; mamin ori ba, orain fedezko zidarrez jantzi ta estalia siñistuten daguna beste bizitzan ikusi ta gozatuko dogu urre uts agirian. Gai ontaz diardua-la Dabid erregeak onela: *Zuek arditegietan atsedean artzen ziarduen artean, usoak zidarrezko egoz jantzi ziran, urrez dizdiz arein* lumak (Salm. 67, 14). Au adirazo gura dau: adimen-begiak goiko ta beeko gauzai ertsi ezkerro (oni deritxo erdian lo egin), fedean geratuko gara (oni deritxo *usoa*) eta onen *lurrak* diñoskuzan egiak noski, *zidarrezkoak* izango dira, fedea bizitza ontan damoskuzanak illun estaliak diralako; origaitik diño emen *zidarrezko* nini orreitan.

Baiña fedearen azkenekoak unkitzean, au da, fedea Jainkoaren ikuste betetan amaituko danean, fede-mamiña *urrezko* koloretan geratuko da, zidar onen gain-zapiz as ta billoiz. Fedeak damosku Jainkoa bera, naiña fedezko zidarrez jantzia. Eta origaitik egi-egiaz emoten dausku, urrezko izanik zidartuta damoskunaren antzera, zidarturik joan arren, urrezka dozu edontzia.

Arimeak orain fedeari samur: Zeure zidarrezko nini orreitan, ots, siñiskai orreitan, jainkozko urre-izpi ta erraiñuetan gorderik daukazuzan orreitan, nik ain gartsu opa dodazanak.

*Nik muliean josirik
daukadazan begiak.*

Edo bardin dana: O bai, fedeko artikuluetan era bage ta illunki erakusten daustazuzan egiok, arren bai arren, erakuts eidazuz argi ta zapi barik. Ori daskatzu nire naiak, nai biziak!

Begiak diñotse emen egioi, Maitea bada oneik oartuz, uste dau, aurrez aurre daukala beti berari begira. Orixegaitik arek jalgiten:

Ñ rñir ba'zettskidaz dardar gozotan!

Bere erraietan daukazala diño marrazturik, au da, bere ariman bere adimenari ta *borondateari dagokionez*, adimenari dagokionez ba

fedea ixurita daukaz bere ariman. Euron albistea ezta osoa ta origaitik diño marraztuta dagozala. Marrazkia ezta lez pintura osoa, olantxe fedearen izparra be ezta adierazte osoa. Beraz, ariman fedez ixurtzen diran egiak marrazkian lez dagoz, eta ikuskari argian dagozanean, pintura oso-oso egiriean lez egingo dira.

Baiña fedearen marrazki edo dibujo gaiñean maitasunezko beste dibujo bat dago maitalearen ariman; borondateari dagokiona dozu, emen, maitetasunik bada, bizi-bizi marraztu oi da Maitearen iduria xee-xei ta biak alkarrekin argazkiturik; orduantxe esaten da, Maitea maitaleagan bizi dala, eta maitalea Maiteagan. Onek zeatz eraldatzen ditu maite diranak eta egiaz esan daikegu bakotxa truk eginda lez geratzen dirala; olan, au bestean bizi da, ta bestea onegan, eta biak bat dira maitasun aldatzez. Paul deunak au adierazo nai izan eban, au iñoanean: *Bizi, onezkero ez naz ni bizi; Kristo bizi da nigan* (Gl. 2, 20). Ots, bera bizi zalarik be, bizi zana etzan bere bizia, giza bizia baiño Kristo bizia geiago zan berea.

Iruditu oni gagokiozala, esan gengike, arimearena ta Kristoren bizia bat zirala maitezko batasunari esker. Au oso-osorik, oster, zeruan gertatzen da Jainkoagan alkar ikustea merezi izan dabenen artean: an zelanbait Jainkoturik, arimak ez dabe euren bizia egingo Jainkoarena baiño, eta egi-egiaz esan al izango dabe: geu bizi gara ta ez gara gu bizi, Jainkoa gudan bizi bai da.

Au, barriz, izan daitekena dala, Paul deunagan jazo zan lez, ez alan eta guzti be, ez osorik eta zearo; ezta arimea, mundu onetan jadetsi daiken maillarik gorenera, espirituzko ezkontzara elduta be: betierako aintz-zoriontasunaren ondoan dana izango jaku *maitasunezko marrazkia*.

AMAIRUGARREN KANTA

*Ken egistazuz, Maite,
egazka noa-ta!*

SENARRAK: Biur, usoa,

*or orein zauritua
zure egaizez da ageri
muiño-gain, eder daula otz-aroa.*

Aurreko zazpi estrofa emaztearenak *dira*, urrenez urren; 13'garren kanta au arimearen eta Senarraren arteko alkar-izketa dozu, olerkariaren ritmua bizi-bizi ipiñirik.

Arimea Jainkoaren suan ixiotzen danean, maitezko kemena aundi da-ta, nai ez ditun gauzarik asko esan eta egin daroaz. Beretik urtenda dabil. Eta Jaunak orduantxe egiten dautsoz mesederik zabal-ederrenak, eta ikustaldiak. Eta emen erdi itsu ta zoramanez betea, ain makal baita bere izatea, au diñotsa:

Ken egistazuz, Maite!

Beretik urtenda gora egaztu naiak oztopoak aurkitzen. Aragia itxi ta goi-bizitza txastatu dozu ak opa dauana. Egaz doa, baiña oraindik bee-izateak tira tzen. Esan dogunez, arimea Jainkotasunaren atzetik dabil; ikustaldi orreitan Jainkoak berak iragarri dautsoz, antza, ezkutu ta edertasunik naiko. Gure mixeria baiña izugarria da-ta, arimeak bizi onetan bizi ta indartsuen opa dauana, au da, bere Maitegazko artu-emona ta ezautza, emoterakoan, ezin dau eskuratu ba bizia galdu barik; ainbeste ardura, lera ta bidez Maitearen billa ibilli ziran begiak, Bera aurrean daukanean, *Ken egistazu, Maite!*, esan bear.

Onako ikustaldi ta zentzun-galtzetan oiñaze ikaragarriak izan oi dira, azur-giltzak lokatu ta biotza estu-larri jartzen dala, Jaunak berak lagundu ezik bizia galtzeraiño. Olakoetan, egi-egiaz, orixe begitanduten jako arimeari, aragitik urten eta gorputza bertanbera izten dauala. Olako mesedeak ezin dira artu aragi-aragian, espirituua jaso da-ta arimara datorren jainkozko Espirituaz ar-emonean jarteko, eta jakiña, zelan-alan itxi egin bear dau aragia; ortik, ba, aragia miñetan gelditzen, eta arimea aragian, etorri batekoak dirata. Onak dakartson alamenez, ots dagi: *Ken egistazuz, Maite!*

Arimeak ostera, kentzeko esanik be, ez dau bere aurretik kendu dagizanik gura, esan ori berezko bildurrak sortua baiño besterik ez dalako. Alderantziz, asko be asko kastata be, ez leukez galdu nai Maitearen ikuste eta mesedeok. Baiña eurok ez leukez aragitan nai, aragitik kanpo baiño, askatasun osoan gozaten dan lekuan. Ez eidazuz, ba, Maite, aragitan emon.

Egaz noa-ta!

Bai, aragia itxi ta egazka doa, ondasun orreïn billa. Esanda laga dogunez, jainkozko Espirituaren ikertaldian arimearena indarrez artua da Espirituagaz artu-emonean jarteko; gorputza egaberatu ta arimeak ez dau aregan ezer somatu ez egiten, Jainkoagan bai ditu bere egitekoak. Paul deunak onan bere zerura jazotean: *Ez dakit bere soiñean egoan ala soiñetik at, Jainkoak daki* (2 Kor. 12, 2).

Onek ez dau esan nai gorputza berezko zer barik izten dauala arimeak, suntsituta; egiterik ez daukala aregan baiño. Onako arrapatze ta birloraldietan auxegaitik geratu oi da zentzun bage soiña, min aundiko zerak egin arren, ez dau sentitzen; ez da emen jazoten beste zorabio ta biotz-estura berezkoetan lez. Sentipen oneik gorantza doazanak eukiten dabez, ez ostera osotasunera eldu diranak; oneik baketasun eztian zanga egiñik dagoz, eta emen ez dabe bear zorabio ta antzekorik.

Bide onetatik dabiltzan arimak sarri izaten dabez zentzun-gal-tzeak, lillurak, extasiak eta egazkada me-segaliak. Emen egaz doala diño arimeak, gaiñezkaldi betean Jaunagana doala. Eta ondoren Maiteak dirautso:

Biur, usoa!

Pozarren joian arimea gorputzetik at gogozko egaldi artan; onezkero bizia amaitu ta bere Senarragaz beti-betiko gozatzer. Maitearen onua, ostera: *Usotxo*, egada goitarrez, su bizi zagozan maitez eta zoazen bakuntasunez -iru gaiok bait ditu usoak, itxi eizu egaketa ori ta zoaz atzera; laga, bai, nigaz benetan alkartzeko bide ori, oindiño ez baita eldu ezautza ain goiengo aldia; zagoz oraindornik zure nairen naian emon opa dautzudan beerako oneri aiutua.

Or orein zauritua.

Senarra bera oreiñaz kidetzen da. Oreiñ edo basauntzari gaiñak atsegin jakoz, eta zauritarik, bizkor doa aringarri billa errekondu ta ibaietara. Laguna intzirika baldin ba'dago, edo-ta zauritua, arengana eldurik laztandu ta loxinkatu oi dau. Olantxe dagi emen Senarrak, emaztea oartuz beraganako maitasunez zauritua, bera be aren

intzirira dator arenganako maitasunez zauritua; maite minduen artean legea da, bateren zauria biena dozu, biak dabe sentipen bardiña. Orrela emen be, Senarrak diño: Zatorkidaz, ene Emazte, nire maitasunez zauritua ba'zoaz, neu be, oreiña lez, zeugana nator zeure zaurian zauritua.

*Zure egaizez da ageri
muino-gain, eder daua otz-aroa.*

Muiñoz bestaldetik ibilli jatzu Maitea goiz-giro gozoan, eta arimearen negar, zizpuru ta inkesak entzunik, tontor ostean agertu da. Otoitz sutsuan murgildua dabil arimea, ta Jainkoa bizitz onetan kontenplaziñoko muiño gaiñean agertzen jako batez be arima otoizlariari.

Ibiliz aizea sortzen, bardin maitasun-espirtuak; ikuste egadeak ariman maitezko aizea ateraten, eta olan dei egiten dautso emen *aizea* naiko egokiro; maitasuna dan Espiritu Santua be aizeaz kide-tzen Liburu Santuetan, Aitaren eta Semearen ikuste ta jakitetik datorrena, arnasa artuz, emen be arimearen maitasun oni *aize* deritxo Senarrak, une onetan Jainkoagandiko ikuste ta albitez daukana da-ta.

Ez diño emen Senarrak egadan datorrenik, *ego-aizez* baiño; Jainkoa ez da gogora emoten, adibidez, bere egadagaitik, ots, Jainkoarekiko ezagutzagaitik, ezagutzearen maitasunagaitik baiño. Maitasunak lotzen ditu Aita ta Semea, orobat arimea Jainkoarekin be. Olan, arimeak otoitz garaia, Jainkozko barri ugari ta ezkutu guztiak ezagutu, maitasunik ezpadau, ez dauka ezer Jainkoaz bat-egiteko. Maitasunak dakar Senarra bere Emaztearen maitasunezko iturri ontara.

Eder daua otz-aroa.

Aizeak, ego-aldekoa ezpada beintzat, ozkirria dakar. Bero danari otz-atsegiña dakartso. Maitasuna emen, otz artuz, biziago egiten jatzu, maitasuna ba maitalearengan sugarra da, erretzenago egiteko griñaz, erreten dauana, berezko sugarrak dagianez. Senarrak,

beraz, bere Emaztearen maitasun-sutan, ots, beronen egada aizean, geiago ta geiago ixiotzeari deritxo emen otz-artzea.

Jakingarri da emen: jainkoak ez ditu bere grazia ta maitasuna ariman ipinten, onen naiari ta maitasunari dagokionez baiño. Maitaleak ba-daki, ba, au ez daitela falta.

AMAL AUGARREN KANTA

*Oi, ene Maite, mendi,
ibar-arte, zelai bakar oiantsu,
oi ez lakoxe ugarte,
erreka soiñulari,
aize bigunaren maitezko txistu.*

Egaz ebillen arima usotxoa, maitasun egoz, neke-miñen uiol uren gaiñetik, esan dogunez, oiña nun jarri ez ekiala; Noe onberak azkenez, errukior, eskua luzatu eutson eta maite-kutxara erakarri. Bakartade gozatsu ontan, arimeak nai ebana ta geiago aurkiturik, bere Maitearen gorralpenetan asazkatzen jatzu nasai baizen ezti, gura ebana jadetsi dauala-ta.

Ekiñaren ekiñez arimea goi-mailla ontara eldu da, Jainkoak lagunduta. Espirituzko ezkontza deritxoe oni, Itzaz, Jainko-Se-meaz alkartu da. Eta au gertatzen danean, Jainkoak bere doe, mesede ta gai ederrak oparo ixuri oi dautsoz ari-ari, aunditasunez eta duintasunez aberasturik oso, doai ta birtutez arkolau ta pitxituaz, Jainkozko ezagutzez eta ospez jantziz, ezkonbarriari bere ezkontz-egunean legez. Egun zoriontsu! Joan ziran neke-min eta arantzak. Bakea ta atsegiña gaurgero. Orixegaitik, ba, oraingo abesti-kantak.

Arimearen gozotasun betea alkarte onetan! Balio gaiñezko gauzak dizdizka; berak opa dauan atsedean osoan, guri-guri; Jainkoaren ezkutu ta ulertzeak ezagutuz; beste indar guztiak azpiratzen ditun Jainko-kemenez ornidua, bake ta argitan igeri, Jainko-jakituriz blei-blei, izakien bikaintasun betean ñirñirka; maitasunaren bero gozotan kiskal... Auxe dozu urrengo kanta bietan batez be, abesten dana.

*Ot ene Maite, mendi,
ibar-arte, zelai bakar oiantsu.*

Gaiñak daukiez mendiak, zabal luzeak dira, eder-joriak, lorati ta usaintsu. Niretzat mendiak dira nire Maitea.

Aran eta ibarrak, bakartadean, zurgzti-geldiak, jori ta ikusgarriak, kerizpetsu ta ozpelak ur gozoz gaiñezka, zugatz askoz eta txori kantuz gizen, zentzunen asegarri, ixiltasun bakartian atsedean ezti. Toki onein pareko jat nik maite dodana.

Oi-ez lakoxe ugarte.

Ugarateak -ur-arte- itxasaak ingurumari daukazan lur-zatiak dozuz; urrin daukazuz askotan eta gizasemeen artu-emonetik asago. Eurotan erne ta azten dira bedar, zugatz ta beste gauza asko emendik ikusten ez diranak; egiazki zer erraru ainbat eta ainbat, oie ez eta arrotzak deritxenak. Eurok lenengoz begi-aurreratzean, sorlor geratzen gara. Orrelaxe arimea be, Jainkoaren arrigarrien aurrean. Jainkoa da emen *arrotz*. Ez bakarrik gizasemeentzako, baita aingeru ta ikusten daukazan beste guztientzat be, oso-osoa ez dabe ba ikusten, ezta ikusiko be, azken epai egunerarte.

Erreka soiñulariak.

Iru gaitasun daukiez errekek eta ibaiak: *lenengoa*, aurrean aurkitzen daben guztia gaindu ta murgiltzen dabe; *bigarrena*, bee-alde ta utsune guztiak aizatu ta aunditzen dabezala, eta *irugarrena*, beste ots guztiak ixiltzeko lain dan soiñu apartekoa daukela. Eta zer oneik arimeak Jainkoagazko ar-emonean, sentitzen dabezalako, bere Maitea diño *erreka soiñulari* dala. Izan be, an, Jainko-espirtuak artua, murgil geratzen dira lengo griña ta irrika danak; jainkozko ur onek bere apaltasunaren azpiak aizaturik, bere lei ta irritsen utsak beteten ditu, eta azkenez arimeak Maitearen abots ezti dantzu, lurbirako soiñu guztien gaiñez zoragarri dana.

Erreka onein ots soiñulari au, ondasunezko betete aundi, oparoa da, eta artu dauan ikaragarri bat; eta arimeari iruditzen jako ez bakarrik erreken soiñua dala, baita trumoi ta ostots indartsua be.

Au, baiña, espirituzko otsa da eta ez dakaz beste soin-otsok ezta euron neke ta kezkarik, ala, indarra, atsegiña ta aintza baiño; leza aundi bateko soiñua da arimearentzat, berau alez eta kemenez jazten dauana.

Aots eta soiñu au izan zan Pentekoste igunean Apostoluen espirituan egin zana, indartsu ta ugari: *Bat-batean, aize-boladarena lako burrundara sortu zan zerutik, eta areik egozan etxe guztia bete eban* (Apost. 2, 2). Barru ta kanpo egozan guztiak entzun eban; al ta kemenez betea bait zan, Jerusalem osoak entzun eban.

Kristo bere Aitari erreguka egoanean be, barne-abots bat zan zerutik, Kristo gizon zanez, indartu ta odaretzearren, judutarrak kanpotik ots aundi lez entzun ebena. Juan'ek onela: *Orduan berbots au etorri zan zerutik: "leen be goratu dot, eta barriro be goratu egingo dot". An egoan laguntaldeak berbots ori entzunda, trumoia izan zala illoan* (12, 28-29). Bardin arimeak be, entzun egiten dau espirituan, eta artu, espirituzko abotsaren soiñua.

Aize bigunaren maitezko txistua.

Gauza bi diñoz arimeak bertso onetan, *aize ta txistu*. Aize *maltekorrak* esatean, Maitearen birtuteak eta graziak adierazo nai dira emen; maitez alkartu diran ezketiño; doai orreik arimeari eraso ta maitekiro jarionik, barru-mamirieran ikutuka daukoz.

Aizeak, orain bigun gero zakar, otsa ateraten; eta aizea txistuka dago esan oi dogu, negu-gauetz. Emen aize bigunen txistua, jainkoari buruzko adiera guren-gozoari deritxo, Aren on-egiteai; eta adiera au gaiñez ixurtzen da arimearen gunean Jainkoaren on-egiteok dagien ikutu-artzean; auxe da arimeak emen euki leiken gozotasunik gozoena.

Au obeto oart-erazteko, esan dagigun: gauza bi sentitzen dira aizean, *ikutua ta txistua*. Era berean, Senarraren ar-emonean be, beste gauza bi sentitzen dira, *gozo-sentipena ta ulertzea*. Eta *aizearen ikutua ikutuaren zentzunean artzen dan legez*, eta aize orren *txistua entzumenean*, orrelaxe Maitearen *birtutean ikutua* arima onen *ikumenean* sentidu ta gozaten da, ots, arimearen *gun-gunean*; Jainko birtuteen ulermena, barriz, arimearen entzumenean sentitzen da.

Jainkoaren ikutu au atsegiña da guztiz, arimearen guna atsegiñez asetzen dauana, opa eban batasunean. Aize-ikutu maitekorrak dituzu emen, Maitearen ondasunak gozo ta maitati ixurtzen jakozalako bertan. Egoki deritxo txistu, izan be aizean txistua belarri-zuloan zorrotz sartzen dan lez, bardin ulertze mee ta bigun au be gozotasun miragarriz sartzen da arimearen barren-barrenean, beste ezek baiño atsegin biziagoa emonik. Adimenera emona da, antz eta irudi barik. Arimeak bere aldetik, ezer egiteke, artu egiten dau soilki.

Auxe da arimearen bein-beiñeko atsegiña; adimenean da gozarena, au da, Jainkoa ikustea. Teologo batzuk uste dabe, origaitik, gure aita Elias'ek Jainkoa ikusi ebala mendian, bere koba-zulo aretan sentidu ebala. Erregeen liburuan dirakurgu: *Jauna igaro zan, eta aren aurretik aize zakar aundi bat sortu zan, mendiak urratu ta atxak apurtzen ebazala; baiña Jauna ez egoan aize aretan. Lur-ikararen ondoren, sua, baiña Jauna ez egoan sean. Suaren ondoren, aize gozo baten antzeko zurru-murrutxo* (1'go Liburua, 19, 11-12). Arimeak emen aize maitekorren txustua esaten dautso, bere Maitearen on-egiteak adimenean zabal-azten jakozalako.

Paul deunak onela: fedea soin-belarriz dan lez, fedea diñoskuna -mamin ulertua- espirituzko entzumenez da. Ondo adierazo eban au Job igarleak, agertu jakonean Jainkoaz jardunik: *Entzunez bakarrik nekian zure barri, orain oster neure begiak ikusi zaitu*(42, 5). Atera ontatik, arimearen entzumenez entzutea adimenaren begiz ikustea dala.

AMABOSTGARREN KANTA

*Gauaro ixil baketsu.
argi nabarretik ur danekoa,
musika-ots ixilla,
bakar-leku ozena,
apari eder maite-min eztizkoa.*

Gogo, nai ebana lorturik, Maitearen bular-gairi dago etzuna. Juan Ebangelariak lez Kristoren biotz-taupadak aditu ta gogartzen.

Gauaroko bake, atsedeen eta mana artzen dau patxara ederrean. Jainkoagan artu daroa goitar gauzen ulertze sakon illuna. Orixegaitik diño Maitea beretzat gau baketsu dala.

*Gauaro ixil baketsu,
argi nabarretik ur danekoa.*

Udako gau-aroa nun-nai eder, baiña batez Gaztelerriko zerupe ozkarbian. Emen diñona ezta gau baltza lez, gau-erdi aldekoa lez; goiz-urratetik laster dana baiño, goiz-jagite dizditsuakaz kidetua. Arimeak Jaunagan daukan baretasuna ez jako guztiz goibela, Jainko-argitasunetik ernetako bake gozoa baiño; Jainko ezaugera barrian, gogoa leun-leun geldi, goitar argitara jaso.

Jainkozko argi oni *argi nabarretik* ur dagoana dala diño, goizetik ur-ur. Goizeak, jagitean, gau-illuna uxatu ta egun -argia dakar, orrelaxe espiritu baketsu au be, Jainkoagan, berezko ezautzezko laiño artetik Jainkoaren izatez gaiñetiko ezautzezko goiz-argitara jaso da; ez argira, illunera baiño, *argi nabarretik ur danekora*. Gau au ezta osorik, ezta osorik egun, diñoenez, argi biren artekoa baiño; olantxe Jainkozko naretasun eta bakar-egote au be ezta goitar argi osoz antolatua, ezta argi bape barik dagoana be.

Naretasun onetan adimena gora jaso da arrigarriri berezko ulertzetik Jainkozko argitara, lo luze ondoren begiak uste ez eban argitara zabaltzen dabezanaren antzera. Auxe adierazo nairik edo, Dabid erregeak: *Lorik egin eziñik nago, txori bakartia teillatuan lez* (Sam. 101, 8). Adimen-begiak edegi ta beeko gauzaz utsik, bakarti aurkitu nintzan teillatuan.

Teillatuko txoriak eta arima maitez minduak ba-dabe kidesasunik. Txoria, geienik, *lekurikgoianean* jartenjatzu: arimea kontenplaziño gartsuan. Txoriak beti *aizea* datorren lekurantza dauka pikua: arimeak Jainkoaren espiritura begira. Txoria *bakarrik* dago geientan: arimea bakar-zale da, gauza guztiak, Jainkoa ezik, saiets itxirik. Txoriak oso samur *abestu* oi dau: arimeak garai ontan Jainkoari egiten dautsozan gorralpenak maitasun samurretikoak dira. Txoriak *kolore* berezirik ez dauko: arimeak bere maitasun betean ez dau beste ezeren *tzera* ikerarik Jainkoaren barrien leza ondarrean bizi da.

Musika ixilla

Aitatu dogun gaueko ixiltasunean eta jainkozko argiaren barri-
tik arimeak atera daroa Jainko jakiiduriaren era ta egokitasuna bere
izaki ta egite askotarikoetan ereinda, eurotatik danak eta bakotxak
Jainkoagaz daukan erantzukizunez orduraturik, bakotxak emoten
bai dau bakotxagan Jainkoa zer dan adierazten dauan abotsa,
munduko bigira, jai-josta naiz melodi guztien gainetikoa dirudian
musika gurenezko ots-alkartze oparoa.

Eta musika *ixilla* deritxo oni; adierazo dagunez, ulertze nare
geldiadana edo-ta tresna zarata barik, olan musikearen leuntasuna
ta ixiltasunaren mana bertan gozatuz. Ortik bere Maitea dala diño
musika *ixil* au, espirituzko musika orren armoni osoa Beragan
ezagutu ta gozaten dalako.

Bakar-leku ozena

Aurrekoaren antzekoa dozu sail au be, diferentzi pizkat badan
arren, musika a, soiñuz ta indarrez, berezkoz, *ixilla* da; au, ostera,
bakartade soiñutsu espirituzko aalmenentzat. Oneik, bakar eta berez-
ko irudi ta goraberetatik uts egonik, ondo ta garbi artu legikee
soiñu-otsa, espirituzkoa, ozen-ozentsu Jainkoaren bikaintasunaren
espirituan, beragan eta bere izakietan. Juan deunak onela: *Zerutik
etorren deadar bat entzun neban uriol-ots eta trumoi aundi baten burrun-
darea lakoa. Eta entzun neban deadarra, zitara joten ziarduen zitaralariena
lakoxea zan* (Apok. 14, 2).

Au espirituan izan zan, eta joten ebezanak etziran gaizko zita-
rak, zeruko zoriontsu bakotxak bere aintza-eduan Jainkoari egiten
eutsozan ezagutze gogalpenak baiño. Eta au musika dozu zelan-
bait. Izan be, doai bereziak ditu bakotxak, eta bakotxak bere erara
abesten dau bere goralpena eta danak maitasunezko kidetasunean,
eres-batz joria egiñik.

Auxe berau ikusten dau arimeak izaki guztiak Jainkoak emonda
daukien naretasun jakintsuan, ez gero goikoak bakarrik, baita
beekoak be; bakotxak Jainkoagandik artuta daukonari dagokionez
emon bear dau Jainkoa zer danaren testigantza; bakotxak bere eran
aundi-esten dau Jauna, Jainkoa, bere gaitasunari dagokionez, bere-
gan eukirik. Orrela abots guztiok abots bakarra osotzen dabe,
Jainkoaren aunditasun, jakitate ta zientziaz, musika samur eta
entzungarrian.

Musika ozen leun au artzen dausku arimeak, eta berau modu bitxiz artu daroalako, kanpoko zer guztiak auzo itxirik, *musika ixil* ta *bakartade ozen* deritxo. Orixe bai da bere Maitea. Eta are geiago.

Apari eder maite-min eztizkoa.

Apariak *solasaldia* dakartse maite-minduai, *ase-betea* ta *maitasuna*. Ar-emon atsegintsu onetan Maitek iru zerok buru tzen ditu ariman.

Apari izen au Liburu santuetan Jainkozko ikuskarriagaitik esan oi da. Aparia, giza-bizitzan, eguneko lanen amaia ta gaueko atsedena-
naren asiera dan legez, olantxe esan dogun albiste geldi-gozaok senti-erazten dautso arimeari olako neke-mirien amaia ta Jainko maitasunean leen baiño kiskalago egiten danekoa. Beraz, Bera jako arimeari jost-erazten dauan aparìa, gaitz guztien azkena, *alaitzen* dauana, eta *maiteminduz* on guztien jaube egin daroana.

Maitearen *apari* au zer dan obeto ulertua izan dedin, Senar maiteak berak Apokalipsis liburuan dirauskuna gogora daigun: *Begira zutik nago ate ondoan, ate joko. Norbaitek nire berbotsa entzun eta atea edegi ba 'dagi, aren etxean sartuko naz eta aregaz apalduko dot eta arek neugaz* (3, 20). Au esanaz adierazo nai dau, Berak dakartsola aparìa, bere poza ta atsegiña: Jainkozko batasunaren ondorio.

AMASEIGARREN KANTA

*Azeriak eizatu,
loretan bai dago gure maastia;
larrosaz bitartean
egingo dogu txoria;
ez begigu iñortxok izu mendia.*

Bakuntza taiu onetan, esan dogun arren, arimea guztiz baketan dagoala eta bizitza ontan al danik eta ondasun geien emoten jakozala, bake ta baraldi ori goi-aldeari dagokiona da bakar-bakarrik, zentzun aldea ba, espirituzko ezkontzara eldu arte, ez ditu

iñoiz be bere errakiak galtzen izten, ezta bere indarrak osotoro azpiratu bere. Bakuntza edo ezkontz-itzez dagokiona da emoten jakona be, espirituzko ezkontzan abantail edo alde aundiak dagoz-eta. Baku ntzan arimeak oraindiño onik askoz gozatu arren, ikustaldietan batez be, ba-ditu zirikaldiak, urrin-egoteak eta nasteak, ezkontz-ein eta maillan ez dauzanak.

Arimea gozatsu dago bere osotasun puntuan, Maiteak egiten dautsozan ikustaldietan poz-pozik; noizik-bein ikuste orrein gozotasuna ta usain ona bat-batetan somatzen dau, Maiteak eurotan egiñiko ikutua dala-ta: baratz baten zitori naiz beste lora batzuk, zabalik dagozanean erabilliaz legez. Onako ikusi askotan arimeak bere espirituan ikusten ditu bere birtute danak, Berak onegan argi au egiñik; arimeak orduan atsegintsu ta maitezko kutsu gozoz, guztiak alkartu ta Maiteari eskintzen dautsoz lora ederrezko txorta lez; eta Maiteak orduan, eurak arturik, egiaz artzen bai ditu, zerbitzu berezia artzen dau orretan.

Au guzti au arima barruan jazoten da; onek ba-daki bai, ementxe dagoala bere oatzean lez. Arimea Maiteari eskintzen jako bere birtuteakaz batera, auxe da-ta berak egin leikeon zerbitzurik aundiena. Eta tankera onetakoa da, Jainkoagazko artu-emonean, Maiteari eskintza au egiñaz artzen dauan atsegiñik zabal barnekoienetakoa.

Arima gaixoak or ditu oraindik be, aurkalarari gaiztoak. Beraz, iñok galazo ez dagion maitasunezko barru atsegin au, bere arimearen maastiko lore auta dana; ez txerren bekaizti ta maltzurak, ez zentzunen griña beroak, ezta beste ezek ez bai lorrindu bere maastia. Aingeruai dei dagitse, eizatu dagizela orreik, bera ta Maitea gozotan dagozalarik.

*Azeriak eizatu,
loretan bai dago gure maastia.*

Gogoak bere kautan dauan birtute askotariko muntegie dozu maastia ta onek damotsa arimeari ardao ugari ta gozoa. Maasti au loratan dago naimenez Senarraz baturik aurkitzean, Aregan dau atsegiña doe guztiokaz, batera. Batzutan, gogora etorri oi dira irudikizun asko ta bestelakoak, zentzun aldetik be klase askotako

grña ta zirkiñak jagirik. Onako une batean Dabid erregeak be esan eban: *Zeure egarri da nire arimea, zeure gurariz diardu nire aragiak* (Salm. 62, 2).

Arimearentzat grña, irrits eta soin-eragin guztiaok *azeri* dira, beti arrapa, ostu ta jan dabiltzalako. Azeriak, ain zuzen, lotiarena egin oi dabe aokada billa urten aurretik, ez dira agiri, bardintsu grña ta zentzun indarrok be lo ta baketan egozan birtute-lorok ariman agertu arte. Orainokoa da lera gaiztoon gutizi ta on-gosea. Paul deu nak ederto: *Aragiak espirituaren aurka diardu, eta espirituaren gurariak aragiaren aurka* (5, 17). Eta aragi-zale dalako, espiritutik edan ezkeru, kemindu egin oi da, eta gezatu osorik.

Beste batzuetan, baratzean sartu ta lora samur orreik gustatzen asi aurretik gauza zakar izugarritz lausotu daroa arima gaixoa. Etsai gaiztoak badaki jakin be, egoitza kutun, gozo ta jori orretan sartu ezkeru, ezin dagikeola ezetariko kalterik egin; olakoetan arimea, igeska, bere barrubarrura doa ta gaiztoak ekarritako bildur-izuak, azaletikoak baiño ez dira, poza ta atsegiña dakarrenak.

Gure maastia diño, berea eta Maitearena. Eta loran dago, ez frutuz beterik; birtuteak bizitz onetan, gozagarri dirala be euren betean, loratan gozatzea lez da, frututan lez beste bizitzan bakarrik gozatuko dira-ta.

*Larrosaz bitartean
egingo dogu txorta.*

Une onetan arimea, bere Maitearen bular-gain makur, biona dan maasti onek emon lora bikain usaintsutan atsegiñez dago. Eder baizen guritan agiri dira on-egite ta birtuteak, eta arima onak uste dau beregan eta Jainkoagan dagoala; maasti loratsu atsegingarria dala deritxo, berea ta Maitearena, biak bertan alikatu ta gozatzen dirala.

Arimeak orduan, birtute ta egite on guztiok batean ipiñi, bakotxean eta danetan, maitezko egintza leun-leunak asmatu, eta olaxe alkartuaz, Maiteari eskintzen dautsoz samur baizen maitari; ontan Maitea bera dau lagun, onen mesede ta laguntza barik, ba, eleuke txorta au egingo, ezta Maiteari opetsi be; orixegaitik diño: *egingo dogu.*

Ler-arnari edo piñu-moskola diño emen, erderaz *pina*. Moskol barruan eundaka azi daukaz, ondo batuak. Txorta diñogu emen, bardin dana birtutez, on-egitez osoturiko txorta, moskola. Oskol sendo onek garau asko daukaz barruan, sendo ta alkarri ondo elduak. Ori berori da arimeak be Maitearentzat egin dauana, doe, on-egite ta birtutezko txorta joria.

Ez bei, beraz, iñortxo be gogaikarri lan onetan; ez asalda arimea, ez inguruak. Giro ez titan bego dana. Ez, ez bei an iñor agertu, ez azeririk, ez besterik.

Ez begigu iñortxok izu mendia.

Jainkozko barne-jardun ontarako, bakartade gozoa be naitaezko dozu; arimeari etorri lekikeozan oztopo guztiak be bardin, bai beedaldetik, ots, gizasentikortasunetik, bai goi-aldetik, ots, errazoizkotik. Zati biotan atera oi da gizonaren aalmen eta zentzunen durundu-ots bateratua; origaitik deritxo *mendia*. Eiza lez ementxe bai dagoz abere ta pizti ta patari guztiak. Arimearen kalterako be, ortxe, burutu oi dau, griña ta barri orreitan, eiza galanta, etsai dongeak.

Mendi-gaillurrean ezpei agertu iñor, aalmen eta zentzun orrein arteko iñortxo be, bere ta Senarraren begien aurren. Arimearen espiritu aalmenetan, adimena, gogamena ta naimenean, ezpei sartu izpar eta biotz-eragin berezirikez oarkizunik, ez barrukorik ez kanpokorik, ez irudirik, ez jokaldirik, ez ikusgarririk.

Arimeak emen daukan ar-emonerako, zentzunak eta aalmenak, barru ta kanpo, euren egintzetatik uts egon bear dabe, lanari emonago ta oztopogarriago dira-ta. Zelanbait arimea maitasuneko bat-egite barnekoira eldu ezkerro, emen ez dabe lanik egiten gogozko aalmenak, ezta gorputzezkoak be, arimeak opa eban alkartzea egiña dalako; aalmenak ez dagie ezer, mugara elduz erdiko egiteak utsera doaz. Au da orduan arimeak dagiana: maitasunari eutsi Jainkoagan, au da, alkartuzko maitasunean maite izan.

Ez, ezpei iñor agiri izan *mendian*; naimena bakarrik Maiteari laguntzen, bera ta bere on-egite danak eskiñiz.

AMAZAZPIGARREN KANTA

*Ago geldi, ipar illa;
ator ego leun, maite orokor;
jo ene baratzean.
A ren usain-jario,
lilietan doke Maiteak baikor.*

Espirituzko ezkontza-aurre onetan Senarrak egiten dautsozan urrinaldiak, oso latz-gogorrek dira emaztearentzat, batzutan astun nekegarriak. Ari dautson neurrian dira samintasunak be, asko maite dauanak asko sufritzen olakoetan. Errez idortzen jako barrua, eta alkar-gozotasunaren zorna-guririk ezin ao-gozatu. Arimeak au eukirik, gauza bi egin nai ditu kanta onetan diñoanez.

Lenengo, liortasun-iturriari giltza emon, barru-eraspenez eta eten bako otoitzez, eta *bigarren*, Espiritu Santuari dei egin, berau bai da arimearen idortasuna uxatu ta Senarraren maitasuna eutsi ta berau gemituz ixiotzen dauana. Beraz, doazala urrun etsai guztiak.

Ago geldi, ipar illa

Ipar aize oni *lan-aize* (lanerako aize) diñotsagu Bizkaia'n; aize otza, ziurki, lora ta landarak sikatzen dauzana, edo-ta beintzat burua batu-azo ta zauritzen dauzana. Eta espirituzko liorrak eta Maitearen urrin miñak be ariman auxe berau dagielako, gozaten eban birtuteen ao-gozoa ta usain ona itzal-azorik, *ipar illa* deritxo, oni, egin on guztien jarduna ta biotz-eragiña erdi-illik daukazalako. Zagoz, bai, geldi, ipar ori!

Eztau nai arimeak nagirik, ez liortasunik, eta otoitzari diardu ta gogozko iñarkunai, liorra ezotu dedin. Baiña Jainkoak arimeari garai ontan egiten dautsozan mesdeok, barru-barrukoak dituzu-ta, arimeak berak berenez ariketan jarri ta, gurok gozatu, Senarraren espirituak maitasunera eragin ezpa-dagitso, oni dei dagio ondoren:

A tor, Ego leun, maite oroikor.

Ego-aldetik joten dau onek. Euria dakar geienbaten. Bedarrairne eragin, landarak biztu lorak edegi ta euron usaiña jarion daroa. Iparraren kontrako eragiñak daukaz. Aize onekin arirneak Espiritu santua edierazo nai dausku, onek *maitasunak* itxartu ta gogorat zen dauskuzala esanaz. Aize onek ariman putz dagianean, izan be, sugarretan itxi oi dau, naia losindu ta txeraz beterik lagatzen dauala; gurariak be, leen lo ta beea jorik egozanak, goi-goi jarten ditu, Jainkozko maite-sutan arimearen eta Maitearen maitasunak gomutagarriturik.

Auxegaitik eskatzen dautso Espiritu Santuari:

Jo ene baratzean.

Jo ta txistu dagiala, ba, bere baratzean. Baratz ori arimea bera da. Gorago *maasti loratsu* dala diño, emen *baratz*; an ardao gozoa emotson, emen birtutezko landara guri, eder, usaintsuz aserik dauka barrua.

Ez diño Emazreak ats-egin neure baratzean, neure baratzez baiño; diferentzi aundia dago Jainkoak ariman ats-egin eta arimaz ats-egin esatean. Ariman ats egitea dazu Jainkoak arimeari emonda daukazan birtute ta osotasunetan ikutu ta eragiña egitea, eurok barriztu ta igi-azorik arimeari usain gozoa ta leun-kutsua emon dagitsen. Edu onetan edo: onkailluak, adibidez, mabiduten diranean, igikeraz, euren usain-emote oparoa ixuri daroe. Arimeak beregan dabezan birtuteak, ain zuzen, batzuk berak lortuak eta beste batzuk goitik ixuriak, arimeak ez ditu beti sentitzen ez gozatzten; bizitz onetan, ba, lorak zil edo kukulu itxian lez edo-ta onkaillu usaintsuak estalduta lez dagoz ariman, euron lurruna baiña ezta somatzen zabalik eta gainbera.

Batzutan Jainkoak onako mesedeak egin oi dautso arimeari, bere jainkozko espirituz ortu onetan ats-egiñik, on guztien kukulua zabaldu ta barruko edertasun danak erakutsiz. Bene-benetan zoragarria orduan arimeak barrenean daukan loreki bikaiña begiztaztea.

Aren usain-jario.

Usain jario au batzutan izugarria da, eta arimeak uste dau atsegin gaiñezka dagoala, eta adierazo ezin dan aintzatan uraztuta. Au eztau berak bakarrik sentitzen, barrutik, baita kanpoz azaldu be, ortaz oar diranak dakienez eta iruditzen jake arimearen baratza dagoala jainkozko atsegin eta aberastasunez betea. Ez gero lorok zabalik dagozanean bakarrik, geienetan edo irutik bitan begirune berebizikoa sortzen dauskun duintasun aundia dakarsku guztioi. Moises'i jazo jakona, ezin *bere arpegira* begiratu (34, 30), Jainkoaz eukitako begiz begiko akitxi eutson ospe ta aintzagaitik.

Espiritu Santuaren ats-egite onetan, au da, arimeari maitezko ikustea egikeran, bikain be bikain emon oi da Senarra, Jainko Semea. Onek Espiritu Santua bialtzen dau lenengo Apostoluakaz egin eban lez, arima Emaztearen bizi-lekua atondu dagion ats egiñez eregi, ortua guri ipiñi, lora edatuz, bere doaiak agert-azo ta bere grazi ta aberaskiz pitxiturik.

Gurari biziz gura dau Emazteak guzti au, ots: doala *iparra*,

datorrela *egoa*, ats egin daiala ortuan zear; arimeak orduantxe irabazten bait dau asko be asko, birtuteak jardunean ipiñiz, Maitea eurakaz txolinduz, biak alkarregaz maite-sutan murgilduz.

Beraz, opa izan bearra da Espiritu Santuaren jainkozko aize au; eta arima bakotxak opa izan be, arnas daiala bere *baratz zear* Jainkozko usain gozoz asetu daiten. Arimearentzat guztiz bearrezko dalako, opa izan eban emazteak, eta eskatu, onela: *Iratzar, ipar-aize, eta zatoz, ego-aize; putz egizue nire lorategian, eta zabaldu dagiela lorak euren usain gozoa* (Abest. 4, 16). Au nai dau erima maiteminduak beretzat eta bere Maitearentzat.

Eta lilietan doke Maiteak baikor.

Bai, liii artean eukiko dau Maiteak bere bazka, janaria. Arimearen atsegiñetan atsegintzen da. Eta auxe berau, uste dot, esan gura ebala Salomon'en aoz: *Nire atsegiña da giza-semeakaz egotea* (Esk. 8, 31), au da, aren atsegiña Jainko Semea nazan onegaz egotea danean.

Emen ez diño arimeak, Maiteak *lorak jango* ditunik, *lore artean* jango dauala; bere ar-emona, ba, Senarragaz daukana, ariman bertan da birtutezko edergaillu ta apaingaien bitartez, ortik bada,

arimea bera da bazkatzen dauana, au bere-bere egiñaz, arimea onezkero maneatu, gatz emona ta goxatua esandako birtute, doe ta ongarrri lorakaz. Lili-lurririetan nai dau Maiteak arimea. Emazteak Abestietan: *Nire maitea bere lorategira jatsi da, mirirtza-larrathetara, lorategi-zaiña lirioak ebagitera* (6, 2). Labur: Maitea, arimearen ortuan larratzen jatzu bere grazi, birtute ta edertasun lirio artean.

AMAZORTZIGARREN KANTA

*Oi, judear neskatxak,
lore ta larrosak lurrin ixurka
dirauen bitartean,
zagoze basaurian,
gure etxondoan ez ekin oin-oska!*

Aberats dago gogoa, eta naigabe itzala emoten dautsa onek, ez bait dau bear aiña gozotasun. Zergaitik? Aragian daukalako bere bizi-tokia. Gorputzean dago jaun aundi bat lez presondegian, mixeriz beterik, baiturik bere ondasunak, jaun izanik jaungo bage, jateko bear dauana be kentzen jakola. Gogoa be era berean, Jainkoak mesede ta doaiz bete daroanean, or nun jagiten dan sentikor aldean morroi txar bat, griñaz kuin-kuin, orain barne-zirkin naspi-lez, orain bee-alde ontako beste naste batzuk, on au galazo nairik.

A tsekabe larrria da au arimearentzat; nazkagarri au beragandik bota naiez, zentzunen erreñu au beronen gudarozte ta indar guz-tiakaz amaitu dedin len-bait-len, Senarrarengana begiak jasoaz, beronek bait dagi oro, mugimendu ta biurri-aldi onein kontra estrofa au ontzen dau. Emaztea mintzo da emen, bee-aldetik datozan igiera ta egintzai baketzeko eskatuz, nasai ta gozatsu bai daukazu berton. Alde sentikorreko zirkiñak eta bere aalmenak, arimea gozotasunean dagoanean, lan ba'dagie, artegazo, gogait eragin eta samindu daroe arimea. Onela diño, ba:

Oi, judear neskatxak!

Judea dirautso arimearen bee-aldeari, au da, alderdi sentikorrari. Zergaitik, baiña? Makal ta aragikoi dalako; itsua berenez. Judear jentea legez?

Eta bee-atal ontatik sortzen diran irudikizun, irudipen, zirkin eta biotz-eragin guztiai *neskatx* deritxe, edo-ta *ninpak*. Mituzko ninpa edo urneskatxak, bada, euren txera ta ederrez, eurengana ekarri oi dabez maitaleak; beste ainbeste dagie zentzun-aldetiko egintza ta zirkiñak, gozaro ta muker errazoi aldeko naia eurengana erakarten saiatzen dira, arimea bere barru gozotik atera ta eurak nai ta irrikartzen dabena arek be nai ta irrikatu daian, adimena bera be igi-azorik, euren zentzun izaera zakarrean alkarregaz batu ta errazoizko zatia zentzunezkoaz alkarturik. Zuok, ba, diño, zentzun egiñok, geldi!

*Lore ta larrosak lurrun ixurka
dirauen bitartean.*

Lorak, esan dogu, gogoaren on-egite ta birtuteak dituzu. Larrosak, ostera, ariamaren aalmenak, oroimena, adimena ta naimena. Oneik indarra daroie euren baitan, eta Jainko gogaizko lorak sortzen, eta maitezko egimtzak, eta esan doguzan birtuteak.

Nire arimako indar eta birtuteok lurrun jarioka dagozan bitartean, geldi zuok! Maitearen espirtuak ixur bei jori ta usaintsu lore ta larrosa artean, arimearen eder indarra, jainkozko lurrun gozoa. Jainkozko Espiritu au, ba, oparo ixurka dagon bitartean, zuok, nire izterbegioak, zagoze geldi be geldi.

Zagoze basaurian.

Jude'ko basauri edo uri-bazterrak arimearen bee-aldeak dozuz, au da, barruko zentzun sentikorrak, ots, gogamena ta irudipena, eurotan aurrean jartean batzen bait dira gaenen itxura, irudi ta sunbillak eta oneikaz mugitzen ditu zentzukortasunak bere irrirts eta euki-miriak.

Orjeik geldi ta trankil, griña ta lagunak be lo dagoz fara-fara. Basauritar oro baketan; baso-uritarrok iriko arresietatik kampo bizi

diramakoinz, arimearen aalmen eta zentzunak legez; arimea *uri* deritxoguna beronen barrubarrua da, ots, errazoi alde, au bai da gai Jainkoarekiko ar-emonetarak.

Bada, alan be, berezko ar-emona, zentzunen uribe ta albo-errietan bizi dan jenteena. Bee-alde onetan burutzen dana beste barru-aldean nabari da; beraz, gogarazo oi da arimea Jainkoagaz daukan zer-ikusian. Orixegaitik diñotse dabiltzala euren auzoetan, euren barruko ta kanpoko zentzunetan.

Gure etxondoan ez ekin oin-oska!

Eta auxe da arimeak esan nai dautsena: Ezta leen-ikaraz be ez egizue ikutu goi-aldea. Gogoaren leen ikaza edo mugi-aldiak arimen sarta al izateko ate-aurreak dira, eta lenengo igierak errazoian, ba-doaz jadanik *ate-aurreak* igaroaz. Baiña lenen igierak baiño ez diranean, atarira eldu ta atean oles egitea besterik ez dala esaten da, eta diñogu sent kortasunaren aldetik errazoirira zirkiñak dagozanean, egintza bada-ezpadakorentzat. Eta arimeak diño emen, oneik ez dagiala arimea ikutu, ezta be, ez dala gertatu bear, berak daukan bakea kezkarazo ta gozoaren Boza asaldatu leiken ezertxo be.

EMERETZIGARREN KANTA

*Gorde zaitetz, Maitetxo,
jo begi-zartaka mendi-erpiriak,
t'ez gero iñori esan;
baiña jo, ugarte arrotz,
deslari doanaren neskatx-lagunak.*

Egoera ontan arimea oso sumindua dago bee-aldearen eta beronen egikunen eurka; Jainkoak emon daionik be eleuke gure espirituzko ezer, goi-aldera zer-edo-zer egiten dautsonean. Zergaitik ori? Edo guztiz gitxi izan bearko edo berak ezingo dau jasan gula dalako, berezkoa indar-bakotu, eta, beraz, espirituak sufritzera-

koan, ezin berak baketan gozatu. Jakitunsk ederto: *Gorputz ilkor onek astuna egiten arimea* (Dakit. 9, 15). Arimeak Jainkoagazko ar-emon gurenak gura ditu eta oneik ezin artu alde sentikorraz batera, onek parte artu barik Jainkoak egin daiozale opa dau.

Paul deunak Jainkoa ikusi ebalu dirauskun irugarren zeruko ikuskari a, ba (2 Kor. 12, 2), berberak esaten dauskunez, ez dakigu gorputzean ala gorputzetik kanpora izan zan. Baiña onela zein arela izan zala, gorputz barik izan zan, gorputzak esku ba'leu, izan be, jakingo eban, ikuskaria be etzan ain garaia izango; eta berak diño paradisura jasoa izan zala ta an; *Iñok ezin esan-alako berba sakonak entzun ebazala* (2 Kor. 12, 4). Orixegaitik, arimeak ba-daki mesede ain aundiak ezin leikezala artu ontzi ain txakarrean, ortik kanpora edo beintzat ori barik, mesedeok egin daiozala eskatzen dautso.

Arimeak lau gauza eskatzen dautsoz Senarrari: 1) Euren arteko aremonak bere arima barru-barrukoak izan daitezala; 2) bere Jainkotasunaren aintza ta bikaintasunez eraso ta eraldatu dagizala arimearen aalmenak; 3) au izan daitela, goi ta barren, kanpotik eta alde sentikorak ez atzemoteko erara; 4) Berak ariman jarri dabezan birtute ta graziak onartu ta zorarazi daitela eurakaz. Origaitik diño:

Gorde zaitetz, Maitetxo.

Esango ba'leu bezela: Ene Senar kutun, gorde zaitetz neure arimearen barrenengo ezkutunean, jardun maitekorrez gorderik ekiteko, zeure mirari ta arrigarriak berari erakutsiz, giza-begi guztietatik urrun.

Jo begi-zartaka mendi-erpinak.

Jainkotasuna da Jainkoaren begi-soa edo zarta, eta mendiak arimearen aalmenak, gogamena, adimena ta naimena. Olan, esango ba'leu lez, dozu: eraso, ekin zeure jainkotasunez neure adime-
nean, jainkozko ezagutzak berozi emonik, neure naimenean, Jainko-maitasunez garturik, eta neure gogamenean, Jainko-aintzaren jaube egiñik.

Onetan eskatzen dautso arimeak eskatu daikeon guztia, arimea onezkero, ba, ez dabil Jaunaren ezagutze ta artu-emon billa zearka, Moises'ek egin eban lez (Irt. 33, 23), bere egiñetatik ezagutuz, Jainkoaren arpegiz aurrez-aurre baiño; au, izan be, Jainkotasunaren izatezko emotea da beste bitarteko barik ariman, beronek Jainkotasunean daukan alako alkar-ikutze bidez; onen zerik ez dabe zentzunak sentitzen, izate soil biren, arimearen eta Jainkotasunaren arteko ikutze berezia da-ta. Origaitik diño ondoren:

Ez gero iñori esan.

Au da, leen legez, ez egizu ezer esan; leen, bada, niregan egiten zenduzan agertze ta artu-emonak, artzeko gai ziran kanpoko zentzunai adierazten zeuntsen, ez bait ziran oneik baizen garaiak eta sakonak. Baiña oraingo onetaz ez adierazo tautik be, areik ez diralako gauza oneik ulertzeko. Espirituaren guna zentzunak jadedetsi eziña da, eta zentzunari adierazteko guztia, bizitz onetan batez be, ezin daiteke espiritu utsa izan, a ezpaita gai au artzeko.

Emen arimeak, ba, Jainkoagazko ar-emon izatezko au, zentzuketikoa ez dana, euki nairik, ez daiala *iragarri* eskatzen dautso Senarrari; ez, bene-benetakoa izan dedilla gogozlo batasun onen zirkillua, zentzunak ez daiala jakin sentitzen ez esaten.

*Baiña jo, ugarte arrotz,
deslai doanaren neskatx-lagunak.*

Bai, jo ortara; nire arimea Zugana doa, Zeugandik arturiko barri ta bide arrotzez, ugarte bedegar sotillez, zentzun-bideekin ezertarako zer-ikusirik bage, urruti berezko ezaupideetatik. Orrela, zelanbait esan, ortara makur-azo nairik; nire arimea, ba, Zugana doa espirituzko barriz, zentzuketatik aldenduen bidez. Zuk be niri eurak barrukoi ta garaiiki, emonaz, areik ezertxo be jakin bage, ixillean eta eme-eme.

Maitasuna da Jaunak begiratzea, eta mesedeak egitea. Emen aitatzen diran neskatx-lagunak, Jainkoarentzat atsegingarri, Berak ariman ipiñi dabezan birtute, doai, aberaski ta beste espirituzko

osotasun batzuk dozuz, ezkontz-itza emon jakonarentzat bezuza, sari ta pitxiak legez. Au baliño bezela: Baiña itzul lenago, Kutun, neure arima barne, berton jarri dozuzan aberastasun moltzakaz lilluraturik, euretan berarekin maite-minduaz, beragaz gorde ta gordean iraun dagizun, zureak eta Zeuk emonak baitira.

OGEI TA OGEITABATGARREN KANTAK

*Egazti, ego-arin,
leoi, basauntz, orein, orkaitz jauzkari,
mendi, zelai, uralde,
euri, aize, sargori,
gau ernai igaroen izu dardari:*

*arren, lira atseginkor
ta itxas-zora kantuz dagitzuet zin,
bare zuen sumiñak,
t'ez ikutu ormarik,
Kutunak baketan atseden dagin.*

Senarra dabil emen kantari, estrofa bi oneitan, eta abar. Espirituzko ezkontza gertatu da. Arimeak erantzi dau bere soiñeko zarra, giza-estalkia, sugeak bere soin-narrua bota ta lurekoz billoiz ezezik, zeru-edertasun dizditsuz ñirñir, etsai guztien aurkako indarra artu dau, jainkoaz bat-egiteak dakartsona nunbait.

Indar-emoille au Espiritu Santua dogu, alkartze au Berak egiña da-ta. Lenagobe onela mintzatu zan Aita ta Semearekin: *Zer egingo dogu gure erreba txikiari buruz, ezkontzarako eskatzera etorri dakiguzan? Txikia da ta bularrak azi barik? Arresi ba 'da bera, zidarrezko babeskiak egin daioguzan; ate ba'da, zedrozko olez zainduko dogu* (Abest. 8, 8-9). Eder adieraztea gura da, indar eta babes zituak esanik, egin on, sendo ta erraldoaik, fedez estalduak, zidarrez jakiñean ipiñita. Birtute erraldoi ta goi-goiko oneizko *gozozko ezkontzari* dagiozanak dira arima gairi sustraiturik dagozanak, arima sendo gairi ain zuzen be; *orma* onetan, sendotasun onetan atseden artuko dau Senar baketsuak.

Biak ondo zainduta egon daitezcan, emaztea izan begi atea, ortik sar dedin Senarra, berak nai-atea zabal-zabal euki daian Arentzat oso-osorik maitasunezko *bai* egi-egiazkoz, ezkontzara orduko; emaztearen bularrak be orixe aitzen emon nai dabe, maitasun bete-betea, arimeari egoki jakona Kristo Senarraren aurrean dotore ta ñabar agertzeko, egoera orri yagokonez.

Kanta biotan Senarrak, Jainko-Semeak, bake ta ezti-aldi gozoaren jaube egiten dau arimea, beeko zatiari goikoaz dagokionez, gelditasun osoa sortuz bion artean, gerra erasoaldi batetan letxe. Senarrak lenengo *irudimenaren* alperreko arat-onat ibilteai agintzen dautse, aurrerantzean ez daiela olako dantzarik erabilli. Errazoien jarten ditu ondoren *berezko aalmen* biak, leen zerbait beintzat arimea kezkarazten eben *surninkorra* ta *zalegarria*. Azkenez, bakotxa bere sail eta neurrian jarten ditu arimearen iru aalmenak: *gogamena*, *adimena* ta *nairmena*.

Onez gaiñera, arrenka eskatzen dautset arimearen lau griñai -poz, itxaro, oiñaze ta bildur-, aurrerantzean jadanik otzausi daitezala, neurrira egiñik. Guzti au adierazoten dabe lenengo kantaldian datozen izen guzti areik. Barru ta kanpo begi bai dana eztitasun emean; orixe opa dau Senarrak arimea berean daukala. Ixillik, bai, egazti ego-ariñak ots, irudikizun egalariak; ixillik leoi, orein eta orkaitzak; mendi, zelai ta uraldeak, zagoze bai muturik; baita zuok be, euri, aize ta sargori, ots, barne-griñok; azkenik, gauak ernai lo bage igaro oi ditu arimeak txerren gaiztoaren bildurrez, eztau nai iñok kendu dagion bere Maitearekin daukan gozotasuna.

Eta Maiteak bere aldetik, eztau nai ez otsik, barbarorik, iñorenik bere ez Origaitik diño kanta onen bigarren zatian:

*Arren, lire atsegirzkor
ta itxas-zorra kantuz dagitzuet zin.*

Arimeari egoera ontan usain eztia dario; oartzuz doa Senarra maitasunaren oatze ontan, eta kantatzean *lira atsegintsu* aren erio ori. Arimeari ez beio, ba, iñok gogarazo. Liraz jotako musikeak, leuna baita, gozotasunez sorgortu oi dau gogoa, naiez, biotzindu ta atsekabe guztitik urrinduaz; era berean, leuntasun onek dauka arimea beregan murgildua, gauza nekesorik beraganaiño eltzen ez

dalarik. Ortik esatea ba legez: nik ariman egozten dodan leuntasunagaitik, begoz geldi arimeari leun ez jakozan zer guztiak.

Baita esan da, itxas-lamiñen kantuak, arimeak geienik daukan atsegiña adierazo nai dauala. Eta atsegin oni diñotsa lamiña edo maitagarrien kantua; esan oi danez, ba, maitagarrien kantua txit gozo atsegingarria dalako berau entzun daroana sor ta lor geratzen da ta, lilluratua, gauza oro aantz-eragiten dautsoz; olantxe alkartze atsegingarri onek beretu oi dau arimea, eta jolaska poz-erazoz, lilluratua izten dau. Eta onela diño:

Bare zuen sumiñak.

Beioaz, bai, naas-maas ta mordoillo guztiak; *sumin ak* deritxe esandako biotz-ikara ta egitada erabageai. Sakakada bat da asarrea, bakea artegarazten dauana, bere mugatik atera eragiñaz; olantxe esan daguzan biotz-ikara ta beste zer guztiak be euren mugimentu ta zirkiñakaz arimearen bake ta baretasuna gaiñezkatzen dabe. Augaitik diño:

Ez ikutu ormarik.

Ormea da emen bakea esitzen dauana. Arimea bera esiz inguratu ta jagona, palatu ta itxituraz, birtutezko orma ederrez zaindua; bera da ortu ta baratz, Maiteak bere lorak daukazana, beretzat bakarrik esiz biratua ta gordea; orixegaitik *ortu itxia* deritxo *Abestietan*, esanik: *Lorategi itxia zara, ene arreba ta emaztegai ori* (4, 12). Eta emen ots dagi bere ortu ni ez ikuturikegiteko, ez esiarri ez ormeari.

Kutunak baketan atsedan dagin.

Au da, arimeak Maiteaz baketsu gozatu daian, atsedan errime-tan egon dedin igige ta patxera onean. Arimearentzat, barriz, emen ez dago ate itxirik, bere eskuetan bai dago nai dauanean eta nai legez maitasunezko la samur au gozaten, Senarrak berak Abestie-

tan aitzen emoten dauanez: *Jerusalengo neskek!, erreguz dirautzuet landetako orein-eme ta basauntz-emeakaitik, maiteari ez gogait eragin, ez itxartu maitea, berak nai dagian arte* (3, 5).

Entzun: itxi eiguzue baketan. Ez dogu nai zaratarik, maitasunaren otsa ezik; urrin gizartetik, urrin arerio ta maltzurkeririk; laga daiguela gozotasunaren ardaoa edaten, birtutezko txortak eioten, zeru-bidez abesten; "lira" atseginkorraren doiñu bigunak amesetan jarten gaitu. Fedearen zidarrak edertzen gaitu eta maitasun garbiaren urreak bizi-azten.

OGEITABIGARREN KANTA

*Sartua da Emazte
opa eban baratz zoragarrian,
ta gogo beroz datza,
samea makurturik
Maite daunaren besarte ez-tian.*

Senarrak bizi-bizi nai eban emaztea, bir-erosi ta zentzunen eta txerren gaiztoaren eskuetatik aske jartea; eta ori egin dauan ezker, emen pozez beterik agertzen da, Ebanjelioko Artzain ona lez; ak ardi galdua aurkitu, lepoan artu eta etxera daroa, drakma galdu dauan emakumeak orobat, argia ixetu, bazterrak arakatu ta aurkitutzerakoan, bere adiskide ta auzokoai dei egin eta poztu eitezala diñotse, galdu jakon drakma idoro dauala-ta (Luk. 15, 5). Orrelaxe dagi Artzain maitati ta arimearen Senar onek be, arrigarria benetan zelako poza artzen dauan arimea olan irabazia ta osotua ikusiaz: lepoan artu ta Bere etzanleku sotillera daroa.

Ezta gero Bere gozamenerako bakarrik, ezpabe bere pozaren erdikide egiten ditu aingeruak eta arima doneak, *Abestietan lez esanik: Sion'go neskok, urten zaitzeze Salomon erregea ikustera, eztegu-egunean, bere biotzaren jai-egunean, bere amak buruan ezarri eutsan koroa ederraz!* (3, 11). Itz oneitan arimeari diñotsa bere *koroia* bere emazte ta bere biotzaren *poza* ta *alaitasuna* dala.

Sartua da emaztea.

Kanta onetan onezkero Senarrak emazte deritxo arimeari, eta gauza bi adierazo nai ditu. *Aurrenik*, arimea, *azeri*, *ipar* eta *ninpak* baketurik, oneik bait ziran eragozpen gogor *gogozko ezkontzara* eltzeko, eta Espiritu Santuaren arnas-aizea jadetsirik, pozik aurkitzen da berak ainbat opa izan eban agoera atsegingarri onetan; eta *bigarren*, egoera orrek ditun egokitasunak kontetea, gaurdanik arimeak daukazanak nunbait: bere gogora egotea, Maitearen beso-gaiñ eztian makur burua eukirik.

Egoera auxe da, *gogozko ezkontza*, emen azaltzera goazan maillarik garaiena. Eta au ezkontz-berbea emoterakoa baiño askozaz be goragokoa dozu. Arimea emen Maitean eraz aldatzen da oso-osorik; biak alkarri dautsez emonak, batak besteari, jaubetza osoa, alako maitasunezko alkartzez; Jainkozko biurtu da arimea, eta Jainko, alkarkidetzaz egiña, bizitz onetan al daitenez. Eta uste dot egoera au ez dala iñoiz gertatzen arimea grazian ondo sendotuta ezpa-dago: bien arteko fedea sendotzen da emen, Jainkoarena ariman bameraturik. Eta auxe da, beraz, bizitza onetan lortu daiteken *egoerarik gurenena*.

Liburu Santuatan irakurten danez (As. 2, 24), aragizko ezkontza osotzean bi dira aragi baten; era barean, Jainkoaren eta arimearen artean gogozko ezkontza au osotzean, izate bi dira espiritu ta maitasun baten, Paul deunak diñoanez auxe berau aitzen emonaz: *Jaunagaz batzen dana, Aregaz espiritu bat egiten da* (5, 17); bardin, izarraren naiz argizagiaren argia eguzkiarenagaz batzen danean, argi dagiana ez da izarra ez argizagia eguzkia baiño, beste biak ixurita eukirik.

Senarra, ba, onela mintzo da bertso onetan: *Sartua da Emaztea*, au da, albora itxi ditu aldiko ta berezko dana, gogozko eragin eta giza guztiak, aztu ditu tentaldiak oro, naas-maas eta asaldurak, oiñaze, ardura ta kezkek, eta Maitearen beso artean murgildu da.

Opa eban baratz zoragarrian.

Bere Jainkoagan bat-egiña geratu da; *baratz zoragarria* deritxo oni arimeak bertan aurkitu dauan egoitza etsegiñezko ta gozoagaitik. Eraz aldatua da. Itzulinguru tajirabira askoren ondoren eldu oi ona, alako denporaz emaztea Jainko Semeaz maitasun samur eztitan

bizi ondoren, Jainkoak dei egiten dautso eta bere *baratz lorati* ontan sartzen dau Beragaz ezkontzazko alkarte zoriontsu-zoriontsua osotzera; izate biren batzea osotzen da emen, jainkotasunezko ta gizatasunezko alkartzea, eta ez bata ez besteak euren izamena aldatu barik, bakotxak Jainko dirudi. Alkartze au bizitza ontan bete-betea ezin daiteke izan; guk esan eta pentsatu daikegun gaiñetikoa danarren.

Au Senarrak berak adierazten dauslu argi Abestien liburuan, arima emaztetuari ontara dei egiñaz: *Erdu ene lorategira, ene arreba ta emazte; ebagi dot miritza, neure usainkiakaz* (5, 1). Leendik ziran bere arreba ta emaztegai, ta orain ezkontza maillara jaso nai dau, eta emen beretzat miritz usaintsua beste usainkiakaz, au da, lora-frutuak jadanik umotuak eta arimearentzat gertatuak.

Kristo, beraz, baratz sotila ta opatua da arimearentzat. Arimearen elburua orixe dozu, eta jainkoarena, jarrera au apaindu ta ederrago biurtu. Arimea orretan ez dago egungo be geldi, orraño iritxi arte; egoera ontan, izan be, Jainkozko ugaritasun eta asetasun geiago dauka; bake seguru ta iraunkorragoa, leen baiño samurtasun beteagoa. Kristo Senarraren beso artean dago, egiaz alkarri besarkaturik, eta besarkada orretan arimeak Jainko-bizitza bizi dau.

Arima ontan jazoten da Paul deunak diñoana: *Arrezkero, ez naz ni bizi, Kristo bizi da nigan* (Gal. 2, 20). Orregaitik, arimeak emen bizi ain doatsu ta aintzaz ase bizi izanik, Jainkoarena berarena baita, gogora bei bakotxak, al zein bizimodu gozoa izango dan, arimeak emen daroana. Emen, ba, arimeak, Jainkoak zimiko ta naiez-izpirik sentidu ezin daiken lez, berak be ez dau sentitzen; bai, oster, Jainko-aintzaren edertasuna sentidu ta gozatu, jadanik Jainko biurturiko bere izate mamiñean. Origaitik bertso au:

Ta gogo beroz datza.

Bero be bero dago arimearen barrena, bere eta Senarraren arteko barruko sutan berotua; onelaxe ezik, arimeak oso gogor ezpa-lego, eleuke jasan al izango Maitearen besarkada estua. Eta sendotasun onetan arimeak lan egin eban ezker, on-egiteak beragandu ta

griñak azpiratuz, egoki da eta zuzen, antxe lan egin eta garaitu eban aretantxe atsedean artu daijala orain.

*Samea makurturik
Maite dauanaren besarte eztian.*

Jainkoaren besoak sendotasuna dikurre, eta Jainko-besoetan samea eukiteak esan nai dau arimeak bere sendotasuna, edo obeto, bere makaltasuna Jainkoaren sendotasunean tinkotzea, olan gure makaltasunak'era aldatur ta makurtua Maitearen besoetan, Jainko berberaren sendotasuna dauka.

Onek egoki diñosku, ba, gogozko ezkontzak Maitearen beso samurretan samea makur aukitea dala, arimearen sendotasuna ta gozotasuna Jainkoa bera dalako, ementxe bai dago bera gaitz guztiz zaindua ta on guztiz gonburu. Abestietan emazteak Senarrari: *Neure neba ba'zintzaz, eta ene amaren bularretan azia! Zu kalean ikus-tean, mosu bat emongo neuskizu, ixekai bildurrik izateke* (8, 1). *Neba* esatean aitzen emon nai dau bion artean egoan bardintasuna egoera ontara eldu aurretik.

Amaren bularrak dira irrits eta griñak, ama Eba'ren bularra ta esnea gure aragian, egoera au jadesteko eragozpenak dituzu. Eta, ai ni!, ori egiñik, bakar ba'nengo Zugaz, gauza orreitzaz kanpo, eta neuretik, bakartadean eta gogoz uts-utsik, au da, irrits eta leia barik. Eta olan mosu emongo ba 'neuskizu bakarrean Zeuri bakarrik, ots, nire izatea, garbi ta uts, Zugaz batuko ba'litz, gogoezkontzaz, izatez beste tarteko bage; emen etzaitu iñok ez gitxi-eritxi ta ez erdeiñatuko, ez deabruak, ez aragiak, ez munduak, ez griña gogai-karrik. Emen bai da beteten Abestietakoa: *Izan be, joan da negua, ez da euririk geiago, aterraldia dator* (2, 11).

OGETAIRUGARREN KANTA

*Sagar-ondo azpian
antxe ziñean bai Nigaz alkartu,
an neutzun emon esku,
zure ama galdu zan
tokian bertan zu ziñan osatu.*

Bi alkar maite diranean, alkarri uste osoz agertu oi dautsez auren kikimako ta ezkutu danak; egiazko maitasunak oro agertu daroa. Egin-egiñean be, Kristok arimeari bere Gizatasunari dagokiozan ezkutu ta misteri samurrak eta giza-erospearen era ta tankerak erakusten dautsoz; auxe da, izan be, Jaungoikoaren egiñik goienetariko bat, arimearentzat gozo-gozoa dana. Gaiñontzeko misteri guztiak bardin, iragarri ta azaltzen dautsazan arren, Gizakundea aitatzten dau Senarrak bertso lerro onetan. Nagusiena dalako edo.

Kristok arimeari adierazo nairik zelan izan dan ber-erosia ta ezkontzan artua, giza-izatean laskitu ta galdu zanekoa dakartso gogora; paradisuan zugatz dabekatuaren bidez Adan'ek giza-izatea laskitu ta galdu eban legez, era berean gurutz-zugatzean ber-erosia ta osatua izan zala. Gurutzean emon eutsan Kristok eskua, errukiz gaiñezka, bere Nekaldi ta Eriotzaz, gizonaren eta Jainkoaren artean egoan jatorrizko pekatuaren leza-zuloa desegiñik.

Sagar-ondo azpian.

Sagar-ondo au *Gurutzea* dozu. Ementxe eresia izan zan Kristoren odolaz gizadi pekataria. Ementxe ezkondu zan arimea, ots, giza-izatea Kristogaz, beraz arima bakotxaz, Ak gurutzean emonik, ari ta danari, ortarako bear ziran grazia ta doai bikaiñak. Orregaitik darai:

*Antxe ziñean bai Nigaz alkartu,
an emon neutzun esku.*

Argi daukazu. An luzatu neutzun eskua, neure laguntza ta magalpea. Bee zengozan, makurkeri ostean, eta Nik Jaso egin zindudan neure lagun eta ezkontide izatera.

*Zure ama galdu zan
tokian bertan zu ziñen osatu.*

Zure ama giza-izatea, zure leen-gurasoetan zugatz-pean beartua izan zan, eta zu be antxe Gurutz-zugatz azpian izan zintzazan

osotua. Olan, zure *amak* zugatz-pean emon ba' eutzun erioa, Nik Gurutz-zugatz azpian emon neutzun bizia. Jainkoak onela agertezten dautsoz pizkaka-pizkaka bere jakituriaren antolabide ta erabagiak, Berak dakian lez txarretik ona aterarik.

Kanta onetan datorrena Senarrak berak diñotsa emazteari, itzez itz esan be, Abestietan: *Sagar-ondoean jagi-azo zindudazan, zure ama galdua izan lekuan* (8, 5).

Baiña Gurutzean egin ezkontza ezta orain esango doguna. A, izan be, bein egiñiko ezkontza da, Jainkoak arimeari lenengo grazia emonaz, eta au bateoan burutzen da arima baktxean. beste au, ostera, osotasun bidez egiña da, apurka apurka osotzen dana; biak dozuz bat, diferentzi onegaz, bata adimenaren ibilliz ibilli egiten dala; bata apurka apurka ta bestea Jainkoaren indarrez, bat-batean.

Ementxe diñoguna da, izan be, Jainkoak, Ezekiel igarlearen bitartez, arimeari diñotsa: *Iñor etzan zutzaz erruki izan, zu errukiz beartsu oneitariko bat egiñik; okerretara bai jaio zintzazan egun berean iguiñez landara jaurti zinduezan. Nik, barriz, zure ondolik igarotean, zeure odoletan bustiten ikusi zindudazan eta zure odoletan etzunda zengozan artean, "bizi ta zelaietako bederra lez azi zaitez" esan neutzun. Azi eta neskatilla egin zintzazan, eta adiñera eldu; zure bularrak sendotu egin ziran eta ule-bizirra erne jatzun; baiña billotzik eta narru-gorritan zengozan. Zure ondolik barriro igarotean, maitasun-adifiean ikusi zindudazan; nire soingainekoa zeure gaiñera zabaldu neban, zure billoiztasuna estaltzeko; zin egiñez alkartu nintzan zugaz, eta neurea egin zindudazan. Uraz zu busti, zure odola garbitu eta orioz igurtzi zindudazan. Eunezko ta sedazko soiñeko bigunak ta azkon-narruzko oiñetakoak jantzi neutzuzan; liñoazko gerrikoaz ederto zindudazan. Arri-bitxiz apaindu, besoetan eskuturrekoak eta saman iduneko bat ipiñi. Suurrean erestuna, belarrietan belarritakoak eta burruan burestun apaiña. Zure bitxiak urre ta zidarra ziran, eta zure jantziak lino, seda ta jostarratz-lanak; eta zure janariak, urun-lorea, ezta ta orioa; guztiz lirain zengozan, eta erregiña izatera eldu zintzazan. Zure edertasunaren entzieta atzerriraiño eldu zan, Neuk emon neutzun edertasunari esker* (16, 5-14).

OGETAL AUGARREN KANTA

*Gure oe loreti
ingurutik leoi-lezaz esia,
gorritan edatua,
bakerik eregia,
eun urre-ikurdiz eder jantzia.*

Emaztea emen kantuz. Emazte ta Maitearen ondoko alkarte bikaiñarren ostean, ondoz ondo datorrena bien *oea* dozu, eta emen ditu arek Senarraren esan atsegiñak egotez gozatzen. Gaiñeko kantan, izan be, bion ogea gogoratzen, bertan dago arimea jainkozko, garbi ta txukun. *Ogea* ezpaita besterik bere Senar Itza, Jainko-Semea, eta ementxe dago a maitezko alkartean etzunik jarria.

Oge oni emazteak *loratia* diñotsa; bere Senarra bada, ezta loratsua bakarrik, bestietan Berak diñoanez: *Ni Saron'go lorea naz, aranetako lirioa* (2, 1). Arimea olan ez da etzu ten *oge loretian*, lorean bertan baiño, au da, Jainko-Semearen besartean, usain gozoz, graziz ta ederrez betean.

Aurreragoko kanta bitan bere Maitearen graziz ta aunditasunak abestu ditu emazteak; emen ez dago jarraitu bakarrik, baita oiukatu be aurkitzen dan egoeraren bakaintasuna be. Poz-eztitan dabil loragairi bur-bur dabillen mitxeleta antzean. Maitasunean pulunpatua dago, doe ta birtueetan aberats, opa ebanez asean. Maiteaz goza tsu. Eta kantari diño:

Gure oe loreti.

Oe loretsua, Maitearen jakituriz, ezkutuz, graziz, doe ta onegitez edertua, aberats, gozo ta gurikeriz betea daukagu arimea; atsegin be atsegin jakoz ikutzen dautsen lorak, margoz ta lurrunez. *Gure oea* diño; birtute bardiñak eta maitasun bera dira onezkero, Maitearenak, eta atsegin bat bera biena. Bere betetasunera elduta dago arimea birtutez eta onegitez, oso ta guren; au ez bait eban lortu oea loraz jantzi artean, Jainkoarekiko batasun egin-egiñean.

Ingurutik leoi-lezaz esia.

Leoien arpe-zuloak txit seguru dagoz, eta beste pizti ta patari guztiz zainpetuak; oneik ba, barruan dagonean auzardi kemetsua-ren bildur, ez dira barrura sartzen, azartzen bakarrik, ezta an inguruan geratzen be. Olantxe, birtute bakotxa be, egoera ontan, leoi-koba-zulo lez dira arimearentzat. Bildurta da txerrena birtutez jantzitako arimeaz.

Beraz, lora eder uraintsu onein ase-betea, arrisku guztietatik urrin, egi-egiaz esan daike arimeak: gure oe loratsua, leoi-esiz inguratua. Zoriontsua benetan bizitz onetan, noizik bein baiño ezpada be, jainkozko lora onein gozotasuna dastatzea merezi lei-ken arimea!

Gorritan edatua.

Liburu Santuetan purpura edo gorriak goi-maitasuna adieraz-ten dau, erregeak daroien jantzia. Arimeak diño emen ta Maitearen ogea loretia *gorrian edatua*, zabal-azoa dagoala, Aren aberastasun, birtute ta on guztiak loran bait dagoz bertan, eta zeruko Erregearen maitasunean atsegiña artzen, biak beti goi-sutan ixeturik.

Orixe dozu *gorrian* edatuta egotea. Au be Abestietan ederto: *Salomon erregeak beretzat gela aundi bat egiteko agindu eban, Libanolo zurez, zidarrezko abez, urrezko bizkar-aldeaz, purpurazko jarlekuaz* (3, 9-10). Guzti au Salomon'ek berak agindua izan zan, goi-maitasunez. Libâno'ko zurak eta zidarrezko abeak, Jainkoak ariman jarri dabe-zan doai ta bitxi bikaiñak dira.

Bakerik eregia.

Maitasun osoz ezezik, bakez be ornidua daukazu oge au. Juan deunak onan: *Maitasun osoak, bildurra kanpora botatzen* (1 Idazkia, 4, 18); eta emetik da erneten arimearen bake osoa, oge onen doea.

Obeto ulertu daizun, jakin eizu: birtute bakotxa berez baketsu, otzan eta kementsu da, eta, beraz, eurok daukazan ariman iru egiñoak daukaz: *bake, biotz-bera ta sendotasun*. Oge ontako on-egite

loretsua, ba, bakezkoak dira, otzanak eta sendoak; emen ezta burrukarik ez munduaz, ez deabruaz, ez aragiaz. Onez gaiñera.

Eun urre-ikurdiz eder jantzia

dago. Esan dogunez, arimearen doe ta onak dirala be, oge onen lorak, baita eurok irabazten arimeak egiñiko neke-lanen saria ta koroia be. Ez ori bakarrik, baita babeski be, griñen kontrako esku-tuak, berak on-egiñez lortu ebazanak. Emaztearen ogea, beraz, bere eginkizun bikaiñez koroatua dago.

Eta *urrezkoak* dirala diño, birtute orreïn balio adierazteko. Auxe berau goretsi eban emazteak Abestietan: *Salomon 'en esku-aulkia ba! Irurogei gudarik inguratzen dabe, Israel guztiko adoretsuak; guztiak artu dabe ezpatea eskuan, gudaketa askotan oituak* (3, 7-8).

Eun edo milla, diño, askotasuna aitzen emoteko. Bitxi ta doai ainitzez dizditsu jarten dau Jainkoak arimea. Konta ezin-alako zenbaki auxe darabil emazteak Abestietan: *Zure samea, arri landuz egindako Dabid'en tarTea da; millaka babeski dagoz an dingilizka, kapitanean millaka babes-narru* (4, 4).

OGETABOSTGARREN KANTA

*Zure lorratz atzetik
bidean dabilta neska gazteak,
txinpartak ikututa,
ardao onduaz txerbel,
Jainko-lurrunetan bizkor barneak.*

Arimeak ez dau beretzat bakarrik egoitza ontako gozamina gura, baita Kristoren jarraigoan santutasun bidean dabiltzan guztientzat be. debotu oneik dakaz aiputan kanta onetan, berak daukan gozotasunera, Jainkoa maitatuz, igon dagien. Eta guzti au berak sentitzen ditun iru gauza gogora ekarriaz, 1) *Samurtasuna*,

bideko ibillia errezago egiteko; 2) maitez kiskaltzen dauan *sua*, eta 3) espiritua *jaso* daroan ardao birloratzaillea.

Zure lorratz atzetik.

Oiñ-atza, aztarna izten dauanaren atzea da, ortik jakin geinke noribilli zan bide ortatik. Jainkoak beretik arimeari emoten dautson samurtasuna ta barria, Bere billa dabillenari noski, Jainkoa billatu ta ezaguterazoz doan arrazten eta lorratza dozu. Arimeak emen Senarrari diñotsa: *Zure lorratz atzetik*, au da, Zeuri dariozun samurtasuna ixuri ta ezarten dautsezu.

Bidean dabiltzan neska gazteak.

Ots, arima onak, gazte-senez, zeure lorratzetik jasotako kemenez, *bidean dabiltz*, ara ta ona, modu askotan, bakotxa bere erara, Jainkoak emoniko espirituari ta bizibideari dagokionez; betiererako bidez dabiltz, Maiteagaz aurkitu nairik. Lanari dakioe gogor, lurreko zer guztietaz espiritua garbitu ta maitasunezko su-arragoan murgilduaz.

Arindu egin oi dau arimea Jainkoak beregan izten dauan lorratzak; ia ezer ez dagi, Arek darabil-eta. Orixegaitik emazteak Abesietan jainkozko erakarpen auxe eskatu eutson Senarrari: *Eroan naizu Zeugaz; zeure usaingarrien usain atzetik goakizuz* (1, 2-3). Eta Dabid erregeak: *Zure aginduen bidetik joan nintzan bizkor biotza zabaldu zeustanean* (118, 32).

*Txinpartak ikututa,
ardao onduaz txerbel,
Jainko-lurrunetan bizkor barneak.*

Mesedegille da jainkoa, ta arimeak ba-daki berari egin dautsozan antzeko mesedeak beste ainbeste arimari be egiteko gertu dagoana. Osotasunerako bidean ekiñik artu oi dabezan ikustaldi, doe ta mesede onei *txinpart-ikutu* deritxe emen, eta *ardao ondua*; eta

naimenaren barruko ariketak dakazan eta ondoren lez datozen ikuste bioi *Jainko-lurrunetan* izaki barneak artzen dauan atsegin zoriona.

Emen aitatzen dauan ikutu au, Maiteak arimeari egiñiko ituku me-me bat da, batzutan onek gitxien uste dauanean; txinpart antzeko txiñar batez urten eta erreten dauala. Naia orduan, zerbait tek biztuta, Jainkoa maite-kutsuz gurtzen, goratzen, eskerrak emoten, eta aundi-esten asten da, eta oneik dira lurrunaren jarioak, txinpart ikutu ta ardao onduari erantzunik.

Ardao ondua are geiago azalduz, au Jainkoak maitasunean egiaz aurreratu diran arimai egin daroatsen mesede txit aundia da; Espiritu Santuan orditu oi ditu maitasun ardao leun, gozo ta errotsuan, bikainki ondua deritxonean. Ardao ondua usain-bedar askogaz egosita dagoanez, olantxe Jainkoak arima osotuari egiñiko maitasun au be, egosia ta jarria dago arima birtutez asetuetan. Mozkor jarten dau arimea egiten dautsozan ikusteakaz, eta orduan datoz maitatze, goratze ta besteok.

Ardao ondua aitatu dogun ezkerro, egoki dala deritxat emen, ardao egosi, au da, zaara, igaztuaren eta ardao barriaren arteko diferentzia; maitataille zaar eta gaztean arteko aldea dala, uste dot. Otoizlari gazteak gogotsu eta bero asten dira, baiña euren zerak azalekoak baiña ez dituzu oraindik, indar aundi bakoak, pizkaka pizkaka indartuko jakuz; ardao barria lez, latza da lenengotan, gero doa onduaz, eta azken egosia egindakoan askoz ao-gozoago daukazu.

Maitatzaille zaarrak, Maitearen zerbitzura egiñak eta aztertuak, ondarra ta batza egosita daukan ardao zaarraren antzeko dozuz, ez daukie zentzun irakin-aldirik, ez sumiñik, ez kanpoko lei gartsurik; maite-ardoz, leun-gozoz, mozkortzen dira, gogo barru-barruko ixiltasun beroan. Zentzunak ez dabe emen jokutzen. Adiskide oneik ez dautsoe Jaunari utsik egiten; adiskide baarra, beraz, Jainkoak benetan maite dau.

OGETASEIGARREN KANTA

*Ardangela ixillean
Maiteaz ni ase, ta gero ibarrez
abia nintzanean,
ez nekian ezertxo,
leengo elia be ez neban jarraiez.*

Emaztearen egona bai atsegiña, Senarraren maitasunaz estalia ta goi-zorionean edatua! Jainkoz jantzia, ez gero gaiñetik soilki, bere espirituaren ondaréondarrean be bai. Jainkoagana olan urreratuak diranakaitik diñosku Dabid ⁷ek: *Zeure etxeko guritasunez azten dira, zeure atsegin-errekan emoten dautsezu edaten; Zeugan dago iturri bizia* (Salm. 35, 9-10). Ur-erreka ori Espiritu Santua da, eta arimeak ur orretatik edaten dau, eta ur-alde orretan dago murgildua.

Esker-kantuz daukazu emen arimea; mesede izugarria egin eutson Jaunak maitasunaren betez bere izatearen barrutik barrue-
nean artu ebanean. Or geratu ziran azturik munduko zer guztiak, eta bere irrits eta atsegiñak oro. Eta orain ardingela barrenkoian.

Ardangela ixillean.

Ontaz zerbait adierazteko, Espiritu Santuak eskua artu ta lumea-
ri eragitea bear litzake. Maitasun-maillaz doa arimea gorantza ta ortarako beste mailla batzuk be ba-dagozan arren, auxe dozu gorenengoa. Maitasunezko ardingela edo maillok *zazpi* dira eta arimeak zazpirok daukaz Espiritu Santuaren zazpi doaiak oso-osoan bereganatu dauzanean. Emen daukagu esanik geratu dan gogozko ezkontza. Esan eziña dozu au, Jainkoaz be bere danik adierazo ezin daikegun legez.

Maiteaz ase nintzan.

Ederto esana. Eta ez dot uste geiago esan leitekenik, ardingela aretan Jainkoagandik artzen dauanari buruz. Edaria ixuri ta ba-

rraiatu egin oi da gorputzeko atal eta zan guztietan barrena; Jainkoaren artze ta amote au be, izanez, arima osoan ixuri ta zabal-azten da, eta bere Jainkoagandik edaten dau, bere izatez eta bere gogo-aalmenakaz; *adimenari* dagokionez, jakituria ta zientzia; *naimenari* dagoinez, maitasun ezti-eztia, eta *gogamenari* dagokionez, gauzak oroitzuz eta aintzazko sentipenez atsegin betea edaten dau.

Batzuk diñoenez, naiak ezin daula maite izan adimenak lenago ulertua baiño; au berez da, berez ba maite izatea eziña da maitatzen dana ulertu ezik; goi-bidez, alan be, Jainkoak egin daike maitasuna ixuri ta geitu-azo ulertze berezirik ixuri ez geitu bage. Au espiritu-zale askok nabari izana da, oneik ba sarritan leen baiño ulertze geiago barik, gitxi ulertu ta asko maite izan, asko ulertu ta gitxi maite izan, egiten dabenak bait dira. Geienetan, Jainkoaren gauzetan adimen aurreratua ez daukien espiritu-zale areik, naimenez aurreratuagoak dituzu, eta naiko izan oi dabe fede ixuria adimen-jakitate orde. Olan naimenak *maitasuna edan* daike adimenak barriz ulertzerik *edan* bage. Arimeak emen bere Maiteagandik *edan* ebala diño. Eta gero ibarrez.

Abia nintzanean.

Ezkontza deritxogun egoera guren onetan dago arimea bertoratu zan ezker; ez, alan be, oingo batasunez beti esandako iru aalmen orrei dagokienez, arimearen mamiñari dagokionez egon arren. Egoera ontan aalmenak be sarri samar alkartzen dira, eta baita *edan* be ardangela ontan, ulermenak ulertuz, naimenak maitatuz, eta abar. Emen urten eta abiatu zala diñoanean, etzan urten gunezko batasunetik, aalmenen batasunetik baiño.

Ez nekian ezertxo.

Urten zanean, ibar zear begiak zuzenduz, munduko zabaldia ikuskatu nairik, ez eban ezer ikusi, ez ekian ezer, leen ekiana guzurra dala deritxo orain; mundu osoak dakiana, berak daukanaren aldean, ez-jakin utsa da. Zergaitik ori? Jarrera ontan arimea *goi-zientziz* apaiña dago eta oni begira munduko jakituri guztia jakitea

baiño ez jakitea geiago dala uste dau; goitasun artatik begira beeko jakite ta zientzia oro olantxe dala begirantzen jako. Apostoluak onela: *Gizarte onetako jakitura, Jainkoaren aurrean, zorakeria da* (Kor. 3, 19).

Baiña jakin bekigu, arimea ezer ez jakiñik geratzen dan arren, munduko gauzatzaz noski, ez uste aurretik lortuta eukazan zientzi-
oiturak an galtzen dauazanik; galdu ez, osotu egiten dira gaitik ixurita artu dauan zientziaren bitartez, arimeak an gaiñera ez dau zetan ikasi oitura orreik tarteko diralarik.

Leengo elia berez neban jarraiez.

Auxe da egiaren mamiña, arimea erpin onetara eldu arte, gogozaleena izanda be, beti gelditzen jakoz *eli* edo eberetxo batzuk, jarraika doakiazanak atzetik, leia, gurari ta gustotxoak, bai berezkoak eta bai espirituzkoak, oneik be euren ordua bete gurako leukezanak. Adimenari begira, gauzak jakin-naiak geratzen jakez. *Naimenari* begira, gustu ta gale batzuk daukiez oindiño, esate baterako, gauza batzuk beste batzuk baiño geiago nai izatea, uste uts, aundikeri, dedutxo ta abar lur-usaiña zabaltzen dabenak; edota berezko zer oneik, jateko, edari, au baiño a naiago gura izatea; baita espirituzko gauzetan be, Jainkoagandiko doe ta mesedeak eta atsegiñak, eta beste rnilikeri ta ateraldi batzuk. Eta *gogamenari* begira, era askotako kezak eta suster bako goraberak, arimeak bere atzetik daroazanak.

Lau lera ta irrtsak be -itxaro, gozo, oiñaze ta bildur-, ur-ur ditu, agur esanik uxatu bage. Auxe da arimeak emen gogoratzen dauan eli ta abere moltzoa, leen atzetik joakozanak eta orain jarraika ikusten ez ditunak. Ardangelan edan ebanetik, danak galdu dauz, dana maitasun bihurturik, metalen ugera ta lizuna sutan ezeztatzen dira. Dan-dan au itxi dauan ezketiño, egi-egiaz esan al dau: *Leengo elia, abere moltzoa, ez dot etzetik.*

OGETAZAZPIGARREN KANTA

*An nindun ugatzatu,
an irakats eustan eztizko jakintza;
nik, ostera, nazana
oso neutsan eskiñi
betiko emonik emaztezko itza.*

Miragarria beneten! Barne-upeltegi ontan Jainkoa egi-egiazko maitasunez alkartzen da arimeaz; ez dago amaren maite-surik bere semea laztanka, ez anai edo adiskide maitasunik onen pareko danik; Aita neurri-ezak izan be samurtasun bene-benetakoz eder egin, losinkatu eta esku-erakutsiak egiten dautsoz arima apal eta onari, oi gauza siñistu-eziñeko!, arimearen zerbitzari bai-litzan eta arimea Aren zerbitzari. Eder jako, gozarazoz, morroi balitzakio lez, eta arimea bere Jainko. Apala ta samurra bai agertzen dala emen Jauna! Lukak ederto dakaz Kristoren itzok: *Gerria loturik eta areik maian jarrerazorik, banan-banan jaten emongo dautset* (12, 37). Eta Isaias igarleak: *Jainkoaren besoetan eroanak izango dira, eta belaun-gaiñean maiteki artuak* (66, 12).

Zer sentiduko ete dau, ba, emen arimeak, mesede ain aundien artean? Urtu egingo maitasun bitsetan! Jaunaren bular artean, maite-su bizitan! Ez bai jatorko beste esker-itzik aora, Abestietako oneik dirautsoz: *Zu bai zarala ederra, zu bai zoragarria, ene Maite, ene atsegin ori... ! Zure aoa, txeraka ixurtzen dan ardao bikaiña da, ezpanak eta agiriak bustiten daustazala. Ni neure Maitearena naz, eta A rek gogomñez billatzen nau. Zatoz, ene Maite ori; goazen zelaira, baserrietan egingo dogu gaua, goizean-goiz jagiko gara maastiak ikusteko, maats-ondoak loratan dagozan ikusteko, aien-begiak zabaltzen diran, granadazugatzak loratan dagozan; antxe emongo dautzut nire maitasuna* (7, 7-13).

An nindun ugatzatu.

Kristo ta arimea ardangela ixillean. Biak alkar-maitasun zerbitzuan, batasun zoragarritz batéeginda. *Ugatzatu*, ugatza, bularra

emon; batak besteari barru-sua ezarriaz, barruko ezkutua adierazoaz; arimeak antxe *ugatzatu* ebalala esatean, Jainkoak antxe emon eutsola bere maite-sua, eta antxe jakin-azo eutsozala bere goiezkutua. Egoitza ontan, auxe egin daroa Kristok arimearekin.

An irakatsi eustan eztizko jakintza.

Mistika Teolojia, Jainkoaren zientzi ezkutua da an irakatsi eutsoen jakituri eztizkoa, otoizlariak diñotsen alkar-ikustea, maitasunezkoa dalako da jakireko oso gozoa, gustakorra. Eta Jaunak zientzi ta ulermen au arimeari maitasun betean damotsazalako, atsegin baiño atsegiñago jako adimenari, eta naimenari, bie dago kiena da-ta.

*Nik, ostera nazana
oso neutsan*

Jainko edari artan, Jainkotan zurgatua geratu oi da arimea, gurarren eta gogoz Jainkoarena egiña geratzen da guztiz, Arena beti-betiko izan nairik eta Arez kanpo ezer be euki nai ezta, Jainkoak berak osotzen dautsola esandako batasunean orretarako bearrezko diran garbitasuna ta betetasuna. Jainkoak beretzen dauan ezker, aregandik uxatu daroa Jainkoarena ezta guztia. Ez bakarrik *nai izatez*, baita *egitezbe*, au ezer barik geratzen da, oso-osorik Jainkoari emona, Jainkoa berari emona dan lez; orrelaxe ordainduak gelditzen dira naimen bi areik, emonak eta euren artean kitatuak, aurrerantzean *fedez eta ezkontza-lolcarriz* batak besteari ezetan be utsik ez egiteko maduan.

Betiko emonik etnazteko itza.

Ezkondutako andreak ez dau geiago bere maitasuna ezertan ipinten, bere senarragan ezik, era berean arimeak be onezkero ez dau bere biotza, ez adimena ezertan jarten, ardura ta eginkizun osoa Jainkoagana makurturik dauko; jainkozko egiña bai dago, ta

lenengo soin-zirkiñak be ez ditu onezkero Jainko-naiaren kontra-koak. Guzti au ondo eitzen emon Dabid'ek, bere buruaaz inardua-la, esan ebanean: *Zure egarriz daukat gogoa, zure irrikaz aragia, lur idor, egarri, urgabe iduria* (61, 2-3).

Au ez gero Berak nai daulako bakarrik, alkarrekiko maitasunak eskatzen daualako baiño; onezkero dana dabil eta zirkin dagi Jainko-maitasunaren eragiñez. Erleak loraz lora ibilliaz, eta bedarrikbedar, euotan dagon ezitia atera daroa, eta lore ta bedar ortarako baiño ez ditu gura, arimeak be dagon lekuan dagoan maitasun samurra atera oi dau. gauzetan eta Pertsonetan, jainkoa maite izatea, dala gozoa, dala nergatza, bera dagoan lez maitasunaz babesturik aurkitzen dan ezkerro, ez dau sentitzen, ez dau gustatzen, ez daki... arimeak ez daki maitasuna besterik.

OGETAZORTZIGARREN KANTA

*Kemen ta dodan oro
Aren morroitako dot aukerazi;
ez naz gero eli-zain
ez nik beste arlorik,
maite izan dot soilki jardun berezi.*

Maitasuna da Jainkoa, eta bere sorkarietan be, giza-etan bereziki, maitasuna opa dau. Zergaitik olan? Gure eginkizun eta lanak oro, eder aundienak ba'dira be, Jainkoaren baitan ez dira ezer, orreitan ezin dautsogu ezer emon ez Aren gurarik bete-azo, au arimea aundiagotzea besterik ez baita. Beretzat ez dau onakorik gura, ez dau bear; olan, ezer bear badau, eta opa, arimea goraltzeko bakarrik nai dau; eta Berarekin bardinduz baiño geiago goretsi ezin leikelako, Bera maite izan dagiala da Berak naien dauana, maitasunari dagokiona bai da maitatzen dauanaz gauza edo pertsona maitatua bardiñean jartea.

Arimea emen maitasun osoan bizi da; Jainko-Semearen emaztea deritxo, eta onek Aregazko berak esan bai eutsen bere Apostoluai: *Onezkero, ez dautzuet zuei morroi esango, ugazabak egiten dauana*

morroiak ez daki-ta; zuei, adiskide esan dautzuet, nire Aitari entzun dautsadan guztia jakiñerazo dautzuet-eta (Joan, 15, 15).

Kemen ta dodan oro.

Aurreko kantan arimeak adierazo eban, ezer be beretzat gorde barik, Senarrari emon autsola. Orain diño emote au zelan doian beteaz; bere arimea ta gorputza, bere aalmenak eta trebetasun osoa, orretantxe dabil zoli be zoli, ez bere gauzetan, Senarrarenak diranetan baiño, eta arlo arretan be, maitatzea da bere zeregin gurena.

Aren marroitako dot aukerazi.

Itza emon ebanetik ezta, maitatzean ezik, ezertan sartu; maitez alkartzeak ori eutson eskatzen. Ordutik itsatsia, loturik geratu zan arimea bere indar guztiakaz, egingo, zintzo ta leial beteko dau emondako berbea. Zerbitzu edo morroitza ori, gaiñera, eder baizen atsegin jako.

Ekiñaren ekiñaz oitura da sortzen, eta gorputzeko leen-zirkiñak be Jainkoagan eta Jainkoagaitik izan oi dira, gure aalmenak berez-berez Jainkoagana makurtzen diralako arimea bera konturatu barik sarritan; onek gauzarik asko egiten ditu Jainkoaren zerbitzukoak ustekabeen: oiturearen kemena.

Ez naz gero eli-zain.

Bardin dana. onezkero ez dabil neure gustu ta zalekerien atzetik. Jainkoari itxi neutsozan, Berari emonik, arimeak origaitik ez ditu beretzat ez zaintzen ez larratzen. Ez da arazo orrekin arduratzen.

Ez nik beste arlorik.

Arimeak Maiteari emote guztizkoa egin aurretik arazo asko euki daroaz probetxu aundi bakoak, eta onekin bere buruari ta onen

grñai zerbitzu egiten ebillela esan geinke, zenbat oitura txar ainbat eginkizun eukozan-eta; esate baterako, arimearen osotasunerako zuzendu barik, gauza alperrekoak pentsatu, mintzatu eta egin, eginkizun baldanak dozuz; baita jentiaz eukitako palagu, lausengu ta labankeriak, sino-miñak, agurketak, eritxion emon-zale ta abar.

Gauza guztiok orain, diñonez, ez dira bereak, itxi ta arbuiatu dauz, bere itz, oldozkun eta egiteak, jainkozkoak dira orain. Esango ba'leu letxe: nik ez dot otain beste arlorik, ez dot beste denpora-pasa ta tartegarririk, munduko gauza zirtzillean batez be.

Maite izan dot soilki jardun berezi.

Ez, ez dot beste maitasunik, nire aalmenak ortan dagoz, dagidan dana dagit maitasunak eraginda. Egoera onetan, izan be, bai espirituz eta bai zentzunez, egin eta jasaten dauan danak maite-su biziagoa dakartso Jainkoagan. Lengo jardun eta ariketa guztiak be, orain dana Jainkozko ariketa. Arimeak, ba, egiaz esan daike bere jardun eta egiteko aparta maitatzea dala, besterik ez.

OGETABEDERATZIGARREN KANTA

*Gaurtik ni usa zear
ez baldin ba'nabe ikus-idoro,
galdu nazala esan,
maite-jolaska ibilki,
galdua egiñik nabela atxilo.*

Konbeni jako arimeari, goi-mailla au jadetsi arte otoitz bikaiñean eta urko lagunaganako zerbitzuan ekitea. Onaiño eltzen danean, baiña, ez jako egoki kanpotiko ariketarik, Jainko-maitasunetik aldendu legikeanik, Jainko zerbitzurako eder-bikaiñak izanda be; Jainkoaren eta arimearen aurrean, izan be, eder-ederragoa da, onelako maitasun pizkat, eta Eleizari be probetxu geiago egiten dautso, itxuraz ezer ez dauala iruditu arren, beste egiteko guzti orreik batera baiño.

Orixegaitik, Mari Madalen, itzez ta egitez lan txalogarria egin arren urko lagunaren onerako, Kristori atsegin izan eta Eleizeari on egitearren, ogetamar urtetan basamotuan gordeta bizi izan zan, maitasun oni bera ta bizi emona, bizimodu au bikaiñago izango zala-ta, Eleizeari onako maitasun pizkat eskintzea.

Arimetara emonak, ba, ekar begie gogora, euren itzaldi ta ateko egiteakaz asko egiten dabela uste dabenak, Eleizeari on geiago egin eta Jainkoari atsegin aundiagoa emongo leukioela, ikasbide onagazkoa saiets itxirik, denpora orren erdia emongo ba 'lebe Jainkoaz otoitzean egonaz; otoitz orregaz asko ta asko geiago irabaziko leukie; bestelan, dana da jo ta jo, mailluka ekitea, ia gitxi eta batzutan ezer bez, eta batzutan oindiño kalte egin bakarrik.

Zenbat idatzi daiteken emen gai onetaz! Bego naiko lez esana, egoera ontan arimeak ez dauala ezer egiten adierazo oi dabenen kontra. Gogoak darrai.

*Gaurtik ni usa zear,
ez baildin ba'nabe ikus-idoro.*

Lenago, eta gaur be bai, zentzun gitxiko miin txardun jenteak esan eta idatzi sarri egiñak dira, gizarterako ez dirala mesedegarri. Eritxi makurrak, errez salduta! Itxituan bizi diran arimak, ba'leiteke, munduak eder-esaten dabezana gauzetarako alper-ontziak izatea, baiña langille porrokatuak Jainko-arlorako. Baiña maitasun gaillurrean bizi dan arimeak ba-daki zer dan beiñeña, eta munduaren uste ta esamesak zorakeritzat daukaz. Ondo deritxo Maitegaitik munduari ta bere zer guztiai be agur egiñik, Eleizearen eta arimen onerako komentu barruan gau ta egun otoitzari ekitea.

Usa edo munduko bide ta kale zear ikusten ez ba'dabe geiago, ez daiala uste zian, bere burubakotasun, jakin-ez edo atzepetua dabillelako danik; ez dabil galdua, ez, eta galdua bada be, beretzat irabazi ederra dalako dabil galdua. Orixegaitik ikusten ez ba'nozue munduan, galdua egin nintzalako da.

Bizkai-aldean *usa* errien mendi-zati, zelai edo landari esaten jako. Danentzako izan oi da, bai artzaiñentzat eta bai jentearen jolaserako. Arimeak emen *mundua* aitzen emon gura dau; mundu-tarrak emen daukiez euren pasa-enporak eta sal-erosketak; emen-

txe larratu oi dabez euren griña, gurari ta irritsak. Mundukoai arimeak onela: Leen legez kaleak eta bideak zear ikusi ta idoroten ez ba'nozue, galdutzat emon naguela, Jainkoagan galdua.

Galdu nazala esan.

Ezta iguindua sentitzen Jainkoagaitik gauzak burutzen dabezana; ezta lotsatu be mundua osorik bere kontra jagi arren. Maitasunzale dabillen arimeak gurago dau munduko zer guztiak galdu, Jainkoagaitik zertxo bat egin barik itxi baiño. Ausardi au ta lanerako erabagi au espiritu-zale gitxik jadetsiko dabe, eurak uste dabela be oso aurreratuak dagozala, puntu batzuk ez dabez itxi nai, izatearenak edo munduarenak, gauza oso batzuk Kristo-gaitik izteko, zeresanagaitik egin barik izteko. Oraindik ez dagoz gertu jente aurrean Kristo autortzeko. Oso-osorik ez dira Kristogan bizi.

*Maite-jolaska ibilki,
galdua egiñik nabela atxilo.*

Arima zintzoentzat, izan be, jolasa da birtute-lana, ta orretan diardu aspertu bage Jainkoaz maitemindu danak. Kristok Ebajelioan diñoana jakiñaz, iñor be ezin leikela ugazaba biren zerbitzari izan, edo batari gorroto izango dautsola ta bestea maite izan (Mt. 6, 24), arimeak Jainkoari uts egin nai ez-ta, uts damotsa Jainkoa eztan guztiari, baita bere buruari be; Aren maitasunarren gauza guztiei galdua egiñik. Egiazki maiteminduta dabillena, laster izten da gauza guztietan galtzen, maite dauanean geiago irabaztearren. Auxegaitik diño emen arimeak, galdua egin zala, bere kasa, au da, jakiñez galdu zala.

Era bitara egin daiteke au: bere burua galdu, Maitearen gauzai baiño jaramonik ez egiñik, eta Maiteari dagokiona besterik nai ez izanik; auxe da galdua egitea, irabazi daiela nai izatea. Orrela Jainkoarekin maitemindua, ez dau irabazirik ez saririk gura, Jainkoarena ezik; galdua bedi guztia, baita bera be Jaunaren naian, orixe bere irabazirik ederrena. Paul Apostoluak au: *Niretzat bizitza Kristo da, eriotza barriz irabazia* (1, 21).

OGEITAMARGARREN KANTA

*Lora ta gitxi guriz
-goizalde otzean biok batuta-
egingo dogu txorta,
Zure maite-suz gara,
ene ule batekin alkar eiota.*

Senarra ta arimea autuan, alkar gozoan eta maitasunezko jolasean, biak batez be alkar arteko biotz suaren gozotasuna adierazoz eta Kristo eta arimeak alkarrentzat onez joandako aldiz atsegiñetan irabazitakoa. *Txorta zaarrak* dira oneik, guztiak batera, txortako lorak lez, biak gozatzen dabez bata besteari dautsoen maitasunean.

Lora ta pitxi guriz.

Lorak dira arimeak bere ekiñez sort-azitako birtute ta egite onak, *pitxi guriak* Jainkoagandik artutako doaiak.

Eta lora ta pitxi aneikaz.

Goizalde otzean biok batuta.

Au da, aintxiña batuak, gazte sasoian eskurativak eta gordeak, gazte aroko goiz ozkirrietan jasoak. *Batuak* dirala diño. Gazte sasoin ontako birtuteak, izan be, berezi autatuak dira, ederrak eta Jainkoari atsegiñak; gazte-aroan, ba, auxe bai da aldirik errime ta gogorre-na griña ta joera txarrak noberaganatzeko, berezko indarra ortara doalako eta olan birtuterako kemena auldu. baiña gizasemea kemenkorrago dator orduan eta gauza obeetarako ausartiago agertu, udabarrian goiza beste orduak baiño geiago; orrelaxe Jainkoaren aurrean gaztetako egiñak. Jainkoarentzat, nik uste, atsegiña oraindik gizasementzako goizalde freskuak baiño be:

Baita aitu gengike emen, *goizalde freskuak* ditala, liortasuna eta espirituaren gorabeera latzetan egindako egitekoak; eta oneik,

negulo goiz ozkirrietan Jainkoak berak burutuak, anelatxe lortzen dira-ta batez be birtute ta doe ondo errotuak, eragozpenez lortuak eta gustu ta atsegiñetan, Paul deunak ederto, Jainkoak esan eutsola: *makaltasunean agertzen da indarra* (2 Kor. 12, 9). Beraz, Maiteratentzat lora-txortak egitea zelan bear dauan esatea bikainki dator emen, lora, pitxi, birtute ta doeakaz, goizez eskuratuak, onak eta akats bakoak Orregaitik diño emen.

*Goizalde otzean biok batuta,
egingo dogu txorta.*

Arimea ta Jauna ariman pillatzen saiatu diran ainbat eta ainbat birtute doai lora askoz eio ta eder jantzita daukagu arimea, ñabar eta pertxenta. Ortarako, apurka apurka joan dira lorak batzen eta txortan jarten, astiro astiro; eta biak dagie lan au atsegiñetan, egoera osoan egin oi danez.

Auxe bai da azkenengo apainketa jantzi onegaz agertu bear dau-ta Errege aundiaren begi aurrean, duin eta sotil, gauzarik eder-bikainenaren aintzinean; Berarekin kidetu daian, erregiña bere erregin-aulkian lez, merezi dau-ta. Dabid'ek onela onako kasuan lez Kristogaz izketan, au diño: *Zure eskuman, zutik, erregiña dago, Ofir'ko urrez apainduta* (Salm. 44, 10).

Oribe ez da egiten arimeak artzen dauan laguntza barik. Senarrak Abestietan: *Eroan naizu Zeugaz, eroan naizu atzetik*(1, 3). Olan onerako zirkiña Jaunagandik datorrena da, ez Beragandik bakarrik ez arimeagandik bakarrik be, biak batera arin egingo dabe. Jauna ta arimea eragin batean.

Bertsotxo au ederki dator Kristoren eta Eleizeran jarduna azaltzeko; Eleizea, aren emaztea, Aregaz mintzo da, esanik: "Txortak egingo doguz". Kristok Eleizan sorturiko arime on guztiak barton sarturik, baxotxa xorta bat lez bai da, loraz, birtutez eta doaiez apainduta, danen artean txorta bikain-bakaina egiñik Kristo Senarraren bururako.

Oni buruz esan leiteke, baita, *argi-koroi* edo uztaia, Eleizak erabilliak. Iru eratakoak dituzu:

Lenengoa, lora eder zuriduna, birgiña guztiak daroena, bakozak bere birjintasunaren uztaia, eta guztiak batera txorta eder bat izango, Kristo Senarraren buru-gairi jarteko.

Bigarrena, santuen irakasleen lora dirdiratsuz egiñiko txorta, eta danak batera izango dira txorta bat birjiñen buru gairi jarteko Kristoren buruan.

Irugarrena, *martirien* klabelina gorriena, bakotxa bere martiri txorta, eta danak batera Kristo Senarraren lora txorta ergiña amaié tzeko izango dira.

Koroi oneikaz Kristo bene-benetan ikusgarri ta eder engo jatzu ta zeruko guztiak esango dabe arrimen ikaragarritan, emazteak Abestietan oiukatzen dauana: Sion go alabok, urten eta ikusi Salomon erregea, eztegu egunean, bere bizitzaren jai-egunean, bere amak buruan ezarri eutson koroe ederraz! (3, 11): Txorta oneik eioko daguz, ba, diño.

Zure maite-suz gara.

Loraz beteak dira egite onak eta birtuteak, ots, Jainko-usaiñez arrotuak, au barik litzatekez *loran* egongo, danak legor baiño eta Jainkoaren aurrerako itsusi ta balio barik, naiz-ta gizalegez osoak izan. Baiña Berak damotse grazia ta maitasun *egiñok* Aren maitasunean loratuak dira.

Ene ule batekin alkar eiota.

Bere *ule* au berakMaiteari dautson naia ta gura dira. Lora txortan ariak dagiana dagi emen uleak; lotu. Olan arimeak korapillatzen ditu birtuteak, Paul deunak diñoanez: *Maitasuna baita zindokuntza osoaren lokarria* (Kol. 3, 14); ementxe dagoz birtute guztiak batean loturik eta batek uts-egiñik danak doaz lurrerario lorak; ez da naikoa guk Jainkoa maite izatea, baita guk Bera gura izatea bear da areik artzeko eta euretan iraun-azteko.

Bere ule batekin loturik dagoala diño, ez ule askogaz, beste griña guztietatik, aske, maitasun arrotz barik, onela maitasuna Jainkoa-

gan bakarra ta sendoa danean, arimeak emen diñoanez, oso ta beteak dira bere birtuteak be, Jainko-maitasunean orduantxe baita bien arteko maitasuna ederra ta neurritz gañekoak.

OGEITAMAİKAGARREN KANTA

*Ule bakaino ari,
nik lepoan egaz nenkanenari
ene saman so zeuntson,
eta, Zu bertan barro,
neure begi baten jaus zirean zauri.*

Onela naiko ondo aitzen emonik galditzen dala, lore txortan onein arteko gurutzatzeaz eta eurok ariman egin daben leku ego-kiazjarrera ontan arimeak eta Jainkoak, biok emen antolatu nai izan daben egoitzari buruz. Kristo bera baita zelaietako lorea aranetako lirio, eta arimearen maitasun adats-izpia da loraen lora au arimeagaz batu ta lortzen dauana. Maitasuna da lokarri, Jainkao, ta arimea galtzairu bigun biak alkar estutzen dituna, berau baita aintza onen euskarri, eta arimeak ez dirudi orain len zana, lorea bera baiño lora guztien osotasunez eta ederrez pitxiturik. Izan be, biak, Jainkoa ta arimea, maitasuneko ari onek lotu, estutu, eraldatu ta *maitez* bat egin oi daroaz, mamiiez bi izanik aintzaz eta itxuraz arimeak *Jainko* dirudi eta Jainkoak *arima*.

Arrigarria esan al daikegun baiño geiago. Zerbait adirazo leiteke Jonatas eta Dabid'en arteko maitasunaz; gizaé maitasunak ba'ditu noizik beinka olako zer batzuk; Erregeen lenengo liburuan irakurten dogu: *Dabid'ek Saul'egaz izan eban alkarrizketa amaitu ebanean, Jonatas 'en biotza Dabid'i itsatsi jakon: bere burua lez izan eban maita* (18, 1). Beraz, gizon bateren maitasuna beste baterentzat ain gogorra, biotz bat besteaz erantsi al izateko, zelakoa izango ete da jainkoak, arimeak bere Semeari dautsonegaz egingo dauana? Jainkoa bera da emen, izan be, maitale nagusia: maitasun erro-errotiko indarrez arimea iruntsi daroa emen arimea Beregan, airebiurturik egaz dagian goiz-iruntzezko tantan bat aize-bolada baten antzean.

Olan, dudarik bage, bilgune lana dagian *ule* edo adats-izpia guztiz sendo-ta zolia izatea konbeni da, ain indartsu izanik lotzen ditun zatiak atxikitzen bai ditu. Origaitik arimearen kantan:

Ule bakarino ari.

Iru gauza esan nai dauz emen arimeak: Birtute ta egite onak, maitasun gotorrez eunduta dagozala, sentotasunean sendo egiñak. Ezta naiko birtuteai iraunzoteko, izan dedilla baita *sendoa*, aurkako griñak ez dagian ez andik emendik lora-txorta eten; esan dagu nez, ba, egite onak mutur guztietatik alkar eiota dago ta une batetatik uts-egin ezkerro, guztietan uts-egingo leukie: birtuteak bat dagoan lekuan danak dagoz, baiña batek porrot ba'dagi danak dagie porrok.

Sama inguruan egaz egian, maitasun onek arin ta sendo Jainkoagana bai dau egazkadea; eta aizeak lepo ta saman uleari daragion letxe, Espiritu Santuaren asnasaldiak, Jainkoagana egazak egin daizan maitasunari eragin eta guritzen dauan lez, gainkozko aize au barik bak, aalmenal eragiñean ipiñi ta maitasun jardunera eragin barik, birtu teak, arimeak ba'daukaz be, ez dakarre euren ondorengo fruturik.

*Nik lepoan egaz nenkarrenari
ene saman so zeuntson.*

Ez, ez eban Jainkoak maitasun au eder-etsi bakarrik egoalako; baita maite izan eban sendoa zalako be. Jainkoak so egitea, malta-tzea dozu. Baita Ak aintzat artzen dauan, eder estea be. Barriro diño *samea*, zegaitik benetan maite dauala adierazoz, au da, sendoa sendo salako. Onela edo: maitasunean errime ikusirik maite izan zinduzan, koldarkeri, txepelkeri ta olako bage, beste maitasun barik ikusi zenduzulako.

Oraiñarte etzan orrela; ba-ziran tartean beste griñatxo, gurari ta gustotxuak, ez bai eban ikusi bakar eta beste zeretatik erantzia; baiña lorratz orreik be itxi ebazanetik, lora txorta sendoz inguratu

zanetik, beste bat dogu. Ibilli ta ibilli arimea, goienengo mailletara eldu jaku.

Eta Zu bertan barro.

Gauza zoragarria, benetan, Jainkoa preso, atxillo, *barro* geratzea adatsizpi baten! Zergatik preso geratze ori? Ulearen egazkadari soka lotu zalako, esan dogunez, Jainkoaren begiratzea maitatzea bai da, Berak dakigunez, lenengo maitatuko ez ba'ginduz, lurrerairio jatsiz, gure maitasun kaskarrean eleuke ezer arrapatuko, goietako egazti oni eldu al izateko aiñako egada garairik artuko; baiña Bera jatsi zan ezkeru gu begitu ta, egaldia bizkor-azo ta geure maitasunetik goratzeko, ortarako kemena ta balioa emonik, orixegaitik Berbera preso jausi zaniadats-izpiaren egadan atxilotua geratu zan. Eta ulergarri dozu au, egada labur eta be-beko egaztiak oso egada goiko arranoari eldu al izatea bera ba'dator beera atxilo jausia nai izanik.

Neure begi baten jaus zifian zauri.

Fedearen begia aitatzen da emen; begi bat, eta bertan zauritu zan. Fedea eta arimearen zintzotasuna Jainkoari buruz izan be, bat baiño geiago ta beste zerbaiten edo norbaiten begirune ta betebearez ba'litz, nekez elduko litzateke Jainkoagan maitasun garbi ta ederrez; beraz, begi baten bakarrik preso geratu bearra dauko. Maitearen begiak be; fedearen begiz emen estu-estu txibizatzen dira, zauria egiteraiño eldurik, Maiteak maiteari dautson biotzeragin biziz.

Auxe berau, adats-izpiarena ta begiarena diño Senarrak Abestietan: *Maitemindu egin nozu, eder orrek, maitemindu egin nozu zeure begikune bakar batatz eta zeure samako arri-pitxi batatz* (4, 9). Eta birritan zauritu dautsola biotza diño, *begian* eta *ulean*. Orregaitik alkartzen ditu arimeak kantan *ulea* ta *begia*, orretan bai dager Jainkoaz daukan alkartasuna, *adimenez* eta *nannenez*, fedea bada, begiaz adierazoa, adimenari dago itsatsia fedez eta naimenean maitasunez. Alkartasun augaitik pozetan daukazu arimea eta

Senarrari eskerrak erronka, maitasunari eskerrez erantzutea esker-
garri da-ta. Ez gara emen errez konturatzen zelako poz, atsegiña ta
samurtasuna eukiko dauan dalako atxilotu onegaz ainbat denpora
maiteminduak bizi izanik.

OGEITAMABIGARREN KANTA

*Zuk ni begiz jotean
begiok ninduen doniz edertu;
alan ninduzun maite,
ta alan eben merezi
Zugan ekusena, nireak gurtu.*

Maitasuna bai indartsu ta beronen zolia bai eder! Jauna bera
irabazi ta eskatu oi dau! Doatsu maite dauan arimea, Jainkoa bera
bai dauka katigu, berak nai leuken guztirako emona! Izan be,
maitez ta onez eroanik, nai dabena egin-erazoko dautsoe; baiña
alderantziz, ezelan be ez dabe ezer lortuko. Maitasunez, oster, ule
baten lotzen dabe. Au ondo baiño obeto daki arimeak:

Maitasun osoak ez dau gura ezta artu beretzat ezer, dana bere
Maitearentzat. Au ba-da maitasun kaskarretan be, naitaez Jainkoz-
koetan, errazoiak eskatzen dauana dozu-ta. Eta, beraz, aurreko
kanta bietan emazteak beretzat lez joten dauala dirudi gauzaren
bat, adibidez berak egingo leukela diño Senarragaz batera *lora-
txorta*, bere adats-izpiaz eundurik, eta au ez baita garrantzi ta
ardura bako lana, eta Senarra bere adats-izpian katigu jausi zala ta
bere begiaz zauritu, eu bere merezimentu aunitzat jorik, kantu
ontan orain adierazo nai dau bere asmoa eta emen egon leiken
iruzurra desegin, arretaz aitzen emonez berak ez daukala ortan
balio ta merezimenturik, Jainkoari bear baiño ta berak opa baiño
gitxiago ezarten jakola aitzen emonaz.

Ari ba emen guztia ezarten dautso, bene-benetan eskertsu; eta
au dirautso, bere maitasunezko adats-izpian atzemon, geratu ba'zan
eta bere fede-begiz zauritua, maitez begiratu eto modu orretan
Beratzat zoragarri egin ebalako izan zan, eta Beragandik artu eban

grazi ta indar origaitik, Bere maitasunaren duin egiñik kementsu izan bere Maitea atsegingarri gurtu-azo ta Aren edertasuneri ta graziari gogoko jakozan egite on eta aintzagarriak mamintzeko.

Zuk ni begiz jotean.

Bardintsu dana, maitasunezko txera zoliaz; emen ba, gorago be esan dagunez, Jainkoak begiz jotea, maita tzea dala.

Begiok ninduen doaiz edertu.

Senarraren *begiz* emen bere Jainkotasun errukitsua adierazten da; Onek, arimegana errukiz makur, bertan ixuri ta irartzen ditu bere maitasuna ta grazia. Orrela, eder-eder egin eta garai be garai jazorik, euron bitartez Jainko-izatearen gai biurtuz. Pedro deunak onela: *Onein bidez, agindutako ondasun eder eta bikaiñak emon dauskuz utsean, euron bidez Jainko izatearen gai egin gaitzean* (2Pe. 1, 4). Jainkoak egin dautson duintasun eta gurentasun onegaz konturaturik, arimeak ots:

Alan ninduzun maite.

Olan ninduzun maite-maite, edo erderaz *adamar*, maitasun be-roz maite izan. Bai, Maiteak kutun eban, adats-izpian preso jausirik eta bere begian zauri Eta au Berak nai izan ebalako, begiratu lerdentasuna ezarri ta begiren fedez lilluratuz. Alkar graziz ta ederrez lillurau eban.

Oroi zaitez emen. Jainkoak berez kanpo ezer maite ez dauan lez, bardin Bera baiño beerago dagoanik be ez dau kutun, guztia Beragaitik bai dau maite, maitasunak beraz ba-dau bere azkenaren errazoia; gauzak ez bait ditu maite eurak au edo a diralako. Jainkoak arimea maite izatea, beraz, berau zelan edo alan Beragan sartu ta murgiltzea da, Berarekin bardindurik, eta arimea olan bere kautan maite dau, Berak bere burua maite dauan legez, eta orixegaitik egiten dauan egite bat-gaitik, Jainkoagan dagialako, arimeak

nerezi dau Jainkoaren maitasuna; grazi ta aunditasun guren onetan dagoala, ba, egite baxotxean Jainkoa bera merezi dau.

Ta alan eben merezi.

Mesede aundia egin eustan, ez daukat zetan errepikaturik, zure errukizko begiok niregan ipiñi zenduzanean. Begituz eta ikusiz atsegingarri biurtu ninduzun. Ingumarentzat lorea lez edo. Eta Zuk zoragarri egin, eta arrezkero begi-begiko naiatzu.

Zugan ekusena, nireak gurtu.

Eta orrela eben merezi nire begiok be, Zugan ekusena, au da, ikusten ebena, nire oneik gurt-azotea. Nire arima almenak, ene Senar, nireakaz ikusia izan zaitezke; jausian egozan eta jasoak izatea merezi izan eban, Zu ikusteko. leen, mixeriz eta berezko izatez, grinañaz gainezka, bee-bean egozan; orain ez, Zuri begiratzen dautzut goi-egitez eta graziz indarturik. Leen begiak illun neukazan.

Zer nekusan leen? Birtuteen edertasuna, samurtasuna ugari, neurrik ez daukan ontasuna Jainkoaren maitasuna ta errukia? Leen ikusten nebana orain gurtu daroe nire begiak. Orain bestela da, orain dana jako atsegiña nigan nire Senar onari. Leen ez nintzan gauza ortarako. Zakarra ta itsua da, Izan be, arimea grazi barik dagoanean!

Asko idatzi ta ekin bearra legoke emen gai onetaz. Ardatzetik urtenda gabiltz sarri! Jainko-maitasunaz argiturik ez dagoan arimea batezbe. Beartuta dagoz oneik eta onelako beste konta-ezin-ala mesede, gorputz naiz arimekoak, ezagutu, onartu ta eskertzer; eta mesede oneikaitik Jainkoa gurtu zerbidu ta maitatzera atertu barik geure aalmen guztiakaz. Eta ez dogu egiten. Askoren doakabezko mixeri lotsagarri! Ba-dira olan bizi diranak, edo obeto, pekatuan ilda dagozanak.

OGEITAMAIRUGARREN KANTA

*Enagizu ezetsi,
beñola azal baltz ba'ninduzun aurki;
orain so eikedazu,
Zuk begitu ondoren
eder-dirdira bai eustazun itxi.*

Esan dana eta ondoren esango dana ulertzeko, jakin bear dana dozu, Jaunak lau on dagizala ariman bere begitu samurrez, au da: *Txautu, lerdendu, aberastu ta argi-azo*; eguzkiak bere erraiñuak bialduaz lez, garbitu, beroru, edertu ta dirdaitu.

Eta Jainkoak ariman iru azken edertasunok jarten dauazanean, oneikaz bait jakon benetan atsegingarri, ezta geiago iñoiz gogorazten lenago eukan moztasun eta pekatuaz; bizi izango da ta ezta ilgo (Esek. 18, 22). Olan, bein kendu ezkeru pekatu ori ez jako geiago arpegira botako, ezta origaitik mesedeak egitea laga be: Arek ez bait ditu gauzak birritan epaitzen (Nahun, 1, 9).

Baiña Jaunkoa bein parkaturiko pekatuaz eta gaiztakeriaz aztu arren, arimeari ez jako origaitik konbeni egindako gaiztakeriak aantz-zuloan jaurtirik iztea, ez aztu egindako okerra. Eta au iru gauza gaitik: *Lenengo* aieru izate ez arrotu ez zaitezen; *bigarren*, esker oneko izan zaitezen beti, eta *irugarren*, geiagorako konfiantza sortzaille izan dakion; izan be, pekatuan bizi zala ainbeste artu ba eban, Jainkoagandik noski, Jainko-maitasunean eta pekatutik urrin bizi dala, ezin itxaron ete leikez mesede aundiagoak!

Gogora, beraz, arturiko erruki daokaz eta bere Senarraz batera aunditasun ain aunditan murgil bere burua ikusiz, errime be errime gozaten jatzu maitasunezko ta esker onezko atsegiñean blei-blei; lagungarri jako onetan, eta ez gitxi, beñola izan eban egoera ziztrin eta ezerezaren gomuta: berez ez eban olakorik merezi, Kristok emon eutsan guztia. Eskertsu nakion Berari!

Orain, ba, emazteak zerbait dala uste dau, iñoren jantziz eta ederrez apaindua izanik be, ausarditsu lez agertzen asia da, doez ta eder-pitxiz aberastua, Maitearen bikaintasun, baitura ta edergailuz dotore be dotore, Maiteari berari be au diñotso: Maite, ez nagisu

ezetsi! Gauztik, otoi, ez eistazu motz nazanik esan; egoki jatan leen au, neure erruz zatar, purtzil erdeiñagarri nintzalako. Baiña Zuk begiz jo, maitatu ta Zeure egin ninduzunetik, uxatu zan nire itsusia.

Ez, ez nagizu ezetsi.

Zuk lenagoz so egin zeustanetik, zelaiko lorak lez, grazi ta ederrez jantzi ninduzun. Ain eder jantzirik ez negoanean begiz jo ba ninduzun, errazoi geiago dozu orain, eta aurrerantzean, sarriago begiratu ta maitatu. Ori merezi neban, aintzat be ez artzea; neure laborez ta ekiñez, ez naz ezer, baiña alan eta guzti ez ni, Jauna, narda ta gaitz-etsi.

Beiriola azal-baltz ba'ninduzun aurki.

Ez ekar gogora lengoa. Aspaldi, egia, baltzeran nintzan azalez; gaur ez. Aldatua jat azala; Jainkozko doai ta graziz aldatua da leen neukan kolorea. Orain beste zerbaite nozu; leengo ezaiña ta kolore iguingarria ez ditut gaur.

Orain so eikedaztt.

Zuk leen maitez begiratzean eskertsu ta lirain ez ba'nintzan be, Zuk ikusteko, emon zeustan len-grazitik urrun, orain ikusteko lez naukazu, zure begieta tik ainbat doe ta esker artuaz, ikusgarri egiña nozu-ta. Zeure begi orreikaz, ba, lenengoz bakarrik ez zeustan kolore baltzizka kendu, baita ikusgarri be egin ninduzun, zeure maitasun-zitzaz.

*Zuk begitu ondoren
eder-dirdira bai eustazttn itxi.*

San Juan'ek bere Ebanjelioan: *Bere betetastnik artu dugu guztiok, eskerrik esker artu be* (1, 16). Jainkoak arimea lirain ikusten dauanean

bere begietan, grazi ta lerdentasun geiago emoten alagindu oi da, onen baitan pozarren bizi dalako. Moises'ek eder geiago eskatu eutson jaunari: *Zuk diñozu ezagutzen nazula eta Zure aurrean ederra aurkitu dodala; beraz, zeure ederra lortu ba'dot, erakutsi egizazu zeure arpegia, ezagutu zagidazan, eta Zure begi aurrean ederra jadetsi* (Urt. 33, 12-13).

Eder onegaz arimea Jainko aurrean dago goratua, omendua ta apaindua, eta orixegaitik da ezin-esan-ala maitatua. eta leen Bere grazian egon aurretik, *berez beragaitik bakarrik*, orain be *maite* dau bere grazian aurkitzen dalako, ez dau berez bakarrik maite, *beragaitik* be kutun dau; eta olaxe, bere ederrez lilluraturik, berak egindako lanez edo olako barik, maitasun eta grazi ugariago dautsoz Jaunak emoten, eta edertuz daroan neurrian maite-minduz be olantxe doaz biak.

Nok adierazo leike Jainkoak noraiño arima bat goretsi daroan aretaz lilluratutakoa? Ezin daikegu iruditu be, Jainkoa bezela dagi-ta, guri nor dan adierazo gurarik.

Au geiago ulert-erazo gengike Jainkoak nola jokutzen dauan jakiñaz: geiago daukanari emon oi dautso geiago, eta emonaz ugaldtu, aunizkituz emoten dau, arimeak lendik eukanari begira, Matearen Ebanjelioan irakurten dagunez: *Izan be, euki daukananiri emon egingo jako, eta geienka eukiko dau; ez daukanari be kendu egingio jako* (13, 12). Olan. morroiak eukon dirua bere ugazabaren grazian kendu egin jakon, eta emon egin etsoen bere ugazabaren grazian beste guztiak baiño geiago eukanari.

Ortaz, Jaunak bere etxeko ondasun nagusi ta bikaiñenak, au da, bere Eleizakoak, zein gudari zein garaillekoak, bere adiskideago danagan pillotzen ditu, eta berau eratu oi dau olakoa geiago omendu ta aintzaltzeko eran.

OGEITAMAL AUGARREN KANTA

*Uso zuria barriz
abarraz kutxara jaku biurtu,
baita usapalak bere
ur-arte orlegietan
maite eban laguna jarrugi dausku.*

Ezkutu gogorrean ainbat eta ainbat, egoera ontan, Maiteak arimeari dagitsozan bezuza, emoi ta esku-erakutsiak eta Jainko-maitasunezko adiguri, zizpuru ta gorak, bien artean jazo oi diranak bardintsu. Arimeak, luzez, berbo samur ta gozoz diardu bere Maiteari eta Au ez da aspertzen bere maitea goretsi ta eder-azten. Biak Abestiak dakarrez gogora ezti be ezti: Ak arimeari diñotso: Ederra zara, ene maite, zu bai ederra! Uso-begiak dituzu!

Eta emazteak Ari: *Zu bai ederra, ene Maite; Zu bai gozo ta goragarria* (1, 14-15). Olantxe orduetan, gozatsu! Jainkoak, oituraz, apala dau gorensten, begiak olakoagan ipiñiaz.

Senarra da mintzo kanta onetan. Kanta-gai onetan, aurrenik goratzen Emaztearen txautasuna ta birjintasunaren ederra, eta egoitza ontan lorturik daukazan birtute, doai ta aberastasunak. Kantatzen ditu, baita, alkarte ontan bere Senarra aurkitzean izan dauan poz-atsegiñaren betea, joandako neke-mirien ostean daukan ats-aldi ezti. Eta diño:

Uso zuria barriz.

Uso zuria deritxo arimeari, zuri ta bikain bai dago Jainkoagan aurkitu dauan graziaz arturiko zuri-garbiaz. Orrelaxe deritxo Abesietan be, egazti onen xalotasuna, mantsotasuna, tolesbakotasuna adierazteko; usoa, izan be, olaxe dogu, beazun bagea; begi argiak daukaz, maitagarriak. Egokitasun au azpimarratzeko, Jainkogazko begi-zizta maitakor au adierazo nairik, *usoaren begiak* eukazala ulertzen emon eban (Abesti. 4, 1).

A barrez kutzara jaku biurtu.

Senarrak arimea emen Noe'ren kutzako usoaz bardintzen dau, usoak kutzara egindako osterakaz iduria arturik, arimeari kasu onetan gertatu jakona iruditzat arturik. Usoa kutzara joan-etorrika ibilli zan legez, ez bait eban aurkitzen oiña nun kokatu uiolako uretan, gero olibu-adarra pikoan ebalta bertara itzuli zan lez, lurra beterik euken urak amaitu ziralako Jainko-errukiaren seiñaletzat (Asiera, 8, 8-11); dalako arimea be, Jainko guztialdunaren kutxatik

urtena, sortu ebanean, pekatu ta griña bideetan uiolako urez ibillia, oiña nun ipiñirik aurkitu ezta, egurats zear ara ta ona egaz egiñaz, azkenez maite-lerak jota bere Egillearen bularreko arkara jo eban, berton egotez bildu eziñik; Jainkoak, baiña, azkenik, ugolde-urak geldi-azo zituanean, ots, arimearen griña ta akatsak mozturik, au Jainko-errukizko etxean, or poza ta atsegin osoa. Bere Maitearen bularrean daukazu arimea kezkarik bage; aurka zituan danak azpiratu ditu, eta bere irabaziakaz apaindu da. Garaipentsu dago! Ori adierazi nai dakusku *olibu-abarrak*.

Zuri ta bikain biurtzen da orain arimea bere jainkoaren kutxara, sortua izan zanean legez; eta berak lortu sariaren abarra geiturik daroala. Abesle diardu, beraz:

*Baita usapalak bere
ur-ertz orlegietan
maite eban laguna jarrugi dausku.*

Usapaltxo deritxo emen Senarrak Emazteari; Senarra aurkitzea, ba, maita eban ezkontidea idorotea lez izan da, ibilli ta ibilli ostekoa. Usapalagaitik esan oi da bere ezkontidea aurkitzen ez dauanean, ez da jarten adar muskerrean, ez dauala ur gardenik ez otzik edaten, ez gerizpetan egokitu, ez beste iñorekin alkartu. Baiña aregaz batu ezkerro, guzti orren gozotasuna dauka.

Gaitasun guztiok daukaz arimeak, eta bearrezko ditu, Jainko Semeagazko alkarte ontara eltzerakoan. Aurrerantzean arrimeari egoki jako, ainbat ardura ta maitasun leiaz asea, ez daijala griña-oiña ipiñi atsegiñezko abar berderen baten, ez daila edan nai izan munduko dedu ta aintz-ur gardenetik, ezta izakien babes eta mesederen baten itzalpean jarri, an edo emen edozetariko laguntza ta atsedena izan nairik Bekio eder gauza guztien bakar-ixilla bere Senarragan idoro arte bere atsegin betea.

Arima au, egorra goi-goiko ontara eldu aurretik, Maitearen billa ibilli zan maitasun aundietan, Bera barik ezertan be arnasarik artu ezinda, Maireak berak dabes emen aren neke-miñen amaia eta eukazan joranen betea, *usapalak* dagoneko *kutun eban laguna aurkitu dauala ur-ertzeko toki muskerretan*, esanaz.

Emazte arimea or daukagu erramu berdean ezarri-azoa, bere Maiteagan poza ta atsegiña artuz; onezkero ba-deda Jainkoaren alkar ikuste ta jakitearen ur garden eta goikotik; baita gain beregan dauzan otz eta aringarritik be, berak ain biziro nai izan eban mesede ta babespe jarririk. Emen dozu poztua, elikatua ta guritua Jainkozko gozotasunez. Abestietan ederto: *Opa izan neban aren gerrizpean jezari nintzan, aren frutua gozo nire iztarriarentzat (2, 3).*

OGEITAMABOSTGARREN KANTA

*Bakarrean bizi zan,
ta bakarrean dau abia egin,
bakarrean daroa
bere maiteak soilki,
bakarrean au be maite-zauriz min.*

Irabazi eskerga emon eutsan emazteari bakarrik bizi izateak, bakezko oreka sortzen eta on alda-eziña. Arimea, bada, Senarraren maitasun bat-bakarrean sendotzen danean, emen diñogunak lez, maitasunezko jarleku txit atsegiña dagi arimeak Jaunagan eta Jaunak arimeagan, arimeak beraz ez dau bear beste maisurik Jainkoaganatzeko, Jainkoa ba-dau onezkero argi ta zuzendari. Ara eroan eta antxe aseko dot; antxe bete oi da arimea, Ak barrura berba egin eta ase-betea emonik; biotza ez da beteten, jainkoaz ezik.

Kanta onetan gauza bi egiten ditu Jaunak; *lenengo*, arimeak leen ekarren bakartadea, eder-zoragarria dudarik bage, ementxe bai eban aurkitu ta goza-azo bere Maitea, leen eukazan naigabe ta neke guztiak uxatu eutsozana; leen bakartadean poz, atsegin eta izakien babeski guttiz gabetu nai izan eban ezkerro, Maiteagaz alkartu al izateko, bakartadeko bakearen jabetza be antxe aurkitzea merezi izan eban, bere Maitearen ondoan, naigabe ta kezka barik bizi izateko.

Bigarren, berak gauza guztietaz, bere *Kutunak* sorturiko oroz bakar gelditu nai izan dauan ezkerro, an be, aren bakartasun onekin lilluraturik, aren arduradun egin da, bere besoetan artuz, ontasun

guztiakin aserik, eta Jainkozko gauza garai guztietara zuzenduz. Ez diño bere zuzendari dala jadanik, eta au Berak *bakarrik* dagiala, ez darabillela beste tartekorik, ez aingeru ez gizon, ez irudiz ez itxuraz, berak euki be bakartade onen bidez askatasun betea dau, ezetariko koska edo eragozpenik ez jarteko.

Bakarrean bizi zan

Bakarrik? Ez bakarrik ez; Maitea aurkitu aurretik, bai, bakarrik bizi zan, orain ez, orain Maiteaz alkarte atsegintsuan bizi da; Jainkoa maite dauan arimeari ezerk ez dakartso pozik, billa dabillenean, idoro arte, eremu jako dana, ta eremugille.

Ta bakarrean dau abia egin.

Izaki laiño gaitz-gabe ta lauak atsegin dabe bakar-bizitza; ez dabe izen aundikoa zer opa izatea, ixillaren kerizpetan bizi izanik; osotu ta eder-azoz usapal bikaiñaren antzera. Arimen zentzunduna be, munduko zer guztiai Maitearren agur egiñaz, bakar bizi zan, eta eder-osotuz, Itzaren batasunera eldu arte, orixe bai da bere elburua.

Eta orixe bai da emen diñoan *abia*, au da, egotaro ta gelditasun eta ats-artzea. Bakar eta urduri ebillen leen, osorik ez egoalako, lan-arteko kezka, baiña gaur-gero osotua dago-ta, Jainkoagan dau atsedeen betea. Gai oni jarraiki, Dabid¹ ek ederto: *Txoriak etxea aurkitu dau beretzat, eta elaiak abia bere kumak aztejo* (Sal. 83, 4). Au da, jainkoagan egoitza, bere lerak eta aalmenak nun asebite.

Bakarrean daroa.

Au esan gura dau: zer guztiz aldendurik arimea, Jainkoak bakarrik bizi dau, eta Ak bakar-bakarrik, eta soilki, igi-eragin, zuzendu ta goi-gauzetara jaso dagiala; au da, bere *adimena* Jainkozko gauzak ulertzera, onezkero billosik eta uts aurkitzen bai da gaiñontzeko ulertze bitxi guztietaz; eta *naimena*, aske dabil Jainko-

maitasunean, au be uts eta soil-soil barne-eragiñez, eta beterik gogamena jainkozko albiste ta barriz, au be ba onezkero bakar aurkitzen da uts beste irudipen eta asmakizunetatik.

Izan be, arimeak almenok garbitu ta, bee ta goi, utsik, loi ta zakar barik iztean, beingoan asten da Jauna bere lanean, eta Jainkozko zer ikusgaitzez ornidu oi ditu eurok; eta Jauna bera da bakar-leku onetan dauan zuzendari. Ona eldu diran osoai buruz diño Paul doneak: *Jainkoaren espirituak darabiltzanak, Jainkoaren seme dira* (Errotu. 8, 24). Edo-ta bardin dana: Bakartadean zuzentzen ditu.

Bere Maiteak soilki.

Esan-naia au dozu: arimea ez da bere bakartadean Maiteak eroana soi-soil, orrez gairi Maitea bera da aregan lan dagiana, *bakar-bakarrik*, beste tarteko bage. Auxe bai da, ain zuzen, alkarte ontan arimeak eta Jaunak, *Espirituzko Ezkontzan*, batasun oni dagokiona: Jainkoak berak eroan aren gauzak eta aren artu-emonetan Berak bakarrik eratu ta erabagi, ez aingeru ez berezko trebetasunik erabilli barik; zentzunak, ba, ez barruko ez kanpoko, ez izakoak, ez arimeak berak, ez dagi zer askorik Jainkoak egoitza ontan egiten dabezan goi-maillako mesede aundi oneik artzeko. Ez dira arimearen patu ta gaitasun barru jausten diranak: Berak bakarrik egiten ditu ariman, eta bakarrik aurkitzen daualako da.

Sari antzera be olako zerbait bear zan; bitarte guztietatik ibilli da arimea, Jaunagan igonik. Bera izan daitela onakoaren zaindari ta zuzenle. Bakartadean arimea guztiaren gaiñ-gaiñetik, ezer be jadanik ez jako probetxugarri eta eztau bear be gorago igoteko izan dan Senarra bera besterik; Berau agaz benetan maite mindua egonik, Bera bakarrik da, *bakarrean*, esandako mesedeak egin nai dautsozana. Oindiño be diño:

Bakarrean au be maite-zauriz min.

Bakarrean bai, au be, bere emaztearen maite-zauriz mindua. Senarrak egiazki maite izanik arimearen bakar-izatea, geiago daukazu aren maitasunez zauritua, gauza guztiai agur egiñik berak

bakarrik geratu nai izan daualako; beraz, Berak ez eban bakar itxi nai izan, bestera baiño, Beragaitik arek daukan bakartasunagaitik zauritua, ezek be ez dauala poztu-azoten Berak ezik, Berak bakarrik zuzentzen dau, Beragana erakarri ta maite-sutan suntsiturik; au ez eban Maiteak egingo espirituzko bakartadean aurkitu ez ba'leu.

OGEITAMASEIGARREN KANTA

*Goza gaitezán, Maite,
ta goazen zeure doaiz asetzen
ur gardena darion
mendi-muino aldera;
barnego itzalean sartu gaitezén.*

Bitxia da Maitaleak euren artean daukien oitura au; lagunakaz baiño gurago izatea bakarrik egotea. Alkarregaz egonik be, lagun ez-ezagunen bat baldin ba'bado euren aurrean, gauza interesgarri-rik erabilli ezta be, ta arrotz areik ezetan be eskurik sartu ez arren, naikoa da euren gustora ez aurkitzeko. Errazoia: maitasuna, biren batasuna da-ta, bakarrik adierazo nai dautsez alkarri euren gauzak.

Arimea, ba, Jainko espirituzko osotasun eta askatasunaren kukutz onetan jarria, ez dauka beste zerik, ez ulertu ez zertan jardunik, Senarrari emon eta barru-barruko gozotasun betean atsegin artzea baiño. Tobias santuak, gorriak ikusi bear izan ebazan bere bizitza txiro ta beartsuan, baiña Jainkoak azkenez argitu eban eta arrezkeroko egunak zoriontsu igaro ebazan (14, 4). Era berean arima onek.

Arimea daukagu emen kantari, azkenengo bost estrofa oneitan. Dontsu dagian janari au, atertu bako eskarian dagokio Maiteari jainkoaren ikuskari agirian.

Arimearen eta Jainkoaren maitasun osoa egiña dan ezkerro, arimea saiatu nai da maitasunak daukazan egokitasunetan. Kanta onetan, beraz, arimea bera mintzo d'a Senarragaz, maitasunari ondo ta berariz *iru* gauza eskatuz:

Lenengo, maitasunaren kera ta gozotasuna artu nai ditu, eta orixe eskatzen dautso Maiteari, au diñotsonean: *Goza gaitezen, Maite*.

Bigarren, Maitearen antzeko, gisako biurtu nai leuke, eta auxe eskatzen dautso, diñotsonean: *Goazen zeure doaiz asetzen*.

Eta *irugarren*, Maite orren gauza ta ezkutuak arakatu ta jakin-azo, eta au eskatzen dau dirautsonean: *Itzalean barrurago sar gaitazan*.

Goza gaitazan, Maite.

Au da, maitasun-gozotasuna alkarri erakutsiz, ez bakarrik bion oizko alkarreak damoskunean, baita oraingo maitatze biziak dakarskunean be; zein naimenaren barru-eragiñez zein Maitearen zerbitzuko kanpo-gauzetan jardunaz. Benetako maite-suak auxe dauko euki be, bere ezti ta gozamen eta arduratu nai dauala. Eta au egiten dau bere Maiteagaz kidekoagotu gurarik.

*Goazen ur gardena darion
mendi-muiño aldera*.

Bai, maite-ariketaz eldu gaitezala zeure *edertasunean* alkar ikusi ta maitatzeraiño. Betiereko bizitza dozu Maitearen edertasuna. Ni Zure edertasun biurtua, ederrean bardin izanik, biok zure edertasunean, batak besteari begituz, batak ikus daiala bestean zure *edertasuna*; onena ta arena zure *edertasun* bakarra izanik, zure ederrean ni zurgatua.

Olan nik Zu ikusiko zaitut zeure ederrean, eta Zuk ni ikusiko nozu zeure ederrean, eta olan ni Zu irudituko zeure ederrean, eta Zu irudituko zeure ederrean, eta olan ni Zu izango naz zure ederrean, eta nire ederra izan bedi zure ederra ta zure ederra nire ederra; eta olan ni Zu izango naz zeure ederrean, eta Zu izango zara ni zeure ederrean, eta olaxe izango gara bata bestearentzat zeure edertasunean.

Auxe da Jainko-Semeen semetzakoa; eta egi-egiaz esango dau-
tsoe Jainkoari Semeak berak Juan deunaren bitartez Aita Betikoari

esan eutsona: *Nire guztia zeurea da eta zeure guztia neurea* (17, 10). A izatez, berezko Sema baita, gu partzuergoz, semetzakoak garealako. Orrela adierazo eban Berak, ez berenez bakarrik, burua da-ta, baita bere gorputz mistiku osoz be, ots Eleizaz. Onek Senarraren *edertasun* berbera izango dau bere garaikuntza egunean, au da, Jainkoa bekoz beko ikustera eltzerakoan. Orixegaitik eskatzen dau emen arimeak ur gardena darion muiño-aldera egiteko, Maitearen *edertasunera*.

Arimeak, ba, Senarrari: goazen mendira, zeure edertasun betean ikuskatu gura zaitut; aldatu ta kidetu nagizu zeure goi-jakiturizko eder bizi-jorian. Ori zara Zu, eder-ederra, Jainko Seme ori; eta ase nagizu Jainkozko indar, jakite te gozotasunez; erakuts eidazuz zure izaki ta egiteko ezkutuak. Guztiok egiten dabe zure edertasun betea.

Ur gardena darion mendira.

Ur gardena emen Jainko-barria da, goi-goitik datorrena. Garbitu egiten dau adimena, eraskin, irudikizun barik garbi ta aratz itxi; ezjakin-laiñoetatik be argitu ta ikusgarri jarri; au opa eban arimeak be, argi ta garbi ulertu Jainkoagandiko egiak. Eta, ikus!, arimea, maiteago ta zoliago Jainko-gauzetan eta barrurago sartzen.

Barnego sar gaitzean itzalean.

Zeure egintza arrigarri ta erabagi sakonen itzalean, toki estu ta itxian, gauza askoz ta mota askotakoz betean. Ba-da emen jakiterik, ba-da misteriorik. Jainkoaren jakiturizko ta zientzizko leza sakon au, neurri ta amai-eza bait da, arimeak ortaz asko jakiñik be, beti barruragotuz joan daike, Paul deunaren esanaz diralako aren aberastasunak: *Sakonak benetan Jainkoaren aberastasuna, jakiturisa ta jakintza! Bai aztergaitzak Aren erabagiak eta barrendu-eziñak Aren bideak!* (Errom. 11, 33).

Arimeak, alan be, oian trinko ta naspiltsu ontan sartu nai dau, iltear dago-ta bertoko bizitzaren barri euki naiez, zentzun oro gaintitzen dauana dalako orrek dakartson atsegiña. Eta ori jadetsi

eziñetik datoz oi oneik: Oi nor legoke jakituri ta edertasuna orrein baitan! gurutzearen zoramenean, bardin daust. Gurutzea ei da, Paul deunaren esanetara, Kristoren altxortegi ta aberastasunetara sartzeko. Baiña, bertatik sartu gura izatea, gitxi opa dauana dozu; ortik datozen pozak nai izatea, ostera, askorena.

OGEITAMAZAZPIGARREN KANTA

*Eta andik aurrerantza
artzulo goitara goakez gero;
txit ostenik bait-dagoz;
an bi-biok sarturik,
granada mistela dogu txastauko.*

Arimeak bizi-bizi nai dau gorputzez *askatu ta kristogaz ikustea* (Pil. 1, 23); eta an, beste bizitzan, arpegiz arpegi alkar ikustearren dozu; an ikusi ta barrendu bai Gizakundeko bide sakonak eta betidaniko misterioak. Au ez baita bere zorioneko zatirik kaskarre-na. Kristok berak diño au Juan deunez: *Auxe da betiko bizitzo, ezagutu zagiezala Zu egiazko Jaanko bakar ori, baita Zuk bialdutako Jesukristo be* (17, 3).

Origaitik, oar erdiratze edo bardinkuntza oni: pertsona bat urriñetik eldu danean, lenen-lenen dagiguna da begiko doguna ikustea; olantxe arimeak be aurrenen egin nai dauana, Jainko-bizitzara eltzerakoan, Gizakundeko ezkutu ta misterio sakonak, eta bardin jainkoaren *betidaniko bideak* ezagutu ta goza-azo.

Jainko-jakituriaren egiñik nagusi ederrena, bere Semearen Giza-kundea izan zan. Arimearentzat, ba, berau ezagutzeak benetako garrantzia dau. Gora aundikoa dozu au, izan be, Gizakundearen ederra ezagutu ta Aren beste egintza eder guztien aunditasunez gozatzeko. Aurrerago egin nai dau arimeak; Jainko-jakintzan aurrerago jo, au da, orain dagoan *espirtuzko ezkontza* barrutia baiño be aurrerago. Au betiko aintza ta gozotasunean izango da, Jainkoa bekoz beko ikusiaz, arimea Jainkozko Jakituri orregaz, Jainko-

Semeaz bat-egiñik; orduan ezagutuko ditu Jainkoaren eta Gizonaren misterio garaiak, Jainkoagan gorderik dagozanak.

*Andik aurrerantz, egiñaz
artzulo goitara goakez gero.*

Emen aitatzen dan *arri-zuloa* Kristo da, Paul deunak diñoanez: *Guztiak ondotik jo ekien arririk edan eben; arri, barriz, Kristo zan* (1 Kor. 10, 4). Arri onen zulo ta uskuneak Kristogan dagozan Jainko jakiturizko ezkutu garaibarrenak; giza-izateak Jainko Itzarekin daukan ipostasi-alkarteatzaz Kristok daukanari dagokionez eta giza-semeak oni Jainkoagazko erantzunari begira batez be; eta gizadi-osasunari dagokionez zelan agertzen dan bere epai eta erabagietan, zuzena ta errukia erabilli ta irabiatuz ain zuzen. Goi-goikoak bai dira zerok, *garai-garaiko artzuloak* deritxe, misterio aundiakaitik, eta leza ta arpe sakon-sakonak, Jainko-zador eta ezkutuz aserik dagozalako.

Utsune ta zokoz beterik daukazuz lezak; era berean, Kristogan dagozan misteri baxotxa be guztiz sakona dozu jakintzaz; barren, arte ta galtzarrik asko daukaz, gorderik, gizasemeai buruzko Jainkoaren erabagi, aurrez jakite ta gero-jakiteko arazoetan.

Txit ostenik bait-dagoz.

Eleiz-irakasleak eta ortan jardun diran arima santuak asko barendu ta ulerturik euki arren, bizitz ontaz asko gelditzen jake oraindik esateko, Kristogan ba-da oindiño ikasi ta azertu bearrik; leza aberatsean zear ibilli dira ta ba-dabiltz gaur be, altxor bikaiñez inguraturiko bideetan, toki baxotxean, an eta emen, meatz-adar barriak aurkituz. Paul deunak egoki: *Kristogan dagoz jakituriaren eta jakintzaren ondasun guztiak ostenduta* (Jol. 2, 3). Arimea ona ezin daiteke eldu, ez bertan sartu, barru ta kanpo jasan-egituratik ibilli bage, Kristoren misteri aundi oneitara ezin eldu Jeitekelako asko sufridu ta Jainkoagandik adimenezko ta zentzunezko meseda ugari artzeko gai izan ezik.

Arimeak, ba, egi-egiaz ta gogotsu *artzitlo* orreitan sartu gura dau, euretako jakiturizko maitasunean murgildu, eraldatu ta orditu nairik, bere Maitearen bular gordeak kokatua. Maiteak berak oiuka diñotsa Abestietan: Jagi *zaitetz, ene maite, nire eder ori, eta zatoz Nigana! Bai, zatoz, abiak aitz-zuloetan eta antiltegi-arrakaletan egiten dituzun ori!* (2, 13-14).

An bi-biok sarturik.

Antxe, ziur asko, Jainkozko barri ta ezkutuetan *sartuko gara*. Ez diño *sartuko naz* bidezkoago eritxona, Senarrak ez bait eukan barriro zertan sarturik; *sartuko gara* diño, au da, biok, Maitea ta biok, aitzen emotearren batez be lan au ez dagiala berak, Senarrak berarekin batera baiño; orrez gaiñera, egoera ontan arimeak ez dagi ezertxo be bakarrik, Maiteagaz batera baiño. An, ba, alkar artze gozatsuan, eraldatuko gara jainkozko epai atsegingarri onein maitasunean.

Estu ta gurenki eraldatzen da arimea Jainko-maitasunean gai barri onei buruz, Aitari eskerrak emonez eta maitasuna erakutsiz, Jesukristo bere Semagaitik. Onetan diardu arimeak Kristori itsatsirik eta Kristogaz batera. Goralpen onen gozotasuna, barriz, samur-samurra dozu eta esan-eziña. Arimeak, baiña, kantari:

Granada mistela dogu txasta uko.

Granadak emen Kristoren misterioak dira, eta Jainkoaren sabiduriaren *erabagiak*, eta Aren birtuteak eta ikur-ezaugarriak, asko be asko diranak eta misteri ta epai oneik ezagutuz ezagutzen dituzunak.

Konta-ezin-ala dira, eta granadak garau pitin asko daukiezan lez galtzar biribil erne ta aziak, era berean Jainkoaren gaitasun, misteri, epai eta birtute bakotxak be, Jainko beraren erabide, agintza izugarri eta ondorio berebizikoz gaiñezka daukazuz birtutezko ta misteriozko kolko borobillean.

Azpmarratu daigun emen *granadaren* irudi biribilla; granada bakotxa dogu emen Jainkoaren edozein doe naiz gaitasun, *biribilla*

Jainkoak ez bait dau asierarik ez azkenik. Abestietan gauzea duinki edierazota. Emazteak diñotsa Senarrari: *Marfilezkoa da zure sabela, zafirotan banatua* (5, 14). Jainkozko erabagi ta ezku tuak dira *zafirok*, ari-pitxi au da-ta, benetan pitxia, zeru kolorezkoa argi ta garden dagoanean.

Granaden *mistela*, emazteak emen aitatzten dauana, berak eta Senarrak edango dabena, Jainkoaren maitasunaren gainezkaldia dozu; Jainkoa ezagutu ta maitatzeak dakarren atsegiñaren betea. Granada garau askok dagi mistela, orobat ariman ixuritako gauza miresgarri guztiok be maitasunaren gainezkaldi zoragarria sortzen; mistela dozu *Espiritu Santuaren edaria*, eta arimeak gero bere Jainko Itz egiñari eskintzen dau tso maite-su samurrez.

Orixe adierazo nai dau granada mistela dogu *txastauko* esatean. Maitasun ardaotan damotsa Kristori ezagueraz eta maitez daukana oso-osorik. Eta ak txastaturik, arimeari emoten, eta onek txastaturik, Ari damotsa gustatu daian; olan, bien gustokoa da edaten dabena.

OGEITAMAZORTZIGARREN KANTA

*An Zuk erakutsiko
nik apeta biziz gogo nebana,
baita emongo bere
an Zuk, ene bizia,
beste egunean emon zeustana.*

Aurreko kanta bietan emazteak abestu ditu Senarrak zorientasun berikoan emon bear dautsazan ondasunak, au da, Kristok sortu ta sortu bako bere jakituriaren edertasunaez asetzean artuko ebazanak. Auxe da, beti opa izan dauana, ta orain be, iñoizkorik gartsuen opa dauana: Kristok maite dau eta berak be, erantzuki, Ak maite dauan lez maite izan nai dau, garbi ta osoro. Eta an erakutsiko dautsola diñotsa Maiteari, gurentasun betean, bortizki maite izaten. An emongo dautsa orrez gairi bene-benetako aintza, bere betiraun-egunetik artarako aukeratu eban eta.

*An Zuk erakutsiko
nik apeta biziz gogo nebana.*

Maitasunean bardin izatea nai dau arimeak, bai be-izatez eta bai goi-izatez, maitalea ez bait dago egundoño ase-betea bera maitatua dan bestean berak be maite ez ba dau. Eta arimeak, bizitz onetan jainko bihurturik dagoala ikusi arren, maitasun lrrkaragarritan bizita be, Jainkoak maite dauan maitasun betera eldu ezin dan legez, maitasun orretan kidetzera elduko dan aintzako Jainkotze argia opa dau. Izan be, orain daukan egoera garai onetan naimenezko alkarte egiazkoa euki arren, ezin da gero aintzazko batasun sendoan eukiko dauan maite-lege on-maillara eldu. Paul deunak: *Orain ispilluz eta illuntsu ikusten dogu, baiña orduan arpegiz arpegi ikusiko dogu. Orain erdizka ezagutzen dot; gero, barriz, neu ezagutzten nazanez ezagutuko dot* (IKor. 13, 12).

Orduan maite izango dau Jauna, Jaunak bera maite dauanez; bere adimena arduan Jaunaren adimena izango da, bere naimena Jaunaren naimena; bere maitasuna olan Jaunaren maitasuna izango.

Arimea ez dago pozik onaiño eldu arte, ez bizitza ontan, ez bestean; ezta zeruan be ez litzateke pozik egongo, Akino'tar Tomas deuneak diñoskunez, Jainkoak aiña berak be Jainkoa kutun dauala somatuko ezpaleu. *Espirituzko ezkontza* ontan, sasoi onetan, aintzazko maitasun osoa izan ezta be, ba-da, orraitino, guztiz esan-eziña dan osotasun aren antz eta irudibizi bat.

*Baita emango bere
an. Zuk, ene bizia!,
beste egunean emon zettstana.*

Zer emongo leuskio? bene-benetako aintza. Zertan datza? Jainkoaren izatea *ikustean*. Duda bat, askatu bear dana. Zergaitik, benetako aintza jainkoa ikustea bada ta ez maite izatea, emen diño arimeak maitasun au zala bere jomuga, eta ez dau aitatzten benetako aintza; kantaren asieran jarten dau, eta gero, orri jaramon gitxiago egiñaz, benetako aintzaren eskabidea dana?

Errazoi bigaitik dozu au: *lenengo*, ooren *elburu* maitasuna da, naian eusgarritua, eta oni dagokio emon eta ez artu; eta benetako aintzaren eusgarri dan adimenari dagokiona, barriz, artu ta ez emotea dozu; emen, ostera, arimea, maitasunez txerbel egonik, ez jako begi aurrean jarten Jainkoak emon bear dautson aintza, bera Ari emotea baiño maitasun osoz.

Bigarren errazoa, Jainkoaren ikuste oso barik eziña dalako Aren maitasun egin-egiñera eltzea. Olan duda orren korapilloa lenengo errazoian askatzen da, maitasunez ordaindu daroatso, ba, arimeak Jaunari zor dautsona.

Baiña azaltzeari jarraituz, ikusi daigun ze *egun* dan emen diñoan beste *a*, eta zer dan alako *beste a*, Jainkoak emon eutsona, eta aintzarako be eskatzen dautsona. Beste *egun a* Jainkoaren betierea dozu, aldiko egun au barik *beste bat* dana. Betierako egun aretan aukeratu eban arimea aintzarako, orduantxe erabagi eban zelako zoriona emongo eutsan, eta askatasun osotan emona eutsan, asiera bage, sorrtua izan aurretik. Eta *a*, izan be, eukite ori arimearena berarena da oso-osorik eta ez kemenik eta jazorik ezta izango kenduko dautsonik, iñoiz bere ez, eta Jainkoak asiera bage emon eutsana, amai barik berea izano dau beti-betiko. Eta auxe da beste egunean emon eutsola diñoana, ta beti-betiko. euki nai dauana.

Itz asko dira *a* izkia adierazteko, eder eta sakonak, baiña bat bera be ez deritxot naiko bere esan-gura osoari erantzuteko; aunditasun eta edertasunez gainezka, baiña ez gaia bere betean adierazteko lain. Kristok diño: *Irabazi dagiana, nire errege jarlekuan Neugaz jarre-razoko dot, neuk be irabazi nebanaz eta nire Aitagaz Aren errege jarlekuan jazarri nintzanez* (Apok. 3, 12).

Kristorenak dira itzok, baiña ez dabe oraindik zeatz-meatz azaltzen; onela ditugu gauza aundiak, itz eta berba guztiak ederbikainak, egokiak eta errotsuak, baiña eurotatik batek be ez dau gauzea ondo azaltzen, ezta danak baten be.

Ikus daigun orain Dabid'ek zer drauskuz ontan. Au diño: *Zure zintzoentzat* gordeta daukazun ontasuna, bai dala aundia, Jauna!, guztien aurrean Zeugan josten dabena emoten dautsezuna! (30, 20).

Arimeak emen diñoan *a* izkiari egoki datorkion zerik aurkitu ez arren, Jainkoak betikotasunetik emon eutsan zoriontasuna dozu, beti opa izan dauana. Au da: arimeak, *beste egunean emon zuestana*

esatean ez diño besterik; *a*, emon zeustan *a*, esango ba'leu lez, aurrez aukeratu ninduzun aintza-sorta *a*, oi ene Maitel!, *zeure betiereko egunean*, ni sortzea erabagi zenduanean; gero emongo daustazu an, neure eztegu egunean eta neure biotzaren poz-egun betean, aragitik jareñik zeure ezkon-ogearen artzuloetan eraldurik, edan dagigunean granada gozoen mistela.

OGETAEMERETZIGARREN KANTA

*Aizearen ats emea,
txindor eztiaren maite leloa,
ibar ta ango giroa,
izar dan gau parean
min gabe erretzen dauan sugar lanboa.*

Aizearen ats emea, arnas-artze gozoa arimearen girora, igurdizi trebea dozu Jainkoak an Espiritu Santuaren alkartzean emon oi dauana; berezia dozu berau. Arnas artzean orain artu egiten dogu, gero bota; batari arnas-gora besteari arnas-beera esanik. Espiritu Santuak bere jainkozko arnas-artean gaitu ta trebetu egin daroa arimea beronek be arnas-artze bardiña euki daian Aitak Semeagan eta Semeak Aitagan, arnas-egiña, au da, Espiritu Santua bere Aitagan eta Semagan arnasten dauana bere-bere egin alkarten dauana. Benetako alkartzea ez litzateke izango, ba, arimea, agiri ta nabari. Irutasun santuaren *iru Pertsonetan eratu* ezpalitz.

Aizearen ats emea.

Eta Espiritu Santuaren ats-artzea, arnaste au, Jainkoak beretzen dauana atsegin sakon gozoena jako arimeari, ez bait dago berau adierazteko min ilkottik, ezta adimenik be berau zer bait jadesteko gauza danik; Jainkoaz alkartu bat egiñik, Jaunagan dau arnas-artzen, Jauna bera, Jainkoak berak lakoxe arnas-artze jainkozkoa; bera, arimea, jainkogan biurtua dagoan ezkerro, au Beragan arnasten dau.

Arimeak bizitza ontan daukan jainkotzean be Jainkoagandik arimera ta arimeagandik Jainkoaganako arnas-artze bardiña jazoten da, naikoa sarritan, arimearentzat maitasun bete zoragarria dalarik rez nabari ta agirian alan be, beste bizitzan izango dan legez.

Ez jo au gauza ezintzat, arimeak gauza ain garaia al dauala, arimeak Jainkoagan asnastu daiala, Jainkoak beragan, partsuergo edo kidetzat legez, arnas artzen dauan bezela. Jainkoak Irutasun Txit Deunagaz alkartzeko mesede aundia egin dautson ezker, olan arimea jainko-irudiko ta kideasunez Jainko egiñik, nok galazoko dautso berari be, adimen, albiste ta maitasun-lana egitea, Irutasun Deun-deunak lez bere lana beronekin batera egitea? Auxe bait da, iru Pertsoakaz almenez, jakituriz eta maitasunez bat eginda egotea. Eta onetan arimea Jainkoaren antz-antzeko da, Auxe izatera eltzeko egin bai eban bere *irudi ta antzeko sortu* (Asi. 1, 26).

Txindor eztiaren maite-leloa.

Aize-artze arek ariman erne-azten dauana, Maiteak berari diñotsan aots gozoa, da, eta onetan dagitso arimeak Ari poz-artze berebetea; bioi diñotse emen *txindor-abestia*. Txindor edo urretxindarren kantua udabarria igaro ondoren, atzak, euriak negu-aldakuntzak joan ostean, entzuten da, belarrirako melodi ezta ta pozatsegiña espirotuarentzat, ori bera emazteak be, bizitz onetan onezker, maitasunean murgil eta babestua, garbitua ta laiño barik, ez zentzunez ez espirotuz, udabarriko giro barrian somatzen da aske ta zabal eta barne-alaitasunez gaiñezko.

Arimearentzat aots au bere Senarrarena da, ezti, gozoa, bera arima barrena bizkor-azo ta ozkirritu oi dauana, olan betiko bizitzarentzat egoki atondua doana. Ezti-ezti sentitzen dau Aren oiva, Abestietan zoragarriro dirautsona: *Jagi zaitez -diraust-, ene maite, ene eder ori, eta zatoz Nigana! Izan be, joan da negua, ez da euririk geiago ta aterraraldia dator, ibarrean lorak agiri dira, eldu da iriauskaldia, landetan usapalaren urrumadea entzuten da; pikondoari frutuak emoten asi jakoz* (2, 10-13).

Olantxe da arimearen kanta gertatzen dana bizitza ontako eraldatzean, gozo-gozaoa be ezin esan lakoa. Baiña oraindik betiko zorioneko kantu barria baizen betea ez dan ezker, emen somatzen

dauana txastaturik, betiko zorionean izango kantu onen edertasunaren aundia usmatuz, angoa askozaz be aundiago izango dalarik be, an emongo dautsona izango dala, diño, *urretxindor eztiaren kantua*.

Ibar eta ango giroa.

Ibarretan ortuak eta baratzak egon oi dira. Landa mota ugari ta abereak ez gitxi. Emen Jainkoa aitutzen da, izakiak biziratu, ugaritu ta babesten ditulako bai lurrekaok eta bai zerukoak, Aregan susterra ta bizia izanik.

Bazter itxitu eder onek badau bere zoramena, eta orixe da arimeak ordurako bere Senarrari eskatzen dautsona, Jainkoak ez bakarrik bere sorkarrietan ixurita daukona, baita euron artean aurkitzen dana be, era, jakituri, esker eta gozotasuna be, bai goikaetan eta bai beekoen artean, arimeari eurok ezagutuz egiazko jas eta zartada dakartsona.

Eder dan gau narean.

Gau narea diño, izartsua, bake ta sotilla, arimeak gauza oneik ikusi nai leukezana dozu. Kontenplaziño edo mistika teologi illuna, eta Jainkoaren jakituria, *ixilla ta gordea*; emen, izan be, itz-ots barik, ez soiñezko ez gogozko zentun bage, geldi ta ixillean lez Jainkoak erakutsi oi dau, arimeari erakutsi be, ixil-ixilka, arimea bera be zelan konturatu barik; oni diñotsoe gogo-zale batzuk *ulertu bage ulertua*. Au ez bait da jazoten jakinlariak diñoen adimen *eragillean*, onen lana gorputz aalmeneneran, irudikizun eta atxiki-aldietaz egiten baita. Au, ostera, adimenaren egiña da, *izan daitekena ta artzaille danez*, eta olan dalako itxura ta erak artu barik, *ezer egiteke*, irudia- ren ulertze soil-soilla.

Origaitik *gau* esaten jako ikuste oni eta bizitza ontan ezagutzon dau arimeak, daukan biurtzearen bitartez, aindikiro ezagutu be, *jainkozko ibar au* eta *beronen sotiltasuna*. Baiña oso garaia izanik be barri au, *gau illun* da oraindik arimeak emen eskatu daroan zoriontasun bete-betearen ondoan; amaira bedi, ba, emengo ikuste illuna

ta betor ango jainkozko ikuste argi ta nasai ta narea. Dabid erregeak ba-diño onetaz zarbait 138'garren salmoan. Au da: ni nagokenean Jainkoa aurrez-aurre dadola, orduantxe egun biurtuko da oso-osorik ikuste gaaua, nire adimena eguneko argi-dirdirez aseturik.

Min gabe erretzen dauan sugar lanboa.

Su-gar, su-lanbo, su-galda, dana dozu zer bardiña, ixeturik gora doian suaki darion garra. Gar au, Espiritu Santuaren maitasuna dogu emen. Miñik emoteke, apurka apurka erre, osotu ta amaituaz doan sua. Auxe da Maiteari eskatzen dautsona eta emon bear dautsona maitasun bete-betean, miñik *ez dakarrenez*.

Ortarako gaitasunez jantzia izan bear: arimea zuzitu ta Jainkoagan biurtu ta gar-egitean ez dauala oiñaze ta miñik emoten, eta au zoriontasun utsean gertatzen da, bien, arimearen eta Senarraren maitasuna txit leuna baita. Maitasuna ba-doa aldatuz, beekotik goikora, errez eta aituz, galdatuz, txingartuz eta auts biurtuz.

Gora igote orrek ba-ditu bere goraberek. Jauzi bat da, mendiko troka baten une batetik bestera egin bear dana: naizta jainkoa izan, beeko malda au itxi ta gaintxo dagonera igarotea. Arima otoizlari ta onak ba-dakie onen barri. Mairasunezkoa da. Gure izate sentikor, aul ta ustelkorrak, maitasunez astun dan aunditasun indartsuaz alkartzerakoan, naitaez somatu bear galpena. Beste bizitzan ez da olakorik, Jainkoak beteko ta astuko bai ditu gure adimena bere jakiyuriz eta naimena bete maitasun gartsuz.

MAITE-SUGAR BIZIA

SARRERA

Donibane Gurutz sarri aurkitu zan ezbaian, bere lan bati izenburua jarterakoan edo-ta gaia, ezkutu ta zailla zalako, zelan adierazo igarri Berak orrela diño beintzat. Alan be, oso egoki ipiñiak dira bere lanen tituluak; ez egoki bakarrik, baita lirismu aundiz eta olerkitsu be bai. Berberak asmautakoak gaiñera: "Igoera", "Gau illuna", "Maite-kanta", "Maite-sugar bizia". Saia zaitez obeak asmatzen.

Maita-kantari ezer kandu barik, emen geratu da gure idazleak arrigarrirro gauzatuta; poema ta azalpena, bere bizitza mistikutik erneak, betiko izki aunditan ezarriak. Azkenengo liburua, garxinpartaka; ez jatzu errez izango beste mistiku edo santu bat, bere barru-experientziak, orren bero ta txukun adierazten. Eskabide baten ondorena dozu. Eta noren itzala tarte, alako lana burutzen. Gure "Orixe'k" be au diño: "Maite-sugar *bizi* du Ibane'k olerki iatorra, biotz-eresi naasgabea".

Orrela merezi eban, itxura danez, eskiñi eutson andra guren Jainko-zaleak. Mesede egille aundia zan au, Granada'n bizi zana. Donibane Gurutz, 1582'garrenean, urtarrillaren erdirantza, komentu barri bat jasotera joiazen karmeldar mojakaz eldu zan ara, lenengo aldiz. Ango gotzaiñak, lenengotan baimena emon eutsen arren, gero atzera egin eban, eta Perialosa'ko Ana'k bere etxea eskiñi eutsen, janaria ta bear ebezan beste gauza guztiak emonik. Emakume zintzo esku-zabala! Beti izan eban karmeldar moja ta prailleen ardura. Eta azkenez, Aita au Ubeda'n il zanean, andik Segovia'ra, bere aginduz eta pentzura ekarri eben, Santuaren gorpua.

Barne-egoera bizian, egin-egiñean aurkitzen zan Juan Gurutz liburu au idaztean, Jainkozko arnasa beroak indarturik. Epe laburrean osotu eban, 15 egunean diñoenez. Garai aretan Aita Probintzialaren ordezeko zan, Granada'n bizi zalarik, Andaluzia guztikoa. Lan au arakatu ta pizkat barriztatu egin eban La Periuela'n, 1591'n Madrid'en ospatu zan batzarrean kargu barik geratzerakoan, ona bai zan baztertu. Andik laster il zan Ubeda 'n, 1591 'ko gabonillaren 14'an.

Juan Gurutzekoaren olerkiaz iñok ondo idatzi ba'dau, oraintsu illa dan Damaso Alonso dogu. Onela diño: "Jainko batasunaren misteriora, sakon eta leiaz, -buru-tapen eta zoriaz- geien urreratzen dan poema *Maite-sugar bizia* da. Laburra dalako edo, azkeneraiño daroa asitako iduria, eta egin-zoria be bardin, gartsu ta bete-bete azkeneraiño. Su-garra dau erdiko goiburu ta ikur-itza, bakarra esan geinke. Beti ixeturik daukaguna, lenengotik azkenerarte, experientzi mistikuan oiñarrituta. Irudiak, garbi ta neurtuak, bizi-bizi dizdiz dagie".

Literatur era be gaiaren mamirietik ernea dozu, idazleak ia beti egin oi dauan lez: zelako guna, alako jantzia. Mundua or geratzen da baztertua, emen Jainko-bizitzaz diardugu sakon baizen aundikiro. Maitasuna ari da jardun bizkorrean; olerkariak lenen, leun-leun, zakarkeri barik azaltzen dausku arimearen egoera, gero bat-batean *oiko* asten jaku berak barruan daroana adierazo nairik. Prosaz diarduanean be, sarri ez da jasten eder-mailla ortatik.

Liburu guzti onetan jomuga berezi bat darabil: Jainkoaren zer arrigarriak adierazo. Jainko irukoitza danez alan berbere lan aintzagarrian. Mistika barruko goi-irakatsi bikaiña. Jaunaren mesede, grazi ta doaiak zer diran, zetarako ez ditu ikutzen, ori egiña itxi euskun *Maite-kantan*; orain beste alderdi bati daragoio. Eta emen gai ezin bategaz topo dagi: Espiritu Santuaren arnas-egitez; Jainkoaren lana ariman, ixil eta barrenkoia; arimeak beretik ez dagi ezer, zoztorrik ez ipiñi, maitatzen itxi.



Bost zauri daukaz Aita Juan'ek bernan.



Gaixo-aldian Jainkoa jatorko ikusten.




Areik eta oneik, danak ari laguntza eskatzera.



Arrigarri asko egin ebazan Jaunak Juan deunaren bitartez.



Gurutzeko Juanen erliki billa.



Santa Teresa'ren irudi batek Juan Gurutzekoaren erliki bat ar^gitzen. dnii C,ranAckl'n.

LENENGO KANTA

*Oi maite-sugar bizia!
samur zauritzen dozuna
neure arima-muin erdi-erdian!
Orain ez bai zara muker,
amaitu, olan nai izanez,
jo alkarte ezti onen eunean!*

Arimeak, Jainkoaz bat-egiña ta maitasunetan asea, aintzazko ibaian uger, zeruko zorionetik ur-ur dagoala uste dau; miesa mee bat baiño ez dauala tarteko.

Eta beragan su dagoan maitezko gar samur arek ikutzen dautson baktxean ainitz leun sendoz gero ta geiago goretsiz lez dagoala ikusirik, laster etengo dala betiko bizitza emongo dautsan eun ariña, gurari biziz diñotso *sugarrari*, Espiritu Santuari, ausi daiala onezkero bizi ilkorraren euna ta emon daiola orren leiatsu gura dauan alkar-aurkitze betea.

Oi maite-sugar bizia!

Sugar bizi au bere Senarraren Espiritua dozu, Espiritu Santua; au somatzen dau arimeak bizi be bizi, ez bakarrik maite-txingar legun biurtzen dauan su legez, baita beragan ixioa, gar dariola daukan legez be. Gar arek, gar dan baktxean, aintzaz urztatzen dau arimea, Jainko-bizitzazko giro gozotan jarririk.

Auxe da Espiritu Santuak maitez sututako ariman dagian lana: barne-egiñak sugar biurtu, eta arimeak maite dau esan ezindako moduan sugar orrekin batera. Eta arimearen maite-egintzok, ederederrak dira, asko be asko merezi dabenak, egoera ontan dagoala egiñak baiño naikoa baliotsuagoak. Oiturearen eta egintzaren arteko diferentzia dago maite-biurtzearen eta maitasun-sugarraren artean, au da, egur sukartuaren eta beronen sugarraren artean dagoana; izan be, an dagoan suaren ondorena besterik ez dozu.

Arimearen egoera emen suak artutako egur-gerri antzekao da, bere oizko eaginean beintzat, suak jo, jarki ta eraso beti, eta beronen

egintzak alkartasunezko maite-sutik jagitakoak;ugar ontan batu ta gorantz doaz bero-bero borandatearen egintzak, Espiritu Santuarenugarrez birundan artu ta indarrean erauziak. Arimeak olan ezin dau ezer burutu, eta Jainkoak eragiña danez, jainkozkoak dira aren egintza guztiak. Eta bene-benetan uste dau, sua gar darioala asten dan bakotxean, maitasun betezko sutan, betiko bizitza emoten daukala, Jainko-egipenetan bai dago Jainkoagan murgil.

Eta olantxe, arima au Jainkoagandik ur-ur egoñik, Aita, Seme ta Espiritu Santuarekin artu-emonean, siñistu eziña al da olako arimeak betiko bizitzako zerbait gustetea, naiz-ta ez oso-osorik, bizitza oni ez dagokiona da-ta? Baiña egi-egiaz aundia bai da Espirituaren gartze arek beragan dagiana, jakin-azo oi dautso arean bizitza aren zer-izana. Orixegaitik deritxogu *sugar bizia*, ez beti bizia ez dalako, beti Jainkoagan bizi dalako baiño.

Eta sugar onetan arimeak Jainkoa bizi-bizi sentitzen daualako, leun eta gozo, onela diño:

*Oi maite-sugar bizia!
samur zatritzen dozttna.*

Au da, zeure su-lamaz bigun-bigun ikutzen daustazuna. *Sugar* au Jainko-bizitzatik datorrena dan ezkeru, Jainko-bizitzaz samurkiro zauritu daroa arimea; errai-erraietan zauritu be, guritu, urtu ta maitasunean gesaltzeraiño zauritu be. Baiña zelan esan daike *zauritu* daiala, arimeak ez ba' dau onezkero zer zauriturik, maitesutan oso-orik su-zirtatua dago-ta?

Maitasuna iñoiz be ez dago geldi, zeregin barik, etenbako zirkiñeri dakio; bardinugarra dago ara ta ona sugarraldaki; eta maitasuna, bere egitekoa au da, maitemindu ta atsegiña emon, bete ta burutuz, onako arimeak lez bere zauriak egiñez daukazu, pozezko ta maitasunezkoa joko bizi alaietan. Zauriok beste aldetik, ots, maitasun-jokuok, ikutu samurren garraldiak dira, arimeak beretik daukazanak.

Neure arima-muin erdi-erdian.

Arimearen mamiriean, ez zentzunaren eta ez deabruaren eragiña eltzen ez diran lekuan, egiten da Espiritu Santuaren jai au, eta beraz, zenbat eta barrukoago seguru, guntsu ta atsegingarriagoa, barrukoago ta garbiago bait da, ta Jainkoa geiago ixurtzen. Jainkoa bera da gero guztiaren egille, arimeak ezer egiteke.

Jo ta zauritu, diño, erdi-erdian, eta onek adierazo nai dau baditula beste erdi-une batzuk be, barruragokoak eta egoki da au jakitea. Egia, arimeak espiritua dan ezkerro, ez daukala ez goirik ez beirik, ez sakonik ez sakon-ezagorik bere izatean, zenbanako gorputzak daukien legez; ez dauka zatirik, ezta diferentzirik be barruan ez kanpoan, dana bait da bardin, ez barru-erdi ez barruezagorik izanak; olan ezin da egon emen argiago ta an illunago gorputzak legez, zati guztietan bardin baiño, geiago ta gitxiago barik.

Jainkoa da arimearen erdia, eta bere joera, kemen eta gaitasun osoz bere betera eltzerakoan, Jainkoagan bere erdi-erdira, sakon eta bete, eldu dala esan gengike, bere indar guztiz Jainkoa ulertu, maitatu ta gozatzerakoan ain zuzen be. Eta mailla ontarairio eldu ez danean, bizitz ilkor onetan jazoten danez, arimea ezin da-ta Jainkoagan, eldu bere indar guztiakaz, Jainkoa bera dan erdi onetan aurkitzen dala be; graziz ta alkartez Jainkoaz dago, geiagorako gai dalarik, beraz, erdian dagon arren, ez baiña tokirik erdienean, ez dago pozik, Jainko baitan barrurago joan leikelako.

Arimearen lera, joera da maitasuna, Jainkoagana zuzentzeko indarra ta kemena, gogoa Jainkoaz maitez bai da alkartzen; maitasun-indar geiago, Jainkoagan barneago sartuko, ta batuago egingo. Au esan daikegu, bada, zenbat maite-ein edo mailla geiago daukazan arimeak, ainbat erdi euki leikez Jaunagan, bata bestea baiño barrurago, maitasun gogorragoa alkartzekoagoa dozu. Olan aitu geinke Jainko-Semeak *Aitaren etxean egozala* (Jn. 14, 2) esan euskuzan *egoitzak*.

Arimea bere erdian aurkitu daiten, naikoa da maitasun-mailla bat, batekin alkartzen bai da Aregaz graziaren bitartez. Mailla bi ba 'leukoz, barrurago batuko litzateke Jainkoaz beste erdi bat barrurago, eta irura elduko ba'litz, iru lez batuko litzateke, eta azkenengo maillaraiño elduko ba'litz, Jainko-maitasunak zaurituko leuke arimearen azken-erdia bere izatearen ondar barrukoienean. Eta onela jainko egiñik geratuko da, bere izamen, aalmen eta indarrez, artze-

ko gai dala, ta Jainko antzela dalarik. Argiak kristal garbi garden bati eraso egitean, kristal onek zenbat eta argiëindar geiago artu, geiago sartu be ta bera geiago doa diztiratuaz; eta artzen dauan argi ugariz bera dana argizko iruditzen, Argia bereizten ez dala, kristala egonik aregan errainutua agandik artu leikean guztia; onan biak, kristal ta argi, biak antzeko dirala.

Irudikizun askoren bitartez gura da zerbait adierazo, sugar ontako bizia. Labe ixiotua lez da, su-txinpartaka; sua argi ta dizditsuagoa ta garra nare, aintzatsu ta samurrgoa. Origaitik, arimea katuraturik sugar bizi onau, on guztiak dakazanak, gero ta beroago ikutu ta errez doala, oiuka diño: *Oi maite-sugar bizia!, samur zauritzen nozuna.* Edo-ta bardin dana: "Oi maitasun ixiotu!, mogimentu ta eragin gozoz, nire arimeari dagokionez,zagozana; au da, Jainko-ulermena damostazu neure adimenari egokitua, maitasuna naiari dagokionez eta atsegin-uiola borborka edan-azoz oroimenaren iturrian.

Orain ez bai zara muker.

Orain, ba, ez dozu estutzen, mindu ta atsekabetzen len legez. Gogora daigun emen, arimea garbitzen egoanean eta kontenplaziñoan bai sartu ez sartu, ez jakola ain maitekor eta adeitsu oraingo batasun-alkartean lez. Jainkozko su au arima garbituan sartu aurretik, Espiritu Santua bera nunbait, arimea zauritzen dago bere gaitz, akats eta loiak, ekandu txarrak erre ta desegiñez. Espiritu Santua-ren lana dozu au, arimea Jainkoaz alkartu daiten. Su berbera da, ba, orain arimeari garbituaz daragiona ta gero beragaz aintzaldurik alkartzen dana. Era berean su bera da egurraz jabetu, erre ta zaurriuz, zer itsusiak kendu ta berotan sutu ta beretzen duana.

Espiritu-zaleak oni deritxe garbiketa edo *garbi-bidea*. Jardun onetan arimeak asko sufritzen dau barru ta kanpo, espiritu eta zentzunetan. Eta, jakiña, sugar au mukerra, saputz eta murruska jako arimeari; ez jako biguna, neketsua baiño; batzutan maite-suaren berotasuna emoten dautson arren, estu-larritan jako-ta. Ez dau atsegin be, legorra bai da, noizik bein gozotasun apur bat ekarrita be, laster moteltzen da barriro be: zer ezerez batez oraindu oi dau dana.

Ez jako aringarri ta baketsu barruan ar jale antzeko baiño, bere utsakezagutzean be, ez jako eder; errukari ta garratz jarten dau bere burua ezagutzean be. Garai onetan gorriak ikusten ditu arimeak, illunpe lodiak adimenean, estutasun bizi-bizi ta liortasun errimeak naimenean eta bere mixerien naspil gorria gogamenean; arima barru-barruan babesik-eza ta itxiera larria, idor eta otz, noizik beinka bero, eztiadirik inun be aurkitu eziñik, ez pentsamentu alai bat, ezta biotza Jainkoagana jasoteko adorerik. Job santuak diñona esan leikeo arimeak Jaunari: *Biotz-gogor biurtu xaiataz, Jauna, eta zeure esku indartsuaz eraso egiten daustazu* (30, 21).

Ezin leiteke bear danez adierazo arimeak garai ontan jasoten dauana. Au da, *Garbitokian* baiño ez asko gitxiago. Eta nik ez neuke orain adierazten jakingo zenbateraiñokoa dan *mukertasun* au eta zelakoa dan ariman jazoten dana. Onela osatu ta edertu egin oi dau Jaunak arimea bere gatxetatik; osasuna emon nai dautso ta alabearrezkoa dozu, garbiketa egitean, andik eta emendik miña sortzea. Argitara datoz emen, osabidean jarriaz, auleri, makaltasun eta mixeri danak.

Zer guztiok len, gorderik egozalako, arimeak ez ebazan ikusten, orain jainkozko argi ta beratsunez argi ikusten ditu, eta sentitzen; egurrak eukan ezotasuna be etzan ezagutzen suak an jo, izerdi-azo, ketu ta txinpartaka ipiñi arte. Gauza bera jazoten jako arimea dan ez-osoari sugar onen alboan.

Une onetan ariman *kontrako bi* daukazuz alkarri erasoka; arimearenak Jainkoarenen aurka, arimeari nabarmen eritxiz; jakitunak diñoenez, batzuk dizdiz egiten dabe besteen urrean eta gerra dagie ariman, oneik areik bota nairik, eurak arimearen jaube izatearren. Burruka au onela da: Jainkoaren birtute ta doaiak, oso eder eta egin-egiñak, arimearen birtute ta doaien kontra, guztiz oso-ezak.

Izan be, sugar au *argi zabalekoa* da-ta, ariman jo ezkeru, aren argiak illunpetan (Jn. 1, 5) dizdiz egiten, eta arimeak orduan bere berezko illunak eta okerrak, goiko argiaren kontra jarten diranak ikusten ditu, baiña ez dau sentitzen goitiko argia, illuna bai baiña argirik ez daukalako. Bere illuna somatuko dau arimeak argiak jotun ditun bitartean; ezin dabe, ba, illunik ikusi Jainko-argiak jo arte, onek argiturik ikusi daroa arimeak. Begiai, izan be, loi ta makur egozanai illuna jaken oso-osorik. Sugar au muker jakon adimen-begiari.

Sugar au berez *maitati* da, eta naimenari eraso ta ekin oi dautso gozatsu onen laztasuna biguntzeko; oso zabala ta muga bakoa da, ta naimenaren estura zabal-azten dau bere aunditasunez, eta *aberats, on* eta *atsegiña* da, eta arimea berenez guztiz beartsu, sugar onen bitartez, garbitu danean, ederrez eta aintzaz aberats eginda gelditu jatzu.

*Amaitu, olan nai izanez,
jo alkarte ezti onen eunean!*

Orixe bai, egin onezkero nigaz *espirituzko ezkontza* oso-osoa, zeure ikuste doatsuaz; auxe da-ta nire arimearen guraria. Izan be, arimea egoera ain garaian, maitasunean murgillago ta pozago Jaunagan, eta beretzat ez daki zer nai izan ez zer eskatu, dana bere Maitearentzat baiño; itxaropenez bizi da oindiño, barruak utsaren oiartzuna sentiduz; ba-dau oraindiño intziririk, Jainko-semeen zorion-bitxia jaso artean.

Emen dagian eskaria, bada, ezta penazkoa ta naigabezkoa, arimea emen ez bait da gai penarik eukiteko, pozezko ta adeizko gurari bigun gozoz baiño. Samur-samur diño: "Amaitu ni onan eukitea, olan nai ba'dozu". Gertu dago arimea Jainkoak nai dauana egiteko, aintzaz ta maitasunez. Onein ager-gorde asko ditu ikutue-tatik agiri danez, ariman sartu ez sartu geratzen diranak, eta ez daki zergaitik. Lur-etxearen esturagaitik? Beraz, maitasun urriarena litzake sarrera ez eskatzea.

Orrez gaiñera, argi dakus arimeak, Senarraren artu-emon gozo barru-barruko aretan, Espiritu Santua bultzaka daukala bere begien aurrean, azken bako aintza ta zorintasuna eskiñiz. Gar jario a zer da besterik? Zarion-lekuan sar-azo nai dauala. Orixegaitik, arimeak, beartua lez, erantzuten dautso esanaz: "Amaitu onezkero, nai ba'dozu".

Kristori egiten dautsoz berak, egiteko, Ebanjelioan erakutsi euskuzan eskabide bi, onela: "Etor bedi zure erreñua; egin bedi *zura naia*" (Mt. 6, 10). Baliño lez dozu: "Amaitu", au da, emoidazu *erreñu ori, nai ba 'dozu*, ots, Zeuk nai dozunez.

Jo alkarte ezti onen eunean.

Izatez be negozio aundia galazoten dauna, eun auxe dozu, erreza da-ta Jainkoagana eltzea eragozpenak ausi ta arimearen eta Jaunaren arteko lotura dagien eunak kendu ezkerro. Batasun au galazo leikeen eunak eta apurtu bear diranak, *iru* dirala autortu geinke: 1) *aldikoak*, izaki danak osotzen dabenak; 2) *berezkoak*, eta emen sartzen dira berezko joera ta egintzak, eta 3) *sentikorrak*, eta emen sartzen da arima ta gorputzaren alkartea, euron bizitza zentzun eta aberekoiz. Paul deunak esanik: *Jakin be ba-dakigu lurreko aldia egiteko dogun txabola au ezerezten ba'da, betiko etxea zeruan dauknguna, giza-esku bagarik Jainkoak atondua* (2 Kor. 5, 1).

Jainko-batasuna lortzeko eun guztiok ausi ta eten bear izan ebazan arimeak, munduzko zer guztiai uko **egite guztiak**, berezko ziranak jainkozko biurturik. Eta guzti au egin zan batez *sugar* au *mukerra* zanean, arjmeak izan be orduantxe ausi zituan loturik eukien eunak Jainkoaz bat egjtera eldurik.

Iru gauzagaitik deritxo *ei na*: espiritu ta aragiaren arteko matazagaitik lenengo; b;garren, Jainkoaren eta arimearen artean banakuntza egiten daualako; eta irugarren, euna ain lodi ta illuna ez ba;ta, igaroten jatzu argitasun pizkat; orrelaxe emen be, arimea guztiz mee ta argitua ta espjritu biurtua ba; dago, Jainkotasuna ezta argi agertzen.

Eta arimeak beste bizitzaren kemena sentitzen dauan legez, emengoaren makaltasuna ikusten dautzu, eta bitartean daukan euna meeia iruditzen jako, ia-ia amarauna. Eta auxe da arima maie-mjnduak gura dauana; ez dau irauteko pazientzirik, ez dau gura bizitzea berez amaitu dedin, ezta alako edo onako aldi ta egu netan bizi-aria eteterik, eta aurkitzen dan egoerak bultz eragiten dautso alkar-aurkitzen edo maitasunezko zauskadaren batean eten daitela bizitz -aria eskatzera.

Espirituaren barru-erasote orri *aurkitzea* be esaten jako. A rimeak bizi gura dau bere berezko bizia ama;tzeta, baiña osotasunaren osora o;ndiño eldu ez dalako, ez da egiten, eta azkenduaz aragitik jasoaz, aurkitze aintzatsu lez d;rala, uste dau, zearo garbitu ta duin-duin egiñik.

BIGARREN KANTA

*Oi erre-aldi me-mea!
oi zauri txit atsegiña!,
oi eskugain leun! oi ikutu guri;
zeru-biziaz ase!
Zor guztia ordaindurik,
eriaz daustazu emoten bizi.*

Estrofa ontan Irutasun Deuneko iru Pertsonak artzen dabe parte, irurak bai dira arimeak Jainkoaz daukan batasunean lan dagienak. Orrela *eskua*, *errea* ta *ikutua*, mamiñez, gauza bat bera dira. *Errea* Espiritu Santua da, Aita *eskua* eta *ikutua* Semea. Orrelaxe gorai patzen ditu arimeak iru Pertsonak, beragan egiten dabezan iru mesede ta onakaz.

Emen euren ondorenakaitik, bategaz bakarrik mintzatu oi da esanik: betiko bizitza damotsazu! Baiña irurak bat bakarrik dira, eta olan guztia bati ezarten jako, eta dana guztiai. Eta ba-darrai:

Oi erre-aldi me-mea!

Jainkoa maitasuna da. Su bizia, Moises'ek diñoanez: *Zuen Jainko Jauna su kiskaltzaille da* (Deut. 4, 24), au da, maitasunezko sua. Eta azkenbako indarra bai dau, ikutzen dauan arimea beretu daike neurri-eziñeko moduan, au geiago eta a gitxiago, arimearen gerta-kuntzari begira, eta onek gartsu aurkitzen danean munduko su-kar guztien ganetik erreten dagoala, uste dau.

Eta arritzekoa da, emengo elbitz-izpi bat lez munduak erreko leukezan su onek, onela sutan dagoan arimea ez austu ez amaitzea; ez dau naigabetzen ezetan be, bai oster, maitasun. direaren neurri-ra, samur-samur kiskalduaz, jainkotu ta atsegiñetan ase. Au olantxe da espirituak (Espiritu Santuak) jarten dauan indarraren bitartez, Apostoluen egiñetan (2, 3) irakurten dogunez edo; an espiritu onen suak kiskaldu ebazan ikasleak, barrurik maïtero su samurrezerrerik. Artuemon oneitan Jainkoaren asmoa arimea gorestea dalarik, ez dau nekarazten, estutzen, ez dau auts biurtzen ikatza lez,

argitu ta aberastu baiño. Orregaitik diño arimeak: "Errete me-
mea!".

Goi ontarairio jo dauan arimea, benetan dogu doatsu; dana daki,
dana gustatzen, nai dauana egiten, *iñor* ez joako aurrerago, iñok ez
dautso kalterik egiten. Paul deunak: *Jainkoaren espiritua gauza guz-
tien barruan sartzen* (1 Kor. 2, 10). Auxe bai da maitasunaren egiña:
Maitearen ondasun guztiak arakatu.

Eguzkiak, dakigunez, erarik asko daukaz mendi-gaiñak, alda-
tzak eta trokak epeldu ta berotzeko. Antzera dagi Jainkoak be
arimakaz, Espiritu Santuaren bitartez. Maitasun suzko errete au,
ba, ain biguna izanik, ikusi danez, ikutu oneik euki dabezan
gogoak. Zerbait adierazo gura dausku ortaz, eta eziña jako. Azke-
nez au diño:

Oi zauri txit atsegiña!

Len arimeak erreteaz iñarduan, orain erreteak dagian zauriaz.
Erretea samurra zan, esan danez, zauria barriz erreari dagokiona
izan bear. Olan errete bigunaren zauria, naitaez, zauri atsegiñez-
koa izan bear; maitasunezko erretea izanik, maitasunezko zauria
izan bear.

Zauri gozo, maitatzen baiño ez dakianak egiña! Zauri maitagarri
ta doatsu, erregalu lez egiña, arima zaurituarentzat bezuza bikain!
Zauriak barrurago joa ta bikaiñagoa! Erretze ta zauri oneik dirala,
esan gengike, egoera onetan euki leikezan gorenengoak. Au, izan
be, Jainkotasunaren ikutua da arimeak artzen dauna, ez adimenez-
ko ez irudimenezko era ta itxura barik artua.

Ba-dira beste bide batzuk be arimea, adimen aldetik, su-ziztatu
ta erretzeko. Jazo daitekena da, arimea Jainko-maitasunean su-
artuta dagoanean, asko ez, baiña bai naikoa, Serafin bat sentitzen
dau gezi bategaz berari erasoka, maite sutan dagoan geziz, txingar
bat legez ixioturik daukazu arimeari erasoka. Su-ziztaka zauritze
onetan geiagotu egiten jatzu arimearen sugarra, gora jagirik indar-
tsu, zirikatu ta sua astintzen jakonean laba ixiotuaren antzean; sua
bizi-azo ta sugarra bero-azo ta goritzen; orduan arimeak, gezi ixio
orrek zauritzean, zauria atsegin biurtzen jako oso-osoan eta mires-
garriri; goitar aingeruaren gezi zauskada sentitzen dau, maitasu-

nez urturik zauri leunetan, eta espiritu ta arirnearen gunean punta zorrotz bat lez burdiñea dardari geratua.

Eta zauriaren barru-barruko puntu onetan, ots, espirituaren biotz-erdi erdian, atsegiñaren goza, agiri danez, sentitzen dan barrenean... nok oneri buruz bear dan legez itz-egin? An sentitzen dau arimeak, ziape garau baizen txiki dalarik, guztiz bizi ta ixiotua, ingurura bialtzen dau maitasunezko su bizi ixiotua.

Ez dira guztiak mailla ontaraiño eltzen; batzuk bai eldu dira, batez be seme-alaben jarraipenean ixuriko zan arein birtute ta espirituari begira, Jainkoak espirituaren asikiñetan buruai emon oi dautsez balio ta joritasuna, euren dotrina ta espirituak lekarkena kontutan arturik.

Ikusi daigun oindiño serafin arek egiten dauana. Arimearen barru-barruraiño eldu ta espiritua zauritu eta Jainkoak izten dau noizik-bein barruan zauritu ta zauri orren ondorenak kanpoan be agertzea, Frantzisko santuari jazo jakona, bost maitasunezko zauriak gorputzean be agertu jakozan, espirituan eroiana gorpetzean be azaldatuz.

Jainkoak geienez gorputzari ez dautso mesederik egiten, lenago arimeari egin ezik. Eta orduan zenbat eta zauria aundiago, ortik datorren atsegiña be aundiago. Arima oneik, ba, garbituak eta Jainkoagan egokiturik dagozan ezketiño, aragi ustelkorrari oiñaze ta atsekabe jakona, espiritu sendo ta osasuntsuari gozo ta atsegin-garri jako. Eta gauza arrigarria dozu oiñaze gogortasunean sentitzea. Eta arimeak kanta:

Oi eskugain leun! Oi ikutu guri!

Aitaren eskua da, esan daunez, errukior eta altsua. Aberats mesedeak egiteko, batez be arimeak artzeko, lora bat iduri, bere barrua zabal-zabal jarten dautsonean. Leu-leun artu ta ikutu oi daustazu, lurra dardaraz ipinten dozun Orrek. Job'entzat latza izan zintzazan; niretzat gozo ta bigun esan-ezin alean.

O esku guri! Zerutar bizia emoten dozuna! Zuk ez dozu ilten, bizia emon baiño; ez dozu zauritzen, osatzeko ezik. Zigor-azten dozunean, bigun-bigun ikutzen dozu, eta naiko da ori mundua

txautzeko; baiña atsegiña emon nai dozunean, bereziki jo oi dozu ta zure iku tuak ez dau kidekorik. Zure iku tuak bizia sortu dau nigan, len illik neukana bizira da, eta loratu egin jat.

Zuk, Itz orrek, Jainkoaren seme orrek, zeure jainkozko izate guriz nire gogoaren mamin barru me-meiro barrentzen zareana eta samur ikuturik oso-osoan goitar atsegiñetan urtzen dozuna. Oi, ba, anitz eta modu zabalean daragizuna. Ain indartsu ta guztialdun zareala, zelan da zure ikutua orren me-biguna? O bai Zu sotil ezitia, oparo ixurten bai dozu nire barrenean, nik garbitasun geiago ta Zuk jario ugariagoa.

Eder bekizu au jakitea be, zenbat eta ikutua me, segail ta barrenkorragoa ta gozotasun geiago ipiñi oi dau ikutzen dauan lekuan. Jainkozko ikutu onek ez dauka ez goirik ez beerik, ori dagianak, Jainko-Semeak, Ez bai dau olakorik. Ikutu esaneziña, txit leuna; mugarik ez daulako, samurra jat neurri barik.

Zeru-bizinz nsen!

Mailla oso-osea ez dan arren, ba-da or betiko bizitz aokoa dauan alako zerbait, Jainko ituku ontan gustatzen dana. Eta ezta berau siñist-eziña, jakin ezkeru jakin bear dogun legez ikutu au barnegunen ikutua dala, au da, Jainkoaren guna ta arimearen guna alkar ikutzen; eta ontara santu asko eldu dira bizitza onetan be.

Ortik ikutu ontan sentitzen dan atsegiñaren biguntasuna, esan eziña da, eta neuk be ez neuke orretan jardun nai, adierazten dana baiño geiago dala a uste izan ez daiten. Ez dago itzik egon be arima oneitan jazoten diran lako Jainko-gauza ain goikoak azaldu al izateko. Arimearen on onek batzutan gaiñezka egiñik gorputzean be agertzen da Espiritu Santuaren ixuria, beronen eragiña soin-atal, azur eta guneraiño zabalduaz, ez gero narrazki geienik jazo oi danez, atsegin eta aintzazko sentipen esku ta oiñetan azken azkor-txoetan be somatzen diranak.

Eta onetzaz ezer gitxi esan daikelako, ez gorputzez ez arimaz, *zeru-biziazkoa* dala diño, ta *zor guztia* ordaintzekoa. Arimeak, izan be, emen sentitzen dauan gozotasunean uste dau oraiño eltzeko sufridu dabezan neke-miñen ordaiña, eta pozik dago ondo ordaindua, oso-osoan egon be, eta gaiñezka saritua, eun bidar geiagoz

bere Senarrak Ebanjeliaoan (Mat. 19, 29) diñoanez. Emendik autortu geinke bide onetan arimeak igaro oiñaze, zirikaldirik, penitentzi naiz beste olako bear bat euneko ainbat poz, atsegin eta gozagarriz eta abarrez ordaindua izan dala bete-betean. Bai, zor dana ordaindua da.

Gorriak ikusi ta eroan bear ditu arimeak gaiñ onetara eldu danean. Iru eratako atsekabe ta neke-mthak batez be: 1) mundutarren aldetik, barruko auleri ta iltasunak, bildur-ikarak eta arriskuak; 2) zentzunei dagokienez, leor eta idortasunak, larrialdi, beazun eta biozketak, eta 3) espirituari begira, estuasun, bertan bera izte, zapuzte ta babesik-ezak. Onela bai da arimea, barru ta kanpo, zeatz-zeatz garbitzen.

Eta onakoxe garbiketa eskatzen dau, ogeigarrenez esanda be, egoera ontako Jainkoaz batzeak. Likor edo edari bizi bat ezta ipinten, ondo gertatu ta txauturiko ontzi sendo batean ezik; antz onetan, batasun garai au ezin daiteke gertatu neke-lan eta tentaldiz sendotua ez dan ariman, aurretik naigabe, illunpe ta estualdiakaz zelán dagoan eta zelakoa dan ondo aztertua ezpada.

Bizitz-ostean, zorionean Jainkoaz alkartzeko, garbi ez dagozan arimak su-oiñazetik igaro bearra daukie; emen be; osotasunezko batasunerako, onako naigabe ta penetatik igaro bear dabe; eta berton, batzuk gogorrigo aztertuak dira beste batzuk baiño; batzuk luzarago aztertuak, beste batzuk ez ainbeste, zelako garbitze-premtha daukien eta Jainkoak nolako batasunera jaso nai dauazan.

*Zor guztia ordaindurik,
eriaz daustazu emoten bizia.*

Pozarren dago arimea; baserritar bat, adibidez, solo-zati luzezabala goldatu, aretu ta erein ondoren, guri ta berde ernerik jator-kon sail eder itxaropentsuaren aurrean legez. Onik urten dautso, aspaldian egindako lanak. Nekeetan erdikide izan lez, orain poz-atségiñena dozu.

Nekak neke ta jasanak jasan, orain pozetan naukazu zor guztia ordaindurik. Nire barru-bizitza ondatu nairik ebiltzan izterbegi ta etsaiak ixillera dira osoro; obeto, illak dira. Eta niri

Erioz daustazu emon bizia.

Eriotza ezta besterik bizi bage, arnasa bage iztea baiño; bizi ezker, ezta eriotz aztarnarik. Espirituari begira bizitz-era bi dagoz: zerukoa bata, eta Jainkoa ikustea dozu au, eta au gorputz erioz lortzen da, bestea, espirituzko bizitza da, maitasun-batasunez Jainkoaz daukaguna, eta au lortu daikegu nobere izaera, beronen lera ta griñakaz, ezi ta ilduraturik; au jadetsi arte ezingo gara Jainkoaz osorik alkartu. Paul deunak argi ta garbi: *Aragiaren erara biziba'zarie, il egingo zarie; espirituaren indarrez, aragiaren zalekeriak zapaltzen ba'dozuez, barriz, bizi izango zarie* (Errom. 8, 13).

Emen diñoan eriotza gizon zaarraren eriotza dozu, giza-aalmenak, gogamena, adimena ta borondatea, munduko gauzetan eta izakien gustuetan erabiltea. Guzti au bizitz zaarraren ariketa da, barriaren edo espirituzkoaren eriotza. Eta arimea ezingo zaarrari oso-osoan eriotza emon arte. Paul deunak ederto: *Erantzi zaiteze gizon zaarragandik, okerkerian ustelduta dagoan ezker; barriztu zuen espirituan eta gizaki barriaz jantzi zaiteze* (Ef. 4, 22-24).

Sugek lez arimea be bere zer zaarra itxi ta barriz jantzi. Eta bizidun bakotxa bere egintzaz bizi dan ezker, jakintsuak diñoenez, arimea Jainko-biziaz bizi dan ezker ta beronen egintzak be jainkozkoak izanik, bere erio bizi biurtu da, bere abere bizia espirituzko egiñik.

Beraz, batasun au gertatu aurretik, gorputz zentzunen bitartez, bere berezko argiaren indar eta kemenez ulertzen eban adimena, orain Jainkoaren beste argi-oiñarri goragoko batek eragin eta indartua da; jainkozko egiña dago, batasuna osotu dan ezker, bere adimena ta Jainkoarena bat dira-ta.

Eta naimena, leen ziztrin eta indarge, berezko lera ta biotz-eragin epelez maitatzen ebana, orain Jainko maitasun bizitza egin da; goitar leraz maitatzen dau, Espiritu Santuaren indarrak eraginda, maite-bizitza bete-betean dagola-ta. Bion naimena, Kristorena ta arimearena, bat-bat dira.

Cogamena bardin, leen izakien irudi ta irudikizunez bakarrik asetzen zana, aldatua da emen, eta aurrerantzean Dabid erregeak aita zuten ditun *betiko urteak*. Berezko irritsa be, izaki atzetik joranez jo ta eriotza ekarrena, Jainko gustura egiña daukazu orain, beste bide batzuk arturik Jainko-gozotasunik asetzen dau. Arimea Jainkoturik, Jainkozko espirituak eragiña dabil. Eta Paul deunak onan: *Jainkoaren spirituak darabiltzanak, Jainkoaren seine dira* (Errom. 8, 14).

Ikusten danez, aldakuntza izugarria izan dau arimeak, Ederto diño, ba: *Erioz daustazu bizia emon*. Olan, Jainko-biziak iruntsia dago, lurtar guztitik urrin, Jainkoz betea, kresalean arraiña legez. Leen baltzerana nintzan, baiña kolore a Maitearen edertasun biurtua jat. Pozaren pozez, etenbako kantan, Jainkoa goratuko dot gau ta egun. Eta ez da arritzekoa arimearen emengo kanta bearra; ainbat mesede ta grazi ta esku-erakutsi artu ditu Beragandik bizitza zear eta orain oso arduratsu sentitzen dau Maitea itzez eta egitez. Eta bete-betea diñotsa: *Neure Maitea neurea, eta ni Arena* (Abest. 2, 16).

IRUGARREN KANTA

*Oi suzko argi-ontziak,
zuen iiriir-erlantzetan
zentsun-leze sakon argi itzali,
illun eta itsu egonak,
edertasun arrigarriz
bero ta argi emoten Kutunari!*

Lagun bekik Jainkoa gai au azaltzerakoan, sakona ta gurena bai jaku. Mesede izugarriak artu ditu arimeak, eta ez daki eurok zelan eskertu Maiteari; mesedeakaz batera Maiteagandik artzen dabezan barriak be ez dira makalak; danak jakoz maitagarriak, eta len illun egozan arimearen aalmenak benetan argitu ta berotan jarri dira. Egiazko maitalea, egon be, orduantxe dago pozik bera dan guztia, daukana ta artzen dauana, maitearentzat dauanean, eta onetan geiago ta emoten gusto ta atsegin geiago artzen. Poz aunditan daukazu arimea arturiko maite-dirdira ta erlantzez bere Maitearen aurrean ñirñir egin eta maitatzeko gai dalako.

Oi suzko argi-ontziak.

Gauza bitako dira *argontziak*, *argi-egin* eta *beroa emoteko*. Jainkoa, jakizu lenengo, atal-bakoa ta bakarra dan ezkerre, bere tasunen indar eta aundi guztien moltzo da, jakitun, guztialdun, on, erru-

kior, zintzo, sendo, maitati eta abar, eta guretzat ezagunak ez diran beste milla tasun eta indarren jabe. Bera ori guzti ori izanik, bere izate bakunean, arimegaz bat eginda egonik, bere barria oni edegi nai dautsonean, onek Aregan ikuskatzen ditu birtute ta aunditasun guztiok, au da: guzti-ala, jakituria, ontasuna, errukia, eta abar. Eta gauza guzti onei indarra damotsena Jainkoaren izate bat-bera -Aita, edo Semea edo Espiritu Santua- izanik, muga bako argi ta muga bako su Jainkoa bera izanik, gaitasun konta ezin oneitan argi dagiana ta berotasuna emoten dauana Jainkoa bera da; beraz, tasun edo gaitasun bakoitz oneik *argi-ontzi* dira, arimea argitu ta maite-berotasunez ornitzen daben bat bakar.

Eta arimeak, batasun ontako egimen bakotxean artzen dauazan lez gaitasun onein barriak, Jainkoa bera *argi-ontzi* asko dira arimearentzat, gai guztiok izate bat dagie-ta. Olan, *argi-ontzi* guztiok *argi-ontzi* bat baiño ez dira eta arimeak maitasun-egipen bakotxean *argi-ontzi* danen barria daroa. Gaitasun oneitatik artzen dauan argiak, Jainko-maitasunezko berotasuna emoten dautso, eta onela maite dau Jauna. Eta, nire eritxiz, auxe da Jainkoak bizitza ontan arimeari egin daikeon mesederik aundiena, Jainkoagandiko barria ta maitasuna dakartsoen *argi-ontziz* inguratzea.

Kanta onetan arimeak diriona, danaren aldean, ezta ezer. Jainko bihurturik dago arimea, adierazo ezin-alako eran. Berba onek diño dana: arimea Jainko egiñik dagoala, emen aitatzen diran *argi-ontziaz* dagokienez.

Zuen ñirñir-erlantzetan.

Zer ete dira arimeak emen diñoan *argi-ontzien* ñir-ñir eta erlantzok, dirdai ta zirt-zartok? Esan dogu, Jainkoa-gaiak emoten daben barriri maitekorren dizdiza, arimeak artzen dauana, beronek be Jainko bihurturik dizdizka dagota. Eta dirdir-argitze au, arimeak berak maitasun beroz dizdiz dagiana, ez da biran dagozan gauzak euren gar-mordo ta aingeru-suz argitu daroazanak lakoa, garren barruan dagozanen antzekoak baiño, arimea ñirñir-erlantz orreïn barnean dago-ta. Origaitik diño, "zuen ñirñir dizdizean", au da, barruan.

Ez ori bakarrik; era barritua, txinpartaka dago. Eta esan geinke sugar barruan, ixiotu ta sugar **sugarra ez bait da besterik** aize sukartua baiño, eta sugar arek egiten dabezan zirkiñak eta ñirñir botateak ez dira aizearenak bakarrik, ezta suarenak bakarrik be, aize-suarenak baiño, eta beregan ixioturik daukan suak daragitsotso aizeari.

Taju ta larrantz ontara eldurik, errez samar ulertu geinke au; arimea bere aalmenakaz argi ta goien dago Jainkoaren dirdai barruan eta jainkozko sugar onein zirkiñak, au da, esan daguzan dardar-aldi ta dizdiz-jaurtzeak, arimeak bakarrik ez ditu egiten Espiritu Santuaren sugarretan, ezta onek bakarrik be, Espiritu Santuak eta arimeak, biak batera baiño, arimeak eragiñik suak aize sukartuari legez. Eta onetxe dituzu len-kantako bigarren bertsoan Espiritu Santuak ariman egin oi ebazala esan genduzan jai ta jolasak.

Goi-goi sentitzen dala bai arimea! Eder eta garbi! Nok berau esan? Izutua dago dirdai-uretan, at eta barru uiol antzean inguratirik, gorputz eta arima adierazo ezin-alan bertan bulunbatua!

Zentzun-leze sakon argi-bakoak.

Leza edo ar-zulo oneik arimearen aalmenak dira, gogamena, adimena ta naimena. On aundiak artzeko baizen sakonak dituzu, mugabakoaz ezik ez jatzuz beteten. Eurok, utsik dagozanean izugarrero dabe sufritzen, Jainkoaz beterik dagozanean alaitzen diran lez. Aalmen lezok, garbi ta utsik ez dagozanean, ez dabe sentitzen euren gaitasun sakonaren uts-une aundia.

Emen jarten dogun *lenengo leza*, ots, *adimenari*, dagokianez, Jainko-egarriaren uts-arte da, aundia be aundia oso; Dabid erregeak oreñarena dakar eredutzat, esanaz: *Orein-emea ur-bizien billa dabillenez, alantxe dabil, ene Jainko, zure billa nire arimea* (Slm. 41, 1). Eta egarri au Jainkoaren jakituri egarria da, adimenari dagokiona.

Naimenarena da bigarrena; onen uts-arte be Jainko-gosea da, bene-benetan izugarria, arimea indar barik izten dauana. Dabid'ek argi dirausku: *Makaldua daukat arimea, eta Jaunaren aterpeak gura dodaz gartsuki* (Slm. 83, 3). Eta gose au arimeak opa dauan maitasun osoak dakarrena dozu.

Gogamena da *irugarren* leza, eta uts-arte; Jainkoa euki nairik arimea urtu egiten dala. Jeremias'ek onela: *Gomutaz gogoratzen naz, eta mirri egiten jat arimea* (Erost. 3, 20). Asko be asko gogoratuko naz, eta urtu egingo jat barrua, gauzok biotzean iraultzen dodazala, Jainkoaren itxaropenean biziko naz.

Aundia da, beraz, leza onein barrena; asko artu leikena, baita azken bakoa dan Jainkoa bera be. Olan, leza orrein egarriak ez dau azkenik, auren gosea be sakona ta amabi bakoa da, euren *urtzen* eta oiñazeak bardin ez dau azkenik ezagutzen.

Oiriazek esan dogun arren, maite dauan Jainkoa beragaz daukanak ez dau miñik; gura izatean bakarrik Jainkoa beragaz dauka, eta jainkoa daukanak zelan aiñazerik izan. Arimea Jaunaren gurari geiagoz eta Beragaz batuago daukazu, ta Jainkoa eukirik asetasuna ta atsegiña dau bete-bete.

Espirituzko ezkontzara eltzean, jakiña, leza barrutik datozen sugarrak be, zein Maiteagandik zein arimeagandik, bero ta indartsuagoak dira, samur eta biziagoak; Jainkoaz osoan alkartzeko irritsa be gartsuagoa, Jainkoak berak zalerazo ta milikatzen bai dau arimea, Jainkoaz alkartzeko gertatu nairik.

Oi arima onak! Entzun nire deia: Jainko-igurtzi bigun oneitara eldu zarienok, begira noren eskuetan zagozen! Zeuen eskuan dago atzera edo arrera egin. Etzaitze atzera biurtu, oker aundia litzateke. Ikus zein samurra dan Jauna! Ez goi-bizitzan aurreratuak doa zanentzat, baita asi-barri ta nagi-samarrentzat be, Kristo maitalearen billa dabilzanentzat, ain zuzen.

Egoki jaku jakitea: Jainkoaren billa dabillela arimea?, askozaz be geiago Jainkoa bere billa; eta onek bialdu ba'darostatsoz ke-aria baizen usaintsu jakozan gurari ta opa maitekorrak, Ak arimeari bialtzen dautsozala bere *usaingarrien usairia*(Abest. 1, 2). Goi-argitze ta ikutuak. Jaunarenak diranean, Jainko-legeari ta fedeari ostasunean dagokionez doazanak dira. Eta arimeak gogotan euki bear dau, Jaunaren guraria dala egiten dautsozan doai ta mesede guztietan aundiagoetarako gertakuntza ta bide izatea, beronen aalmen guztiekaz Jainkoaz bat-egitera eldu daiten.

Jakin bei arimeak negozio ontan Jainkoa dala egille nagusi ta itsu-mutil; onek zuzenduko dau berak norantz joan ez lekien bideetatik, au da, izatez gaiñetiko gauzetara; ez bei ipiñi eragozpenik zuzentzaille dauanari.

Arimearen aalmenen *leza sakonak* dirala-ta, arimearen oiñazetzea aundia iza daikela esan genduan, Jainkoa igurtzika dabillenean Espiritu Santuaren igurtzi ta gantzutze garaienakaz. Berarekin arimea alkartzeko. Oneik jadanik oso meez zoliak dira, igurtzi samurrekoak, oneik ba, arimearen barne-guneraiño elduaz, girotu ta gertu jarri oi dabe, arras ikaragarria da leza onein uts-arte ta guraria.

Illun eta itsu egonak.

Jainkoaren doai ta aunditasunen kutxa dozu arimea; argia benetan, eta aberatsa. Jainkoak argitu aurretik, alan be, illuna ta itsua zan. Au ulertu al izateko, begoz emen gauza bi, au da, ikusmenak ezin dau ikusi edo illunetan dagoalako edo itsuturik. Jainkoa argia da, eta arimearen jomuga; au argitua ez danean, *illunetan* dago, ikusmena bikain euki arren. Pekatupe dagoanean, edo-ta irritsa beste zer baten ixuria, *itsu* dago orduan. eta orduan, Jainkoaren ergiak erasota be, itsu dago-ta, ez dau argirik ikusten. Arimearen illunpea, arimearen ez-jakiña da; eta Jainkoak jainkotu arte illunetan egoan eta Jainkoaren ondasunen barri barik.

Espiritu-erara berba egin ezkeru, gauza bat dozu *illunetan* egotea eta beste bat *illunpean* egotea. *Illunpean* egotea *itsu* egotea dozu, esan dogunez, pekatuan; baiña *illunean* egon daiteke pekatu barik be. Eta au era bitan, berezkoari begiratu ezkeru, izadiko ta berezko gauza batzuei buruz argirik ez daukazulako, edo-ta izatez-goitiko gaiak buruz, gauza ta gai orreik ondo ezagutzen ez dozuzalako. Eta arimeak diñoanez, goitiko igurtzi bikain au artu arte illun egoala bere zentzuna.

Itsurik be ba-egoan, beste gauza batzuen billa ebillela. Irritsak illundu oi dau errazoia. Begi-illundura edo lausoa lez dozu irritsa; odei ori errazoiaren begi aurrean jarten jatzu, aurrean daukazuzan gauzak ikusi ez dagizuzan. Eta, orrelaxe, zentzunean gustoren bat ipinten zenduanean, itsu zengozan jainkozko aunditasun, doai ta ederrak ikusteko, begi-lausoen atzean egoza nak ain zuzen be. Begi aurrean zeozer, txikia izanik be, begiak estaltzeko jarten ba'dozu, naiz-ta zer aundiak ezizan, arimeak euki leiken irrirts arin bat edo-ta suster bako egintza bat, naikoa da Jainko-aunditasun guztiak eragotzi ta loturik izteko.

Arimearen zentzun au, ba, leen *illun* eta Jainko-argi barik egoana, eta itsu ortaz bere griña, lera ta goraberakin, orain leza barru sakonenak be argiz beterik dagoz. Orixegaitik kantatzen dau:

*Edertasun arrigarriz
bero ta argi emoten Kutunari!*

Edertasun arrigarriz diño. Eta, izan be, giza-aalmenen lezak argitan arrigarriri ixioturik, eta argi-ontzi arein dirdiran ixuririk, Jainkoa bialtzen dabe Jainkoan ñirñirka, eta arimeak Maiteari emoten dautso artzen dauan maitasun argi ta berotasuna. Artzen dauana emoten dago, eguzkiak jotean dizdiz-jarioz dagoan kristalaren pareko.

Goresmen guztien gaiñetiko eder arrigarriz Jainkozko jakituria artzen dau adimenak, Jainkoaz batera, eta artzen dauan erara emon be. Eta naimena erabat Arenakin loturik dagoan, ezkerro, Jainkoari biurtzen dautso eder ta bikainki. Eta orrelatxe beste gaitasun guztiak be, sendotasuna, edertasuna, zuzentasuna, eta abar dira zer arrigarriak, Kutunagandik arturik Kutunari biurtzen dautsazanak. Eder-joko zoragarria, bene-benetan.

Maitasun bero-kiskalia daukagu goi onetan Jainkoaren eta arimearen artean, egiñiko alkarteari dagokion maitasuna; ezkontzazko batasunean bienak ditue ondasunak, batak besteari egindako artu-emotearen bidez, Aitak bere Semeari buruz, Juan ebangeliaren bitartez esana beterik: *Nire guztia zeurea da, eta zure guztia neurea* (17, 10).

Pozgarria jako au arimeari, balio ta daukan baiño geiago emoten dautsola Jaunari. Emen ez dau Jainkoa maite, ez beragaitik, Jainkoa dalako baiño; Jainkoagan maite dau Jainkoa, Jainko-maite sutan murgildua bai dago; ez dau Jainkoa maite beretzat ona, aundia, zintzoa dalako, Jainko lez orrelatxe dalako baiño.

LAUGARREN KANTA

*Eztitsu baizen maitaro
neure kolkoan soil-soilki
zagozan orrek, ixil daragizu;
ta arnas egiñik gozatsu
onez eta aintzaz gaiñezka,
ain samurki maite-miñazten nozu!*

Kristogaz daukagu arimea egi-egiaz eskerrak emoten, maitasunez gaiñezka. Ondoren miresgarrizko bi eskertzen dautsoz batez be, alkarrekin daukan batasunetik arimeari datorkiozanak. *Lenengoa* da Jainkoarekiko gomuta, otzan eta maitekor egiten jakona; eta *bigarrena*, Jainkoa arnas-ixuriz ariman artzea, Jainkoak berak onez ta aintzaz emoten dautsona. Eta onek arimea bigun baizen samur maitez lilluratu egiten.

Eta olan esango ba'leu lez dozu: Egiten dozun gomutak, oi Itz ene Senar orrek!, neure arimearen erdi ta barrenean, au da, bere izate garbi ta ondar-ondarrean, Zu gorderik eta ixil, bakarrik, bere jaun eta jabe bakar lez, zagozan lekuan, ez zeure etxean lez bakarrik, ez zeure-zeure dan oian bakarrik lez, baita neure-neure dan galtzarrean be, estu ta barrukoi alkarturik, *bai otzan eta maitati egiten dozula!*

Lotatik itxartzean izan oi dogun gomuta bat dakar emen. Maitea euki dau lo-arte gozoan, ur-ur, bere bular ondoan. Olan sentitzen dau arimeak, eta kantatzen:

*Eztitsu baizen maitaro
neure kolkoan soil-soilki.*

Oroi edo gomuta-era asko egin oi dautsoz Jaunak arimeari. Baiña arimeak Jainkoaren Semeak berari eginda, emen adierazo nai dauana, nire eritxiz, garaienetarikoa dozu. *Gomuta* au, izan be, Jainko-Semeak arimearen izate-barru dagian zirkin edo mogimendu bat da, aundia, aintza ta aginpidezkoa, barru-barruko gozotasunez egiña; arimeak uste dau munduko bedar ta usainki guztiak

itzulaztu, gain-beratu ta usain-jarioka dagozala, goiko ta beeko zer guztiak nasturik berari gozotasuna opaka, eta munduko gauza guztiak, danak batera, berari poz-atsegiña emon nairik.

Eta auxe da gomuta onen gozotasuna: sorkari ta izakiak ezagutu Jainkoaren bitartez, eta ez Jainkoa izakien, munduko gauzen bitartez, ez egiña bere egillearen bitartez, eta ez egillea egiñetatik, ez bata ezagutze osteko dana ta bestea izatezko.

Eta Jainkoa mugi-eziña dan ezkeru, ze an izan daiteken ariman zirkin eta mogimentu au, gauza arrigarria dozu bene-benetan; Jainkoa orduan ezta mabidu ten eaz, baiña aromeari mobidu ten dala begitantzen jako. Berau dan lez Jainkoak zirkin eragiten dautsona izatez gaiñetiko ikuspegi au begitu ta ikuskatu daian, eta Jainkobizitzaren barritasuna eta gauza guztien ederra Jainkoagan, uste dau Jainkoa mobidu ten dana, baiña ez egi-egiaz mobiduten dalako, zirkin eta igiera guztiaren asiera ta sustrai dalako baiño.

Jakituri liburuan irakurten dogu: *Edozein igidura baiño bizkorragoa da jakituria* (7, 24). Eta zer guztiak baiño bizkorragoa dozu jakituria, gauza guztiak barriztu ta indar-azten dituna. Emen arimea da erabilla, berezko ikuspegitik izatez gaiñeko ikuspegira aldatua. *Gomuta* izena, beraz, egoki jatorko.

Jainkoa beti dago arimeak ikusten dauan lez, zirkin, zuzenduz eta izakiai izatea ta indarra, eskerrak eta doaiak emoten; eta badakus arimeak ori, Beregan zer dan, eta izakietan begi-kliska batez ikusi be. Adibide bat: jauregi bateko atea zabaltzen dauanak, bertatik ikusten dau barruan dagoan pertsonaren gurentasuna, baita batera zertan diarduan be. Era berean, nik ulertzen dodanez, gomuta ta ikuste au da, arimea Jainkoagan egonaz, danez eta egotez, beste edozein izaki legez, aurretik kentzen dautsoz, arimeak berak Jainkoa zelan dan ikusi nairik ipiñita daukazan zapi ta oialetatik batzuk, eta orduan ikusten da erdizka lez, itzalki guztiak ez bait dira kentzen, dalako arpegi eder-eder a, bikain zoragarria, bere indarrez zirkin ta igikor dagoana. Olan uste eban arimeak, eta *gogoratu*, mobidu egin zala, bera izanik igitua ta gogoratua.

Auxe bai da gure bizitz kondiziñoaren kaizartasuna; geu gogozan lez uste dogu besteakbe dagozala, eta gareanez epaitzen doguz besteak, epaiketa egiñak geugandik asirik, eta ez kanpotik. Olan, lapurrak uste dau besteak be ostu egiten dabela; eta iraintxailleak uste dau besteak dirala iraintzaille; eta maltzurak, besteak dirala

maltzurak, epai ori bere maltzurretik urtenda; eta onak uste dau besteen ona pentsa tzen dau, epai berak beregan sortuta daukan ontasunetik erneta; ardura-bako ta lo dagoanak uste dau besteak be olantxe dirala.

Eta emetik atera oi dogu, geu Jainkoaren aurrean alper eta lo gagozala, Jainkoa lo dagoala gugaz arduratu barik, guk uste izatea. Eta bape lotsa barik Jainkoari esaten dautsagu: "Jagi zaitez, Jauna!". Baiña, gizasemeak daukan on guztia Jaunagandik datorren ezkerro, eta gizonak gauza onik ez izan, egiz diñogu gure *gomuta* Jainkoaren *gomuta* dala, eta gure jagitea Jainkoaren jagitea dala. Goratu ta argitu gagizuz, Jau na!, Zuk guretzat beti-betik prest daukazuzan ondas unak ezagutu ta maitatu daiguzan. Eta olan jakingo dogu Zu gugaz oroiturik guri mesedeak egiteko mobidu ziñala!

*Neure kolkoan soil-soilki
zagozan orrek, ixil daragizu.*

Aitzen emon eziña da oso-osorik arimeak Jainkoaren bikaintasunak ezagutu ta esandako gomutaz somatzen dauana; arimeak, izan be, bere izate barru-barruan Jainko-bikaintasunen artze gozoa, au da, emen diñoan bere kolko barnean; eta au oiartzun eskerga baten antzera, Jainko-birtute iñoiz zenbatu ezindako millako ta millaka bikaintasunek atera ten daben ots azken bagea legez. Orrelaxe dago arimea, arrigarriri atondua ta birloratua.

Duda bat datorkit emen: arimea ain makal dala bere aragian, zelan eroan daroa ainbeste bikaintasun? Ester Asuero erregearen aulki dizditsuaren aurrean lurrera jausi zan konorte barik; eta arimea? Ez, ez jako ori gertatzen; esanik geratu danez, egoera garai ontan ez dau sentitzen espirituak sentidu oi dauzan pena ta gale-rak. Jainkoak, bada, ospe ta aintza erakusten dautsoz poztu ta alaitzeko, bardin dagitso galera ta kalterik artu ez dagian be, berezkoa babestuz eta onen ordez espirituari bigun ta maitati bere aunditasuna erakutsiz. Zeruko Erregearen birtute ta bikaintasunez edertua, egi-egitan esan daikegu Dabid erregeak diñoana: *Errege-alabak datorkizuz bidera; zure eskuman, zutik, erregiña dago, Ofir'ko urrez Apainduta* (Abest. 44, 10).

Zagozan orrek, ixil daragizu.

Jainkoa arima guztietan dago ixil eta estalirik euren izate barne, ori orrela ezpalitz, arimak eleukie iraungo-ta. Egote onetan, baiña, diferentzia dago, eta aundia; areitan bakarrik dago, ba, eta oneitan ez dago bakarrik; batzutan atsegintsu bizi da ta beste batzutan ez dago gogoz. Batzutan bere etxean lez dago, dana arteztu ta aginduz, beste batzutan inñoren etxean arrotz bezela, ez agintzen ez ezer egiten izten ez dautsoela. Alan be, ixil-xillik, bere lanari daragoio.

Griña, lera ta gusto gitxiago daukazan ariman, antxe bizi da bakar eta atsegiñen, bere etxean lez agindu ta zuzenduz; bakarrago ta *ixillago* bizi da. Garbi, txukun eta graziz betea dan ariman bizi da Maitea, arimeaz bat egiña besarte gozoan, gizarte ta gauzetatik urrin dan maiteaz ixillean. Ez, ona ez dira urreratzen au zelan dan jakin naiean ez txerrena, ez giza-adimena.

Arimeak berak, orraitño, ba-daki ixiltasun barne orren barri, beragan sentitzen dau-ta besarkada samur orren berotasuna. Baiña esandako gomutei gisara, ez beti be; Maiteak egiten dautsozanean, ba, arimeak uste dau leen lo lez egoan bere galtzarrean gogoratzen dauala; somatu ta gustatzen eban, Maitea lotan lez egoalarik,. Eta bata nai bestea lo dagoanean, biak itxartu arte euron ulermenak eta maitasunak ez daukie aremonik.

Zoriontsu bai arima au bere besartean Jainkoa daukana ! Urrin bedi beeko gauzeta tik eta bizi bedi gozotasun betean, ots mee ta zarata txikienez kezkarazi ez daian Maitearen bularra! Berau geienik lo lez dago Emaztearen galtzarrean; onek geienik somatzen dau Aren urtasuna, eta atsegin jako guztiz. Onegan balego, ba, beti *gogoratua*, barriak eta maitasunak alkarri emonez, aintzatan eta zoriontasun betean egotea litzateke; bein bakarrik, begia zabalduz, arimea olan jarten bada, zer izango litzakio ori ondo itxarrik dagoanean?

Batasun ontara eldu diran beste arima batzuetan, gogait egiña ta naigabez ez dagoala be, grazian dagozalako nunbait, baiña egokiro aurkitzen ez diralako, oneitan be bizi dan arren, gorderik bizi urentzat; baiña geienez ez dabe sentitzen, mesede ta olakoren bat gitean izan ezik.

Baiña gomuta onetan, Senarrak arima osotu oni egin oi dautsoanean, oso-osorik egiten dana dozu. Kristok berak dagi guztia. Norbaitek gogoratu ta arnas-artu egiten dauanez, arimeak atsegin

oiez-lakoa sentitzen dau Espiritu Santuaren Jainkoagandiko arnas-
artzea, arimea bera be gaingiroki aintzaz ta maitemiñez urturik.
Origaitik diño:

*Ta arnas eginik gozatsu
onez eta aintzaz gaiñezka,
ain samurki maite-niñazten nozu!*

Arimeak emen diñoan arnas egitea ta artze onetzaz, nik ez neuke
itzik egin gura, ez dot ez nai be. Argi dakust ez neukela esaten
jakingo, eta esango ba'neu orixe dala egia uste izango litzake.

Jainkoak arimeari egiten dautson arnas-gora da; Jainkotasuna-
ren ezagutze garaia, Jainkoak Espiritu Santuagan sakonki murgil-
tzen dauana; arnas egite gozatsu au *onez* eta *aintzaz* gaiñezkakoa
baita. Espiritu Santuak maite-mindu eban arimea, itzez adierazo
ezin-alean, Jainkoaren barren sakon-sakonetan. Beuko onek ospe ta
aintza gizaldiz gizaldi. Olantxe.

AURKIBIDEA

Bizitz-izpiak	5
Itz bi	7

BIZITZEA

I. Sukalde apala	11
II. Medina del Campo	13
III. Karmeldar	15
IV. Salamanka'n ikasten	17
V. Kalmeldar Ordenea	19
VI. Barriztatu bearra	22
VII. Duruelo eta Maneera	24
VIII. Alkala'n Karmeldar Ortozen Ikastetxean	27
IX. Autorle Avila'n	28
X. Eztabaidak gordin	30
XI. Giltzapean	32
XII. Lakiotik igesi	34
XIII. Andaluzia'rantza	36
XIV. Zugatz eta lora artean	39
XV. Baeza'ko Ikastetxean zuzendari	41
XVI. Azkenengo alkar-izketa	43
XVII. Granada	45
XVIII. Donibane Gurutz Segovia'n	48
XIX. Azken-aldiko gurutzak	51
XX. Gaxorik	54
XXI. Eriotza	56
XXII. Bere idazlanak	59

OLERKIAK

Sarrera	63
---------------	----

Erromantzeak.

- 1) Asiera ba-zan...
- 2) Maitasun neurreige artan
- 3) Ludia sortzeaz
- 4) Ba-darrai
- 5) Ba-darraika
- 6) Ba-darraika

7) Gizakundean darrai
 8) Ba-darraika
 9) Jaiotzeaz
 "Super flumina Babilonis" salmua
 Maite-kanta
 Gogoaren leloa
 Gau illuna
 Artzaintxo bat
 Maite-sugar bizia
 Arimaren koplak
 Zentzun-galtzeaz
 Jainkozko kanta
 Gabonetako
 Deuntasunaren oso

KARMEL MENDIRAKO IGOERA

Sarrera	87
Kantak	90
Zer batzuk	91

LENENGO LIBURUA

I. Meendiruntz	94
II. Gabaz	95
II. Gau-berra	97
IV. Griñak kaltegarri	99
V. Griña danak moztu bear Jainkoaz alkartzeko ...	102
VI. Zeintzuk griña diran naiko arimeati kalte egiteko	105
VII. Zelan sartu zentzunaren gauan	107
VIII. Bertsoak azaltzen	109

BIGARREN LIBURUA

Espirituaren gau eragillea. (Ulermena)

I. Bigarren kantarena	112
II. Fedea zer dan arimearentzat	113
III. Zer dan arimea Jainkoaz alkartzea	116

IV. Jainkozko birtuteak osotzen ditu arimearem <ul style="list-style-type: none"> ulermenak 	119
V. Bide estu ta medarrez	121
VI. Zer jakon kaltegarri ulermenari	123
VII. Irudimenaren lana	124
VIII. Gogo-maisuak	126
IX. Jainkoaren berbak	128
X. Agerpenak	129
XI. Esanak	132

IRUGARREN LIBURUA

Espirituaren gau eragillea (Gogamena eta Nainiena)

I. A) Gogamena. Garbiketa oso-osoa	135
II. Kalteak	138
III. Obariak	139
IV. Zelan jokatu gogamenagaz	141
V. B) Naimena	142
VI. Onak eta txarrak	144
VII. Berezko gauzak dakarren atsegiña	147
VIII. Zentzunak dakarren poz-atsegiña	150
IX. Birtute moralak	153
X. Izatez-gaiñetikiko birtuteak	155
XI. Eleiz-irudiak	157

GAU ILLUNA

Sarrera	159
---------------	-----

LENENGO LIBURUA

I. Bear-bearrezkoa	162
II. Zazpi grina nagusiak	164
III. Gau Illuna	166
IV. Bidean galdurik?	168
V. Iru bertso azaltzen dira	169

BIGARREN LIBURUA

Espirituaren Gaua

I. Barruragoko garbiketa	173
II. Begira illuna	175
III. Naimenaren estura ta larri-aldiak	177
IV. Argitzen dauan gau illuna	179
V. Garbiketa osoa	181
VI. Estu-aldi onein frutua	182
VII. Seguru doa arimea	186
VIII. Maillaz mail gorantza	187
IX. Koloreak	190
X. Bakean ene etxea neukalarik	191

MAITE KANTA

Sarrera	195
Kantak	197
1. Deika Nun baiña gorde zara	197
2. Artzaiñak, larre-bidez	202
3. Neure Maitean billa	205
4. Oi baso ta leku itsu	209
5. Milla eder jarioz	213
6. Ai, nok osa nagike!	216
7. Bai, or-an dabiltzanak	219
8. Baiña zelan dirauzu	222
9. Zauritua bait nozu	224
10. Ito nire sumiña	226
11. Erakuts betartea	229
12. Oi, iturri leiar bizi	232
13. Ken egistazuz, Maite	234
14. Oi, ene Maite mendi	238
15. Gauaro ixil baketsu	241
16. Azeriak eizatu	244
17. Ago geldi, ipar illa	248
18. Oi, judear neskatxak	251
19. Gorde zaitex, Maitetxo	253

20. Egazti, ego-arin	256
21. Arren, lira atseginkor	256
22. Sartua da Emazte	259
23. Sagar-ondo azpian	262
24. Gure oe loreti	265
25. Zure lorratz atzetik	267
26. Ardangela ixillean	270
27. An nindun ugutzatu	273
28. Kemen ta dodan oro	275
29. Gaurtik ni usa zear	277
30. Lora ta pitxi guriz	280
31. Ule bakaiño ari	283
32. Zuk ni begiz jotean	286
33. Enagizu ezetsi	289
34. Uso zuria barriz	291
35. Bakarrean bizi zan	294
36. Goza gaitezan, Maite	297
37. Eta andik aurrerantza	300
38. An Zuk erakutsiko	303
39. Aizearen ats emea	306

MAITE SUGAR BIZIA

Sarrera	311
LENENGO KANTA: Oi maite-sugar bizia!	313
BIGARREN KANTA: Oi erre-aldi me-mea!	320
IRUGARREN KANTA: Oi suzko argi-ontziak	326
LAUGARREN KANTA: Eztitsu baizen maitaro	332

